

# jentilen etorrera

herri baten arima

1981-2005

Jon Aizpurua



ataun

VIII. AZTERGAI BEKA 2005



# Jentilen etorrera

Herri baten arima  
(1981- 2005)

JON AIZPURUA

© **Antolatzailea:** Ataungo Udala

**Egilea:** Jon Aizpurua

**Argitaratzailea:** Ataungo Udala

**Fotokonposaketa eta inprimategia:** antza S.A.L. - Lasarte-Oria

**ISBN:** 84-930785-3-0

**L.G.:** SS -1392/05



ATAUNgo UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

## ESKERRIK ASKO

*“Eskerrik beroenak,*

*etxean bide-lagun ditudan emazte Justiri eta Eneritz ta  
Irantzu alabei,*

*ama Jexuxari,*

*gauza hauetarako sua eta irrikia egunero pizten didan  
anaia Jexuxi,*

*Antton eta Zeles anaiei eta ingurukoei.*

*Mila esker, Santi Etxeberria “Zubiondo”ri, jentil-bidean  
derrigorrezko akuilu, habe eta bikotekide izan dudalako.*

*Zorretan nago baita ere, paperean idatzitakoa kalera eta  
tranpaldora eramaten lagundu duzuen guztiokin.*





*Joxemieli eta Pilarri.*



*Ataun, Euskalerrarentzat dei bat da. Bere jentillak eta bere lamiñak, bere kantuak eta bere soñuak, bere ipuiñak eta bere kontuak, bere oiturak eta bere ekanduak, bere lana eta bere satsa, bere bizikera eta bere egikera, bere sinisteak eta bere fedeak, bere pizti eta bere egaztiak, bere mendi eta errekarateak... ”.*

(Augustin Zubikarai idazle ondarrutarrak,  
1982an Gure Inguruak liburuan).



## **JON AIZPURUA BARANDIARAN**

**Ataungo Elbarrena auzoko Zaindi etxeko semea. Auzo bereko Ubarrieta etxean bizi da.**

**Jentilen Etorreraren sortzaileetakoa eta bertako antzerki-gidoien egilea da.**

**Aspalditik ari da herriko kontuak, zaharrak eta berriak jaso eta miatzen. Garai batean Haurkide eta Oargi-Troskaeta elkarteetan eta gaur egun, Atauniker taldearen barruan.**

**Gehienetan, Ataunekin zerikusia duten lanak idatzi izan ditu. Joxemiel Barandiaranen bi biografia txikiren egilea da Jexux anaiarekin batera.**

**Ataungo Herri-eskolako haurrentzat antzerkitxoak idatzi ohi ditu urtero.**

**Bereak dira, 1984 eta 1987an, herrian antzeztu ziren Pagoa Markes eta Habla Cristiano izeneko antzerki-lanak.**

## **H**ITZAURREA

*Oraindik gogoan dut  
hasiera hura,  
ideia polita zen  
baina mila duda.  
Salto egin behar zen  
lehengo mundura,  
horrelaxe hasi zen  
gure abentura.*

Jentilen Etorrera ikuskizunaren historia eta arima jaso nahi izan ditut liburu honetan.

Liburu honen arima, oso aspalditik dabil Ataunen... Nik jolaserako gorputza edo soina eman nahi izan diot...Beste batzuk bizkarrezurra jarri diozue zutik egon dadin.

Oinez ikasten berriz, askok lagundu diozue eta arnasa, herritar ikusleoi esker hartu izan du.

Ataunen, oso gure izan ditugu garai bateko kontu-zahar, esaunda, jentil, sorgin eta beste pertsonaia askoren historiak.

Auskalo zenbat baserri eta etxeetan entzun diren belaunaldiz-belaunaldi iraun duten ipuin-zaharrak! Zenbat haurrek hartu ote du lo, izaki harrigarrien historiak entzunez?

Kontu zahar horiek gainera, hurbil, oso bertan dauzkagun Ataungo txoko ta ingurumaritan gertatuak omen zirela esaten ziguten.

Inguru hori, mendi, koba, erreka, eguzki, ilargi inguru hori, hemen zegoen gu etortzerako eta hemen izango da gu joanda gero ere.

Gero eta gutxiago erreparatzen diogun inguru horri begira bizi izan zen garai bateko ataundarra. Ingurumariari begiratzuz saiatu zen mundua eta bizitza ulertzen. Orain hari mehe bihurtu da, garai batean derrigorrezko zilbor-heste sendo zena. Baina mundu hura izan zen eta mundu hura izan zelako gara gu, garen bezalakoak.

Mundu majiko hori jaso agertu izan du hasieratik Jentilen Etorrerak eta mundu horixe jaso nahi izan dut liburu honetan, gure izatearen, “ataundartasunaren” zati batek, mitologian oinarria duelakoan.

Hogeitabost urteko bidea egin du Jentilen Etorrerak. Bide zabala eta laua izan da batzuetan, estua eta aldapatsua beste batzuetan.

Bide hori, zatirik handienez, gurdiaren barruan egin dut nik ta gurdi barrutik ikusi ditut bideko harri-txintzar, koxka, bultzada, animo eta sentimenduak.

Inoiz edo behin, gurdia betirako irauliko zela zirudien baina azkenean momentuan, negar-ezkilak isildu eta lore bihurtzen ziren malkoak.

Badakit gurdiz kanpotik beste era batera ikus daitezkeela bai bidea bera eta baita bideko gorabeherak ere. Ez dakit behar bezala jaso dudan baina saiatu naiz bide-ertzekoan ikuspegia ere jasotzen.

Abentura bat izan da Jentilen Etorrera. Abentura, ikuskizuna eta antzerkia prestatzeak zailtasun handiak dituelako eta abentura baita ere, garai bateko munduan eta gure inguru majikoan murgiltzeko balio izan digulako.

“Neri Ataunen, inguruak hitz egiten zidak...” Hori esan zidan aspalditxoan Joxemiel Barandiaranek.

Gauza bera gertatuko al zaizu zuri ere irakurle!

## I PUIN BAT BEZALA



Izan zen garai bat Ataunen, benetako mundua eta mundu harrigarria ia bat eginda izan zirenekoa. Ipuinak, kontu-zaharrak, esaundak, herriko edozein txokotan gertatuak ziren eta kontu horietan ageri ziren izakiak, herrian bertako kobazulo, laminosin eta baserritan bizi ziren.

Mundua ikusteko eta ulertzeko ikuspegi majiko horrek, oso aldaketa gutxirekin iraun du urteen joanean orain gutxi arte.

Zenbat aldiz entzun ote genuen gure mutiko garaian ondorengo ipui hau?

*“Asieran gauza guztik mentzekien bizketan: lurreko, ureko eta aireko izaki guztik.*

*Landaratan gooldioa bakarrik mentzan itzik eitten etzonna.. Egurre beiz, iñor be billa jun bearripe, bea etortzen mentzan menditio beera, etxeko supazterrea.*

*Garai artan beaz, gooldioa zan izketan etzekien bakarra. Beste guztik errukittu eintzien eta izketan eakutsi nai izantzien gooldioi.*

*Esaten duenez, udaberriñ, goizetako basura eo iintze juten zitzaion itz polittek esatea. Udan beiz, bero aundiñetako eunetan otsoa izatentzon laun ta be gañen jarritta aitzen mentzitzaion ipuiñek kontatzen. Udatzenen, egoiaizek musu ematen mentzion eta negun elurrek jantzi txuri-txurie jartzen mentzion gañetio.*

*Saiiau mentzien baño alperrik. Gooldiok etzien ezer esaten eta olaxe geldittu zan betiako mutu. Aleiñek eta bi eintzituen baiño atzeneako, aittun poderioz mingañek nekau eiñ mentzitzaian danai eta gizakie ez beste guztik mutu geittu zien.*

*Geoztio, baakizue: aitton-amonek bakarrik kontau izan dittue arrigarrizko ipuiek”.*

Horixe izan da hogeitabost urteotan Jentilen Etorrera. Ipuin bat. Horretan saiatu gara behintzat.

## JENTILEN ETORRERA: SORRERA

Jentilen Etorrera, ikuskizuna, 1981ean sortu zen. Garagarrilean, ekainean.

Egun zehatza, ekainak 12, ostirala. Egun horretan egin zen lehendabiziko Jentilen Etorrera.


Garai hartan, Ataun San Martin auzoko jaiak, Garaipen Jaiak ziren eta ekainaren 15a izan ohi zen egun nagusia. Beraz azaroko San Martinetan egin ordez, ekaineko Garaipen Jaietan egiten ziren San Martin auzoko Jai Nagusiak.

Festa-egunen aldaketa 1976an erabaki zen eta 16 urte iraun zuen. 1992an berriro San Martingo festak azaroaren 11aren inguruan egitea erabaki zuen Udalak. 1992ko maiatzak 6an hartu zen erabakia eta azaroan egin ziren San Martin jaiak. Ordutik halaxe egiten dira.

Beraz ekaineko Garaipen Jaien barruan egin zen lehen Jentilen Etorrera. Zera ospatu eta oroitu nahi zen Garaipen Jai horiekin: Ataunek Lazkaoko Jaun edo Markesarekin izan zuen liskar bateko garaipena. Izan ere, 1584ko ekainaren 15ean Valladoliden, Ataun herriari arrazoi eman zion epaileak Lazkaoko Jaunarekin zuen auzian. Markesak bere armarria jarri nahi zuen San Martingo Elizaren aurrealdeko horman eta Ataunek berriz berea. Herriaren defentsa egin zutenek argi eta garbi adierazi zuten Eliza atandarrek egin eta ordaindu zutela. Egun edo data historiko hori 1584ko ekainaren 15a izan zen eta Samartingo festak azarotik ekainera aldatzea erabaki zenean, ekainak 15a aukeratu zen Garaipen Jaiak egiteko.

Honenbestez, Garaipen Jai horien barruan egin zen lehendabizikoz “*Jentillen Etorrerea*”.

Joan gaitezen une batez, 1981ko Atauna.





**ATAUNGO UDALA**  
20211 ATAUN (Gipuzkoa)

Herritarrok, agur.

1992ko Maiatzaren 6ean Udalbatza honek San Martin auzoko festen inguruan harturiko erabaki baten berri ematera gatozkizue.

Kultur komixioaren bitartez herrian dei zabal bat egin ondoren, Martxoan bildu zen San Martin auzoko festak antolatzeko komixioa. Bertan bildutakoak, festak antolatzeari ekin aurretik, festak ospatzen diren egunaren, Ekainaren 15aren, egokitasuna zalantzan jarri, eta aldatzeak izango lituzken alde onak eta txarrak aztertu ondoren, festak Azaroaren 11ra aldatzeko proposamena Kultur komixioari zuzentzea erabaki zuten ahobatez.

Ondorioz, Apirilaren 10ean bildu zen Kultur komixioak gai hau landu zuen, eta arrazoi ezberdinak aztertu ondoren, Udal Plenoari festak San Martin egunera aldatzeko proposamena luzatzea ontzat eman zen bertan biltzen diren elkarte eta alderdietako ordezkari eta baita pertsonalki joaten diren guztiengandik ere.

Maiatzaren 6ean ospatu zen Plenoan beraz, mahai gainean jarri zen gai hau, eta aurrerantzean **SAN MARTIN AUZOKO JAIAK, EKAINAREN 15EAN ORDEZ AZAROAREN 11AN OSPATZEA** erabaki zen.

Gaurtik gonbidatzen zaitugu beraz, San Martin egunaren inguruan ospatuko diren festa hoiien bai antolakuntzan eta baita ospaketetan ere parte hartzera.

Ataunen, 1992ko Maiatzaren 15ean.

**ATAUNGO UDALA**



## **A**TAUN 1981ean

Diktaduraren gau-itzal luzea amaitu eta lehen urratsak ematen ari zen Ataun, tunel beltzetik kanpora, egun argitan. Egizue kontu, bi urte besterik ez zituela udalak, Franco ondoren aukeratutako lehen udalak: Inaziomari Aierbe “*Benantxio*” zen alkate. Garai berri bat bizi zen zalantzarik gabe.

1981 ean, 1965 bizilagun zituen Ataunek. Gaur egun baino 434 gehiago. Izan ere, 2005eko urtarrilean, 1531 bait ginen Ataunen.

Esan dezagun, 1981 ean Ataunek zituen 1965 bizilagunetik 1242 San Martin auzoan bizi zirela, 553 San Gregorion eta 170 Aian.

1015 gizonezkoak ziren eta 950 emakumezkoak.

Kontuan izan, 3000 biztanle inguru izana dela Ataun, denbora luzez Goierriko herririk jendetsuena izan baita. Honenbestez, 1981ean aldaketa-garai handi baten erdian geunden. Ez bakarrik politikan eta herri eta oinarrizko eskubideetan, baita ataundarren bizibidean ere. Ia erabat naturari, batez ere nekazaritzari begira egona zen herria, aldatzen ari zen: asko gainera.

Joxemigel Barandiarani hartuak dira ondorengo datuok:

1800 urte inguruan, 1940 bizilagun zituen Ataunek.

1850ean, 3000 inguru, gehienak nekazariak.

1900ean, 2700 bizilagun. Gehienak nekazariak eta artzaiak. Hauetako asko gainera ikazkintzan aritzen ziren urtean sei hilabetez. Lan horretan aritzen ziren 250 gizon. Aparte, 5 errotari, 4 errementari, 6 arotz, 8 bat hargin, 2 zapatari eta beste merkatari eta dendari batzuk.

1924an, 2500 lagun. 113 ikazkin zeuden. Ba da hemen aldaketa bat: 110 “obrero” ari ziren Beasaingo “fabriketan”. 31 emakume, neskameztan ari ziren, gehienak Donostian. Baziren 15 soldadu eta 5 eskola zeuden Ataunen neska-mutikoentzat.

1960an 2884 biztanle.

1970ean 2600 bizilagun. 220 familia bizi ziren nekazaritza eta abel-zaintzatik. 650 obrero ari ziren inguruko lantegietan. 12 bat mutil-gazte Lanbide Eskolan edo institutuan ikasten.

Beraz, 1970ean baino 850 ataundar gutxiago geunden 1981 ean. Aldaketa garaia zen zalantzarik gabe arlo gehienetan eta baita garai bateko sineskeria, esaunda, ipuin eta mundu-ikuskerari dagokionez ere.

## MUNDU MAJIKOA LO

40 urtez debekaturik, gaizki-ikusirik edo zokoraturik egona zen euskal mundua ere, ari zen bere lehen pausoak ematen. Kalera atera nahi zuten gauza askok eta kalera atera behar zuenetako bat, juxtu-juxtuan bizirik irauten zuen euskal mundu majikoa zen.

Urte luzez lo-zorroan egonak ziren usadio-zaharrak esnatzen ari ziren. Mundu majiko hori jaso zeukan *“Peunezarreko”* Joxemiel Barandiaranek, egia da hori, bai, eta ez diogu sekula, behar adina eskertuko!, baina ez zegoen kalean. Batez ere baserrietan eta baserriko jendearen artean, familietan, pizturik zegoen oraindik garai bateko kontu, ipuin eta leienden sua baina eten-erreten handi bat zegoen su hori zabaltzea galera izan zuena. *“Garai bateko kontuk dittuk orik... Gezurrek amarretio beatzi... Kontu zaarrakiñ etorriko aiz ba... Ximaur usaie zeukie orik... Modernok izan bear diau...”*.

Eten-erreten horretan, mentalitate beretsua zuten gauza asko sartzen zen: ia denek uste zuten denbora-pasako eta balio handirik gabeko kontuak zirela garai bateko esaunda, leienda eta kontu zaharrak.

Egia da eten-mentalitate horrek zaildu egiten zuela, suari behar hainbateko arnasa ematea baina zorionez, auspo faltarik ez zen.

Ataunek ikaragarritzko eta harrigarritzko bizinahia zuen garai hartan. Gauza berriei ekiteko gogoz zegoen jendea eta *“auzo-lanak”* eta *“elkarren arrimuan aritzeak”* estimazio handia zuten. Garaitsu hartakoak dira besteak beste, herriaren bizkar-hezur den *“Agauntza erreka”* goitik behera garbitzeko kanpaina, Zine-Forumak, Astronomia Asteak, Euskara aztergai hitzaldiak eta arrakasta handia izan zuten beste kanpaina batzuk.

Herri-bizitzako arlo gehienetan buru-belarri zebilen jendea.

Egin kontu, gabezia asko zeudela herrian: Liburutegirik, Jubilatuen Elkarterik, Frontoi-Kiroldegi estalirik, Futbol-zelai itxurazkorik, Zine-



Antzoki egokiturik ez zegoen... Esan dezagun Atsedeen-toki Jubilatuen egoitzak, hurrengo urtean, 1982 an ireki zituela bere ateak.

Esan liteke, oker handirik gabe, bizinahi eta ilusio ikaragarria zegoela eta *“mundu berri bat eraiki eta gauza gehienak alda zitezkeela”* uste zela garai hartan. Lanerako borondatea *“sobran”* zegoen eta asmo berriak *“perretxikuk bezela”* sortzen ziren. *“Harri bat altxatu eta ideiak agertzen ziren”*.

Eta Ataunen harriak baziren eta herria ere bai.

## 1 1981KO EKINTZA BATZUK

1981ean, alderdi politikoak eta sindikatuak alde batera utzita, ondorengo elkarte-erakunde hauek ziren herriko saltsan zebiltzanak: Udal-etxea, Oargi-Troskaeta, Aizkoate, Artadi, Pelotazale, Erbia, Ikastola, Guraso Elkartea eta Haurkide. Urte horretan sortu zen Agauntza-Oargi-Troskaeta zikloturista-taldea.

Eta giro horretan, San Martin auzoko partean behintzat, Oargi-Troskaeta elkartearen bueltan zebiltzan gazte gehientsuenak. Gazteak eta ez hain gazteak. Eta ez bakarrik San Martingoak, herri guztikoak baizik. San Martingo elizaren ondoan, Kalostra-Handiaren gainean eta urte gutxi lehenago Eskola Nazionala izan zen orubean zuten kabia, kultur-kirol-politika eta dibertsio kezkaren bat zuten txori ataundar askok.

Gaztetxoagoak Haurkide Elkartean aritzen ziren. Oargin 16 urtetik gorakoak zeuden eta adin horretara bitartekoak, Haurkide elkartean. Igandetako zine-saioak, txistu ikastaroak, Futbol-txapelketak, txanpusalmenta, paper-kartoi bilketak, Gabon-Kantaldiak, eta abar. Eginkizun asko zituen Parrokiaren babesean eta Xabier Zubizarretaren gidaritzapean aritzen zen haur elkarteak.

Giro horretan beraz, esan liteke, Oargi zela herrian antolatzen ziren ekintza askotan argi egiten zuen kriseiluetako bat. Batzutan gehixeago beste batzuetan gutxixeago baina ekintza, ia denotan, presente zegoen Oargi-Troskaeta elkartea.

Hemen jaso ditugu Oargi-Troskaeta elkartearen inguruan 1981ean egin ziren ekintza batzuk.

- Oargiko Kultur Komisioan 19 lagun zeuden.
- Lehen Zientzi Astea eta Astronomi Egunak.
- Euskara aztergai. Bost hitzaldi.
- Gau-eskola klaseak, Goierriko Euskal Eskolaren barruan.



- Korrika 2 eta Prentsa Euskaraz kanpainei laguntza ta bultzada. Korrika 2ak, maiatzaren 26 an zeharkatu zuen Ataun.
- Ganbo mendira egin asmo zen pistaz eztabaida-saioak.
- Nondik aldizkariaren 6., 7. eta 8. zenbakiak.
- Nondik 7a, osorik Agauntza errekarari eskainia.
- Agauntza erreka auzo-lanean garbitu. Bi saiotan, 70na lagun. Datu bitxi bat ba da ekintza honetan: 27.500 loina eta 10 amuarrain atera zituzten Otadizelai baserritik hasi eta Amets Kabi etxea baino beheraxeago dagoen “Labeixkiña” izeneko putzua bitartean.
- Marumendi mendiko erreketara zela-eta laguntza ematea.
- Herriko iturrien konponketak. Intsustiko iturria berritu ta txukundu zen. Oargiko 20 lagun aritu ziren bi egunez.
- Zine-foruma. 50 bazkide. Pelikula bereziak urte guztian.
- Barandiaran Jakintza Astea.
- Elkarte barruan, Rikardo Arregi, errekreatibitatea, bikotea eta sendia gaiak aztertu ziren urte osoz.

- Kilometroak 81era irteera antolatu.
- Dantza Taldeak 5 urte. Altzanipe etxean lokala lortzeko ahalegina.
- Frontoia egitearen beharraz eztabaida eta bilerak.
- XII. Futbol Txapelketa. 122 lagun.
- Futbol-zelaiaren arazoa. Intxaurrondo etxe-berriak metroak kendu zizkion zelaiari.
- Lehenengo Mus Txapelketa.
- Atauni mendi-buelta.
- San Martin Eguna. Txistulariak, salda, bertsolariak: Lazkao-Txiki eta Begiristain, Toka eta Bolo Txapelketak, Mus Txapelketa.
- San Gregorioko Festetan txozna.
- III. Maratoi-erdia.
- Mendiko karnetak herri osorako.
- Mendi-giroko pelikulak.
- Espeleologi Taldea bultzatu.
- Elkarteko teilatuaren konponketa.
- Gabon eta Urtezahar egunetan, Ikastolaren kantu-eskean parte hartzea.

Ekintza horiek eta gehiago antolatu zituen urte hartan Oargi-Troska-eta Kultur Elkartek *“Jakintzak eta Ekintzak askatuko gaituzte”* lema-pean. Hileroko kuota 100 pezeta zen.

Urte honetan, zer-esana eman zuen gertakari bat ere izan zen herrian. San Inazio bezperan, beharrezko baimenik ez zutelako udal-erantz azpiko ikuiluan bahituta zeuden 12 behor eta muxal batzuk, askatu eta mendira eramán zituzten gauez bakarren batzuk.

Giro horretan jaio zen beraz Jentilen Etorrera. Haziak lur-emankorra behar du fruitua emango badu eta Oargi-Troskaeta lur-goza suertatu zen Jentilen arbola handitzen, handitzen, handitzen has zedin.

## **H**ASIERAKO ASMOA

Jentilen Etorrera egiteko ideia noiz eta nola mamitu zen esatea ez da erraza. Ideia borobildu, Zaindiko Jon Aizpuruak borobildu zuen. Aspalditik zebilkien asmo hori buruan. Helburua edo asmoa zera zen: San Martingo festetan, jendea erakarriko zuen zerbait berezia egitea. Festak antolatzeko Jai-Batzordean ari zirenek ere, bazuten kezka hori eta inoiz esaten zuten, beste herri batzuetan ikuskizun bereziak egiten zirela eta ea Ataunen ez ote zitekeen antzeko zerbait egin.

Noski, Ataunekin zer ikusia izango zuen zerbait antolatu behar zen eta bide batez jendearen partehartzea bultzatuko zuena. Garai hartan, ta orain ere bai, zaila izaten zen festetan herritarrok parte hartzea.

Asmo hori buruan, Jentilen inguruan zerbait egin zitekeela otu zitzaion Jon Aizpuruari. Jentilen gaia oso ataundarra izan da beti. Kanpotarrek ere sarri identifikatu izan gaituzte jentil deituraz eta aiatarrei espreski, “jentil” deitu izan diete. Jentilen inguruko historiak ere asko dira Ataunen.

Aukera hori, Jentilen inguruan zerbait egiteko aukera hori, lagun-koadrilan eta Oargi elkartearen inguruan zebiltzanei komentatu zien Jonek. Ezezkorik behintzat ez zuen jaso eta batekin egon eta besteari komentatu, kontua zabaltzen joan zen.

Jendea zerbait berria eta orijinala egiteko irrikaz zegoen eta lanari ekin zioten. Hor agertu zen buru-belarri lanerako prest, Okaiztiko Joxe Bikuña eta bere inguruan zebilen taldea.

Bi hitzetan esanda beraz, hauxe zen Jon Aizpuruak buruan zebilkien asmoa:

“Joxemiel Barandiaranek jaso zuen mundu majikoa, ataundarrek antzeztua. Garai bateko mitoak, leiendak, sinismenak... Jentilak, Basajaunak, sorginak, aztiak, lamiak, Samartintxiki...

Gure barruan eta Ataungo leize, jentilarri eta zokoetan iraun duen mundua, begi aurrean jarri.

Bi zibilizazio aurrez-aurre, lehena eta oraina”.

## **S**ORRERA NOLA IZAN ZEN (1981)

Aipatu dugu lehenxeago giro berezia zegoela garai hartan Ataunen eta gauza berriak egiteko gogoia zuela jendeak.

Gauza hauek ez dira momento edo minutu zehatz eta jakin batean sortzen baina saiatuko gara hasiera nola izan zen agertzen.

Hiru bertasio jaso ditugu. Jon Aizpuruaren inguruan beste bi herritar izan ziren hasierako ideia haren sorreran. Bi Jexux: bata, Jexux Aizpuru Zaindikoa, Jonen anaia zaharrena eta bestea, Jexux Munduate Tablakoa, Jonen “kirakoa” eta bizi guztiko bide-lagun estimatua.

Hiruren iritziak jaso ditugu.

### **Jexux Aizpuruaren oroitzapena**

**-Jexux, nola bizi izan zenuen zuk Jentilen Etorreraren sorrera?**

“1981ean plazaratu zen IKUSKIZUNA. Hala ere, aurrekariei begira, zenbait datu ematen saiatuko naiz, gauzak ez baitira bat-batean ezerezetik sortzen.

Ataunek betidanik gorde izan du mitologia-altxorra: kontu zaharrak edo esaundak. Etxe batzuetan nabarmenago gorde izan da sutondoan kontu-kontari aritzeko ohitura.

Horretan, ordea, meritua inori eman behar bazaio, Peruenezarreko Joxemiel Barandiarani eman behar zaio, garai hartan inork gutxi garrantzia ematen zien *kontu zaharrei* zuten maila aitortzeko egin zuen bilketa-lana egin zuelako, Ataungo euskararen kuantu, eta argitaratu zituelako, mende askotako mundua eta mundukoak bazihoazela jabetu baitzen.

Harrezkero, EL MUNDO EN LA MENTE POPULAR VASCA izan dugu erreferentzia bakarra, mundu haren berri zehatza jakiteko.



1971ko udan izan genuen aukera, lehendabiziko aldiz, Joxemiel Barandiaran bera ezagutzeko. Ordura arte, apaiz zaharra eta jakintsua zela besterik ez genekien. Jentilbaratza azpiko LIMURITAn eta Urrestarazugarako gain aldeko USATEGIn indusketan aritu baikin herriko gazte batzuk.

Uztaileko bazkalondo beroetan Iztatorren elkartzen ginen -Joxemiel bera, Sarasolaren autobusean etortzen zen- eta handixe abiatzen ginen Arrateta aldera kontu kontari. Joxemielek, bere kontuez gain, gure berri ere jakin nahi izaten zuen eta irrika bizia izaten zuen Ataungo eta munduko gertaerez.

Arratetako zubia igaro eta gora ekiten genion, arnasa bizkortzen zitzaionean, geldialditxo batzuk eginez, sotana-barrenari ezkerreko eskuaz helduz. Aiztondo baserriaren parean, eskuinera hartzen genuen, aurrez bezperan sasia gordetik utzi zuen makila hartuta. Miñata iristean, eginda genituen alpa-soetatik ekiten genion, pausoz pauso arte-zuhaixken artean goraka. Andrabidetako lepora baino lehentxeago, eskuinera jo eta hantxe genuen arratsalderako gure lantokia. LIMURITAKO harpea.

Kontuak kontu eta bideak bide, pixkanaka konturatu ginen, geu gazteak izanik, ikusten genuen mundutik at bazela beste mundu bat ataundarren gogoetan eta ez zen egunik izaten SUGARRA, JENTILAK, LAMIAK eta abar aipatu gabekorik. Aiztondon bertako Joan Bautistak ere kontatu zigun sukaldean – lehenengo egunean hara joan baikinena – Aizkoatetik Jentilbaratzara berak nola ikusi zuen SUGARRA pasatzen. Eta ez esan hari, horiek guztiak ameskeriak zirenik, ikusitakoa kontatu besterik ez baitzuen egiten.

LIMURITako harpea edo koba, lehendabiziko aldiz, ez zen ikusi ere egiten; azkonarra edo azeria sartzeko adinako tokoa zegoen, arte bat sarrera-sarreran zuela. *“Au jentillek bizi izandako lekue dek; ala uste diau beintzet, ta orii ala dan ikusi ein beharko diau”*.

Beraz, mitologia-munduan murgildurik sentitu genituen geure buruak, ordurarte atxurrean aritzea besterik ez baikenuen pentsatzen.

Gu ez ezik, baziren ordea, han inguruan irudipen txarrez zebiltzanak ere: harrobiko langileak. Harrobian, garai hartan, lanean aritzen ziren, harria tiroz atera, puskatu eta kamioietan garraiatu. Tiro-aldia izaten zenean, aurrez tuturuua jo ohi zuten eta bi lagun jarri ohi ziren bidean, bata Arrateta aldean eta bestea Dostollozubieta aldean. Tuturu-hotsa sumatzen genuenean, denok kobazuloan sartzen ginen babestera eta tiroen danbateko eta dardarizoen ondoren, amaierako tuturu-hotsa entzutean, berriro kanpora ateratzen ginen, lan gehiena atakan egiten baikenuen.

Atakatik ateratzen genuen lurrarekin, pixkanaka zelaitxo ederra egin genuen eta hantxe jarduten genuen lurra kontuz atxurtu, saskian bildu, galbahean pasatu eta bota.

Pixkanaka, giza-aztarnak azaltzen hasi ziren: lurrezko ontzi-puskak, haginak, gezi-muturrak eta abar. Begi zorrotza behar ordea zer ziren ezagutzeko. Hasieran, Joxemielek antz ematen zien, baina gerora geu ere hasi ginen harri eta lur artean zegoena bereizten eta jakin mintzen.

Ordurako 82 urte zituen Joxemiel Barandiaranek eta gu, berriz, 16-20 urte bitarteko gazte mukizuak. Bera buzo urdin, bota, betaurreko eta txapelarekin eta gu, berriz, plaiera eta nikiarekin. Zenbat solasaldi

izaten genuen elkarrekin, guk galdetu eta berak erantzun: bizitza osoa kontatu zigun eta zekien puska bat ere bai. Askok ikasi genuen Joxemielengandik, baina batez ere Euskal herria ezagutzen, gure ondare kulturalaren balioa eta, azkenik, iturri askotatik edandakoa zenez, hainbat eta hainbat iritzi ezberdin.

Behin, gogoan dut, eztabaida bizia piztu zen gure lankide baten eta Joxemielen artean. Lurretik kanpo bizitzarik bat ote zen edo ez. Ez dut sekula ikusi hain suturik.

Harrobiko langileak, geroxeago jakin genuenez, susmo txarra zuten gure lanarekiko; bazirudien, euren esparruan sartu ginela. Beren artean zer pentsatzen ote zuten?

Behin, koba barruan gordeta uzten genituen erreminta eta gainera-koak, mailoan behera harrika botata eta sakabanatuta aurkitu genituen.

Horrela ibili ginen Joxemielekin LIMURITA inguruan.

Oso presente egin zitzaigun beraz mitologia. Aietzio baserrian bizi zen Ertzillegiko gure amandreak ere aipatu ohi zituen kontu zaharrak: SUGARZULO, KATTALINZUBI, SUGARRA, PUTTERRIKO URREA, SAN MIGELEN KATEAK, ZAINDIKO ATSOA...

Horrez gain, entzunak genituen, San Joan lizarrak, sua eta mihilua. San Migelen koartoa. Agerrera jentilak nola jaisten ziren. Etxeari hiru bira ez zitzaizkiola eman behar. Eta abar.

Etxera joatean, entzundako kontuak kontatzen aritzen ginen eta kontuak entzuten adi-adi egon ohi zen Jon anaia gaztea.

Horra, gure etxetik hasita, Jentilen Etorreraren sorrera izan zitekeenaren zantzu batzuk. Ondoren etorri da 25 urteko emaitza. Bada ibilbide horretaz hausnartzeko tenorea. Hala izan dadila!!!

## Jexux Munduateren oroitzapena

“Gogoratzen dudanagatik, 1981eko San Martingo festak antolatzeko batzordean bildu ginen udaletxeko zinegotzi-arduradunak, (Miel Arratibel eta Iñaki Goikoetxea uste dut tartean zirela) eta auzoko elkarteetako ordezkariak.



Gu garai hartan, Oargikoak ginen eta gure kezketako bat, festa hasiera indartsua lortzea zen. Plaza jendez beteko zuena.

Ni Donostian, EUTGn ari nintzen karrera ikasten eta urte hartan edo aurrekoan egindako festa gogoratu eta kontatu nuen: filologia ikasten ari ginen eta hizkuntzalari bat nabarmentzen zen guztien gainetik: Noam Chomsky. Chomsky gora, Chomsky behera, haren teoria gora, haren gramatika behera. Hala, hainbeste Chomskyz aspertu



xamarrik edo, lagun batek (Julen Ezkurdia ormaiztegiarra, San Martingo parroko izan zen Don Frantzisko zenaren iloba) zera proposatu zuen gelan: “Zergatik ez dugu antolatzen festa bat eta Chomsky EUTGra datorrela antzestu? Gutako bat Chomskyz mozorrotu eta EUTGra datorrela eta hainbat festa-ekintza antola zitzakeagu. Chomskyren etorrera deituko zioagu”. Halaxe antolatu genuen eta sekulako arrakasta izan zuen.

Festa-batzordean aipatu nuenean, gustatu egin zen ideia eta segituan, Jon Aizpuruak “Jentilen Etorrera” antola genezakeela bota zuen.

Horrela hasi zen historia hau, gogoan dudanez. Jentilak, sorginak, Joxemielek bildutako testuak...eta gaur arte, gaur egun festa hasiera ez bada ere ”.

## Jon Aizpuruaren oroitzapena

“Hasiera nola izan zen? Galdera hori egin diot nik neure buruari eta haxe erantzun dit:

Garai hartan Samartingo Festak ekainean ziren. Festa-giroa ez zen oso ona izaten eta gainera San Gregorioko edota Aieko festen aldean, giro gutxiko festak ziren, “tristekak”... Gauzak horrela, festa-giroa indartzeko zerbait berezia egin beharra zegoela iruditu zitzaigun. Zer egin ordea? Zerbait orijinala izan behar zuen, Ataunekin lotura sakona izango zuena... Gogoan dut, Jexux anaiak inoiz edo behin esan zidala jentilen historiak jasotzea komeni zela. Buruan nenbilkien kontu hori baina ez nion lanari ekiten. Halako batean, Oargi elkartean egiten genituen arratsalde luzeetako batean, festak indartzeko zer egin ote zitekeen eztabaidatzen hasi ginen lagunartean... Jentilen gaia aipatu nuen: Ataunekin lotura bazuela, antzerki modukoren bat egin zitekeela, menditik behera festaren bat antolatu zitekeela... Ezezko borobilik ez zuen inork bota... Eszeptikoak izan ziren lagunetako batzuk baina Tablako Jexuxek, berak unibertsitatean bizi izandako esperientzi baten berri eman zidan. Ongi-etorri antzerki moduko bat prestatu zutela Chomsky hizkuntzalari handia bisitan baletorkie bezala, polita izan zela eta oso ondo atera zitzaie.

Animo dexente hartu nuen eta zer izan ote zitekeen, buruan buelta batzuk ematen hasi nintzaion... Gidoi moduko bat prestatu nuen, pertsonaia nagusi izan zitezkeenak aipatuz, eta horrelaxe hasi ginen bilerak egin eta Jentilen Etorrera antolatzen”.



## **L**EHENDABIZIKO BILERAK

Lehendabiziko bilerak Oargi-Troskaeta elkartearen egoitzan egin ziren. Bilera haietara, batez ere, San Martin auzoko elkarteetan ari ziren herritarrak agertu ziren baina izan zen modu partikularrean agertu zenik ere.

Asmo nagusia, San Martingo festetan zerbait indartsua eta aldi berean oso gure-gurea izango zena egitea zen.

Jentilak menditik jaitsi, Alkateak herriaren izenean ongi-etorria egin eta plazan, herriaren aurrean mintzatu. Horixe zen asmoa eta begi onez hartu zen.

Jentilak nondik jaitsi behar zuten? Hori zen argitu beharreko beste puntuetako bat. Hasieran Aiztondo baserri ingurutik abiatu eta jaisteko asmoa aipatu zen baina berehala erabaki zen Arratetan elkartu eta Eiztatorreko bide-gurutzean egingo zitzaizela ongi-etorria.

Ongi-etorria egiteko zain egongo ziren Alkatea eta herriko agintariak eta pertsonaia nagusiak. Ondoren berriz, plazara joango ziren elkarrekin kale nagusitik barrena.

Eta Plazan, Udaletxeko balkoi nagusitik mintzatuko ziren Alkatea, Apaiza eta Mikelats jentila.

Xinplea dirudien eskema honek, lana eskatzen du eta horri ekin genion.

Egin genituen lehendabiziko bileretako agiri-zirriborroetan ageri dira egin ziren ahaleginak.

Ahaleginik handienetakoa, zalantzarik gabe, zera izan zen: Jentilen Etorrerako pertsonaiak antzetzeko jendea aurkitzea. Aktoreak behar genituen edo gutxienez, jendearen aurrean agertzeaz lotsatuko ez ziren herritarrak. Jendea aurkitu eta konbentzitzeko ahaleginean, buru-belarri aritu ziren, modu berezian, Okaiztiko Joxe Bikuña eta Larratzeko Ramona Auzmendi.

Herritarren artean baziren antzerki-kontuetan eskarmentua zutenak ere. Esate baterako, Klaudio Barandiaran, urtetan Jentilen Etorrerako Alkate izan zena, herriko antzerki-taldean aritua zen, Frantzisko Ezkurdia parrokoaren esanetara. Aipamen berezia zuen, Antoniomaria Labaienek idatzitako “Senperen gertatua” lanean Klaudiok egin zuen lana. Bikario-etxe azpiko aretoan eman bide zuten.

Antzeko egoera zuen baita ere Okaiztiko Joxe Bikuñak. Antzerkian aritua zen Joxe, Don Ramon eta Don Frantzisko parrokoen esanetara. Gustokoa zuen antzerki-mundua ezpairik gabe eta gustokoa baita ere, lehena eta oraina uztartzeko borondatea.

Jendea behar zen beraz eta lortu genuen. Kostata, egia da. Ordu asko behar izan zen batzuek konbenzitzeko. Baina hitz eta hitz, lortu genuen. Borondate oneko agertu zen herritar asko nahizta albotik gutxiesten eta zirikatzen aritu zenik ere izan zen.

Honenbestez, pertsonaia bakoitzerako egokien izan zitezkeen herritarrak aukeratu genituen.

Aurrez zerrenda batzuk egin ziren eta hauek dira hasierako bilere-tan aipatu ziren izen-aukerak:

Mikelats Jentil izateko: Okaiztiko Joxe Bikuña, Pelloneko Joxan Munduate, Kamiñoko Imanol Sanpedro, eta Dornaiñeko Joxemari Goikoetxea.

Jentil-laguntzaileetarako: Dornaiñeko Joxemari Goikoetxea eta Lizardiko Imanol Sampedro.

Apaiz izateko: Ubarri-Tallerreko Beñat Munduate eta Pello Munduate anaiak eta Arrondosaltseko Jexux Barandiaran “Saltse”.

Alkatetarako: Klaudio Barandiaran eta Pelloneko Joxan Munduate.

Pregoilaritarako: Donjuaneandiko Doroteo Barandiaran. Bere alaba Arantxiren bidez jo genuen Doroteogana.

Beste pertsonaia batzuetarako ondorengo izen hauek :

Alguazil: Ubarri edo Tallerreko Pello Munduate eta Miraballeseko Guillermo Galparsoro.

Jentil-buruaren emazte: Larratzeko Ramona Auzmendi.

Idazkaria eta emaztea: Kerexeta edo Kooperatibako Patxi Agirre eta Antonionegarako edo Petraneko Rakel Alkorta.

Botikaria: Txomiñoneko Martin Aramendi.

Ikazkina: Iñaki Eskisabel Espillakoa.

Txalapartariak. Santioneko Mitxel Auzmendiren esku utzi zen, Guutzako borda inguruan txalaparta jotzeko ardura.

Zuziak edo antortxak egiteko: Grazinaberriko Txema Urrestarazu, Donjuanenehandiko Joseinazio Barandiaran eta Zaindiko Jon Aizpurua.

Mendian sua pizteko jendea: Erremedioko Joxemari Aizpurua eta beste batzuk. Jentilbaratzan ere sua piztu zuten hainbat urtez.

Kalejira egiteko: Txomiñoneko Fermin Aramendi eta Dornaiñeko Joxe Begiristain arduratu ziren. Ferminek txistulariak lortu behar zituen eta Joxek berriz dantzariak. Helburua txistulariak, dantzariak eta txaranga bat izatea zen.

Megafonia kontua egiteko, Zubiondoko Santi Etxeberriagana jo genuen.

Oargi elkartetik kalera musika jartzeko asmoaz, Iñaki Eskisabel Errotaberrikoa arduratu zen.

Astoak behar zirenez, Jexux Eskisabel Espillakoa arduratu zen pare bat lortzeko.

Bide batez, jendeak parte har zezan, auzoko koadrilei dei berezia egin zitzaien.

Garaipen Jai Batordea

1981 ko Garaipen Jaiak

.....

Ekainak 12,  
Ostirala,JENTILAREN ETORRERA.

HELBURUA.- Helburu nagusia, festa hasierari zentzu berezi bat ematea da. Hortarako herrian zer ikusia duten gauza bat hartuz, parodia bat eratzea da egokiena. Honela, festa hasierarako bi gauza historiko gogoratu zitzaigu: Jentilaren etorrera eta Markesaren epaiketa edo juizioa. Honela, festa hasierak bere zentzua izango du eta bien bitartean, herria gertatutako zenbait gauza gogoratu eta nahastuko ditugu.

Programa.- ~~12~~ <sup>12</sup>etan: Jentila irixten da Iztatorrera.

Pregonerua, bien bitartean jendea giroten arituko da, jentilaren berri emanez eta historia pixkabat eginez.

Zai daudenen artean izango da txaranga ere eta honek abesti herrikioen bidez animatuko du han dagoen jendetza. Beharbada, Jentila agertzen den momenturako, abesti berezi bat preparatzea egokia izango litzateke.

Iztatorren lehen ongietorri egin eta gero, kalejira moduan herriko plazara zuzenduko gara. Etxez etxe etorreraren berri eman behar den eztabaidatu egin behar. Kalejira hori errotzen ari dela, ixilune bat lortzea polita izango litzateke, Gutzako bordan arkitzer diren txalapartarien mezua entzun ahal izateko. Honela kalejiran Plazara irixten gara eta orduan kanpaiak astintzen dira ongietorria adieraziz eta Eliza bera ere jentilekin adixkideratu dela adieraziz. Altxafuegoak ere momentu honetan botatzea izango litzateke polita.

Bien bitartean Udaletxeko balkoian agertzen zaigu Jentila. Bere ondoan jartzen dira herriko autoritateak. Jentilak Alkatearen laguntzaz Herriko bandera eta ikurrina jartzen ditu. Momentu honetan dantzariak aurrakua dantzatzea litzateke aproposena.

Ondoren, Alkatearen hitzak: " Herritarrok agur.

Momentu historiko bat da ataundarrontzat, 1981 ko Ekainare 12 hau. 2000 urte inguru munduan zehar ibili ondoren hemen da berriro gure artean hainbeste maite dugun Jentil zaharra. Nikolas jentila ! (txaloak.) Momentu haundia ataundarrontzat, zeren gure jentila konturatu da munduan zehar ibili ondoren Ataun bezalako txoko ederrik ez dagoela eta benetan ataundar sentitzen dela. Orain bi mila urte Jentil baratzatik irten zenean, berriro etorriko zen intentzioan joan zitzaigun gure Nikolas. Eta hara non gaur berriro, festak ospatzeko asmoz, gure artera etorri zaigun. Ez dut beste hitzik, beste zer esanik, gure esker beroenak agertzea baino, Oihukatu dezagun denok batera: Gora Jentila ! Gora Ataun !"

Ondoren, apaizaren hitzak edo jentilarenak izan behar diren zehaztu behar da. Jentilak hitzegin behar al du? Apaizaren hitzak zehazteko, bilera jotzen dut egokiarena. Pertsonaia bi hauek mintzatu ondoren, parodia bat antolatatu behar da. Nola moldatu? Bat Barrabas izanik, bestea gaizto antzeko mafioso bat izango litzateke. Bien arteko aukeraketa bat egin, mis Ataun edo izendatuz. Popularki aukeratuko denez, jendeari galdetu behar zaio, bietan nor zaion gogozko.

Aukeraketa egin ondoren, herri aparria ere zai egongo denez, azken agurra egin beharko da, jendeari aparira gonbidatuz eta mila-esker emanaz. Tarte honetan txaranga pjo ta jo arituko da. Bukatzeko eta tartean ere bai, segun zenbat dantza egin behar dituen, dantza saioak egitea komeni da.

Alkatearen azken hitzak: "Ataundarrok, eta San Martindarrok bereziki, festak hasi dira. Aurtengo Jaiak alaitasunezko jaiak izan behar ditugu, jentila gure artean izango dugu eta. Poztu gaitezen eta diberti. Utzi trix-turak beste batetarako. Gora Ataun! Gora San Martin! Gora Garaipen Jaiak!"

Jantziak: Pertsonaia bakoitzari bere berezitasuna agertu behar zaio. Horrela bileran zerbait erabaki beharko da. Larruak beharrezko izango ditugu eta Dantza Taldekoek dituzten bi larruekin kontaktzen dugu. Gero, pertsonaia bakoitzak bere esku izango du nola karakterizatu etabar.

Gaitza teknikoak: Galdi bat behar den edo pentsatu. Astoak eta, Espilakoak eta pentsatu genituen baino badi-rudi nahiz eta aurrez baiezkoa emana izan, azken momentuan ezinezkoa izango ote den. Astoen funtzioa, momentuz behintzat, Udaletxeari estetika egokia ematea da, behako bi balkoietan agertuko bait dira, ongi etorria egiten denean.

Altabozak eta gainerako tejemanejeak Santi Etxeberria-esku dira. Honek moldatuko du Udaletxeko megafoni kontua.

Ea zer moduz ateratzen den lehen esperientzi hau eta poliki ateratzen bada, Antzerki Talde bat pentsatzen joan beharko gara eta serio gainera. Ea zer egiten den! **AUDA!**





## JANTZIAK

Larratzeko Ramona Auzmendi aipatu behar da hemen merezimen-  
du osoz.

Aipatu dugu lan asko egin behar izan zela Jentilen Etorreran parte hartuko zuen jendea lortzeko. Baina ba zen beste ikaragarritzko lan bat ere: partehartzaile guztientzat zegozkien jantziak egitea eta lortzea.

Horretan aritu zen buru-belarri, esku eta bihotz, Larratzeko Ramona. Jostuna ofizioz eta afizioz, inork esan beharrik gabe ekin zion erropak egiteari eta hori bakarrik ez, arropa egokienak zein izan zitezkeen jakiteko, batera eta bestera joan zen, ataundarrontzat aberastasun handia ekartzeko helburuz.



Ramonak bazekien, garai bateko jantzi eta arropen atzean herri baten kultura zegoela eta hori behar bezala jasotzeko, jantziak ere kultura eta tradizio hori errespetatuz egin behar ziren.

### RAMONA AUZMENDIri ELKARRIZKETA

Ramona Auzmendi Garmendia. Larratzeko alaba. 73 urte. Alakanten bizi da baina denboraldiak egin ohi ditu urtero bere jaiotetxean.

Jentilen Etorreraren aurreneko hiru urteetan presente izan zen Larratzeko Ramona. Bera izan zen neurri handi batean Jentilen Etorrerako bihotz eta arima. Bi arrazoi nagusi daude, hori horrela izan zela

esateko: batetik berak egin zituen 104 lagunentzat erropak. Oso jantzi bereziak gainera, harrigarriak, inñude eta abarrentzat... Erraz esaten da; Eta beste arrazoia: Jentil nagusiaren, hau da, Mikelats jentilaren emazte modura agertu zen lehendabiziko bi urteetan.

Garai hartan, ez zen samurra jendaurrean farregarri gerta zitezkeen gauzetan parte hartzea. Kontu eta esames ugari entzun ohi zen, adineko pertsona bat horrelako gauzetan ibiltzea ez zela itxura eta emakumea izanda gutxiago eta abar. Ramonak ordea, pauso bat egin zuen aurrera eta benetan eskertzen diogu bihotzaren erditik.

Bihotz eta arimaz aritu zen Jentilen Etorrerako lehen urteetan. Batez ere, jantziak egiten, dantzarietzat eta jentiltarrentzat, ikaragarritzko lana egin zuen. Eskerrik asko.

**-Ramona, zu han zinen Jentilen Etorreran hasieran. Joxe Bikuña eta zu, gelditu gabe ibili behar izan zenuten, batetik, parte hartzeko jendea konbentzitu nahian eta bestetik, zure kasuan, jantziak eta erropak egiten.**

**-Zer oroitzapen duzu hasiera hartaz?**

Nik gogon deanez, lan mordo baten ondoren, naiko erantzun ona izan zola jende aldetio. Oi bai, nee iritziako, gaztek baiño erantzun ohea emantzon adiñeko jendek. Asieratik ezezkon bezela jartzentzien baño beiñ zertako zan ondo esplikau ondoren, konpromisoa artu zue-nak bene-benetan artu zuen.

**-Zuk Ramona, ahalegin berezia egin zenuen jantziak prestatzen?**

Saiu giñen zeozer. Nik ustet gauzei sentidue eman bear bazaie, sustraia jun bear dala eta jentillen kontukiñ asi aurretio dantzarin jantzikiñen aittu giñen ta iruittu zitzaten jantzike bene-benetakok, garai batekok eiñ beartziela. Ortan saiau nintzen.

**-Batera eta bestera ibiliko zinen dantzari-jantzien sustraia ateratzeko ezta?**

Bai. Telea dana Ordiziko Etxeberria dendakoek ekarri zien. Hango etxeoandra-zanak soñekoat e utzi zin baño enaiz akordatzen zeiniek

jantzi zon. Oi estriñeko urten izantzan eta bigarrenon enintzen atrebittu eskatzea. Arren familik, birbillobek seitzen due dendekiñ.

Ba etxekoandre arrek, pista asko eman zizkiñ. Harrek esantziñ San Telmo Museoa juteko. Gauzak ikusi nittun an baiño iri auditako goimaillako jenden gauzak ikusi nittun eta baserri, erri-ttikitako girokoik ez. Geo, garai artan, Centro de Atracción y Turismora jun nintzen eta han esantzien Frente de Juventudesa juteko. An oso otz artu nittuen. Nik esan nien emengo arropa eta bizimoduko oiturei buruz argitasun bat nai nola. No pides poco! -esantzien eta gañea, -Te va costar! Ola moztu ninduen.. Auxek pa komeriel-pentsau non nee baittan.

### **-Baina ez zenuen etsi?**

Ez. Marikarmen Telleriana jo non leenbizi Diputazion zerbait eon beartzola ta. Etzin aurrerapideik eman eta ordun jo non Joxe Zamora apaizeana. Onek laundu ziñ eta Diputazioko liburuzain zan Jose de Artetxerekin hartuemanetan jarri nindun. Ala jun nintzen. An eakutsi zin erabat giltzapen zaren argazkik eta liburuk. Esantzin Euskalerrriñ izatea lau paite aien barrun zeola. Geo beiz, liburuxka gorri ttikiat ata ziñ eta an tzaren lurren lana eitten zuenen arropa-jantzi guztik. Aal non guztie buruz artu non eta galdeture ein nion ea apunteik artu neiken. Beak, ea liburu ortako jantzik eingo ote nuken galdetu ziñ. Saiauko nintzela erantzun nion ta eingo nun ala ez esanez beize jungo nintzela.

### **-Eta zerbait egin al zenuen?**

Ala Ordiziko Cuestakoena jun nintzen. Artueman aundie neuken Modesto, Marisa eta orikiñ. Modestoi esan nion zer gertatzen zitzaian eta onek esantzin Bartzelonatik ekarri zeizkela beak, nik bear nittun telak.

### **-Hain traje bereziak al ziren ba?**

Esangoizut emakume baten trajek iru gona damazkilla. Bat azpiñ arizkoa eta irikie, alderdi batea kruzatuz. Bigarrenare irikie da baiño beste aldea kruzatuz. Hirugarrena beiz, osokoa. Aparte, azabatxekiñ bordauta, manteleta, korselete, kurpiño, “terciopelo de sifon”, zilarrezko apaingarrrik eta gauza geio. Galtzerdi zurik eta txarolezko zapata beltzak. Ok zeamakien ebilla bat eta liburu ttiki ortan jartzen zonez,

batzuk zillarrezko ebillak izatentzittuen. Ala preparau gendun dana. Nik uste non ue dana ein da gero, Diputaziok laguntzea emango ziula.

### **-Zer esan zizun Jose de Artechek?**

Beak zea esantziñ: eitteko eta gero leku egokiaten erakusteko jarriko zola Diputaziok, esposizion. Orrek jota utzi nindun. Nik enekiñ zer kostako zitzaian materiala. Nik enun nai, ordainduko zidatela esan eta gero materiala Diputaziontzat geratzeik. Bai, esponittuko zuen baño gero kitto. Nik ordun etxen illoba Maider larrixagoa euki bano, etxen eingo nun eta gordeko non baño arten neska koxkorra zan eta enun aiñ txikie ein nai. Ortan geatu zan kontu oi. Disgusto aundie artu non.

Tarte guzti ortan, Joxemiel Barandiaranenare jun nintzen. Joxemielek esantzin, pena zala baño bea gai ortan sekula aittubekoa zala eta laun batzui galdetuko ziela. Zaldibiko Iztuetak eindako lanak aikau zizkiñ.

### **-Oso gauza aberatsak Ramona. Gogoan al dituzu Jentilen Etorrerako hasieran, zer pertsonaia ziren?**

Larrik esangoizut nik. Alkatea, eskribaue, botikarioa, epailea, Jentill Zaarra eta geiore bai. Jentill zaar oi, urtetan mundu zear ibilli eta bueltan erriñ egonaldie eittea etorri zan.

Orzaz aparte, bazien garrantzi aundie zuen beste batzuk e. Ikazkinek, basagizonak, artzaiek, aizkolarik... Ikazkiñetan gogon det, Kamiñoko Azentziok ikiarritzko lana eintzola. Geo aparte, Donjuaneneko Doroteok inpulso aundie emantzion baita pregoilari lana eiñez.

Geiore bazien, Klaudiok indar aundie emantzion. Alguazill bezela, Miraballesko Guillermo, Tallerreko Pello Mari eta abar.

### **-Zuk Mikelats jentilaren emazte-lana egin zenuen. Zenbat urtez Ramona?**

Bi urtez einon, beste iñork nai etzolako. Gogon det aurreneko urten, ordubeten preparau bear izan nola, alnon bezela beste iñor etzeonez. Zalapartaten aittu nintzen nee soiñekoa preparatzen. Oiñetakok norbaittek emanda neuzken babutxa batzukiñ ein nittun. Oiñetakon eta eamanon poltsan soka-arik, arto-oston txikordekiñ ein nittun, garai bateko zaar-itxurea emateko.

### **-Zenbat jantzi egin zenituen Ramona?**

Eun! Larratzeko gue etxeko miradoren aittu nintzen ta eun zien guztia. Saskitan juntzien umek eta jentill gaztek kontaube. Gazteen zakui, zerbait berezie eitteko, arik ata nien barrenen.

### **-Justina Zeberio ibili zen sorgin paperean. Haren jantzia zuk egin al zenuen?**

Bai. Aren trajek emantzin lanik aundiña. Leendabizi gonea ein bear izanon eta geo gona ue, kolore ezberdiñetako paiñuelokin bete gendun dana. Benetako sorgiñen papera eintzon Justinak.

### **-Jendeak erantzun ona eman zuen ezta?**

Bai, bai. Okaiztiko Joxe eta biok aittu giñen bateze jendekiñ itzeiten baño danea ezin gendun allau ta beste jendeat jarri gendun au eta beste eitten. Mendiñ suk pizteko, Elizako kanpaiak jotzeko, Jentille nola zetorren eta berri onakiñ zetorrela aiazteko. Eta ortan erantzun ona emantzon jendek. Esate bateako Etxeberriaunditarrak, Justina Zeberio bat, Ugaldeko Anttoni Lasa, Iturtxoko Juan ta Luzio anaiek, Aldabuko Jazinto Begiristain, eta adiñeko geiok launtza aundie emantzuen.

### **-Jendeak erabili zituen jantziak gogoan izango dituzu noski?**

Saltxeberriko Bittorik bee ezkontzako trajea utzi ziun alabatatio izkutun. Ugaldeko Anttonik jantzi zon soiñeko eder ue.

Rakel Kaierok eamantzon mantillea nerea zan.

Artzuloko Maixa Goikoetxeak medikun andrena eintzon ta garai bateko blusoi oritakoat eamantzon.

Iñudentzako jantzike ein nittun. Josune Arruabarrenak eintzon urte-atzutan... Ikusi ein bear tzendun bea nola jantzizan eta zer ume-kotxe zar, nola jantzita kotxea!

### **-Erropa ta jantzi horiekin zer gertatu zen Ramona?**

Nik ikastetxen utzi nittun danak. Oain dala ogeita bi urte entregau nittun. Ondorengo urtetane etortzen zien gue etxea jantzi billa baño alperrik. Jantzi berezi asko einon. Ni emen Ataunen eon nintzen bitar-

ten, etzeko ganbaran neuzken bi arramario aunditan gordetzen nittun baño geo entregau nittun . Dantzarin jantzike alaxe sakabanau zien.

Guraso batzuk launduta ein giñuzten ainbeste jantzi eta oaiñ eztau ezer iñun jasota. Markea da gero!

### **-Zerorren jantziak ere izango ziren ba ala?**

Nik neoneke banon garai bateko gizonezko blusoi zoragarriat. Ezerk penaik eman badit, aretxek emantzin. Ue bai zala benetakoa eta aspaldikoa.

“Ainberriko” Hilario Munduate zanak emantziñ. Etzan blusa beltza, urdiñ illune baizik, raia ttiki-ttiki, arie mouko raia ttikiatzukiñ. Blusa ue zan, Kooperatibako Maria jostunek Hilariori eindakoa. Ni neska koxkorra nintzela, Hilariok esantziñ: ik estimaukoittuk garaimaten gauzok eta alaxe emantziñ. Mutill berezi-berezie zan Hilario.

Bi abaniko beltz zoragarri banittun, zirkunferentzi aundikok, gañea rekuerdo aundie zeukenak. Manilatio ekarri eta nei erregalo izaba monjek eman zizkiñ. Oiartzunen illtzan ue eta arri emantzion monja Mertzedarien Fundazioa zeuken etxeoandre xaar batek. Izaba monjea 80 urtekiñ ill zan, oaiñ dala ogeita geio urte. Ortik kontuk atera, benetan aspaldiko abanikok ziela. Aztarranike eztauket. Oi da, daukean pena.

### **-Bi urtez aritu zinen Jentilen Etorreran, Amaia, Mikelatsen emaztearen paperean.**

Bai, halaxe da. Inork nai etzolako ein bear izanon. Geo irugarren-gon, Artzuloko Joxepa Munduatek artu zon ne lekue. Beai utzi nizkion nik aurreneko urten ibilli nittun erropak. Bigarren urten ibilli nittunak, neonek dauzket Alikanten.

## LEHENDABIZIKO JENTILEN ETORRERA

Gehienetan “ittokarren” ibili izan gara eta lehendabiziko urtean ere bai.

Pixkanaka gauzak erabaki ziren eta hau izan zen lehendabiziko Jentilen Etorrerak izan zuen egitaraua:

### **1981eko ekainak 12, ostirala.**

Herri-afaria amaitu eta gero.

**Goizaldeko 01:00 ean.** Samartin Elizako kanpaiak jo eta suziriak bota.

Sua piztu Jentilbaratzan. (Handik suziriak jaurti ahal bada)

Jentilak abiatu Arrateta aldetik. Antortxak dituzte eskuetan eta Eiztator aldetik garbi ikusiko da badatozela mendian behera.

Suak piztearekin batera, txalaparta eta adar soinuak, Mendiola edo Kanpusantu gainean, Guutzako borda aurrean eta Kalakasene base-riaren inguruan.

**Ongietorria Eiztatorren.** Jentilen zain daude herritarrak, Alkatea buru dutela. Jentilak hurbiltzen ari dira. Aurretik datorren jentilak, lauburu baten irudia duen trapu zahar bat dakar eskuetan. Jentilak iristearekin batera, pregoilaria mintzo da danborra joz eta bandoaren berri emanez. Jentilen aldeko oihuak eta irrintziak entzungo dira. Herriko dantzariak Aureskua edo Ikurrin Dantza egingo dute.

Dantza amaitu ondoren, Alkatea aurreratu eta ikurriña emango dio Mikelats Jentilari, honek lauburua duen trapua emango diolarik. Gero, elkar besarkatuko dute.

Suziriak bota eta udaletxe aldera abiatuko dira denak elkarrekin.

Bidean bi atsedenaldi egingo dituzte, bietan pregoilariak bandoa irakurtzen duelarik.

**Udaletxean.** Plazara iristean, berriro pregoilaria mintzatu eta arku-dantza egingo dute dantzariak. Arku horren azpitik igaroko da Mikelats Jentila eta bere emaztea.

Gero Udaletxeko balkoira igo eta handik mintzatuko dira, Alkatea, Apaiza eta Mikelats Jentila. Ondoan izango dituzte bertsolariak.

Ondoren, Plazara jaitsi eta Mikelats jentilak emango die su sasiei, Erromeria hasiz.

## HASIERAKO TESTUAK ETA HITZALDIAK

*“Arrateta aldetik  
jentilen orruak,  
entzuten ziren garbi  
oihu ta marruak.  
Antortxak eskuetan  
gainetik larruak,  
bor-bor egiten zigun  
guztioi barruak”.*

Ondorengo hauek izan ziren lehendabiziko urtean eta hasierako beste mordoska batean, Alkateak, Apaizak eta Mikelats Jentilak, udaletxeko balkoitik egin zituzten hitzak.

Lehendabizi Alkateak hitz egin ohi zuen, ondoren Apaizak eta hirugarren eta azken hitzaldia Mikelats jentilak egin ohi zuen.

## ALKATEAREN HITZALDIA

(Klaudio Barandiaran)

*“Ataundarrok, gauon! Ataundar maiteok! Hona hemen Ataungo historian momenturik inportanteena. Mikelats Jentila, iaz egin zuen promesa betez, hemen etorri zaigu bere emazte poxpolina eta 40 seme-alaba lirain eta ezin-ederragoak hartuta. Iaz Ataungo herriari agindutakoa bete du gure Jentil Zaharrak. Eskerrikasko bada Ataungo herriaren izenean Mikelats!*

*2000 urte luze pasa ditu Mikelats jentilak munduan zehar eta azkenean, ederrak eder, Ataun bezelako txoko eder eta gozorik ez dagoela eta, beti berea izan den herri-  
ra etorri da. Han gelditu da Jentil Baratza, Jentil Zaharren ataundartasunaren testigu.*

*Pozez bete zaizkigu bibotzak ataundarro, egun haundi hau iristean. Hemendik aurrera, elkartasunean biziko gera guztiok. Jentilak ere gu bezela ataundar! Bai horixe! Ez du beste hitzik, beste zer esanik, gure esker beroenak agertzea baino.*

*Oibukatu dezagun denok batera behin betirako: Gora Jentila!!! Gora Ataun!!! Gora Garaipen Jaiak!!!*



Udalarean eraz beharkeak

Ahateak.- "Ataundanch, gauon! Ataundar maiteak!... hona hemen A  
 tamag historian momentu importantea. Mikelats Jentila, ia  
 equi eren promesa betes, hemen etoni saigu bere emaste propositua  
 eta 40 seme-alaba lirain eta erri ederagpak hartuta. Jas  
 Atamag herriari ~~aginduta~~ bete du que Jentil Zah  
 orak. Dikerrillasko bada Atamag herriaren izenari Mikel  
 lats!

2.000 urte luze para diti ~~Jentilak~~ Mikelats Jentilak mun  
 duan sehan eta arakuean, ederrak eder, Atamag bezalako  
 Txoko eder eta gozotik es dazpela eta, ~~bere~~ bete berea  
 isan den herria etorri do. Han gelditu da Jentil Zah  
 ara... Jentil Zaharren atamagartamagaren testigu.

Poser bete saizkigu ikotsak atamagari equi haundi  
 hau irixtean. Heneudil auzera, elkartaruean izitko gara  
 quzotik. Jentilak ere, que bezala atamag! Bai herri!  
 Es dit beste hitrik beste zer erant, que exler herriak  
 agerthea bairu. Dikerrillatu desagun deusk batera kein betira  
 Ko : GORR JENTILA ! GORR STSUN !

Bilarioa - (Udajitorra mintzo) Gure Bilario Jannaren izenari...

## KOAJUTOREAREN HITZAK (Joxan Munduate)

*“Nere kristau maiteok!!!*

*Gure urteetako otoitzak, gure Kristorenganako sinismenak eman ditu bere fruituak. Pixkanaka-pixkanaka ari dira Jentilak gure artaldera inguratzen, Elizaren ur-ontzian sartzen ez direnak betirako kondenatuak izan do bait dira. Zorionekoak gu, Kristorengan sinismen dugunok, segurtatua bait dugu gure betiko bizitza zero eder hartan.*

*Eta azkenean fruituak agertu dira eta Jentilak ere, kristauokin batzen hasi dira. Pakez datoz eta pakez hartuko ditugu. Ez abaztu ordea, agintaritza guztia goitik datorrela eta horregatik gure herriko Alkate jaunari zor diogula obedientzi, errespeto eta fidelitasuna.*

*Gure egitekoa, munduko bide honetan goazen bitartean, lana zintzo egin, famili jator bat bazi eta gure agintarien esanetara egotea da. Horretan ba, saiatu behar gara guztiok batera, pentsakera xele-break eta harrokeri arruntak alde batera utziz.*

*Kristo da gure EGIA!  
Ilunpetako gure ARGIA  
eta bera ezagutzen ez duena  
gezurrean eta engainaturik bizi da.*

*Besterik ez ataundarrok!*

*Eta zuek jentil maiteok, zabalik dituzue Elizako ateak, lehenbaitlehen berarengana jotzeko indarra izan dezazuen.*



## KOAJUDREAREN HITZAK !

Nere Kristau maiteok !

Gure urteetako otortzak, gure Kristoarenganako sinis-  
menak, eman ditte bere fruituak. Pixkanaka-pixkanaka ari  
dina jentilak gure antoldera inguratsen, Elizaren uronizian sartzen  
ez dituzak betirako kondemnatuak <sup>denago</sup> bait dira. Joriondat qu, Kristoren  
gan sinisuen duquok, segurtatua bait duqu gure behiko iraitza,  
seru eder hartan.

Eta ~~gure~~ ~~maiteok~~ fruituak sartu dira eta jentilak  
ere Kristaokin batzen har dira. Pakes datoz eta pakes har-  
tuko ditugu. Ez ahastu ordea, agintaritzak gutia gaitill datorre  
la eta herrietan gure herriko allate Januari 20r diogela  
obediencia, enespeto ta fidelitate.

Gure egitekoak mundullo hie herrietan gurasen hitartean  
lana suntu egun, eta famuli jator bat hazi, eta gure agita-  
zier esanetara sartu da. Herrietan ba, saiatu behar ga-  
ra gaitill batera, pentakera xelebreak eta herrietan arun-  
tak alde batera utziar.

Kristo da gure EGIA !

Ilumpetallo gure ARGIS

eta bera esagutsen ez duena  
gesumean eta engainaturill lizi da.

Besteritll ez atamdamok !

Eta zuek jentil maiteok, zabalit dituzue Elisabete  
ateak, lehenbait behen, beraren gang jotsello indarra  
izan dezazue.



## MIKELATS JENTILAREN HITZAK. (Joxe Bikuña)

Esan dezagun Mikelats Jentilburuak, urtero aldatu ohi zuela bere hitzaldia. Joxe Bikuña bera arduratu ohi zen testua egiteaz. Horrela izan zen, 1992 an antzerki luzea egiten hasi ginen arte.

Aipa dezagun baita ere, Mikelatsek bere ondoan izan duela ia beti adarra. Aurreneko urteetan hala ere, adarra jotzeko, hitzaldia idatzita zeraman pergaminao erabili ohi zuen, eskuekin kiribildu eta adarraren lekuan.

Mikelatsen hitzaldiak mezu argia zuen beti: jentilak eta kristauak, denak ataundarrak zirela eta bereizketarik eta zatiketarik ez zela behar. Borrokak utzi eta elkarrekin bizitzeko gonbitea egiten zuen urtero Mikelats Jentilak.

Hemen jaso dugun hitzaldia, 1982koa da. Urte hau aukeratu dugu, gauza berezi bat egin zuelako Mikelatsek jentilen borondatea erakusteko. Mikelats bere 40 seme-alabarekin jaitsi ohi zen herrira eta urte horretan, bere semerik txikiena, Aitor, seme-alabarik ez zuen Alkate Jaunari eman zion Mikelatsek.

Ikusleek txaloka eta pozik hartu zuten, Udaletxeko balkoitik Mikelatsek agertu zuen asmoa. Hori esatearekin batera, Plazan, asto-saskian zegoen Aitor mutikoa, Alkatearen emazte Amaiaren esku utzi zuten Alguazilek. Une hunkigarria izan zen.

Hau da beraz, 1982an Mikelats Jentilak egin zuen hitzaldia.

*“Gabon denoi Basajaun maiteen partetik!*

*Gure Eguzki eta Ilargi jaunek, gorde dezatela Ataun!*

*Hemen gaude denok, Ilargi jaunaren argitan. Beti elkarrekin borrokan ezin elkar ikusirik ibili gara. Utzi hori alde batera eta egin dezagun egiazko pake-akordioa.*

*Urte gehiegitan gabiltza, ataundarrak ataundarren aurka, . Alde batetik, Kixmizaleak, kristauak eta bestetik Basajaunak, zuek Jentilak deitzen diguzuenak.*

*Batzuek, Kixmiren Berri Ona eta berarekin nabastuta zetorren gizarte-molde europarra onartu zutenak. Besteok berriz, gure lebengo obitura zaharrei, zintzo, jator jarraitu nahi diogunak: Jentilak deitzen diguzuenak, nahizta hain hilak ez azaldu.*

*Elkar-maitasunean oinarritutako Kixmiren jarraitzaile egin nahi izan gaituzue, baina nola? Maitasunez? Elkar lagunduz? Senideei lagunduz? Ez, ez...*



*Agintariek moldatu dute beren erara Kixmiren Berri Ona. Indarrez eta borrokan, baztertuz eta ezin-ikusiz, nahi izan gaituzue kristautu. Baina hori ezinezkoa izan zaizue.*

*Guztiok ataundarrak gara, nahizta pentsakeraz edo sinismenez edo jokabidez desberdinak izan. Guztiok euskaldunak gara, Aitorren bizkuntza zaharra mintzatzen dugunak.*

*Eguzki Jaunaren argi gozo eta maitekorrez topatu eta aurkitu behar dugu pakea. Armaz eta borrokaz lortu ezin izan genuen pakea. Pakea lortuko dugu, elkar senidetzat onartzean eta iritzi eta desberdintasun guztien gaineretik, jentilak ataundar anaia-arrebatzat onartzean.*

*Izan dira hala ere, zuen jauntxoan artean ausartak izan direnak urtean zehar guri lapurretak egiteko.*

*Zuek lapurtu dizkiguzue, 15 behi, 30 ardi eta 45 ahuntz. Baina guri*

*Jentilak deitu arren, beste horrenbesterekin erantzun dizuegu. Badakizue zein den gure legea: onez erantzun on egiten digunari, egurra eman kalte egiten digunari.*

*Guk, Basajaunon handitasuna ta ohorea, emandako hitza betetzen daukagu. Hori ikasi genuen gure arbasoengandik, euskara bizkuntzarekin batera.*

*Gaurkoan nere 40 seme-alaba kuttun hauekin etorri naiz, nire emazte Amaia laztanarekin batera, zuen artera. Horrela jarraitu nahi dugu beti, anaikiro, zatiketarik gabe, zapalketarik gabe, Ataungo zelai eta aldapa hauek denontzat izanez.*

*Jentil hitz mespreziagarri hori gure artetik kenduz ta beti, ematen dugun hitzaren jabe izanik.*

*Bukatzer a noa!*

*Aurrenik bi hitz esan nahi dizkiot Ataungo Alkate jaunari. Eskerrak lebenbizi, bere azkartasun eta on nahiagatik. Behin eta berriro aitorzen gara, gu ere ataundar pakezaleak garela eta senidekiro bizitzeko prest gaudela. Ez dugu gerrarik nahi gehiago! Gure artean bereizketa eta zatiketarik gabe bizi nahi dugu!*

*Denok berdin, anai, senide. Herriko ondasunak guztion artean banatuz eta herriko erabakiak guztion artean hartuz. Ez orain arte bezala, gu hor basoetan eskapo zuengandik eta inongo parterik gabe.*

*Eta hemen, ematen dudan hitzaren testigu ta sinesgarri bezala, Alkate jauna, eskeintzen dizuegu gure semerik txikiena, Aitor. Eman Amaia, seme txiki politt hori Alkate jaunaren emazteari, badu premia eta.*

*Gure Alkate jaunak, urte mordoxka ezkondu ta badaramatza ere, ez du jarraipenik oraindano. Horregatik uste dugu gure mutiko txiki honek beteko diela hutsune hori eta orain arte elkar ezin ikusirik ibili bagara ere, hemendik aurrera elkarren lagun izango garela.*

*Gora ataundarrak! Gora gure senidetasuna!*

*Gora pakea!*

*Agur! Datorren urterarte!*

## ZER HELBURU?

Goazen berriro 1981eko ekainaren 12ra. Aurreko egunetara. Ondorengo testu hau da Garaipen Jai Batzordean, Jentilen Etorrerak zituen helburuei buruz aurkeztu genuena.

Konturatu zaitezte, batetik Jentilen Etorrera ez baino Jentilaren Etorrera aipatzen dela, singularrean, jentil bakarraren etorrera balitz bezala. Bestetik berriz, Mikelats ez baino Nikolas deitzen diogu jentilari. Puntu hau, liburuan bertan argiago aztertzen dugu Mikelatsi eskaini diogun tartean.

Ondorengo testu honek jasotzen du beraz, zer helburu eta asmo zituen Jentilen Etorrerak.

*“1981eko Garaipen Jaiak. Ekainak 12, ostirala. Jentilen Etorrera.*

**Helburua.** *Helburu nagusia, festa hasierari zentzu berezi bat ematea da. Hortarako herriarekin zer ikusia duen gauza bat hartuz, parodia bat eratzea da egokiena. Honela, festa hasierarako bi gauza historiko gogoratu zaizkigu: Jentilaren etorrera eta Markesaren epaiketa edo Juizioa. Honela festa hasierak bere zentzua izango du eta bien bitartean, herrian gertatutako zenbait gauza gogoratu eta nabastuko ditugu.*

*Programa: 12.30etan. Jentila iritsiko da Iztatorra. Pregonerua, bien bitartean, jendea girotzen arituko da, Jentilaren berri emanaz eta historia pixkabat eginez.*

*Zai daudenen artean izango da txaranga ere eta honek abesti herrikoien bidez animatuko du han dagoen jendetza. Beharbada, jentila agertzen den momenturako, abesti berezi bat preparatzea egokia izango litzateke.*

*Iztatorren leben ongietorria egin ondoren, kalejira moduan herri-plazara zuzenduko gara. Etxez-etxe etorreraren berri eman behar den eztabaidatu egin beharko da. Kalejira erosotzen ari den neurrian, isilune bat lortzea polita izango litzateke, Guutzako bordaren ondoan arkitzen diren txalapartarien mezua entzun abal izateko.*

*Honela, kalejiran Plazara iritsiko gara eta orduan kanpaiak astinduko dira ongiatorria adieraziz eta Eliza bera ere jentilekin adiskidetu dela adieraziz. Altxafuegoak ere momentu honetan botatzea izango litzateke polita.*

*Bien bitartean, Udaletxeko balkoian agertzen zaigu Jentila ta bere ondoan jarriko dira herriko autoritateak. Jentilak Alkatearen laguntzaz Herriko bandera eta ikurrina jarriko ditu. Momentu honetan dantzariak aureskua dantzatzea litzateke aproposena.*

*Ondoren Alkatearen hitzak: "Herritarrok agur. Momentu historiko bat da ataundarrontzat, 1981eko ekainaren 12 hau. 2000 urte inguru munduan zehar ibili ondoren, hemen da berriro gure artean bainbeste maite dugun jentil zaharra, Nikolas Jentila!!! (Txaloak). Momentu handia ataundarrontzat, zeren gure jentila konturatu da munduan zehar ibili ondoren, Ataun bezalako txoko ederrik ez dagoela eta benetan ataundar sentitzen dela. Orain bi mila urte Jentilbaratzatik irten zenean, berriro etorriko zen intentzioan joan zitzaigun gure Nikolas. Eta hara non gaur berriro, festak ospatzeko asmoz, gure artera etorri zaigun. Ez dut beste hitzik, beste zer esanik, gure esker beroenak agertzea baizik.*

*Oihukatu dezagun denok batera: Gora Jentila! Gora Ataun!"*

*Ondoren, apaizaren hitzak edo jentilarenak izan behar diren zehaztu behar da. Jentilak hitzegin behar al du? Apaizaren hitzak zehazteko, bilera jotzen dut egokiena. Pertsonaia bi hauek mintzatu ondoren, parodia bat antolatu behar da, pertsonaia berezi batzuen artean aukeraketa eginez.*

*Aukeraketa egin ondoren, herri apartaia ere zai egongo denez, azken agurra egin beharko da, jendeari apartira gonbidatuz eta mila esker emanaz. Tarte honetan txaranga jo eta jo arituko da. Bukatze-ko eta tartean ere bai, segun zenbat dantza egin behar dituzten, dantzariak saioaren bat egitea komeni da.*

*Alkatearen azken hitzak: "Ataundarrok eta Samartindarrok bereziki. Festak hasi dira. Aurtengo Jaiak alaitasunezko jaiak izan behar ditugu, jentila gure artean izango dugu-ta. Poztu gaitezten eta diber-ti. Utzi tristurak beste baterako. Gora Ataun! Gora San Martin! Gora Garaipen Jaiak!"*

**Jantziak:** *Pertsonaia bakoitzari bere berezitasuna agertu behar zaio. Horrela bileran zerbait erabaki beharko da. Larruak beharrezko izango ditugu eta Dantza taldekoek dituzten bi larruekin kontatzen dugu. Gero, pertsonaia bakoitzak bere esku izango du nola karakterizatu behar duen etabar.*

**Gauza teknikoak:** *Gurdi bat behar den edo pentsatu.*

*Astoak eta, Espilakoak izango zirela pentsatu genuen baina badi-rudi nabizta aurrez baiezkoa emana izan, azken momentuan ezinezkoa izango ote den. Astoen funtzioa, momentuz behintzat, Udaletxeari estetika egokia ematea da, beheko bi balkoietan agertuko bait dira, ongi-etorria egiten denean.*

*Altabozak eta gainerakako tejemanejeak Santi Etxeberriaren esku dira. Honek moldatuko du Udaletxeko megafoni kontua.*

*Ea zer moduz ateratzen den lehen esperientzi hau eta poliki ateratzen bada, Antzerki Talde bat osatzen pentsatzen joan beharko gara eta serio gainera. Ea zer egiten den! Aupa!*

Hemen aipatzen zen Antzerki Taldea osatzeko ahaleginak eman zuen fruiturik. 1984an eta 1987an arrakasta handia izan zuten bi antzezlan eman ziren San Martingo Kalostrandi estalpean: “Habla cristiano” eta “Pagoa markes”. Jon Aizpuruak idatzitako lanak biak eta bietan, Ataungo historiak eta gorabeherak agertzen ziren.

Bazen kontuan hartu beharreko beste gai bat. Jentilen Etorrera zein egunetan egin. Larunbatean egitea ez zela komeni iruditu zitzaigun, larunbatez musika-berbena saioa izaten zenez, Jentilen Etorrerak behar zuen herri kutsuko giroa hautsi zezakeelako. Halaxe erabaki genuen eta ostiralez egiten hasi ginen.

Ekainean egin zen urte guztietan, ostiralez egin zen Jentilen Etorrera. Hamar urtez.

Geroztik hamalautan egin dugu azaroko San Martinetan eta beti igandez.

## LEHEN AURREKONTUA

Hutsaren hurrengo. Batez kasi.

Paper zaharretan betileak utziz jakin dugu, 1981eko Jentilen Etorrerak 945 pezetako aurrekontua izan zuela. Hori izan zen Udalak jarri zuen dirua.

Urte hartan Garaipen jaietan mugitu ziren beste diru-kontu batzuk hauek dira, proportzioan Jentilen Etorrerak izan zuen kostuaz jabetzeko.

- Haurren Egunak ..... 48.532 pezeta.
- Herri Afariak ..... 3.800
- Benito Lertxundi..... 100.000
- Txaranga..... 7.000
- Dultzaineroak..... 9.000
- Aizkolariak eta Harrijasotzaileak ..... 37.080
- Bries musika-taldeak ..... 75.000

1982ko Jentilaren Etorrerak 2.881 pezetako aurrekontua izan zuen. Zuziak egiteko materiala 835 pezeta kostatu zen eta 2.046 pezeta gastatu ziren ondorengo Baratzuri-zoparen prestaketan.

Kontuak atera!

Gonbaraketa egiteko, balio beza 2004 urteko Jentilen Etorreraren aurrekontuak: 5545, 36€koa izan zen. Horietatik 2000 KUTXAK jarri zituen.

1981.GO GARAIEN JAIK  
 =====  
 DIRU GORA BEHERRAREN KONTU GARRIKETA  
 =====

	SARRERA	INTEGRA
<u>Igandea, Ekainak 7</u>		
-Hiru Auzotako III. Marathoi Erdia....		O.A.R.GI.
-Umeen Eguna.....		48.532 pta
<u>Ostirala, Ekainak 12</u>		
-Jentilaren Etorrera.....		945 "
-Herri Afaria.....	3.700 pta	
<u>Larunbata, Ekainak 13</u>		
-Toka eta Bolo Txapelketa.....		Aizkoute
-Flater Haustea .....		Erbia
-Ataungo XII. Putbol txapelketa.....		O.A.R.GI.
-Jaialdia, Benito Lertxundi.....		29.400 "
-Jaiak, dantza taldea.....		55.000 "
<u>Igandea, Ekainak 14</u>		
-Txaranga.....		7.000 "
-Txirrindularien Omenaldia.....		Txirr. Elk.
-Aizkolariak eta Harrijasotzailea.....		37.080 "
-Dantza taldea (Bries eta afaria).....		80.650 "
-Dultzaineroak.....		9.000 "
<u>Astelehena, Ekainak 15</u>		
-Herriaren txirr. proba.....		6.050 "
-Esposizio Txapelketa.....		16.620 "
-Dantza taldea (Bries eta Afaria).....		81.350 "
UDALETXEA.....	210.000 "	
ERKESFATIK.....	71.100 "	
WATEU.....	3.200 "	
AIZKOUTE.....	5.000 "	
O.A.R.GI.....	5.000 "	
Herri Taberna.....	36.080 "	
	334.080 "	371.627 "
DEBIZITA.....		37.547 pta



## LEHEN URTEETAKO ARGAZKIAK

*“Zuek zeate or zaretenak,  
zuek ziñeten,  
ak zien...  
Batzuk ementzarete,  
bestatzuk ez...  
Ta zuek ziñetelako  
gea gu oaiñ emen,  
eta izango die bestatzuk gero”.*

































## **G**IROA SORTZEKO AHALEGINA

Herri txikiotan antolatzen diren gauza gehienekin bezalatsu, Jentilen Etorrerak ere jendearen parte-hartzea behar izaten du. Bestela ez du inongo zentzurik.

Baina jendea kalera atera dadin, ahalegin pixka bat edo puska bat egin beharra dago.

Lehendabiziko urte haietan ahalegin berezia egin genuen. “*Badator*” eta “*badatorrela*” kontsijnak erabili ziren herrian zehar jarri genituen karteletan.

Horrez aparte, etxe-atarietan, ate eta leihoetan, abarka, zintzarri, dunba, faroltxo piztuak eta beste hainbat gauza jartzeko eskatu genien herritarrei. Modu berezian, San Martingo Plazatik Iztatorrera bitartean zeuden etxeetako bizilagunei. Horrekin batera gainera, kaleko argi guztiak itzaltzen ziren zati horretan, balkoietako argitxoak eta Jentilen suzi-suak eta mendian pizten zirenak nabarmen ikus zitezzen. Horrek, giro berezia sortzen du inguruan eta biziki estimatzen du hori, batez ere kanpotik Atauna datorren bisitariak. Bitartean, txalapartaren soinua genuen kinki eta kanka Guutzako bordaren aurrean. Gogora dezagun, lehenbiziko urteetan gauerdia igaro eta gero egiten zela Jentilen Etorrera, Herri Afariaren ondoren, batzuetan 12 terdiak aldera ta beste urte batzuetan goizaldeko ordubata aldera.

### SUAK MENDIAN

Giroa sortzeko, beharrezkoa zen kaleari eta inguruari itxura ematea. Gauerditik aurrera egiten genuen Jentilen Etorrera eta bi erabaki hartu genituen: batetik, Jentilek eta kristauek egingo zuten ibilbidean argi guztiak itzaltzea. Beraz, hasi San Martingo plazatik eta Iztatorra bitartean argi guztiak itzalduta izango ziren. Bestetik berriz, kaleak ilunpean zirela, mendian suak egitea erabaki genuen, horrek giro berezia sortuko zuelako.

Suak pizteko leku batzuk izendatu genituen. Leku guztiak, kaletik, hau da desfilea egingo zen lekutik ikus zitezkeenak ziren. Hauek dira leku horiek: Jentilbaratza, Agerre, Guutza, Mendiola edo Kanpusantu gaina eta Kalakasene edo Altzani aldea.

Ez zen gauza samurra izan. Sasi-pilaren bati su ematen zitzaion hasiera hartan eta gero berriz, gurpil-kubiarta zaharrak erabaili ohi ziren suak indartsuago eta luzeago iraun zezan. Behin larri xamar ibili ginen, Mendiolako suarekin. Inguruko “*almitzek*” su hartu zuen eta berehalaxe zabaldu zen. Eskerrak, Garaialde edo Galdeko Martzelino Sukia erne ibili zen!

Hala ere, batez ere Jentilbaratzak eman zizkigun buruhausterik handienak. Jentilen Etorrera gauez egiten zenez, ilunpean joan behar zen arkaitzean gora Jentilbaratzara sua piztera. Eta hori bakarrik ez, Etorrera amaitutakoan sua itzali eta mailoan behera jaitsi behar zen gauez, ahuntzak ere larri ibiltzen diren mailo-malkarrean. “*Ibillaro xelebrea, txarra eta arriskutsua*”. “*Beldurrez aiden*” egoten ginen urtero, Jentilbaratzara joaten zirenak onik itzuli arte. Jentilbaratzako sua piztera, bi koinatu joaten ziren: Erremedioko Joxemari Aizpurua eta Iztatorko Joxe Urrestarazu. Portatu ziren eta eskerrik asko ematen diegu lerro hauen bidez.

Arriskua zela-eta, urte batzuk pasa eta gero, utzi egin genion Jentilbaratzan sua pizteari.

Beste su-lekuetan berriz, inguruko bizilagunak geneuzkan izendatuta: Agerreko sua hasieran Irubideko Bittor Eskisabelek eta gero Agerreraundi bertako Isidoro Bikuñak pizten zuen, Guutzakoa Ustatsoko Anjel Munduatek. Urteren baten Donjuaneneko Juan Goikoetxeak ere piztu zuen Guutzakoa. Mendiolakoa berriz, Okaiztiko Jexux Bikuñak eta “Galde”ko Martzelino Sukiak eta Altzani aldekoa, Kalakasenekoa Joakin Aizpuruak. Eginkizun horretan aritu zen baita ere urte bat baino gehiagotan Dupale edo Elizaldeko Fernando Martin zena.

Urte batzuz eutsi genion suak pizteko ohiturari baina batez ere, Jentilen Etorrera ekainetik azarora pasatu genuenetik, pixkanaka-pixkanaka uzten joan ginen.



Hasieran, sasi bidez pizten genuen sua eta gero Joxan Munduatek aurrena ta azken urteetan Santi Etxeberriak, inguratzen zituzten gurgil-kubiarta-zaharren bitartez.

Benetan giro aproposa sortzen zuen, kale guztia ilun eta mendian suak ikusteak. Herrikoek ere bai baina batez ere, kanpotarrek esker-tzen zuten, ekaineko gauerdian sortzen zen giro berezia. Berez gau motza zena, luzatu bezala egiten zuen su-giroak.



## LEHENDABIZIKO URTEAK

Horrelaxe abiatu ginen poliki-poliki.

### 1982 ko Jentilaren Etorrera

Oinez ibiltzen hasi zen Jentilen Etorrera, zanbuluka-zanbuluka, eta ez genekien zenbat bide egingo zuen baina tipi-tapa, pauso sendoz aurrera egiten erakutsi behar izan genion.

Lehendabiziko Jentilen Etorrerak izan zuen arrakasta ikusita, indartsu ekin zion antolatzaile-taldeak bigarren urteari.

Maiatzaren 22an egin zen Lehen bilera. Oargin. Joxe Bikuñak eman zituen argibideak eta bilera horretan partaide izan ziren ondorengo herritar hauek: Joxan Dorronsoro, Iñaki Eskisabel “Espilla”, Maixa Goi-koetxea, Klaudio Barandiaran, Karmele Begiristain, Martin Aramendi, Fermin Aramendi eta Jon Aizpurua.

Aztertu zen gaietako bat zera izan zen: nola osatu Mikelats Jentil-buruak berarekin ekarri behar zituen 40 seme-alabak.

Banaketa honela egin zen: Oargik 15 lagun jarriko zituen, Ikastolak beste 15 eta aparte 10 lagun behar ziren.

Horrez gain, palankariak, ikazkinak, aizkolariak, artzaiak, danborjolea, Alkatea eta bere emaztea, Apaiza eta sakristaua, Idazkaria eta bere emaztea, Botikarioa eta bere emaztea, Epailea eta bere emaztea, medikua eta bere emaztea, alguazilak, jentilaren laguntzaileak eta beste eginkizun batzuk aztertu ziren.

Bigarren bilera maiatzaren 28an izan zen Oargin eta hauek izan ziren partaide: Joxe, Jabi eta Jexux Bikuña, Ines eta Jema Arruabarrena, Pili Arrondo, Marian Aierbe, Karmele Begiristain, Rakel Alkorta, Maixa Goi-koetxea, Joxe Rezola, Antonio Altolagirre, Pello Kerejeta, Joxemari Goi-koetxea, Joxan Munduate, Martin Aramendi eta Jon Aizpurua.

Hirugarren bilera ekainaren 2an egin zen. Partaideak hauek izan ziren: Klaudio Barandiaran, Joxan Munduate, Jabier Bikuña, Jema

Arruabarrena, Ines Arruabarrena, Pili Arrondo, Joxe Bikuña, Martin Aramendi, Rakel Alkorta, Jexux Bikuña, Antonio Altolagirre, Karmele Begiristain, Iñaki Eskisabel “Espilla”, Jose Inazio Irastortza “Zitro” eta Jon Aizpurua.

Laugarren bilera bat ere egin behar izan zen. Ekainaren 7an izan zen, astelehenez, hau da Jentilen Etorrera egin baino lau egun lehenago. Partaide asko agertu ziren. 29 lagun guztira: Doroteo Barandiaran, Martin Aramendi, Klaudio Barandiaran, Jabier Bikuña, Luis Agirre, Ramona Auzmendi, Angel Elias, Joxan Munduate, Jaione Munduate, Garbiñe Eskisabel, Pili Arrondo, Maria Jose Munduate, Juanjo Arratibel, Josu Etxeberria, Joxe Bikuña, Pello Arrondo, Pello Kerejeta, Iñaki Goikoetxea, Patxi Agirre, Karmele Begiristain, Jema Arruabarrena, Ines Arruabarrena, Jexux Bikuña, Beñat Munduate, Jose Inazio Barandiaran, Joakin Aldabe, Antonio Altolagirre, Jexux Eskisabel “Espilla” eta Jon Aizpurua.

Azkenean era honetara egin zen pertsonaia eta lan-banaketa:


Oargi-Troskaeta elkarteak 15 jentiltar hauek jarri zituen:

- Lander Imaz.
- Niko Aizpurua.
- Garbiñe Eskisabel.
- Pili Arrondo.
- Jose Inazio Barandiaran.
- Juanjo Arratibel.
- Josu Eskisabel.
- Josu Etxeberria.
- Andres Arrondo.
- Pello Arrondo.
- Jaione Munduate.
- Maria Jose Munduate.
- Ima Aramendi.
- Marixol Agirre.
- Joxe Begiristain.

Horrez aparte, lan banaketa hau egin zen:

- **Mikelats Jentila eta Amaia emaztea:** Joxe Bikuña eta Ramona Auzmendi.
- **Jentilaren laguntzaileak:** Luis Agirre eta Imanol Sampedro.
- **Seme-alabak:** Jabier Bikuña, Jexux Bikuña, Beñat Munduate, Ines Arruabarrena, Jema Arruabarrena, Jose Inazio Irastortza “Zitro” Amebikoa, Luzio eta Juan Goikoetxea Iturtxokoak, Joakin Aldabe Artzulokoa, Iñaki Goikoetxea eta Ramontxo Goikoetxea Bidebietakoak.
- **Alkatea eta bere emaztea:** Klaudio Barandiaran eta Marian Aierbe.
- **Pregoilaria:** Doroteo Barandiaran.
- **Danbor-jolea:** Joxe Barandiaran.
- **Bikarioa:** Joxan Munduate.
- **Sorgina:** Justina Zeberio.
- **Idazkaria eta bere emaztea:** Patxi Agirre eta Rakel Alkorta.
- **Botikaria eta bere emaztea:** Martin Aramendi eta Karmele Begiristain.
- **Epailea eta bere emaztea:** Antonio Altolagirre eta Anttoni Lasa.
- **Medikua eta bere emaztea:** Iñaki Eskisabel “Espilla” eta Maixa Goikoetxea.
- **Palankariak:** Joxe Rezola eta Pello Kerejeta.
- **Ikazkinak:** Azentzio Aierbe, Angel Elias eta Felix Eskisabel.
- **Aizkolariak:** Tomas Erauskin eta Juanito Urteaga “Uzkudun”.
- **Artzaia:** Inazio Garmendia.
- **Alguazilak:** Pello Munduate eta Guillermo Galparsoro.
- **Seme-alaben erropak zakuz:** Ramona Auzmendi.
- **Soinujoleak:** Piedad Barandiaran eta ikasleak.
- **Astoak:** Larratzeko Aitor Auzmendi eta Espillado Josu Eskisabel.
- **Ikurriña:** Koldo Imaz.
- **Dunbak:** Pello Kerejeta.
- **Zuziak:** Jose Inazio Barandiaran, Txema Urrestarazu eta Jon Aizpurua.
- **Pelukak:** Ane Aseginolaza.
- **Megafonia lanetan,** Axintxio Barandiaran aritu zen eta inguruan ziren Santi Etxeberria eta Iñaki Eskisabel Errotaberrikoa.

1982ko Jentilen Etorrera ekainaren 11, ostiralez egin zen. Gaueko 11.30etan elkartu ziren Jentiltarrak Arratetan eta 12etan hasi zen ikus-kizuna Iztator Zaharreko bidegurutzean. Suak piztu ziren mendietan eta txalapartariak jo eta jo aritu ziren.



Seme-alaberi enopalk sakuekin - (Ines, Jena, Jaki eta)  
Ramonitarenkin egoteko

DARGIko 15 lagun izendatzea - (Juanxo)

Dantzariak - (Berriso inbertitatu)

Txalaparta - (Juanxo)

Soinujoleak - (Piedad eta ikasleak)

Ahiztoiak - (Juanxo)

ABIXATU - Anttoni Ugaldetxea,  
Joakin Aldate,  
Felix Eskisabel,  
Frantzenta,  
Anttoni Ugaldetxea,  
Ramontxo,  
Iñaki Gorikotxea,  
Jahier Aiatana  
Inazio Karmiseroa

Abelaguna  
Joze Bikuna, Rakel eta.

Doroete Barandiaran (Juanxo)

Pisomari Munduate eta Gillerimo Galparsoro (Juanxo)

Durbalk - (Pisoi berejeta)

DATORREN ASTELEHENEZ, iluntzello 8 1/2 etan.

DARGI n

## 1983an PARTE HARTZEKO DEIA

Dezenteko buruhaustekoak eman izan dizkigu beti, jendearen parte-hartzeak. Batzutan erraza ematen du ta badirudi mundu guztia parte-hartzeko irrikitan dagoela baina gehienetan ez da horrela izaten eta zaila izan ohi da jendearen konpromezua lortzea.

1983an gutun pertsonalak egitea erabaki genuen. Zerrenda bat egin, parte har zezaketen pertsonak zerrendan jarri eta “*konfidantza-tonuko*” gutuna idatzi. Esperientzia ona izan zen oso. Ez dakit gero zergatik ez genuen bide horretatik segi...

Ondoko hau da 1983an parte-hartzaile posibleei igorri genien gonbite-gutuna:

*“JENTILA BA DATOR...*

*Samartingo festak gainean ditugu eta festa hasiera bezala, aurten ere herri Afariaren ondoren, iaz bezala, Jentila etorriko da Samartin aldera, munduan zehar 2000 urtez ibili ondoren. Eta Jentila aurten gainera, bere emazte eta 40 seme-alabak hartuta etorriko da, gure artean ondo hartua izango den esperantzan. Jakin dugunez, iaz negarrez joan omen zen Jentila, Ataun utzi beharraren penaz. Baina orduko negarrak eta penak aurten uxatuko ditugu Jentilaren bihotz-begietatik. Horixe egin behar dugu guk ere gure alde-tik Samartingo festa hauetan: pozik eta gustora pasatu.*

*Eta hortarako hoberena, Jentilari ongi-etorri on bat egitea, zaharrak eta gazteek parte hartuz.*

*Aurreko larunbatean elkartu ginen OARGIn hamar lagun borretaz hitz egiteko: Joxan Txatin, Joxe Okariztikoa, Joxe Rezola, Zaindiko Joantxo, Espilako Iñaki, Klaudio, Artzuloko Maixa, Dornaiñeko Marikarmen, Txominoneko Martin eta bere seme Fermin.*

*Bilera horretan, ongi-etorri horretan parte-bartuko duten pertsonaje batzuk izendatu genituen eta klaro, pertsonaje horien papera egingo duten samartindarren izenak. Samartindar boietako bat zara zu. Klase guztietako pajarook izan-  
do dira hor: Alkatea, Bikarioa, Koadjutorea, Jueza, Sekretarioa, Botikarioa, alguazilak, pregonerua. Batzuk emazte ta guzti gainera. Aparte, palankalariak, artzaiak, danbor-joleak, aizkolariak, ikazkinak eta auskalo zein gehiago!*

*Hortan parte hartzeko izendatuta zaudenez, hurrengo bilerara deitzen zaitugu idatzi honen bitartez.*

*Aurreko bileran gauza bat geratu zen argi eta garbi: festak ez direla eskuak tolestaturik, abo zabalik begira egoteko, parte-bartuz bakoitzak ere festa egiteko baizik. Horretan lagunduko duzulakoan deitzen zaitugu, DATORREN OSTI-RALA, maiatzak 28, iluntzeko 8 etan, OARGIn.*

*Mikelats da Jentila,  
euskaldun zabarra,  
izatez ta jaiotzez  
guztiz ataundarra,  
mendi artetik presko  
datorren indarra,  
badaukagu Ataunen  
beraren beharra.*

JENTILA BA DATOR...

1783

Samantingop festak ganean dituz eta festa hasera bezala auzten ere Horri Sporianen ondoren, iaz bezala, jentilak etorriko da Samantín aldera, munduan zehar 2000 urte luze ibili ondoren. Eta jentila auzten gainera bere emaste eta 40 seme-alabak hartuta etorriko da, que artean ondo hartua izango den esperantzan. Jakin du gurez, iaz negarez joan omen zen jentila, etan utzi beharrenez. Baina orduko negarrik eta penarik auzten uxatuko dituz jentilaren hitoz-behietatik. Honez bera egin behar duzu que ere que re aldehik Samantingop festa hartan: pozik eta gustora pasatu. Eta hortarako ~~bat~~ hobereua, jentilari ongi-etorri on bat egitea da, zaharrik eta gazteak parte hartuz.

Auztegozko laruntatean elkarre ginen DARGIN hamar lagun horietaz hitz egitako: Joxan Txetxi, Joxe Okaristilko, Joxe Rasola, Juanjo Espilako Iñaki, Klaudio, Artzaboko Maixa, Doruainello Marilbarren, eta Txominello Martin eta bere seme Txermitxo.

Bilera horietan, ongi-etorri horietan parte-hartuko dituen pertsonaje batzuk izendatu genduen eta klaro, pertsonaje horien paperez egingo dituen samantindarren izenak. Samantindar horietako bat zara ze. Klase quetietako pajarok izango dira hor: Elhateak, Bikaiza, Koadjutorea, Jusa, <sup>Botifariak</sup> Selbretaria, Alquezarrik, Pregoneria. Batzuk emaste eta gusti gainera. Spaste, palantalarrik, artearrik, Danbor-goleak, Auztearrik, Ikararrik eta auzteak ser gabeak!

Hortan parte-hartuko izendatua zaudenez, hurrengo literara deitzen d zaituqu idatzi honen hitartez...

Bilera hartan gauza bat gertatu zen arki eta garri: ~~bat~~ festak ez direla ilunak tolestaturik aho zaballik begira e-goteko, parte-hartuz baloizak ere bere festa egiteko bariak. Horietan launduko duzelakoan deitzen zaituqu, DATORREN OSTIRALA, MAIA-TZAK 28, iluntzeko 8 etan Oskoin

## 1984 ko Jentilaren Etorrera

Paper zahar artean, 1984 ko deialdi hau ageri zaigu. Bitxia da, batez ere, herriko giroa eta Jentilaren Etorrerak zuen helburua agertzen dituelako. Argi erakusten du gainera, hasiera-hasieratik oso beharrezkoa zela jendeak parte hartzea.

Hauxe da hitzez-hitz deialdiak ziona:

*“1984 ko GARAIPEN JAIK.*

*JENTILAREN ETORRERA. Ekainaren 15a. Ostirala. Gaueko 11etan.*

**BADATOR, BADATOR AURTEN ERE JENTILA!!!**

Oraintxe hiru urte ospatzen genuen lehenbiziko JENTILAREN ETORRERA. 1981 eko ekainaren 12a zen. Ataundar guztiok atera ginen kalera ongi etorria ematera eta bide batez, behin betikoz bazterturik izan dugun jentil-jendearekin PAKEAK egitera.

Pakeak egin ditugu eta adiskidetasunean biziko garela agindu ere agindu dugu.

JENTILAREN ETORRERA herriaren muinera iritsi da. Guztiok gustatu izan zaigu eta herritik kanpora ere fama hartu duela esan behar.

Aurreko hiru urteetan bezala, aurten ere badator JENTILA bere familia guztiarekin. Lazkao-txikik lehenbiziko urtean esan zuen bezala: “ENTZUTEN DA DAGOENEKOK JENTILEN LIZAR MAKILEN HOTSATSA”.

Laugarren urtea da aurtengoa eta norbaitek pentsatuko du aldatu egin behar dela. Historia egin du eta historia hori mantendu egin behar da, beti ere urtetik urtera zerbait berria jarriaz.

Gauzak aldatzeko ordea, jendearen partehartzea nahita nahiezkoa da eta partehartze hori izan ezker, pertsonaia berriak sortzen dira.

Gauza bat dago argi ordea: festak hasteko modu orijinal bat aurkitu dugula eta aurrera ateratzeak ematen dituen lanak kontutan izanik, hemendik aurrera ere mantentzea merezi duela uste dugu.

GARAIPEN JAIK eta JENTILAREN ETORRERA ostiralean.

Kalean izan behar dugu guztiok ONGIETORRIA eman asmoz.

BADATOR, BADATOR AURTEN ERE JENTILA!!!

Orriaren beste aldean, Jentilen eta Herritarren arteko pertsonaia aipagarrienak agertzen ziren. Horrekin batera bertso bat ere bai.

### **JENTILAK**

MIKELATS  
AMAIA  
40 SEME-ALABA  
PALANKALARIAK  
IKAZKINAK  
SORGINA  
SORGIN-TXIKIAK  
ARTZAIAK

### **HERRITARRAK**

ALKATEA  
APAIZA.(Sakristau eta akolito)  
JUEZA ETA EMAZTEA  
SEKRETARIOA ETA EMAZTEA  
SENDAGILEA ETA EMAZTEA  
NESKAMEA  
AITOR (Mikelats eta Amaiaren Semea)  
MARTIN-TXIKI  
DANTZARIAK  
MIKELETEAK  
SOINUJOLE-TXISTULARIAK  
TRIKITILARI-TXALAPARTA

MIKELATS da Jentila,  
euskaldun zaharra,  
izatez eta jaiotzez  
guztiz ataundarra.  
Mendi artetik presko  
datorren indarra,  
badaukagu Ataunen  
beraren beharra.

BADATOR, BADATOR AURTEN ERE JENTILA!!!

## 1985 - 1991

Urte guztiotan aldaketa handirik gabe egin zen Jentilen Etorrera. Beti ekainean egiten zen eta beti gauerdi aldera, gehienetan Garaipen Jaien barruan egin ohi zen herri-afariaren ondoren.

Pertsonaia nagusiak urteroko berak ziren: Mikelats Jentil-burua, Apaiza eta Alkatea. Hauen inguruan ageri ziren Samartin txiki eta Sorginak.

Pertsonaia nagusiek egin beharreko hitzaldiak ere berberak edo oso antzekoak ziren urtero. Mikelats jentilak aldatzen zuen testua zer-bait, Apaizak “bapateko” ziriren bat sartzen zuen tartean eta Alkateak berriz, zorrotz eusten zion urteroko hitzaldiari.

Aldaketa bakarra, pertsonaien papera egin behar zuten herritarren aldetik izan zen. Aldaketak izan ziren urte batzuetan.

Alkate paperean Klaudio Barandiarani txanda hartuz Ameskabiko Martin Barandiaran aritu zen urte batzuz. Modu zoragarrian aritu ere. Gogoan ditu, Alkate-makila eskuan agintari zorrotzaren itxuran, Martinek utzi zizkigun estanpak.

Alkate paperean aritu zen baita ere urteren batean Dornaiñeko Juan Bautista Etxeberria. Primeran eta egoki bete zuen bere lana.

Esan dezagun, bai Martin eta baita Juan Bautista ere antzezle onak zirela. Biek hartu zuten parte 1984an eta 1987an Ataunen egin ziren herri-antzerkietan eta geroztik Martinek gehiagotan ere parte hartu izan du, beti maila handiz Jentilen Etorreran baina Juan Bautista Etxeberriak ez. Gustora ikusiko genuke berriro tranpaldoaren gainean!

Aldaketa gehiago ere izan zen.

Apaiz-lanean adibidez, Joxan Munduate aritu zen urterik gehienetan baina hark utzi ondoren, Errotakaleko Martin Arruabarrena aritu zen. Gero hasi zen Joxerramun Munduate, pertsonaia hori betetzen.

Sorginetan ere izan zen aldaketarik. Sorgin-papera egiten eta bide-ratzen aritu zen urteotan Espillako Pili Eskisabel eta lan asko egin zuen baita ere Andreseneko Beatriz Aierbek. Inguruan lagun gehiago izan zituzten eta lan bikaina eta garrantzitsua egin zuten, Justina Zeberioek lan horretan utzi zuen hutsunea betetzen eta sorginen presentziari indarra ematen.

## 1 1992AN GARAI BERRIA

Aldaketa urtea izan zen 1992a.

Aurreko urtean, hau da 1991ean, ez zen Jentilen Etorrerarik egin. Gorabehera askoko urtea izan zen eta ekainean, San Martingo festak antolatzeko ere nahikoa zailtasun izan zen. Estu eta larri ibili ziren jende-faltaz baina azkenean festak egin ziren, hori bai, Jentilen Etorrerarik gabe.

Gauzak horrela, hurrengo urtean berriro Jentilen Etorrera egiteko taldetxo bat elkartu zen eta lanari ekin zion.

Korrika eta presaka izan zen.

Lehendabiziko bilera, 1992ko irailaren 29an egin zuen taldeak Atsedeneku Jubilatuen egoitzan.

Bilera hartan ziren:

Xabier Barandiaran Ameskabikoa,

Santi Etxeberria Zubiondokoa,

Koldo Aldabe Artzulokoa,

Arantzazu Agirre Altzanipekoa,

Joxe Bikuña Okariztikoa

eta Jon Aizpurua Zaindikoa.

Eskuei txistua eman eta lanari heltzea erabaki zen. Hilabete terdi falta zen San Martineterako eta beraz, azkar egin behar ziren egitekoak.

Bilera horretan erabaki zen Mikelats Jentila, Alkatea eta Apaiza izango zirela Jentilen Etorrera ikuskizunaren ardatz. Samartin Txikik berriz, Iztatorreko ongi-etorrian agertu behar zuen korrika, Jentilen aurretik albisteren bat ematera eta galaleak botaz.

Erabaki zenez baita ere, Sorginek historiaren bat antzeztu behar zuten suaren inguruan dantzatzuz.

# JENTILEN ETORRERA

92-IX-29a  
Asteartea

Jubilatuaren Egutzan

Xabi Barandiaran, Sauti Ete  
berria, Aldebe, Arantxazu  
Joxe Bikuna (ja bizirik).

⇒ IDEIA porritak ⇒ Uxumi-rena ANTZESTU !!! (Leizate ta Arbauletak)

⇒ Jentilisu EUZD egiten...!! ⇒ Jida zuri, aida porre  
zelatan dagoen andra hori  
Stallioz ezkerreko beje.

⇒ Samartun txilli.

⇒ Jentilisa Jentilonean (?) - Enakumea beje. Ballar.

⇒ Nariatxaketa kantuan !!!

⇒ ~~MARIN~~ TXUR-rena Ezstalonen. Urnikla dater ta jero ospa.

⇒ Jegunde onatsaldean.

⇒ Jentila, Aldebe ta Spanga inautendu !!!

⇒ Azentzio illatza egiten - Bukararallo !!!

⇒ Gurdian lanqitza diferentiale ezzen-flatu : erremontari.

⇒ Sogayrell suaren buelta - (Historia bat.)

⇒ Partaideak, ezizial, KONTSKI BUSU.

f Kanta joxerak edo  
Errotak.

Eta beste erabaki bat ere hartu zen, urteen joanean indar berezia izan duena. Propio Jentilen Etorrerarako kantu bat egitea. Sarritan aipatzen genuen, saioaren amaieran antzesle guztiek kantuan egin beharko luketela. Kantu bat behar genuen beraz eta urte honetan sortu zen, urtero-urtero Jentilen Etorrera amaitzerakoan kantatzen den Aio, Aio, Aio...

Kantuaren letra Jon Aizpuruak idatzi zuen eta musika jartzea berriz Joxerra Gartziak egin zuen, eskuzabal.

Urte seinalatua izan zen 1992a.

Aurreko urteetan gutxitzen ari zen jendearen partaidetza handitu egin zen berriro.

Ondorengo zerrendan ageri dira 1992ko Jentilen Etorrerak izan zituen zenbait osagai:

- Kale Nagusiko argiak itzaldu eta Elizako kanpaiak astindu ziren.
- Etxeetako leihoetan argigarriak eta apaingarriak jarri ziren.
- Suak piztu ziren Jentilbaratzen, Agerren, Guutzan, Mendiolan eta Altzanin.
- Kanean egin zen desfilean, Jentil eta kristau jendearekin batera, Ermentariak gurdian, ikazkinak, aizkolariak, artzaiak, palankariak eta artzaiak agertu ziren.
- Soinujoleak eta txistulariak izan ziren.

Horrelaxe ekin zion Jentilen Etorrerak garai berriari.

Urte hartan azaroaren 15 igandez egin zen eta arratsaldeko 7etan.

JENTILU ren ETORRERA 92

Azaroak 15, Igandea  
7 eta

HASIERA:

ETZATORREN ONGI-ETORRIAS.

- ARGISU ITZELI: <sup>ta unibertsitate!!!</sup> Etxetako lekuetan ahal balitz kulturek
- SUDU PIZTU: <sup>edo jari argigari ta apungarri.</sup> Jentilbaratza, Agere, Guitza, Mendiala, Alzami.

→ JENDES 2AI ETZATORREN: ALWATEA ta bere EMDTEA

- BOTIBARRIOS
- BIBARRIOS:
- KADAJTODRES:
- SEKRETAARIOS:
- ALGUZIBU:
- MEDIKUS:
- EPDILEA (?)
- ERMENTARIO **CURDIAN**
- IKAZUNBU
- AIZUOLARIO
- ARTZIBU
- BALONKARIO

PREGONERUS.

→ SOINU-TOLESA, INBIBARRIO → Antzologia dantza

→ Alzami jentil dantza

(UNIBERTSUTE edo SOINUA.)

→ ALIXAFUEGOAK BOTIS:

→ ALWATEA: "Hemen Bajra dantza, Bajra dantza, NIMELSTS hor dantza.

→ MURRU - BANDERA trukaketa!!!

## **M**IKELATS JENTILAK FESTETARAKO GONBITEA

Urteen joanean, pertsonaia herrikoa, “*popularra*”, bihurtu zaigu Mikelats Jentila. Ataundarrok geure arteko bat gehiago bezala hartu izan dugu. Ataundar bat gehiago.

Horrela, 1999ean, Mikelatsen ahotan jarri zuten Samartin festetarako esku-programako gonbitea:

*Festara gatoz, festa jartzera,  
utziz mendi-tontor gainak  
eta gurekin batera datoz  
aztiak eta sorginak.  
Mondeju beltzak jango ditugu  
Ataunen bertan eginak,  
aker-saldatik urrup eginez  
ondo pasa Samartinak.*

(Beste bukaera bat ere bazuen aukeran).

*aker saldarik onena baino  
hobe dira Samartinak.*

## **G**IDOIAK IDAZTEKO PROZESUA

Nola idazten du gidoia Jon Aizpuruak?

Ondorengo lerrootan Jentilen Etorrerako gidoiak, testuak, zer bide izaten duen, argituko dugu.

Lehen-lehenik zera esan behar da: elkarrekin sekula inongo hartu-emanik izan ez duten pertsonaiak jartzen ditugula elkarrekin: Alkatea Mikelatsekin, Samartin Txiki Tortorekin, Apaiza Etsairekin, Marimunduko Apaizarekin, eta horrela hainbat nahasketa eta trukaketa.



Pertsonaia hauek ez dira, denak batera eta elkarrekin, inoiz inongo ipuin eta kontu-zaharretan agertzen. Hemen beraz, historia, pasadizo eta hartu-eman berriak sortzen ditu Jon Aizpuruak.

Oinarrian beti, garai bateko kontu zaharrak eta leiendak daude. Hamarretik bederatzitan Joxemigel Barandiaranek Ataunen bertan jasotako esaunda eta ipuinak daude baina “oso modu librean” moldatzen ditugunak.

Esan dezagun ipuin-zahar eta esaundak, ezin direla bere horretan antzeztu, batzutan luzeegiak direlako, beste batzuetan motzegiak eta noski, antzeztuak izateko prestatuak ez daudelako.

Gainera, Jentilen Etorreran pertsonaia berriak sortu ditugu eta urtero pertsonaia nagusi batzuk dabilzkigu historia batean eta bestean.

Urte batetik bestera, aldatu egiten ditugu ipuinak eta kontu zahar-rak, ikuskizuna erabat berrituz. Horretarako, Jentilen Etorrera egin baino hilabete batzuk lehenago, bileratxo batzuk egin ohi ditu antolaketa lanetan ari den taldetxoak eta hor Jon Aizpurua gidoilariak urte horretan zer ipuin edo kontu-zahar antzeztu daitezkeen aipatzen du. Denen artean aztertzen da zein ipuin izan litezkeen egokienak eta horretarako bi oinarri erabiltzen dira: batetik, ea ipuin hori antzesteko jenderik badugun eta bestetik, ea dekorazio eta muntaia aldetik egingarria den, alegia, modu nahikoa ximplean eta diru handitan sartu gabe egin dezakegun. Oinarri horiek kontuan hartuz erabakitzen da zein historiren bueltan ibili behar duen urte horretako Jentilen Etorrerak.

Hor hasten da Jon gidoilaria, antzerki-testua harikaltzen. Eta gidoia idazterakoan, pertsonaia jakin bat nork antzeztu behar duen jakinda idazten du gidoia Jonek. Idazterakoan, aurrez badaki, ia kasurik gehienetan, pertsonaia bat edo beste, nork antzestuko duen. Garrantzi handia du alderdi honek! Jonek, pertsonaia nork jokatuko duen jakinda idazten du testua eta sarri askotan antzezlearen nortasuna eta itxura kontuan hartuz, idazten ditu testuak eta esaldiak.

Testuen luze-motza ere kontuan hartzen du gidoilariak. Aurrez badaki, zein aktorek izango duten behar hainbat denbora, testu luze xamarra behar bezala buruan hartu eta sinesgarritasuna emateko. Erabat alferrikakoa da, testu dotore eta luzeak prestatzea eta gero testu hura osorik ikasteko denborarik duenik ez izatea edo ez topatzea.

Alde horretatik, urte guztiotan Jentilen Etorrerako eginkizun edo paper nagusietan beti pertsona beretsuak izan ditugu jokalaria eta hori eskertzekoa izan da.

Ba da, puntu honetan, argitu beharreko beste datu bat. Hasiera-hasieratik eta urte guztiotan, beti pertsonai nagusi batzuen bueltan egin ohi da Jentilen Etorrera. Nahizta istorioak urtero aldatu, pertsonaia nagusiak beti hor dabilta, modu batera edo bestera, presentzia gehiagorekin edo gutxiagorekin. Esate baterako, Mikelats jentil-burua, Apaiz-erretorea, Alkatea, Torto begi-bakarra, Etsai edo Marimunduko Sorgina urtero ageri ohi dira han ez bada hemen. Eta noski, pertsonaia nagusi horiek antzetzuz beti herritar berdinak dabilta gero eta trebeago eta egokiago.

Esker oneko hitzak zor dizkiegu urte guztiotan aktore eta hizlari lanetan aritu direnei eta batez ere, antzerki luzeak egiten hasi ginenetik zama handi xamarra hartu duten guztiei. Esker ona zor diogu, Mikelats Jentil-buru lanean aritzen den Joxe Bikuñari, Apaiz-Erretore zorrotzaren barruan sartzen den Joxerramun Munduateri, Alkate maki-la dantzatzen duen Iñaki Rezolari, Torto indartsu eta maitekorra erakusten digun Tomas Erauskini, Samartin Txiki azkar, bizkor eta trebea sortu digun Joxe Arrondori, Etsai edo Deabru edo Patxi Ermentari edo Aker edo Otsoko agertu zaigun Fermin Aramendiri eta Sorginen buru Marimunduko, erabat gure bihurtu duen Maitane Aizpuruari.

Pertsonaia eta antzezle nagusi horiek, beti hor izan ditugu urtez-urte Jentilen Etorreraren bizkar-hezur eta aipatu ditugun herritar-aktore horiek, hortxe izan ditugu azken urteotako ikuskizunetan..

Eta horren inguruan beste pertsonaia eta antzezle asko aritu da.

Ba hori buruan izanda, hau da, pertsonaia nork jokatu behar duen jakinda, ekiten dio gidoilariak antzerki-testua idazteari. Kontuan hartzen du nork egin behar duen eta nork esan behar duen. Sarritan, behin entsaioak hasi eta gero, aldatu izan dugu testuaren zati bat edo hitzen bat, egokiago jo dugulako edota norbaitek esamolde aproposago bat erabili duelako, askotan antzezleak berak inprobisatzerakoan.

Ba dira beste bi arazo, antzerki-testua idazterakoan: batetik denboraren muga eta bestea, ipuin eta leiendak edo oso motzak direla edo bestela oso luzeak. Beraz gauza asko lotu behar dira: denbora jakin batean kontatu behar dira istorioak, historiak kontatzeko nahitaez denbora bat behar da, eszena batek bere erritmoa izan dezan dialogo bat sortu behar da eta horrek denbora darama eta pertsonai nagusi guztiek azaldu behar dutenez, hauei ere hitza eman behar zaie elkarrizketa guztietan.

Eta garrantzi handia duen beste puntu edo arlo bat ere bada: eszenario-aldaketak egiteko denbora behar da eta guk dauzkagun bitartekoekin ezin dira eszena oso motzak egin, eten asko izango genituzkeelako eta atsedentarte horiek betetzeko beste zerbait beharko genukeelako. Aitortu dezagun, sarritan, gehiegitan akaso, eszena batetik besterako bete-lana egiteko erabili ditugula txalapartariak eta baita Abesbatza bera ere.

## **A** DUR ibili zaigu laguntzen

Hasi ginenean ez genuen asko uste, hogeita bost urteko bidea egin behar genuenik!!!

“Adur” ibili da, nonbait, guri bidea erakusten. Garai bateko sinismen zaharretan askotan agertzen da “adur” indarra. Garai batean uste zuten, izaki eta gauza guztiek ba zutela beren irudia eta indar batek, “adur” indarrak lotzen zituela biak, hau da, izakia eta bere irudia. Horrela irudiari zerbait gertatu ezkeru, gauza bera gerta zekiokkeen izakiari edo gauzari berari ere.

Ba da Ataunen ipuin bat honela dioena: *“Beiñ ataundar bat Tolosako aztiana jun ementzan. Zea jakiñ nai zon eun da bealdiñ: ea nork lapurtu zion beie. Aztik seittun eman ementzion konponbidea. Zea esan omentzion: piztuzazu kandelat eta kandelea erretzekin batea ilkoa zuri beie lapurtuizuna. Aztik esandakoa ein ementzion ataundarrak eta kandelea erabat erre zanen, bee etxe inguruko auzo eo bizilaun bat ill omentzan. Ola jakin omentzon, zeintzan bee beie lapurtu zona”*.



## **Z**ER ADIERAZI NAHI DU JENTILEN ETORRERAK?

*“Jentila zein da? Ama Lurraren  
barrutik datorren hura.  
Iturri zaharrak ematen duen  
urak dakarren freskura”.*

*(2004 ko Jentilen Etorrerako koplak bat).*

Bi mundu, bi zibilizazio agertu nahi ditu aurrez-aurre Jentilen Etorrerak. Garai bateko mundu zaharra eta berriagoa. Paganismoa eta kristautasuna. Beste inork baino hobeto adierazi zuen Jentilen Etorreraren muina Lazkao Txiki miresgarriak.

Jentilen Etorrera egin genuen bigarren urtean, 1982 an, ondorengo bertso hau kantatu zuen Lazkao Txiki bihotzekoak, telefono-bidez Herri Irratirako, Bitor Jatetxetik gaueko 12ak aldera.

*“Kristauak bemen gaude herrian  
ta zuek Aizkoatean,  
Jentil maiteak zuen zai gaude  
kale guztiak betean.  
Bi kulturaren eztabaida bat  
daukagu geure artean,  
biok euskaldun geran ezker  
konpon gaitezen pakean”.*

## ZER DIRA MITOAK?

Argibide xume bat mitoak zer diren adierazteko.

Lehendabizi esan behar dena zera da: mitoak, imajinazioaren eta memoriaren herrian bizi direla eta tradizioan irauten dutela. Eta nik uste, neurri handi batean, Ataunen mundu horretan bizi izan garela oraintxe arte.

Tradizioan irauten dutela esan dugu. Eta egia da. Harrigarria da baina mitoek badute irauteko gaitasun berezia. Mundua ikaragarri aldatu da, zientziak izugarri aurreratu du, mito gehienak ia lekuz kanpo bezala ikusten ditugu baina hala ere iraun egiten dute.

Mitoak, orohar, gizakiak dituen galdera sakonenei eta bizitzaren misterioak eragiten duen jakin-min egon-ezinari erantzuten die.

Gehienetan fantasiaren munduan ageri zaigu mitoa, imajinarioaren esparruan eta badu eragin berezi eta majiko bat, guk munduaren aurrean dugun jarreran. Ia beti oso irudi eraginkorren bidez adierazten ditugu mitoak. Argi dago errealitateetik kanpora daudela baina aldi berean, errealitatearen esplikazio dira. Inguratzen gaituen munduari zentzu bat, esplikazio bat ematen diote. Batzuk diote errealitatearen ispilu direla eta ez irudimenak sortu dituen oinarririk gabeko fantasiak.

Ez gutxitan, talde-memoriaren parte bihurtzen dira eta geure kulturraren eta munduaz dugun ikuspegi erlijiosoaren oinarri balira bezala hartzen ditugu.

Gaur egungo gizartean hainbesteko eragina duten artista eta kirolarrien munduan, sarri askotan entzuten eta erabiltzen dugu mito deitura. Hemendik kanpora, zinean esate baterako, Ava Gardner bat, Bogart bat, ...Txirindularitzan Merckx, Anquetil, Indurain...Hurbilago, Iribar, Arconada, Indurain, Retegi...Pernando Amezketarra, Txirrita, Lazkao Txiki bera... Mitoak dira, mitoak... Gaur egungo jainko eta heroiak.

Grezia zaharrera, Erromara, Ejiptora, Bibliara eta antzinako zibilizazioetatik ere mito asko jaso ditugu. Badira mito bihurtu diren beste batzuk ere: Errege Magoak, Robinson, Superman, Frankenstein,...

Mito hitza gehienetan zerbait harrigarri, berezi, eredugarri eta memorian betirako gorde behar den zerbait gogoangarria adierazteko erabili ohi dugu.

Bitxia da, mito hitza bera adierazteko euskarak ez duela hitz propiorik izan. Begi-bistakoa da mito hitzaren jatorria greziarra dela: *mythos*, eta hasiera hartan, ipuin, kontakizun, hitz, esan nahi zuen.

Mito gehienak naturarekin lotuta daude. Animismoak jenio edo dibinitate bat jarri ohi zuen funtzio bakoitzaren ardurari. Dena zen sakratu garai haietan.

Zer da mitoa? Mitoak, gizakiak egiten dituen galdera haundiak erantzuten ditu.

Zientzia asko aurreratu dela esan dut lehenxeago eta lehen, mitoei ematen zuten munduaren esplikazioa zientziak eman ohi digula orain.

Ba mitoa eta zientzia "*neurri batean*" nahikoa antzekoak direla diotnik ere bada. Joxe Azurmendi irakurri izan diogu, azken finean historia estriktoa eta legendak bereizten ikasiz gero, ikasi ahal izango dela, beharbada, zientzia eta mitoa nahikoa berdinak direla azken finean. (Joxe Azurmendi, Euskaldunon Egunkaria 2000 ko urriak 15).

## A TAUNDARROK: JENTILAK ala OTSOAK GARA?



Ataunen, oso bertakoak izan ditugu beti Jentilak. *“Ikiarri aundik zien. Indartsuk oso... Pago-arbolea ipurditio atatzten zuen... Mallopuskak pelotea bezela botatzen zittuen mendi batetio bestea... Indartsuk eta azkarrak... Mundun beste inñun ezautzen etzien adelantuk zeuzkien ... Garie ta zerrea ta, nundio datozela ustetzue? Kristautasunekin bukauittuan kontu orik... Bakarren batzuk irauñ mentzien mendi goittan baño ez denboa askon...”*

Sarri entzun izan ditugu horrelako kontuak. Jentilei buruzko kontakizun, leienda eta ipuinak ugari izan ditugu, batez ere baserrietako supazter giroan. Zenbat ordu ez ote dituzte pasa aiton-amonek, langirorik ez, telebistarik ere ez, eguna motz eta sukaldeko epelean, istorio harrigarriak kontatzen, bizitzen, sortzen, asmatzen, antzetzten, ... Horri esker, irau du mundu majikoaren suak, arimak, gaur arte.

Eta irau dezala urte luzez. Gure esku dago, puska handi batean behintzat.

Ba da, gainera, gauza bitxi bat Ataunen. Hainbeste Jentil-kontu badugu gure inguruan eta “otso” deitzen gaituzte. Egia da Aia auzoko bizilagunei “jentilak” deitu izan zaiela edota gorpuzkera handi eta sendoko ataundarren bati “jentil” deitu izan diotela. Gainera, Altzoko Handiaren, ia 2’40 metroko gizasemearen parekorik ez dugu izan baina handiak eta indartsuak bai, istoria askotan agertu izan denez. Gogoan izan, esku-hutsez zezenak menderatzen zituen Amilletako mutilaren egiazko historia harrigarria.

Baina hori horrela izan arren, “Jentilak” ez baino “Otsoak” da, ataundarron izengoitia. Jakina da “Ochoa de Arin” batzuk izan ditugula herrian. Hortik datorkigu agian izengoitia edo beharbada, lehenagokoa zen eta Aringo semeak “otsoa” erantsi zion bere abizenari, ataundartasuna azpimarratuz.

Nolanahi ere, ez dakit jatorria nondik datorkion baina itxura batean egokiago dirudi ataundarrok “jentilak” ezizenaren jabe izatea. Baina ez da horrela. Aritu izan naiz Euskal Herrian beste herri batzuetako izengoitiak erreparatzen eta bada, niretzat behintzat gauza harrigarri bat: “otsoak” ezizenik ez du beste inork. Badira inon diren abere-animali-piztien izenak baina otsorik ez da ageri. Eta hori bakarrik ez!

“Jentilak” izengoitia leku bakarrean aurkitu dut. Non? Ez Ataundik oso urruti. Guk bezalaxe jentil kontuak presente dituen herri batean: Urdiainen. “Jentilak” deitzen diete urdiaindarrei edo bestela, “txokolateroak”. Sakonago aztertzea mereziko luke kontu honek, izan ere, kasualitatea ote?, Ataunek eta Urdiainek muga egiten dute. Ez ote gara azkenean denok otso, denok jentil?

## I NGURU MAJIKOA DUGU



Inguruak hitz egiten du Ataunen. *“Entzuten jakin behar!”*

Ni neroni, Elbarrenako Zaindi etxean jaioa naiz, nahizta ez garen orain han bizi.

Zaindi jaiotetxea aipatu dut, izan ere gure etxeak kale aldera zituen eta dituen bi leihoetatik eta baita sukaldeko leihoetatik ere, aurrez-aurre ikusten bait zen edo bait da Jentilbaratza. Behin leihoz kanpora begira jarriz gero, kale-zuloa bertan ikusten genuen baina begiak pixka bat jasota, han genituen Jentilbaratza inguruak, Arrateta gaineko mailoak, Limurita eta Pikandieta kobazulo aldeak, Agerre baserriak...

Ez da harritzekoa beraz, garai bateko Jentil-kontuak oso umetatik hurbil sentitzea.

Eta gu bezala ataundar gehiago ere izango da, noski.



Ataun osoan daude leku mitolojikoak, leiendak eta oraindik batera eta bestera *“ibilli men dailltzen”* pertsonaia, Jentil, Basajaun, jeinu, sorgin, azti eta bestelakoak.

Ba, Ataunen gure arbasoen mundu majikoa zenbaterainokoa den adierazteko, zerrenda batzuk prestatu ditugu.

Uste dugu lagungarri gertatuko direla. Batetik Ataunen dauden leku-mitolojikoek zerrenda. Bestetik leienda eta ipuin-lekuekin egin dugun zerrenda eta hirugarrena, ipuin eta leiendetan ageri diren pertsonaiekin osatu duguna.

## **A** TAUNGO MITOLOGIA-LEKUEN ZERRENDA

Leku-izen gehiago izango dira agian, baina zerrenda honek erakusten du argi, zein lotuak dauden mitologia eta Ataun.

Guztira 70 leku baino gehiago ageri dira esaunda edo leiendaren bati lotuta.

- Jentilbaratza.
- Agerre baserria.
- Leizadi mendia eta koba.
- Usategi koba.
- Ustatsoko koba.
- Iturriozko koba.
- Agamunda leizea.
- Ubeiko leizea.
- Malkorburu mendia.
- Urrezuloko armurea.
- Irumugata mendia.
- Balankaleku mendia.
- Askaata meatzuloa.
- Muskiko koba.
- Askoa haitzuloa.
- Sastarriko koba.
- Laminosin putzua.
- Sastei baserria.
- Aiarre baserria.
- Etxebeltz baserria.
- Imatzene baserria.
- Arratiñ baserria.
- Arbeldi baserria.
- Erroiondo baserria.
- Andralizeta baserria.
- Lauspeltz baserria.
- Arbileta baserria.
- Aitzarte Saltse baserria.
- Artzate baserria.
- Semo baserria.
- Tellerietxe baserria.
- Urkuola baserria.
- Mendiurkullu baserria.
- Bernoa mendia.
- Maumendi mendia.
- Zaindi etxea.
- Mandabita zubia.
- Armontaitz ingurua.
- Artzateaitz mailoa.
- Arastortz mendia.

- San Martingo Eliza.
- Mekolalde.
- Txuitxuita.
- San Gregorio Eliza.
- Katalinzubi.
- Aiaiturrieta.
- Agauntza ibaia.
- Agautz mendia.
- Arbotxoota.
- San Sebastian basiliza.
- Beotegi.
- Igartu.
- Igartza.
- Berrain baserria.
- Dantzaleku.
- Erreberentzileku.
- Intxusburu.
- Irukuutzeta.
- Iruzuloeta.
- Iturrisaindu.
- Kobatxoiturri.
- Umarki.
- Jentiletxe.
- Laioa.
- Olasagasti baserria.
- Sinolatza.
- Sorginpilota.
- Sorginiturri.
- Sorginzulo.
- Sorginzuloeta.
- Sugaarzulo Arrateta aldekoa.
- Sugaarzulo Aspildikoa.
- Trikuarrieta.
- Trikuegi.

Ataunen ez dauden arren, oso hurbilekoak ditugu baita ere gure herriko kontakizun eta kontu zaharretan ondoko leku hauek:

- Alotza. Ilargi-beteko gauetan dantza egiten omen zuten Jentilek beren errainuarekin.
- Ormazarreta. Aralarko leizea.
- Putterri mendia. Urre-lekua, putzua, zaldi zuria ...
- Mikel Goiangeruaren Aralarko Santutegia.

## **A**TAUNGO LEIENDEN ZERRENDA

Lekuak bezala leiendak ere ugari dira Ataunen.

Ipuin zahar, mito eta kontakizun asko dira gure herrian, Euskal Mitologiari lotuta daudenak.

Ondorengo hauek, gutxienez, ataundarren imajinarioan bizi izan dira, urte luzez, gaur arte.

Beti bezala, Joxemiel Barandiarani eskutik helduta osatu dugu zerrenda.

- BASAJAUNAren historia.
- KIXMI ta LEIZADIko AZKEN JENTILA.
- MUSKIko Basajauna eta Samartintxiki.
- AGERRE baserriko madarikazioa.
- SAN MARTINGo ELIZA egin zutenekoa.
- MUNDUZ MUNDU. Oilarra hartuta mundua ezagutzera joan zena.
- AGAMUNDAko leizean neska erori.
- PUTTERRIko urrea.
- URREZ beteriko idinarruak San Juan goizez.
- LAMIA Sastei baserrian.
- MARIMUNDUKOren ibilerak.
- AKELARREA Mandabitan.
- AKELARREA Bernoako Dantzalekun.
- SORGIN GAIZTOAren.
- SORGIN LAPURRAK.
- MARIri kultua eta Mariren koban nola jokatu.
- ALOTZAn dantza ilargi-betez.
- JENTIL HARROAaren arazoak.

- PATXI ERMENTARIren ibilerak.
- ARRATIÑ baserriko Jabierren pasadizoa.
- IZAR eta LAÑO.
- GIZONA eta SUGEA.
- ASTOA eta OTSOA.
- AXARKO, OTSOKO eta BELEKO.
- UMARKIko lapurrak.
- ARRUBIOak kozk.
- SAN JOAN SUAk.
- ASKAATA.
- USATEGIETA.
- BEGIZKO.
- ASKOA.
- Gizaki-hezurra argi egiteko.
- San Gregorio zaharraren irudia urez bustitzeko ohitura.
- Aizkora ahoz gora.
- Madarikazioak.
- Ostri. Itsasgorrieta.
- Itxusuria. Teilatuko ittutea.
- Gauez hiru itzuli etxeari.
- Ezkontza Ataunen.
- Hortzak surtara.
- Argiak hildakoei bidea.
- Andabidetik elizara hila.
- Etxeak ekialdera beti.
- Inusturi. (Trumoia).
- Zozomikateak.
- ...

## ATAUNEN AGERI DIREN PERTSONAIEN ZERRENDA

- Basajaun.
- Kixmi.
- Torto.
- Anxo.
- Alarabi.
- Maru.
- Jentilak.
- Mikelats.
- Atarrabi.
- Jentil harroa.
- Eate.
- Odei.
- Otsango.
- Marimunduko.
- Mari.
- Samartin Txiki.
- Izar eta laño.
- Azti.
- Sorginak.
- Lamiak.
- Maide eta Lamin.
- Arbeldiko neska.
- Sasteiko hiru anaiak.
- Etxebeltzeko hiru anaiak.
- Sugaar.
- Maju edo Sugaar. Mariren senarra.
- Erensuge.
- Kattalin.
- Gaueko.
- Inguma.
- Etsai.
- Oihulari.
- Mugarri.
- Irelu. Animali-itxurakoa.
- Patxi Ermentari.
- Zirpi Zarba.
- Mateo Txistu.
- Oxoko-Otsango.
- Akerra.
- Akerbeltz.
- Izugarri edo Izuargi.
- Dibinitateen mundua.
- Lur.
- Euzki. Argiari.
- Euzkibegi. Izarrari.
- Zezen Gorri.

## ATAUNGO LEKU-IZEN HARRIGARRIAK

Beste zerrenda bat ere prestatu nahi izan dugu. Ataunen dauden txokoak dira guztiak eta kasuren batean etxe-izenak.

Leku hauek ez daude zuzenean euskal mitologiari lotuta baina imaginazioa dantzan jarri eta historia berriak sortzeko balio dezakete.

Bitxiak badira behintzat eta har itzazue jolas modura.

- ALKANDORAN.
- ONDARTZA.
- UREZAINDI.
- EGILEOR.
- EGITXIKI.
- EGIZURI.
- EGILUZERREKA.
- EGIA.
- ASTABIZKAR.
- ASTALEPO.
- ARIBURRUKALEKU.
- AUNZBIDE.
- AZARIZULOETA.
- BELAITURRI.
- BEORRESI.
- EZKALUSORO.
- LIZTORRETAKO ITURRIA.
- MANDABIDEBUZTANA.
- OTSOBIDE.
- OTXOTXO.
- PUTREAPAL.
- PUTREMAILLO.
- SUGARZULOGAÑE.
- TRIKUEGI.
- TXIKITXAR.
- TXINGURRIETA.
- GAZTIÑERRE.
- INTXAURTXULOETA.
- LERTSUNDI.
- MARRUBILEKU.
- OTABELTZ.
- OTAMOTX.
- MUNDUATE.
- TXULO.
- SUSTRAI.
- KAMIÑO.
- SANTITURRI.
- ERREKAGAIZTO.
- BIDEGAIZTO.
- PASALEKUAUNDI.

- LOKATZA.
- LEKU-EDER.
- TOKI-EDER.
- GURUTZEA.
- NEARRITURRI.
- INBIDI-ERREKA.
- BIKOITZ.
- IRUBIDE.
- AMESKABI.
- OSIN-BERDE.
- KATILLUPUTZU.
- IKARANDIETA.
- ITURBELTZ.
- OTABELTZ.
- ERREKABELTZ.
- ETXABELTZ.
- AGINBELTZ.
- AIABELAUN.
- PAGADIERRE.
- PAGOBAKARRA.
- BAKOITZEKO GURUTZEA.
- ELURZULO.
- TXIKITXAR.
- DANBOLINSORO.
- EZTARRIKO SAROIA.
- ERASOLATZA.
- LAPURBIDE.
- LAPURBIDERREKA.
- ZULOBELTZ.

Gehiago ere badira noski.

Jolas egin nahi baduzue, baliagarri izango zaizue Ataungo Udalak 1999an argitaratu zuen Ataun osoko Mapa.

## **E** SAUNDAK eta LEIENDA NOLA eta NOIZ SORTZEN DIRA?

Zuk irakurle, inoiz galdetuko zenion zeure buruari, kontu zahar hauek noiz eta nola sortzen ote diren. Egian esan, erantzuna ez da xamurra.

Behin, galdera horixe egin genion propio Perunezarreko Joxemiel Barandiarani eta berak erantzun ziguna jaso dugu hemen hitzez-hitz:

*“Ezin dugu esan. Zaila da. Ez nola sortzen diren, ez nola eta ezta ere noiz... Badakigu oraingo esaundak nola sortzen diren baina lehenago-koak, hori ez dakigu. Ez ditugu bizi izan eta ezin da jakin. Mundu guztikoak eta bertakoak dira asko eta asko. Batzutan uste dugu gainera, hemen bertakoa bakarrik dela esaunda bat. Behin, Ataunen amak kontatu zidan ipuin bat jaso eta argitaratu nuen. Handik laster, Vienan ateratzen zen Antropologie aldizkarian lan bat argitaratu zuten: Itsaso Barea edo Pazifikoko, Nuevas Hebridak uharteetako ipuinak. Hemengo ipuin berbera agertzen zen han ere. Esan nuen nere baitan: ipui horiek ez dira oraingoak. Beharbada eman dizkiote munduari bi edo hiruzituzuli. Hemendik haruntza edo handik hona. Detaile berberak zituzten bi ipuinek. Horrek esan nabi du, beharbada, hartu-emanak izango zituztela noizbait. Horrelaxe gertatzen da. Zaila da jakitea zer den benetan bertako orijinala eta zer ez! Baina batzutan bai.*

*Adibidez, Jentilbaratzaz Ataunen esaten direnak, bertan sortuak izango dira nere ustez. Agerre baserrikoekin izandako barremanak agertzen dira.*

*Behin zera irakurri nion Frantziako literato bati: zer den bertakoa eta zer ez den? Bertakoa zera da: gai orokorrari eman zaion alda-keta. Beste guztia ez. Aldaera edo aldaketa hori da bertakoa. Beraz ez dago bat bakarra ere, oinetik hasi eta bururaino erabat orijinala denik. Mundu guztian dabilta bueltaka. Bertan egiten zaion alda-keta, aldaera edo eranskina, hori da bertakoa.*

*Horixe bakarrik da, esan dezakeguna”.*

## JENTILAK NOR ZIREN?



Teoria asko dago gai honetaz.

Guk, gure aurrekoengandik entzunda dakigu jentilak, kristautasuna iritsi aurretik hemen zeuden eta gero, kristatutu gabe iraun zuten euskaldunak zirela. Hori da gure arbasoengandik entzun duguna.

Aurreko horrekin batera, beste gauza batzuk ere entzun izan ditugu jentilei buruz hitz egiterakoan: mendian bizi zirela, garaiak eta indartsuak zirela. Normalean, hala esaten zuten gure aiton-amonek, bakean bizi ohi ziren kristauekin baina inoiz edo behin haserrealdiak izaten zituzten.

Eta ez ziren edozein!!! Badakigu bizkorrak zirela: garia ereiten, burdina lantzen eta beste hainbat aurrerapen jentilei esker ikasi eta lortu omen zuten kristauek, kasurik gehienetan Samartin Txikiren bidez.



## JENTILAK HAIN HANDIAK AL ZIREN?

Beti gizaki handi eta indartsutzat hartu izan ditugu Jentilak. Eta beharbada hala izango ziren noizbaitean. Burgosko Atapuercan agertu diren giza-aztarnarik zaharrenetan, gizaki erraldoien hezurrak aurkitu dituzte.

Gure inguru honetan ordea, Aralarren lurperatu zituzten gizakiak behintzat ez ziren batere handiak, gaurko neurrietatik ikusita behintzat.

Behin galdetu genion Joxemiel Barandiarani ea Aralarren trikuharrietan aurkitu eta aztertu zituen hezurrak jende handiarenak ziren.

Ustekabeko erantzuna jaso genuen Joxemielen ahotik:

*“Ez dut uste oso haundiak izango zirenik. Aralarko trikubarrietan aurkitutako hezurrak neurtuta, kalkulu batzuk egin izan ditugu: gizonezkoak 1.65-1.67 m. neurtuko zuten eta emakumezkoek 1.52-1.55 m. Hori bai, guk baino hortz hobeak zituzten eta matrail-bezur sendoagoa.*

*Norbaitek propio landutako, “tallatutako” hortzak ere aurkitu ditugu. Litekeena da gainera bizi-bizian landuak izatea. Munduan leku gutxitan egin izan da hori”.*

## **P**REGOILARIAK

### *“Bando, bando, bando,...Alkatek esan do”*

Bi pregoilari izan ditugu batez ere: Doroteo Barandiaran eta Dionisio Etxeberria. Tartean hala ere, Doroteok huts egin zuen urte batean Pello Munduate Ubarrikoa aritu zen, tenple eta umore onari eutsiz. Pello Munduateren ondoan, Xabier Barandiaran Dorronsoroenekoa atabalari eta Juan Eskisabel Errotaberrikoa laguntzaile aritu ziren.

Azkenean Doroteo eta Dionisio izan dira urteen joanean Jentilen Etorrerako pregoilari bihurtu direnak. Nork ez du entzun beraiek jota-ko bandoa?

Egin dezagun historia labur bat.

Pregoilaria, Jentilen Etorrera gehienetan agertu den pertsonaia da. Hasierako urteetan Alkatearen ondoan, protagonismo berezia hartu zuen pertsonaia zen.

Bere eginkizuna, garai batean bezala, Alkateak erabakitakoa herri-tarrei jakinaraztea zen. Lehendabiziko urteetan, ikusleak adi jartzeko balio izan zuen eta sona handia hartu zuen “Bando, bando, bando, Alkatek esan do...” esaldiak.

Esaldi nagusi hori, urtez-urte, beti izan da presente hutsik egin gabe.

Eskema ximplea izan ohi du pregoilariaren jardunak. Lehendabizi tuturua jo jendea adi jartzeko, ondoren atabalak giroa sortu eta azkenik bandoa irakurri ahots-goran eta lau haizetara.

Tuturua aipatu dugu eta ba du bere historia. Hasierako urteetan Doroteok erabili zuena, Arratetako harrobian leherketa-abisua emateko erabiltzen zuten tuturu edo korneta zen. Gero berriz, azken urteetan Dionisiok jotzen duena, Ameskabiko Martin Barandiaranek Asturiastik ekarritakoa da. Ikusi, gustatu, erosi eta propio ekarri zuen Martinek.



Esan dezagun pregoilariak lau emanaldi izaten zituela lehendabiziko urteetan: lehena Iztatorren Jentilak iristearekin batera, bigarrena Gutzapean, Botika parean, hirugarrena Paskual-iturri aurrean eta laugarrena Plazan udaletxe aurrean.

Jentilen Etorrera Kiroldegan antzezten hasi ginenetik, bost izan ohi dira geldialdiak eta emanaldiak. Lehena Plazan Jentilak iristearekin bat, bigarrena Paskual-iturri aurrean, hirugarrena Botika parean, laugarrena Urbieta eta Bitor jatetxeen atarian eta laugarrena Kiroldegan bertan tranpaldoren gainean.

Azken urteetan, garrantzi berezia hartu du pregoilariak, urte bakoitzeko gorabehera nagusien berri ematen duelako, bai herriko kaleetan zehar eta baita Antzerkiaren beraren aurkezpenean ere. Pixu berezia hartu zuen lehendabizi Doroteo Barandiaranen eskutik eta gero bere lekukoa hartu zuen Dionisio Etxeberriaren jardunetik.

Urtez urte gainera, herritarrengandik gero eta hurbilago dago eta azkar asko entzun eta jasotzen ditu zuzenean, herritarren kexuak, txaloak eta aholkuak.

## Atabalariak:

Pregoilariak beti izan du ondoan atabalaria.

Lehendabiziko urteetan Joxe Barandiaran Amilletakoa ibili zen bere ondoan eta gero berriz, Dorronsoro-eneko Xabier Barandiaran ere aritu zen Doroteoren alboan eta baita Pello Munduateren ondoan ere. Azken 15 urteotan, aurrena Doroteorekin eta ondoren Dionisiorekin, Bikuñaeneko Iñigo Bikuña ari da. Neurritz eta tenplez, ederki asko betetzen du bere eginkizuna.

Hasieran pregonerua deitzen genuena, pregoilari bihurtu da azken urteotan. Eta pregoilariak zabaltzen duen mezua ere aldatu egin da urteen joanean, garaian garaiko gertakizunei lotuta.



## DOROTEO BARANDIARAN (1981- 1995)

Doroteo Barandiaran. Elbarrenako Donjuanenehandikoa. Zer esango dugu Doroteoz? Indar handia eta grazia berezia eman zion Jentilen Etorrerari.

Bera bakarrik nahikoa zen, ikusleen artean gatzeta eta piperra banatu eta giroa sortzeko. Partaideen artean berriz, tentsioa eta urduritasuna alde batera utziarazi eta umore ona jartzen saiatuko zen buru-belarri.

Lan bikaina egin zuen zalantzarik gabe. Bazekien bandoari ziri eta broma-tonua ematen. Bazekien ikuslea zirikatzen eta xaxatzen. Eta bazekien, bapatean, bando berria sortzen.

Pregoilari figurari, itxura berezia eman zion Doroteok. Lehendabizi bibote-lodi zuzen bat erabili zuen sudur-azpian apaingarri. Gero berriz, ahoaren bi aldeetatik okotzera jaisten zen bibote sendoagoa. Figura maitagarria eta farregarria bihurtu zuen pregoilari-pertsonaia.

Doroteo gainera, txistularia eta danbolin-jolea izana zen eta bazuen eskarmentua, bere garaian benetako bandoak jotzen zituen Mielmari txistulariaren ondoan aritua zelako.





Hasierako urteetan, bandoa irakurri aurretik jotzen zuten tuturu edo korneta, Ataungo harrobian leherketa gertatu aurretik abisu emateko erabili ohi zutena zen. Gero ekarri zuten berria, Asturiastik, Ameskabiko Martin Barandiaranek eta hura erabili zuten Doroteok.

Hamalau urtez aritu zen Doroteo pregoilari-lanetan. 1995eko Jentilen Etorreraren amaieran, esker oneko omenaldi sentikorra eskaini genion.

Bihotzez estimatu zigun.

Baita guk ere, berak egin zuen lana. Ez dugu ahaztuko bizi garen artean!



## **D**IONISIO ETXEBERRIA (1996-2005)

Dionisio Etxeberria Aizpurua. Elbarrenako Urbitarte edo Tabla ize-neko etxean jaioa. Auzo bereko Lizardi etxean bizi da.

Lehendik ere Jentilen Etorreran partaide genuen Dionisio baina 1996ko Jentilen Etorreran hasi zen Doroteok hutsik utzi zigun lekua hartu eta pregoilari-lanak egiten.

Primeran betetzen du Dionisiok bere eginkizuna. Bere ahots sendoz eta ondoan izaten duen Iñigo Bikuña atabalariaren laguntzaz, argi eta ozen zabaltzen du lau haizeetara Alkatearen bandoa.

Orain gainera, garai batean ez bezala, urtero-urtero aldaketak izan ohi ditu bandoak eta Jentilen Etorrera beraren barruan ere, udaletxe aurretik Kiroldegira, aldaketak izan ohi ditu bandoaren testuak. Hitz berriak izaten dira eta Dionisiok primeran asmatzen du ikuslea zirikatzen edota erne ta azti ez dagoena sarean harrapatzen.



Dionisiok Abesbatzan hartu izan du parte urte guztiotan eta beraz, pregoilari lanaz gain, koplari eta kantari aritu beharra ere izan du azken urte guztiotan.

Bejondeizula Dionisio!



## **B**ANDOAK URTEZ URTE

### 1981-94 artean

*“Bando, bando,  
Alkatek esando:  
erritarrak asko poztutzeko,  
ta negarrak ta kontuk  
alde batea uzteko”.*

*“Bando, bando,  
Alkatek esando:  
Nikolas duela  
Jentillek izena,  
eztaula gizena  
ta jaten emateko”.*

*“Bando, bando,  
Alkatek esando:  
Gaur arte  
Aquí yo mando,  
Ta bihartik aurrera  
Jentilak herria jango dola”.*

### 1995

*“Bando, bando, bando,  
Alkatek itzeiñ bear do.  
Bando, bando, bando,  
Ixillik eoteko esan do”.*

*Bando, bando, bando,  
Alkatek esan do.  
Jentillek etoi diela  
ta iaz baño geio diela.  
Bando, bando, bando,  
Alkatek esan do”.*

### 1996

*“Bando, bando, bando,  
Alkatek esan do,  
Jentillek emen diela  
urtero bezela,  
ta beti beziñ narrats,  
ean buru Mikelats”.*

## 1997

*“Bando, bando, bando,  
Alkatek itzeiñ bear do.  
Bando, bando, bando,  
ixillik eoteko esan do”.*

*“Bando, bando, bando,  
Alkatek esando,  
Mikelats Jentille  
eztaula ondo  
ta goiko ta beeko,  
ixillik eoteko...”.*

*“Bando, bando, bando,  
Alkatek esan do,  
Mikelats jentille  
eztaula ondo,  
zerbait txarra jan do  
eo bestela ze eando?”.*

## 1998

*“Bando, bando, bando,  
Alkatek itzeiñ bear do.  
Bando, bando, bando,  
Apaizea zeñek eaman do?”*

*Bando, bando, bando,  
Alkatek itzeiñ bear do.  
Bando, bando, bando,  
Tortok Apaizea jan do”.*

*“Bando, bando, bando,  
Alkatek itzeiñ bear do,  
bando, bando, bando,  
ixillik eoteko esan do.*

*Bando, bando, bando,  
aurten apaizea eztue jango,  
baño bando, bando,  
jentillek gaiztok die izango”.*



## 2000

*“Bando, bando, bando,  
Alkatek esando:  
emen diela jentillek  
tente jarrita illek.*

*Bando, bando, bando,  
esandakoa entzun ondo:  
jentillek garie sobran,  
ta guk beiz, eztakiu zer jan!*

*Bando, bando, bando,  
t'apaizak esando:  
lotsagabe datozela,  
t'artzeko meezi bezela”.*

*Bando, bando, bando,  
iriki belarrik ta  
entzun ondo:  
jentillek garie sobran,  
ta kristauiek eztakiu zer jan”.*



## 2001

*“Bando, bando, bando,  
Alkatek esan do:  
gaiztok diela jentillek,  
bai biziik darenak  
eta bai illek...”*

*Bando, bando, bando,  
Alkatek aure esan do:  
Apaizea falta dala  
ta gauza onik eztala...  
Ta mendiñ txekor-gorrie  
suzkoa dona gorputzen erdie...”*

## 2002


*“Bando, bando, bando,  
Alkatek esan do:  
Jentillek emen diela  
ta artzeko meezi bezela.*

*Bando, bando, bando,  
Alkatek itzein bear do.  
Askotan esan do leene,  
Jartzeko belarrik erne,  
bestela izango diela  
komeri latzak emene...”.*

## 2003

*“Bando, bando, bando,  
alkatek esando:  
leor izan diela baztarrak,  
ta igartu diela zuztarrak,  
baño ez jentillen iztarrak”.*

*Bando, bando, bando,  
Alkatek aure esando:  
Torto ta Samartintxiki  
ill eintziela iaz,  
baño ez fiatzeko,  
kapaz diela emen azaltzeko”.*



## 2004

*“Bando, bando, bando,  
Alkatek esan do:  
emen diela jentillek,  
baldarrak eta abillek,  
iztunek eta ixillek,  
tente jarrita illek...”*

*Bando, bando, bando,  
Alkatek esan do:  
entzuteko ondo,  
eztola beiz esango.  
Lapurrek dailltzela errinñ,  
kalen bezela mendiñ,  
ta eztakilla zer eiñ!!!*

## 2005

*Bando, bando, bando,  
Alkatek esando:  
emen diela aurtene jentillek  
tente asko jarrita illek!!!*

*Bando, bando, bando,  
beste aure esando:  
bi adarreko Maruk dailltzela,  
kalte aundik eitten,  
jentillek naikoa gari  
ta kristauek ez gosari,  
ez bazkari, ez afari!!!  
Baño eoteko lasai,  
latzak artukoittuela,  
gaur bai, ta biarre bai!!!”*

## PUTTERRIKO URREA



Putterriko urrea, Jentilen Etorrera askotan agertu izan da. Beti, Apaizarekin lotuta ageri da. Apaiza urre-gose agertu izan dugu eta Putterriko urrea du amets.

Urte batean mendira joan eta apaizaren arrastorik ez zegoela kontatu genuen. Agertu zen halako batean baina nahikoa larri.

Beste bi urtetan Putterriko urrea ondoan zuela agertu izan dugu Apaiza.

Putterri, Ataungo leku edo puska jo izan dugu, gure mendi balitz bezala... Badakigu noski Nafarroa aldeko Aralarren dagoela eta Sakana bailarako herriek mira handia diote mendi honi.

## Putterriko urrearen historia

Putterri, Araña eta Lizarrusti gainean dagoen mendia da. Mendizale gehienek, Ataun aldetik joan behar badute behintzat, Lizarrustitik bertatik edo bestela “Quifosa” izenez ezaguna den zubiondotik gora joaten dira. Etxarrira bidean dagoen Araña izeneko ingurutik ere joan daiteke.

Ipuin zaharretan Putterriko kobari eta urreari buruzko bi bertσιο behintzat badira.

Bertsioetako bat Ataunen jaso da: honek dio Putterrin bazela koba misterioitsu bat eta kobaren barruan putzu bat zegoela. Esaundaren arabera, putzu hori igarotzea lortzen duenak, burdinezko ate batekin egingo du topo. Ate horrek isten du barruan mehategi eder bat duen galeria. Barruan gainera mehategian lan egiteko tresnak omen daude.

Beste bertσιοak, zera dio: Putterri mendian koba bat omen zen eta bertan bizi omen zen Mari, lur-azpian bizi diren beste jeinu batzuekin batera: Zezen-gorri, aker, ahari edota zaldi itxura hartzen duten jeinuak. Joxemiel Barandiaranek jaso duenez, Bueitarri izenez ageri da Putterri XIII. Mendean Irantzuko Monastegiko “Libro Rubro” deituan.

Ipuinek ziotenez, Putterriko koba horren sarreran bisitariak egiten zituzten oihuen oihartzuna, kobaren lekurik ezkutuenean bizi zen jeinuak ematen zuen erantzuna zela uste zen. Leiendak dio, kobaren amaiera mendiaren hegoaldeko amildegian dagoela eta leku horretan epuru-arbola baten ipurdian, urrez beteriko ardi-narru bat dagoela. (Barandiaran. Diccionario Mitologia Vasca).

Joxemiel Barandiaranek Lizarragabengoako Ramon Arratibeli entzunda jaso zuen 1955 ean.

## S ORGINAK



Nor da edo zein da sorgin?

Ba da sorginak eta lamiak bereizten duenik ere. Aditu batzuen esanetan, *Sorginak*, bataiatuak edo oker bataiatuak dira eta *Lamiak edo laminak* berriz, bataiatu gabeak.

Bi eratako sorginak daude: batzuk ahalmen bereziak zituzten emakumeak dira: izaki mitolojikoak.

Beste batzuk berriz, etsaiarekin edo deabruarekin tratua egiten dutenak dira. Hauek gainera akelarreetan parte hartzen dute eta gaizkia eta kalteak sortzen dituzte.

Majia egiten duten sorginak ere badira. “*Zain tiratu, zain urratu, zaina bere lekuan sartu*”. esaldia behin eta berriz esanez lortzen omen zuten gaisotasun eta oinaze sendaezinenak ere onbidean jartzea.



### Sorginak ba al dira? Inixio Tirrioren historia

Aspaldiko esaera da, “*Direnik ez da sinistu behar, ez direnik ez da esan behar...*” Historia bat edo beste ba da gai honen inguruan eta antzeztu ere egin izan ditugu Jentilen Etorreran.

Aspaldiko kontu zahar batek dionenez, ba zen Ataunen, “*Inixio Tirrio*” izeneko gizon bat. Aiton-amonek ziotenez, “*Inixio Tirrio*” morroi egon zen bolada batez Bidanian. Beti esan ohi zuen ez zuela sorgin eta azti kontuetan sinisten; inozokeriak zirela, ez zutela ez bururik ez hankarik... Behin ordea, lanean aritu ondoren etxerako bidean zihoala, hara non agertzen zaion sorgin-talde bat. Ez bat eta ez bi, aidean hartu eta ziztu batean eraman zuten “*Inixio Tirrio*” sorginek zera esaten zuten bitartean: “*Bageala baiño bagaittun, Zurdaneta ez beste guztik emen dittun...*” Handik aurrera, “*Inixio*”k ez omen zuen sekula gehiago sorginik ez zenik esan.

## NERBIOAK. KUTTUNAK

Nerbioak. Ez da erraza urduritasunari aurre egitea. Jentilen Etorrera egiteko eguna hurbildu ahala, beti agertzen dira ate-joka, zalantzak, kezkek, azken orduko ezinak eta ustekabeko korapiloak. Horrelakoe-tan *“tximeletak zalaparta batean hasten dira sabelean...”* Beti izaten da norbait *“bartuzak tila bat”* esango dizuna baina badakizu ondo asko, infusio xixtrin batek ez duela ezer konponduko.

Onea zera izan ohi da: dauden arazoak lagunei komentatzea... Gehienetan *“arindu earra”* hartzen da, arazoaren karga bizkar gehiagoren artean banatuko balitz bezala. Lagun batzuk etsipenez hartu ohi dute zama: *“Ala bearakoik...”* *“Zer eingo zoau ba...”* *“Aleñe eitten diau beintzet eta...”* *“Urrungoako bazekiau...”*

Beste batzuk berriz zorrotzago hartzen dute: *“Beti badiau zerbait...”* *“Itze eman ezkeo bete ein bear dik...”* *“Ola etzeok ibiltzeik...”* *“Batzuk adarrak austen eta beste batzuk adarra jotzen...”*

Egoera bere gordinean jartzen dutenak ere badira: *“Asteako jakiñe-on nola ibilli bear gendun...”* *“Dauzkeun bitartekok zeuzkeau eta alperrik dek...”*

Beti uste izan dut, arazoak-arazo, norbaitek *“kuttuna”* eramango zuela soinean, gauzak gero *“nabikoa ondo”* atera zitezen. Inork ez dit aitortu baina ziur naiz parte-hartzaile batek baino gehiagok *“laguntza estraren bat”* izango zuela aldean.

Hemendik aurrera norbaitek, Jentilen Etorrerakoan *“zorte ona”* nahi badu, eraman ditzaken *“kuttun”* batzuk aipatuko ditut hemen: garai batean, normalean lepotik zintzilika eraman ohi zuten poltsatxo bat: barruan txanponen bat, ikatz puskaren bat, apioa, zilbor-heste zatiren bat, oilo-gorotza... Beste kuttun batzuk ere izan ohi ziren: kristal edo koral puskak... Azkonar hatzaparra ere erabili ohi zuen jende batek edo kristalezko esferak...

## **E**SALDIRIK ERABILIENAK

### Tradiziotik jasotakoak

*“Izena don guztie omen da...”*

*“Direnik ez da sinistu behar, ez direnik ez da esan behar...”*

*“Gaue gauezkontzat da eune eunezkontzat...”*

*“Por la se, zalpate, funte fa,  
funte fi, txiri, biri, ekatsu, ekatsu, amen”.*

*“Oi ala bazan  
sartu deilla kalabazan  
ta azaldu deilla  
Ataungo plazan...”*

*“Sasi guztiñ gañetio  
eta odei guztiñ azpitio...”*

*“Sasi guztiñ azpitio  
eta odei guztiñ gañetio.”*

(Gaizki esan ezkeror. Ordu-erdi bat haruntza eta ordu-laurdena honuntza.)

*“Ez geala baño bagaittun,  
Maripetraliñ ez beste guztik  
emen gaittun...”*

*“Ez geala, ba geala,  
amalau mila emen geala...”*

*“Gaueko amabitan oillarran orroa, ingurun izangoa sorgin arroa”*

*“Akauta jende umana,  
eldu da jende perrua...  
Sortu da jende txiki perrua,  
ta akabatu da jende umana...”*

*“Amandre Santaines,  
bart eiñ det ames,  
eztaitt onez ala gaitzez,  
onez eiñ baet, betor ne bidez,  
gaitzez eiñ baet,  
jun deilla be bidez...”*

*“Amandre santa Ines,  
bart ein det amets,  
beiz eiñ eztehadala,  
ez gaitzez ta ez onez...”*

*“Aida zurie, aida gorrie,  
zelatan daun andra orri,  
ataiok beige...”*

*“Bela-atek emen zeuken  
ego'at oso motxa,  
eta bestea oso luzea.  
Oixe dek kuntu luzea”.*

*“Errege'atek emen zeuzken  
iru alaba.  
Jantzi ementzittun zuriz,  
jantzi ementzittun gorriz,  
Naizu esatea berriz?”*

*“Agerre Agerre dan bitarten,  
eztek etxe ontan  
eriik ta makiik paltako!!!  
Agerre Agerre dan bitarten  
eztek etxe ontan  
eriik ta makiik paltako!!!*

*“Orri irtete-arto ereitte...  
Orri leorte-arbi ereitte...  
Orri erorte-gari ereitte...”*

*“Mari gorri, gona gorri,  
biar euzki ala ebi?*

*“Amona mantalgorri,  
zerun zer berri?  
zerun berri onak  
oaiñ eta beti...”*

*“Illargi amandrea,  
ortziñ zer berri,  
ortziñ berri onak  
oaiñ eta beti...”*

*“Au iretzat eta ni Jainkoarentzat”*

*“Maripetraliñ  
eta Marisorgiñ,  
eguzkiñ azpiñ,  
polittago eziñ...”*

## Asmatutako esaldi sortuberriak

*“Ai Samartin txiki, ai Samartin txiki,  
beti aille ziriki-miriki,  
baño obe oke,  
guk aiñe baeki...”*

*“Ai Samartin txiki, ai Samartin Txiki,  
beti aille ziriki-miriki,  
baño obe oke,  
guk aiñe baeki,  
Ja, ja, ja, ...  
Erbi, erbi biurtuko aiz aurki...” (2004 )*

*“Jaiotzetio gea sorgiñek,  
era guztitta bikaiñek.  
Earrak dauzkeu ezpaiñek,  
earragok anka-zaiñek.  
Aker-saldea eanda,  
juten die gue miñek...”*

*“Patxi Aztie eta gu Sorgiñek,  
alde guztitatio beidautare bikaiñek...  
Earrak zeuzkenau ezpaiñek,  
earragok anka-zaiñek,  
aker-saldea eanda  
juten die gue miñek...” (1996)*

*“Artu ondo palanke,  
jarri ondo ankea,  
zaaldu birikea,  
ta akabo betiako  
Sugaarran kea...”*

*“Gaueko amabittan oillarran kukurrukue,  
orduntxe aker-saldatan  
sorgiñen eskue...”*

## **D**ATU HISTORIKO ZENBAIT

### 1981

- HASIERA. Udaletxean ta Plazan. Ekainean, Garaipen Jaiei barruan.
- Ondorengo urte guztietan 1992a arte, Baratzuri-zopa izaten zen Jentilen Etorreraren ondoren.

### 1982-1991

- Beti udan, ekainean Garaipen Jaietan egin zen urte guztiotan.
- Gehienetan Udaletxe aurrean egin ohi zen eta baita Plaza Berri ize-nekoan ere, garai bateko Botika Zaharraren aurrean. 1988an Altzanipe futbol-zelaian egin zen.
- Gidoiak ez zuen aldaketa handirik izaten. Hiru pertsonaia ziren urtez-urte Udaletxeko balkoitik edo tranpaldoaren gainetik mintzatzeko zirenak: Mikelats, Apaiza eta Alkatea. Urtero gauza beretsua izan ohi zen. Mikelats jentil-buruaren hitzaldiak aldaketak izaten zituen baina Apaizaren eta Alkatearen hitzek apenas.
- Alkate lanetan Klaudio Barandiarnen ondotik, Ameskabiko Martin Barandiaran aritu izan zen. Urte batean Dornaiñeko Juan Bautista Etxeberria aritu zen.
- Sorgin lanetan Justina Zeberio aritu zen hasieran. Gero, Espillako Pili Eskisabel, Andreseneko Beatriz Aierbe eta beste batzuk ibili ziren urtez urte taldetxoak osatzen.

### 1991

- EZ ZEN EGIN. Auzoeta Kiroldetgia inauguratu zen.

### 1992

- Garai berria. San Martin auzoko festak ekainetik azaroaren aldatu ziren berriro.

- Azaroan egin zen San Martin jaien barruan. Plazan.
- Aurrez bilera erabakiorra egin zen Jentilen Etorrerari indar berria emateko.
- Aio, aio, aio..., izeneko kantua sortu zen propio.  
Musika Joxerra Gartziak, Letra, Jon Aizpurua.
- Aurreneko aldiz Mondeju-jana egin zen Jentilen Etorreraren ondoren.
- Jon Aizpurua gidoigileak, koplak idatzi zituen propio ikuskizunerako.
- Sorgin taldea antzerkian parte hartzen hasi zen.

### 1993

- Ataungo euskeran idatzi zen testua lehen aldiz. Ordurarte Euskara Batuan izaten ziren testuak. Urte horretakoa Batuan idatzia zuen gidoigileak eta Jexux Aizpurua Barandiaranek jarri zuen Ataungo euskeran.
- Elizako kanpaiak jo ziren berriro.

### 1994

- Plazan.
- IRRINTZILARIA sartu genuen lehendabizikoz.
- AGERREko historia antzeztu genuen.

### 1995

- Plazan.
- Sukiko Joxe Goena behi-parearekin aritu zen harri karretoan.
- Mateo Txistu egin genuen lehenengoz. Arbilletako Joxerramon "Marron" Agirrek antzeztu zuen.
- Doroteo Barandiaran pregoilari arituari plaka eman genion.

## 1996

- Botika Zahar aurreko Plazan.
- Tere Dorronsoro, Mikelatsen emazte aritzen denak, parte hartu zuen antzerkian hitzez. Hori izan zen lehen eta azken aldia Mikelatsen emazteak, Amaiak, parte hartu duena antzerkian.
- Apaiza, zaldi zuri baten gainean etorri zen, muzkerrak hankatik hel-tzen ziolarik.
- Putterriko urre ospetsu eta estimatua “ekarri” genuen leran, Sukiko Joxe Goenaren behi-parea uztarrarian aurretik zela.
- Tomas Erauskin Sasteik egin zuen Deabru papera.
- Fermin Aramendik egin zuen Patxi Ermentari lana.

## 1997

- Plazako botika aurrean. Hemen aipatu genuen beste bi urte beharko zirela futbol-zelaian etxeak egiteko eta oraingoan plazan segiko dugula. Alegia, Antzoki edo leku itxirik ez genuela izango.
- Apaiza, Joxerramun Munduate, zaldi nabar baten gainean heldu zen Plazara.
- Agintarien emazte-erropak egin genituen. Udalak baimena emanda eta Rosa Goñiren bitartez, jostun batek egin zizkigun Alkatearen, medikuaren eta Epailearen emazteentzat soineko-jantziak. Tela eta josi 62.000 pezeta.
- Jentilumeen erropak egiteko materiala banatu genuen, norberak berea egiteko.
- Abesbatzak partaidetza handia izan zuen.
- Dionisio Etxeberria eta Maximo Aierbe kopla-kantuan aritu ziren.
- Arkularia izan genuen Jentilen Etorreran. Barandiaran baserriko Pello Imaz zenaren seme Juan Migel Imazek jaurti zituen geziak ondo asko.
- Antxumea hartuta hartu zuen parte antzerkian Saltxeberriko Arantxa Barandiaranek.
- Guutzaberriko Ainhoa Esnaolak Loa, loa, loa abestu zuen.

## 1998

- Leku itxian lehenengoz. Auzoeta Kiroldegian egin genuen eguraldiak behartuta. Elur bustia hasi zuen eta Lizarrusti aldetik zetozen kotxeek elurra zuten txapel. Gauzak horrela, estalpean egitea erabaki genuen.
- Edu Muruamendiaraz dantzari ezagunaren dantza-taldeak hartu zuen parte.

## 1999

- Auzoeta Kiroldegi-frontoian.
- Jentilen Etorrera frontoian egin ordeztu, Plazan KARPA bat jarrita egin ote zitekeen aztertu genuen. 700 mila pezetako aurrekontua zuen. Horri aurre egitea ezinezkoa zitzaigunez, Frontoi-Kiroldegian egin genuen.
- JENTILAK Aizkortanetik abiatu ziren lehenengoz, Arratetatik irten gabe.
- IRRINTZILARIA.

## 2000

- HOGEIGARREN URTEURRENA.
- Frontoian.
- JON MAIA dantzariaren TALDEA ekarri genuen.
- AVE VERUM abestu zuen Abesbatzak.
- Jentilak eta sorginak Aizkortanetik abiatu ziren..

## 2002

- MIKELATS jentil-buruaren lana Urdangaringo SABINO AUZMENDIK egin zuen, Okaiztiko JOXE BIKUÑAREN ordeztu.

## 2004

- Abesbatzik ez genuen izan. Kantuan aritu zirenak, Maximo Aierbe, Dionisio Etxeberria, Jexux Munduate eta Izarra Asurabarrena.

## 2000an 20 URTE

Gogoan hartzeko urtea izan zen baita ere 2000koa.

Kiroldegian egin zen eta gogoangarria izan zen, Jentilen Etorreraren amaieran, 20 urteetako ibilbidea jasotzen zuen bideo-muntaia laburra eman zelako ikustera, eszenarioaren albo batera eta pilotalekuaren ezkerreko horman.

Santi Etxeberriak prestatu zituen irudiak.

Ikusgarria izan zen. Batzuetan parre-algara eragiten zuten irudiek. Beste batzuetan isiltasun sentitua eta malkoa begietan. Irudietan, zirrara berezia sortu zuten, dagoeneko gure artean ez zeudenen irudiek.

Musika egokiz lagunduta, hitz hauek ikusi genituen paretean itsatsita:

“ESKERRIK ASKO DENOI..

HOGEI URTEOTAN ONGI-ETORRIA  
EMAN DIGUZUEN GUZTIOI.

ISILEAN ETA BEGIBISTAN ARITU ZARETEN DENOI.

HARIA EZ DA ETEN.

LABE BEREKO OPILAK GARA.

ESKERRIK ASKO. BENETAN”.

## **D**ATU BITXIAK, PASADIZOAK, EZUSTEKOAK, ANEKDOTAK

### Arrubioa

*Muzkarraren eta arrubioaren inguruan badira leienda batzuk. Urte batean, arrubioari indar berezia, presentzia nabarmena ematea erabaki genuen. Geroztik urte baten baino gehiagotan agertu izan dugu arrubioa, ia beti apaizari hanka-zainetik kozk egiten. Leiendak dio arrubioak kozk eginez gero, 14 herritako kanpaiak jo bitartean ezingo duela inork askatu.*

*2001ean arrubioa ateratzea erabaki genuen. Santik sortu zuen “andio-emendio” plastikozko arrubioa. Beltza eta horia, polita oso. Bileretako batean Mikelatsek, Okariztiko Joxek, zera kontatu zigun: Zabarrak esaten zutela, nola etxe baten arrubioa egondako uretan egosi ziztuztela babak eta babak jan zituztenean, familia guztia hil zela. Joxek berak esan zigun berehalaxe: gezurra! Ez dela pozointsua. Hori kontua dela. Aranzadi elkarteko batek eskuan hartuta ibili zuela eta gebienez ere, azalean duen lirdingaz behatzak busti zizkiola eta begietara eraman ezker, hazkurea sor dezakeela.*

*Etxera joan eta entziklopedian begiratu nuen. ELHUYAR-enean. Honela dio arrubio-arrubio hitzean: parotoide guruinak oso nabariak dituela eta substantzia toxiko bat jairatzen duela.*

*Beti ikasten da zerbait!*

*Hurrengo udan egin nuen topo arrubio batekin, “Maomendi” Marumendin. Mantso-mantso zegoen putzu baten ondoan... Geldi-geldi mugitzen zen, karakolaren pare... Argazkiak atera nizkion... Bere munduan zebilen, mundu hartan sartu-ez sartu egon nintzen baina hantxe utzi nuen bakean...*

## Agerreko Juan ohean

*Ez zuen nolanabiko kargea!!! Probatu zutenek dakite, inork jakitekotan!!! Agerreko historia antzeztu behar genuen eta badakizue Agerre baserriko nagusia gaisotu eta Jentilek urrezko maindirea jarri ziotela ohe-gainean senda zedin... Ba, zer erabakiko eta Agerreko Nagusia, Juan, desfilean ohean sartuta eramatea erabaki genuen. Ohea Santik sortu zuen handik-hemendik eta ohe-barruan, kieto erabat, benetan gaiso-paperean, Ermentariko Nikolas... Kostako zaigu, Nikolasek orduan "brodatu" zuen sobrekama azpiko aktore-lan paregabea berriro egitea. Parez-pare asmatu zuen pertsonaia antzezten. Anekdota ordea zera da: oheak ikaragarritzko karga zuela. Plazatik Iztatorrera eta berriro buelta Plazara. Jarri genituen izendatuta, ohea eramango zuten gazte batzuk, Eusko Urrestarazu eta beste batzuk baina abiatu eta berehala hasi ziren ezinean, uste baino karga gehiago baitzuen. Azkenean Agerrera jokora jaitsi behar zuten Jentilek eraman behar izan zuten ohea, tartean urte luzez Tortori bizia eman dion Sasteiko Tomasek.*

## Patxi Ermentari herrena, oker-oker

*Patxi Ermentariren historia, lehenagoko Plaza Berrian, Botika Zabarraren aurrean antzeztu genuen aurrenekoz. (1997). Txominoneko Fermin Aramendiri egokitu zitzaion Patxiren larruan sartzea. Gogoan dut, zirrara sentitzeko moduan aritu zela ondo Fermin. Nor-tasun bereziz antzeztu zuen Patxi Ermentari. Gerria oker, pausaje baldarra, ezin-ibiliala, ban aritu zen Fermin, tirriki-tarraka, tranpaldoaren gainean. Ba zuen ordea, sekretua. Aurreko egunetan ondoezik zebilen, gerriondoan aidea jarrita, lumbalgiak erasanda. Jentilen Etorrera egunean, oraindik gehiago okertu zitzaion ezina eta Kalakaseneko Niko Aizpuruak masaje eta igurtziak eman zizkion aidea kentze aldera. Ezin erabat sendatu ordea eta ban aritu zen Fermin, tente jarri ezinik, herrenka, itxura egiten arituko balitz bezala, gorputza tolestatu eta Patxi Ermentariren imintzioak egiten... A zer gozatua hartu genuen Ferminen ezkutuko sofrimenduarekin!!!*

## Esanda hitzak zer esan nahi du?

*Bitxia da ESAUNDA hitzarekin gertatu izan zaiguna. Guretzat, ataundarrontzat, sekula arazo izan ez dena beste batzuentzat ez dakit arazo baina zalantza-iturri behintzat izan da.*

*Ikusle bat baino gehiago izan dira, Ataundik kanpokoak denak, esaunda hitzak zer esan nahi duen galdezka etorri zaizkigunak. Batzuk gainera, arrastoaren bila bide luzean arituak, inon diren hiztegi guztiak ondo asko miatzen. Eta ondorioa argi dago: esaunda hitza ez da inongo hiztegitan agertzen.*

*Beraz argibideren bat eman behar galdezka ari denari.*

*Esaunda hitzak, Ataunen eman izan zaion zentzuan behinik behin, kontu-zabarra esan nahi du: aspaldiko kontuk, aspaldiko jenden esanak, garai bateko ipuin-leiendak,...*

*Eta oraindik zebatzago Joxemigel Barandiaranek jasotzen du esaunda hitzaren esanahia, berak jaso eta Euskaltzaindiaren IKER-2 lanean 1983 an argitaratu ziren hitzen artean. Batez ere Ataunen jasotako hitzak dakartza Joxemigel Barandiaranek eta hauxe dio hitzez-bitz: ESAUNDA.-Dicho popular, proverbio, leyenda.*

*Ea ez zaigun bidean galtzen!*

## 2001 Usoa ito

*Ez du piska batean abaztuko Maitane Aizpuruak, orduan pasa zuen estuasuna. Urte bartan, Masust izeneko neska zen Maitane, Tortoren alaba.*

*Usoa eskuan hartuta atera behar zuen tranpaldora eta azkeneko momentuan, irten baino segundu batzuk lehenago ito egin zitzaion usoa. Maitanek berak ere ez daki, urduritasunarekin lepoa gebiegi estutu ote zion edota usoa bera erabat ikaratuta hil ote zen.*

*Eskerrak norbaitek “bazpare”, beste uso bat zuela prest tranpaldoren atzealdean. Juzkoa dut Samartin Txiki izan ote zen. Hala konpondu genuen pertza.*

## 2002. Mikelats gaiso. Joxe Bikuñaren ordez Sabino Auzmendi. (Liburu amaieran daude Sabinoren esker-bertsoak)

*Ederra gertatu zitzaigun. “Mailloa baño goorragoa dan Mikelats gaiso jarri”. 2002 ean izan zen hori. Jentilen Etorrera egiteko egun gutxi falta zirela, gaizkitu egin zen Joxe Bikuña eta ez zerurako eta ez lurrerako gelditu ginen, zer egin ez genekiela.*

*Nork egin zezakeen Mikelatsen lana? Komeriak!*

*Baino pertza konpontzeko modua egin genuen. Santi Etxeberriak, Sabino Auzmendiren izena bota zuen eta arrazoiak ere bai: Elizlanetan eta jendaurrean obituta zegoela, abots sendoa zuela, patxada ederreko gizona zela eta gorpuzkeraz ere Jentil baten “neurria” eman zezakeela.*

*Hala joan ziren Inñaki Rezola eta Jon Aizpurua bere etxera, Sabinorekin hitz egitera. Berebala agertu zioten zein zen egoera. Joxe Bikuña gaiso zegoela, Mikelats Jentil-buruaren lana derrigorrezkoa zela Jentilen Etorreran eta hutsunea betetzeko norbait behar zela derrepentean.*

*Umil eta apal erantzun zigun Sabinok: gauza horietarako talenturik ez zuela baina bere esku zegoena egiten saiatuko zela, ikusten zuela-ta zenbat lan hartzen genuen Jentilen Etorrera aurrera ateratzeko. Erantzun paregabea eman zigun eta ondo asko bete zuen Joxe Bikuñak utzi zuen zuloa.*

## 2003 ko bero zakarra

**-Tomas Erauskini mozorroa urtu.** *Marka gertatu zitzaion. Udan sekulako bero errea egin zuen denbora luzez. Tomasek etxeko ganbaran zeukan gordeta-jasota aurpegian jarri beharreko Tortoren plastikozko mozorroa. Jentilen Etorrearen egunean bertan Tomas bila joan zenean erabat urtuta aurkitu zuen, bera-bera eginda ezertarako balio ez zuela. Hortik atera kontuak, zer bero-malaparbatua izan zen 2003ko udan! Larri-larri baina maskara berria egitea lortu zuen Tomasek eta gaitz-erdi.*

## 2004ko Jentilen Etorrera

**-Fermin Aramendi gaiso.** Bazeramatzan egun batzuk obe alde-tik hotzeriak jota. Jentilen Etorrera egin bezperako entsaiora, erabat osatu gabe azaldu zen. Zanbrarea zeukan eta kalentura. Ez zeukan, ez tenplerik, ez hitz egiteko goaitarik. Etxeko epelera alde egin zuen entsaioan ezer egiterako. Eta Fermin osatzen ez bazen zer egin hurrengo egunean? Nork egin behar zuen Ferminen lana? Aukerarik ez zegoen bestetarako eta neronek beldu nion zulo-betetzeari, besterik ez bada paperetik irakurriko nuela ta neure burua gebiegi estutu gabe. Taldean norbaitek esan zuen, horrelakoren bat gertatu ezker, ez dela ezer gertatzen ikusle-jendeari egia esanda ... Zorionez, bezperan kolokan zegoen Fermin, tente azaldu zen emanaldi-egunean. Saioa amaitu eta berebala itzuli zen zaldi-zuriaren epelera. Barrutik zeraman errosarioa. Bihotzez eskertu nion.

**-Txakurrik ez.** Xugar izeneko txakurra atera asmo genuen Mateo Txisturen txakur. Kostata izan zen baina azkenean konbentzitu genuen bere jabea, Eneritz Aizpurua. Bada ez bada ere proba batzuk egitea erabaki genuen. Antzokian entsaio pare batera eramán zuen txakurra eta hainbestean portatu zen, Eneritz ondoan zuela... Emanaldiaren bezperan ordea, Mateo Txisturen eskopeta-tiroak entzun zituenean estu eta larri jarri zen, erabat kakalarri... Atzera egiten zuen beldurrez... Hurrengo egunean berriro tiroak izango zirenez eta gainera jende gebiagoren artean ibili beharko zuenez, azkenean zakurrik gabe egitea erabaki genuen. Saitu ginen alternatiba bila. Artingo Jon-ek bere txakurra eskeini zuen borondaterik onenez: ebi-zeko zakurra zela eta obituta zegoela tiro-hotsera. Jonen amak, Lurdesek ordea, bere lekuan jarri zuen esperantza: izutu egiten zela erabat eta alperrik zela zakur hura jende aurrera eramatea.

**-Aker zuririk ez.** Santik hotsegin zidan bezperan telefonoz, aker-zuririk ez genuela izango esanez. Antzestu behar genuen historian, indar eta leku berezia zuen aker zuriak. Gure asmoa zen, aker baten faltan, abuntz zuri bat jartzea. Agindua zion abuntz-nagusiak Santiri baina bezperan ezezkoa jaso genuen. Aker zuririk ikusi gabe gelditu ginen.

**-Abuntz zuria bai.** Nola izaten diren gauzak! Aker zuririk ez genuen izan baina batzuen errotrak ez du atsedetik hartzen eta beti ari da aleren bat txehetzen.

Hilabeteak pasa eta 2005eko maiatzean, urte horretako Jentilen Etorrera prestatzeko laugarren bilera egin genuen Udaletxean. Han aritu ginen, asmoak agertzen, lana banatzen eta tartean, pasadizo bat edo beste elkarri kontatzen... Halako batean zera bota zuen Sasteiko Tomas Erauskinek: E, abuntz zuri-zurie ikusi diat Aldabe alden... Umek ondón dittula... Zubiondoko Santi Etxeberrriak segituan esan zion harrituta: oaindiore burun daukek aker zurin faltea? Berta junda ibilli al aiz?... Ez, ikusi ein zetuat emen beetio...-erantzun zion Tomasek.

Poza ematen du, errota lanean ari dela ikusteak.

**-Abesbatzarik ez.** Lauztiturritako Maximo Aierbek eman zigun albistea, Jentilen Etorrera prestatzeko egin genuen lehendabiziko bileran. Udaletxeko bilera-gela batean geunden antolatzaile eta parte-hartzaile koadrilatxoa. Jakitun ginen Eate abesbatzak zailtasun handiak zituela aurrera egiteko. Maximok etsipen eta atsekabez esan zigun Abesbatzarik ez zela izango Jentilen Etorreran. Nahia eta ezina. Abesbatzak funtzio garrantzitsua izan du Jentilen Etorreran. Urtero prestatzen zuen propio kantu berriren bat edo bestela kantu-zaharren baten bertsio berrituren bat edo antzina-antzinako kanturen bat.

Azkenean erdi-bideko irteera bat eman genion auziari. Hiru abotsetara kantatzeko modua egin genuen: koplak eta beste kanturen bat... Pena, amaierako Aio, Aio, Aio entzun gabe gelditu ginela.

### **-Karraskilloa eta ziñurri beltza**

Beti ikasten da zerbait. Beste nonbait ere idatzi dut eta ez da gezurra. 2005eko maiatzean bosgarren bilera genuen urte hortako Jentilen Etorrera berezia prestatzeko. Udaletxean elkartu ginen talde-txoa. Kontu-kontari ari ginela, sendabelarren gaia aipatu zen. Joxe Bikuñak Karraskilloa eta ziñurri beltza aipatu zituen eta bitxia iruditu zitzaidan esan zuena: udaberrian eta udazkenean, odol-aldaketa garaian, horien ura edan obi zuela jende batek.

Zera aipatu zuen gainera Joxek: Astigarraga auzotik gora ziñurri zuriak eta beltzak agertzen direla baina hortik behera iñurri zuri ale-rik ere ez dagoela.

## Lehenengo goldea Amebin

*Hogeita bostgarren emanaldia prestatzeko bilera batean ateratu zuen kontua Sasteiko Tomas Erauskinek.*

*Kontu kontari ari ginen, baserrietako lanbide edo langintza zaharren erakusketa nola prestatu erabakitzen. Azaroaren 6an egin behar genuen eta Jentilen Etorrerako partaideak geure gain hartu genuen erakusketa horren erantzunkizuna. Modu berezian, Joxe Bikuñak, Tomas Erauskinek eta Santi Etxeberriak.*

*Norbaitek golde-kontua aipatu zuen eta orduan, Tomasek esan zuen Joxe bere aitak esaten zuenez, inguru hauetan Amebi baserrian izan zela lehenengo goldea.*

## Zugatzik ez Ataunen

*Marka da gero!!! Belar-meta edo zugatza egiteko asmoa aipatu zen langintza zaharren erakusketaren barruan. Haurrek ez dutela agian ezagutuko eta komeniko litzatekeela jendaurrean zugatza egitea.*

*Zaila izango dela iritzi genion. Eta zugatza nork egin ote zezakeen burua estutzen ari ginela, hara non ohartzen garen, Ataunen ez dela iadanik, guk dakigula behintzat, zugatzik egiten.*

## Idirik ere ez

*2005ekoa prestatzeko bilera batean sortu zen hizpidea. Agerre base-rrira jokora jaisten ziren Jentilen historia antzestu nahi genuen eta Agerreko Jauna, herri barruko desfilean obean eramateko asmoa genuen. Baina nola eramán? Urteren batean lau laguneren artean eramán behar izan zuten asko kostata. Argi zegoen, idi-pare on bat jar-tzea zela egokiena. Baina nondik lortu idiak? Ataunen ez da. Zaila izan arren, beste nonbaitetik lortzeko abalegina egitea erabaki genuen.*

*Ba eztabaida horretan ari ginela, Okariztiko Joxe Bikuñak aipatu zuen, orain berrogei-berrogeita hamar urte berrehun bat idi-pare izango zirela Ataunen. A zer aldaketa!!!*

## **K**ONTATU DITUGUN HISTORIAK

Ez da erraza, zehatz eta mehatz, 25 urteotako ibilian jaso ditugun historia guztien zerrenda egitea. Izan ere, sarritan historiak eta pertsonaiak elkarrekin nahastuta daude eta ez da oso argi ikusten non hasi eta non amaitzen diren.

Hala ere zerrenda bat egin dugu eta esan dezakegu Ataungo mitologian agertzen diren sineskeria, leienda eta kontu zahar gehienak jaso ditugula modu batera edo bestera.

Historiaren bat kanpora utzi badugu, arrazoa zera izan da: luzeegia zela edota gure bitartekoekin ezin genezakeela egin. Honen adibide da, behin baino gehiagotan aipatu baina inoiz antzeztu ez dugun “Gizona eta Sugea” izeneko leienda. Luzeegia da.

Horrez gain, gidoia idazteaz aritu garenean aipatu dugu, beste zailtasunetako bat zera izan ohi dela, alegia, historia bat antzezteko jenderik ez izatea eta urtez-urteko pertsonaia nagusientzat lekurik ez izatea.

Hauek dira Jentilen Etorreran agertu diren kontakizun nagusiak:

- Azken Jentila.
- Agerre baserriko urrezko ohe-gainekoa.
- Muskiko Torto.
- Gariaren sekretua.
- San Martingo Eliza egiten jentilak.
- Arbeldiko neska erori Agamundan.
- Patxi Ermentari.
- Atzaparrak harrapatu zituen Jentila.
- Neuk neuri.
- Etsairen eskola.

- Hautsa bildu eta saltzen zutenak.
- Lamiñosin.
- Jentil harroa.
- Artiñeko Jabierren historia.
- Putterriko urrea.
- Sorgin lapurrak.
- Sorgin gaiztoak.
- Sorgin jostunak.
- Akelarrea.
- Mateo Txistu.
- Lehortea.
- Gizona eta sugea Motz.
- Lamiak orrazi bila.
- Zezen-gorri. Behi-gorri, Txahal-Gorri.
- Dar-dar. Behatzak jaten.
- Jentilaren ipurtaulkia sutan.
- Axularrek itzala galdu.
- Inguma. Amets gaiztoak.
- Gaueko.
- Sugaar.
- Oihulari.

## **K**ATEA ETENGO AL DA?

Ez genuke nahi!

Baina haria, mehea da oso. Ez dugu oraindik, soka lodi-lodia egite-rik lortu eta are gutxiago, ataundar denok Jentilen Etorreran elkartuko gaituen kate-maila sendorik.

Haria mehea da, bai, eta behin ilunduz gero ia ikusi ere ez da egiten baina Jentilen narruak eta Sorginen soinekoak josteko balio izan digu orain arte.

Hemendik aurrera ordea, zer?

Hara hor galdera, askotan ahotsa behartu gabe ahopean egin duguna baina orain, hogeita bost urteak iritsita, boza goratuz altuan egin behar duguna.

Formula asmatu beharrean gaude.



Badakizu irakurle, ekaitzaren ondoren beti izan ohi dela ater-unea eta baita eguzki-printzaren bat ikusteko modua ere. Ba trumoiketean eta tximisketan ibili gara urte dezentez eta orain zaparradaren ondorengo atsedena datorrela dirudi.

Esperantzarako izpi batzuk agertzen dira laino beltzen artetik. Horren adibide, aurtengo maiatzean herriko bost neskatok erakutsi izan didaten borondatea. Sorgin taldean parte hartu nahi zutela eta apuntatzeko eginez etorri zitzaizkigun. Apuntatu genituen eta urte askoz izan dezatela gogo hori, Saioa, Laida, Janire, Ainhoa eta Iranzük. Bejondeizuela!!!



## **P**ERTSONAIA NAGUSIAK

Hauexek dira Jentilen Etorreran urtero-urtero, era batera edo bestera, agertu diren pertsonaia nagusiak. Hauen bueltan osatzen ditugu urteroko historiak eta hauek izaten dute antzerkian, hitz egin behar handiena. Zazpi dira eta ia beti agertu dira.

- Mikelats, jentilen burua. (Joxe Bikuña).
- Torto, begibakarreko jentila. (Tomas Erauskin).
- Alkatea, herritarren burua. (Klaudio Barandiaran, Martin Barandiaran eta Iñaki Rezola).
- Apaiza, Elizaren ordezkaria. (Joxan Munduate, Joxerramun Munduate).
- Samartin txiki, jentilen sekretuak lortzen dituen. (Joxe Arrondo).
- Marimunduko. Sorginen burua. (Justina Zeberio, Maitane Aizpurua).
- Etsai. (Fermin Aramendi).
- Pregoilaria. (Doroteo Barandiaran, Dionisio Etxeberria).

Badira hauez gain, urtez-urte aldatzen diren pertsonaiak. Asko izan dira hogeita bost urteotan agertu direnak. Hala ere badira, leku seinatua hartu dutenak eta hauek dira.

- Azken Jentila. (Julian Munduate, Nikolas Goikoetxea).
- Agerreko Juan. (Nikolas Goikoetxea).
- Patxi Ermentari. (Fermin Aramendi).
- Aker.(Martin Barandiaran).
- Otsoko. (Fermin Aramendi).
- Mateo Txistu. (Joxerramun Agirre eta Txema Rodriguez).

## Pertsonaia gehiago

Urte guztiotan ehundik gora pertsonaia desberdin jarri dira tranpaldoaren gainean eta noski, horretarako jendea behar da.

Lan horietan buru-belarri aritu dira ataundar asko. Hauetatik gehienek gainera, ia urtero hartu dute parte antzerkian.

Nabarmendu beharrekoak dira, urtero agindutakoa egiteko prest eta pozik agertu izan diren hauek:

- Jexux Munduate.
- Joxemari Rodriguez.
- Andres Arrondo.
- Karmele Begiristain.
- Joxemari Urrestarazu.
- Nikolas Goikoetxea.
- Sabino Auzmendi.
- Aitor Arruabarrena.
- Xabi Etxeberria.
- Bidatz Badiola.
- Agurtzane Auzmendi.
- Begoña Munduate.
- Joxerramun Agirre.
- Aritz Urrestarazu.
- Josu Munduate.
- Eneritz Aizpurua.
- Mikel Dorronsoro.
- Mattin Etxeberria.
- Ziortza Barandiaran.
- eta beste batzuk...



## MIKELATS. (Joxe Bikuña)

Mikelats jentila da Jentilen Etorrerako pertsonaia nagusia. Bera da mendiko bizitza utzi eta kalera jaisten dena eta bera da jentilak eta kristauak elkartzen dituen.

Urte guztiotan, urtez urte egin ditugun Jentilen Etorrera guztietan derrigorrezko zutarria izan da. “Okaizti” baserriko seme Joxe Bikuñak egin du Mikelatsen lana urte guztiotan, urte bat salbu. 2002 an, gaiso zen Joxe eta bere ordeaz “Urdangaiñ” baserriko seme Sabino Auzmendi aritu zitzaigun jentilen burungarri.

Baina bada Mikelats pertsonaiaren inguruan argitu beharreko puntu bat edo beste.



Jentilen Etorrera egiten hasi ginenean, MIKELATS izena bera ere aidean zegoen. Batzuk Nikolas deitzen zioten, beste batzuk Mikolas. Interesgarria iruditu zaigu, labur bada ere, Mikolas hauen berri ematea. Deabruak dira beti. Batzutan harri-jaurtitzaille ageri dira eta beste batzuetan zubigile. Joxemiel Barandiaranek jaso eta argitaratu izan dituen kontakizunetan, Mikolas deabru hauetako bostek bota omen zuten Larrabetzun Atxispeko harria eta Andoainen Azelaingo zubia eta Kastrexanan bertako zubia Mikolasek eginak omen dira. Aipa dezadan Mikolas ageri den kontakizun zenbaitetan Mikolas ez baino Nikolas deitura hartzen duela deabru harri-jaurtitzaille edo zubigileak.

Mikolas izenaren ordeaz, Gillen deitura ere hartu izan dute zubi zaharren egile diren deabruak.

Beraz, behin hasieran izan genituen zalantzak argitu eta Nikolas edo Mikolas ez baino, Mikelats izan dugu Jentilen Etorreran beti jentilen buru, Basajaunetan Jaun nagusia.

## Mikelatsen emazteak

Ez diegu antzerkian, presentzia handirik eman. Urte batean bakarrik jarri dugu hizketan Mikelatsen emaztea, Amaia. 1996an izan zen hori. Tere Dorronsorok egin zuen urte hartan emazte-papera eta antzerkian parte hartu behar izan zuen, Mikelats eta Tortoren arteko eztabaida batean.

Orduz geroztik ordea, desfilean hartu dute parte baina antzerkian ez.

Hauk dira Mikelats-Joxe Bikuñaren emazte aritu direnak:

- Larratzeko Ramona Auzmendi.
- Artzuloko Joxepa Munduate.
- Saltxeberriko Pili Barandiaran.
- Estankoko Begoña Munduate.
- Zelabearko Tere Dorronsoro.

## Mikelats gaiztoa ez al da ba?

Hala da bai.

Batek baino gehiagok egin ohi digun galdera da.

Gure Jentilen Etorreran ongiaren edo ontasunaren eredu agertu ohi dugu Mikelats baina berez, euskal mitologian, Mari eta Majuren seme gaiztoa da Mikelats. Seme ona Atarrabi izango litzateke eta gaiztoa berriz Mikelats. Joxemiel Barandiaranek bere Euskal Mitologia Hiztegia dionez, Mikelatsek, bere ama Marik bezalaxe, ekaitzak sortzen ditu eta kazkabar erauntsiak nahi duen lekura bideratzen ditu, ziurrenik Odei eta Eate jeinuen bitartez, artaldeak kaltetu eta uztak hondatzeko.

Lekuren batean Mikelats ez baino Mikelatz deitzen diote eta deitura horrek agertzen du agian argiago, Mikelatsen berezko izaera.

Jentilen Etorrerako urteetako batzuetan, gaizto-paperean jarri izan dugu Mikelats eta borroka gogorak ere egin behar izan ditu Torto edo Tartalorekin Jentilbaratzako buru nor izan erabakitze baina beti bere alde ona azpimarratuz.



## JOXE BIKUÑA. (Mikelats)

Joxe Bikuña Agirre. 70 urte. Okaizti baserrian jaioa. Jaiotetxe barrenean bizi da Bikuña-enea etxean.

Jentilen Etorreraren bihotz eta su izan da Joxe. Jentilen garai bateko mundua ederki asko ulertu du eta horrek, lasaitasuna eman dio Joxeri jendaurrean agertzeko.

Joxe Bikuña eta Mikelats. Mikelats eta Joxe. Zein da zein?

Mikelats eta Joxe. Bat eginda agertu zaizkigu hogeitabost urteotan. Eta zaila da bata besteagandik bereiztea. Urtetik urtera gero eta lotuago eta batuago agertu zaizkigu aktorea eta pertsonaia.

Joxek, neurrian agertu du beti Mikelatsen nortasuna.

Mikelatsen barru-barruan sartu zaigu Joxe eta bera izan da hasiera-hasieratik, Mikelats pertsonaia antzezten aritu dena eta inork baino hobeto daki Mikelatsen berri.

Joxe, aurreneko urtetik bertatik identifikatu zen erabat Mikelatsekin eta hori antzematen da bere lanean. Joxek badaki zein mundutatik datorren Mikelats Jentila. Badaki azala eta mamia bereizten, badaki jakintsu baina aldi berean apal eta jakingogoz agertzen. Badaki gizakia munduaren aurrean jartzen eta neurrigabe maite du izadia, natura, Ama-Lurra, Ortzia. Arrotz egiten zaizkio kristauen sinismenak eta berarentzat jainko berri direnak.

Eta gauza bat izan du argi Joxek, Mikelats antzeztekoan: lehen-go mundua eta gaurkoa lotu, garai bateko arbasoen ondorengoak garelako.

### **-Zu Joxe, hasiera-hasieratik zabilta Jentilen Etorreran. Gogoa al duzu, nola izan ziren lehendabiziko pausoak?**

Gogon deana dek, Oargi elkarteko gazteen idea izantzala oi. Nola-bait, martxan jartzeko zailltasunek ikusten zizkien eta gu zaarxagoak launtzera sartu giñuztean. Urdun, jendekiñ banan-banan eon bear izan genduan parte artzeko eskauz eta jendek ondo erantzun zian.



Gañea jentilen etorrerak beste elburuate bazian. Garai artan, politikea dalata tirabira asko zeoan erriñ, diosala ukau eta abar, eta uste genduan egokiera politte izan zeikela Jentillen Etorrerea, garai bateko kontuk ispillu bezela jarri eta geure buruk ikusteko. Gue aleiñe izanon, iritzi desberdiñetako jendea Jentillen Etorreran ingurun biltzea eta lortu genduan.

### **-Hasieran ez zen antzerki luzerik ezta?**

Ez, naiko ximplea izateon. Mikelats jentille, Apaize eta Alkaten arteko elkarrizketea eitten genduan eta Jentillek bee eskubidek eskatzen zizkian. Mikelatsek zea esate zian be itzaldiñ: kristau-sisnismenekiñ bat eitten etzuleako, bigarren mailako erritar ziela eta oi etzeola ondo, eake ataundar zielako bestek bezelaxe.

Desfilea beiz, ximplea izateon oaingokiñ konparauta. Arrateta, Iru-bidetik beera jaisten giñuztean jentillek. Iztatorren besarkadea izateon Alkatekiñ, geo Udaletxea jun, balkoitio esan bearrekok esan eta amen.



**-Zerorrek aukeratu al zenuen Mikelats Jentilaren pertsonaia antzeztea?**

Or zea esan bear dik. Jendek beldurre zian. Zea uste zien: beñ era ortako pertsonaia bat eñ ezkeo, geo bizi guztiako izengoitikiñ geatzeko arriskue zeola. Nik enioan orri inportantzik ematen eta neonek artu nian paper oi.

**-Aurrez, antzerki-munduan ba al zenuen esperientziarik?**

Pixkat ibillita garean. Antzerki mundue gustokoa genduan. Zailena papera ikastea izateon baño Mikelats jentillena motxa izaten danez, lasai.

**-Zer antzerkitan hartu duzu ba parte?**

Bastantetan. Don Frantzisko parrokokiñ ta leenau beiz Don Ramonekiñ. Gogon diat, “Eun dukat” izeneko lanen trapero papera einola. Gerogo beiz, Kalustraundiñ eintzien Pagoa Markes eta Habla cristiano antzerkietan ere parte artu nian.

Gue garaien aktore onak baittuan: Txomiñoneko Martin Aramendi, Txatoneko Miren Urrestarazu...Orik artistak ittuan.

**-Mikelats Jentilaren papera egiteko jantziak Joxe, zerorrek prestatzen al dituzu?**

Bai, geienak bai. Artilla-galtzak, narruzko abarkak, geo atorra bat. Azpitio beiz, leen udan praka motxak besteik enian eamaten eta oaiñ etzekiat, ozten ai gean eo zer, txirrindularik ibiltzeittuen galtzak eamatezuat eta geo otzai aurre eitteko, auntz-narruat gañetio. Adarra lepotio zintzilika eta aparte, pelukea ta.

Atorra, gue etxen aspalditik dauna dek. Liño-ari eo eunekin einda-koa. Adarra neonek eosi nian. Letra batzuk jarri nizekioan, Ataun eta. Aurrena alare, Pellone eo Urbietta tabernakok uzten ziuana adarra eta arekin ibilli giñuztean urteatzutan. Geo eosi nian oaiñ ibiltzen deana.

**-Eta makila Joxe? Nondik norakoa duzu eskuetan erabiltzen duzu makila?**

Makillea, urritze dek. Muturren kandlea edo zirioa eamateko pre-paraun nian eta txapa bat jarri nioan bueltan-bueltan aluminiozkoa, kandelan tantanak ez erortzeko.

Geo gañea, belar usaindunekin apainduta eamateiat. Zea eittezoat urtero: belarrak aldaun eta muturreko sue-eittekoare berrie jarri.

Gerrikoare eamateiat. Beltza, garai baten ibiltzen zuenan antzekoa.

Mikelatsen emazte-papera eitten doani, neonek eamatezoat farola, oliokiñ argie eitteona.

**-Eszenaren bat ba al duzu gogoan, modu berezian?**

Bai. Bat zeukeat benetan ondo grabauta. Agerreko nausie oian des-filen eaman gendunekoa. Irudie oso kurioa izanon, buruko be txanokiñ ta... Ermentariko Nikolasek eintzian ta ondo gogon zeukeat.

**-Aurrera begira, zer itxura hartzen diozu Jentilen Etorrerari?**

Iruitzen zaiak, meezi don zerbait dala. Bazekiau kosta eitteala eta jenerazio arteko kate-maillea lotzeko zailtasunek dauzkeula. Aleiñek

ein bearco diela usteiat. Ortako lan-pertsonala ein bearco diau, banan-banan jendeatekiñ eonez.

Gaña esango nitek, gaztek zeozer berrie sartu nai badue, eztaula iñungo arazoik. Sorgiñeke eak preparatzen die ein bearrekoa eta beste norbaitek beste orrenbeste eiñ nai bao, ba aurrea...



## **B**ASAJAUNA

Basajaunaz hitz egin beharko dugu. Mikelats agertu ohi zaigu Jentilen etorreran Basajaun modura eta kasuren batean Tortok ere bete izan du eginkizun hori, batez ere Muskiko Basajaun izatea egokitu zaionean.

Gainerantzean ordea Basajaun, pertsonaia berezi eta propio modura ez da ageri Jentilen Etorreran. Eta lastima da!

Esan dezagun lehendabizi BASAJAUNAREN mitoa oso hedatua dela Europa osoan eta zalantzarik gabe, Pirineo aldean dagoen mitorik ospetsuena da.

Euskal Herrian oso zabaldurik dago eta Zuberoan beste inon baino gehiago. Altxurukü herrian esate baterako, Begibakar edo gure Tortoren itxuran ageri da. Behe-Nafarroan, Baigorri eta Garaziko kontakizunetan aipatzen dute eta Bizkaian, Arratian, Gorbeiapean...

Gipuzkoari dagokionez, bada gauza bitxi bat: Ataunen bakarrik ageri da Basajauna.

Basajauna izan da gure basoetako jauna.

BASAJAUNA hitzak bi adiera ditu bere baitan, “Jaun basatia” eta “Basoko jauna”. Horixe adierazten du Joxemigel Barandiaranek eta uste da basoaren lekurik itxi eta sakonenean bizi dela edo bestela, oso leku agirietan dauden harpe edo kobazuloetan.

### **Zer itxura du BASAJAUNAK?**

Ataungo esaundetan agertzen den Basajauna, benetazko gizona da. Ez da munstro gaizto, beldurgarri eta kaltegarria. Alderantziz, beste gizakiak bezalakoxea da baina mendian bizi da, ondo indartsua da eta ez da kristaua. Horrez gain, lur-sail handiak landatzen zituen Basajaunak eta uzta oparoak bildu. Besteek, “kristauek” ezagutzen ez zituzten sekretuen jabe zen gainera.

Basajaunaren itxuraz, bertsio gehiago ere bada batean eta bestean. Gure bide-erakusle izan den Joxemiel Barandiaranek bere Mitologia

Hiztegia aipatzen duenez, “Gorputz garaia du eta erabat ilez estalia. Bere buruko ile-adatsak belaunetaraino iristen zaizkio aurrealdetik eta aurpegia, bularraldea eta sabela erabat estaltzen dizkiote. Bere oin bat gizakiarena bezalakoa da eta bestea berriz borobila”.

### Zer aginpide du Basajaunak?

Basajaunak baditu bere ahalmenak. Uste da, artalde guztien babeslea dela eta artaldeak babesteko, oihu eta irrintziak egiten ditu mendian ekaitza datorrenean, artzainek artaldea babesera eraman dezaten. Ardiak dauden ardi-txabola, eskorta edo saletxeren baten inguruan dagoenean, otsoa beldurtu eta uxatzen du. Horrelakoetan, ardiek denek batera astintzen dituzte zintzarriak eta dunbak. Orduan artzainek ba omen dakite lasai egin dezaketela lo, gau horretan ez baita otsoa hurbilduko.

Basajaun beste batzuetan izaki beldurgarri modura ikuskatzen du jendeak eta txarkeria egiteko erabiltzen omen du bere indar izugarritzkoa.

Beste batzuetan ordea, lehendabiziko nekazaria izan zela diote leiendek. Eta berari lapurtu ziotela gari-alea eta beragandik ikasi zutela garia ereiten...Eta berari lapurtu zizkioten baita ere, gutxienez beste sei sekretu...Baina hemen Samartin txiki datorkigu ate-joka eta Martin-txikiz edo Martinicoz geroxeago mintzatuko gara.

### BASANDERE?

Basajaunaren parean bada Basanderea ere baina Ataunen ez da ageri eta orain arte ez diogu lekurik egin Jentilen Etorreran.

Ikusle kezkatu batek baino gehiagok aipatu izan digu Jentil emakumeak ere izango zirela eta ziurrenik eginkizun garrantzitsua izango zutela garai hartako gizarte-antolaketa eta mereziko lukeela jentil-emakumeei ere leku seinalatua egitea antzerkian. Saiatuko gara ondorengo urteetan, Basanderearen presentzia areagotzen.

## TORTO-TORTOA –TARTALO (Tomas Erauskin)

Jentilen Etorreran indar hant hartu duen pertsonaia da. Urteak aurrera joan ahala, zaila egiten zaigu Torto eta Tomas bereiztea, hain daude bat eginda eta hainbeste nortasuna eman baitio Sastei baserriko semeak.

Ia beti, Muskiko koban bizi zen Basajaunarekin lotu izan dugu Torto baina tarteka beste eginkizun batzuk ere hartu izan ditu jentil-taldearen barruan. Inoiz Mikelats Jentil-buruari aurre egiten ere jarri izan dugu.

Gehienetan historia beldurgarrienei lotuta eta inon diren gaiztakeria guztien egile agertzen da Torto baina Jentilen Etorreran, bere barruan duen alde ona ere agertzen ahalegindu gara. Urte batzuetan, erabat haserre eta zakar azaldu ordez, sentibera eta eskuzabal agertu izan dugu. Itxura beldurgarriaren azpian daukan bihotz ona erakusten saiatu gara.

Tortori buruz gainera zera esan ohi da Ataunen: berak egin zituela Jentilbaratzako gazteluaren harresiak.

Deiturari dagokienez, Torto erabili dugu gehienetan baina Tortoa edota Tartalo ere deitu izan dugu.

Munduko eta Euskal herriko leku askotan ageri da Tortoren mitoa. Gugandik hurbilen, Zegaman esate baterako, Tartaloetxearekin lotuta.



## Tortoren ezaugarriak

Torto, jentil gehienak bezalatsu koba batean bizi da. Beste jentil guztiak baino basatiagoa da, indartsua oso eta bere ezaugarri nagusia, kopetaren erdian duen begi bakarra da.

Horrez gain, bere koba inguruan dabiltzan animaliak ehizatu eta janez bizi da eta inoiz, baita inguruan harrapatzen duen gizakiren bat ere.

## TOMAS ERAUSKIN (Torto)

Tomas Erauskin Barandiaran. Otamotx-zeharreko Sastei baserrian jaioa. Jaiotetxe ondoan dagoen Ajarresta etxea du bere kabi.

Tomas aspaldikoa da Jentilen Etorreran. Urteroko pertsonaien artean gazteenetakoa da bera baina urte asko daramatza daukan onena antolakuntzari eta antzerkiari ematen.

Batez ere eta bereziki, Torto pertsonaiari lotuta ageri da Tomas, urterik gehientsuenetan. Beste gauza batzuk egitea ere egokitu zaio baina Tortoren larruan egin duen lana da, zalantzarik gabe, aipagarriena.

Tomasek, barruan duen guztia ematen du tranpal-



doaren gainean. Aurreneko hitzetik eta keinutik, ikusleak adi-adi jarriarazten ditu. Bere gorpuzkera garaiak, indarra eta nortasuna agertzen lagundu izan dio.

Gehienetan, zakar eta basati mintzatu behar izan du Tortok eta Tomasek neurrian bete du beti eginkizun hori. Ez du lan erraza izan! Kontuan izan, Torto munstro beldurgarri eta bakartia dugula euskal mitologian baina Tomasek lortu du, munstro hori hain beldurgarria ez izatea eta ikusleentzat maitagarri bihurtzea.

Aktore modura, zorrotza izan da Tomas. Gidoia “piapa” ikasita, entsaio guztietan presente egonda, bere esku zegoen guztia eman du. Esan dezagun gainera, antzerkian eskarmentua baduela, Tomasek ere, beste batzuek bezala, pozik asko hartu baitzuen parte Ataunen antzez-tu ziren Habla cristiano eta Pagoa Markes antzerkietan.

### **-Gogoan al duk noiz hasi hintzen Jentilen Etorreran?**

Bai. Soldadu jun aurretio, 82n ta 83n or izan nintzela usteiat. Aizkolari modua urteaten Juanito Urteaga Uzkudun zanakin batea eta besten beiz, jentiltar. Geo 84en soldadu eon nittuan ta 85en beiz, alguazil modua artu nian parte.

### **-Gogoan al dauzkak lehendabiziko urte haiek?**

Nik burun daukeana zea dek: Oargi elkarten ingurun gailltzean urdun, Leendakari izateare tokau zitzaian eta akordatzen neok lehendabiziko billerak Oargin izantziela. Begin aurren zeukeat Oargiko leio-aurren maaian jarrita eittentziela billerak. Nik zuzeneko parteartzeik enian baño launtzeko asmoa bai...

### **-Etxean ba al zenuten Jentil, sorgin eta kontu zahar hauek aipatzeko ohiturarik?**

Gauza aundiik ez baño aittek eta amak, iñoiz eo bein aikatzen zien, Jentillek, Sugaarra, sorgiñek erratzan gañen eta olako kontuk baziela baño gu bildurtzeko asmoz. Gogon diat aittek nola esatentzian: or Ito-latza aldetio etortzek sorgiñe erratzan gañen eta ez etorri etxea bean-du. Olako kontuk aittek, amak eta izeba Juanak e bai.

**-Beraz, Jentil kontuak etxean entzunda heuzkan ezta?**

Bai ta eztiat esan baiño Itolatza aikau deunez, borda oi gurea dek, Sasteikoa, ta an Jentillek bizi izantziela esatentzian gue aittek. Borda oi etxea izandakoa dek eta ganbaran koartoa zean be leio ta guzti ta jentillen koartoa zala esatentzian aittek.

**-Gogoan al duk noiz hasi hintzen parte-hartzen antzerki luzean aktore lanetan?**

1994e zeukeat burun. Ze istori ein gendun, nun eta nola, dana gogon zeukeat, urrungo eunen oaiñ lanen naillen lekun asi bainintzen... Aurreko iganden, Plaza berrin ein genduan antzerkie. Eta aurreko urteaten, bazekiat atzaparrak arrapauta gelditzen dan Jentill Arron papera ein nula... Etzekiat 93n eo 92n izantzan baño burun diat oaindio.

**-Antzerkia egiten esperientzia pixka bat ere bahuen ezta?**

Gauza gutxi egie esan. Baño bai. Pagoa markes eta Habla cristiano lanetan parte artu nian. Paper txikik izan ittuan eta altura piskat badeulako, beti indarra eakusten eta ola... Geo ortio, arie ezon eten, seittu eintzian, ondo pasatzen genduan nunbait ta Jentillen Etorreran asi giñuztean.

**-Tomas, hasieran aizkolari, gero jentiltar, hurrena alguazil. Hala ere azkeneko urte gehienetan, Torto izan haiz ezta?**

Bai. Tartalo eo Torto. Urteaten Jentilbatzatio Agerrea jokua jextentzan jentill-buru izan nittuan ta urdun Tartalo nian izena baño bi begikiñ. Beste jentill bat, Bizkaitio etorritakoa, Joxemari Rodriguez zala usteiat lan ortan, ue jarrion ik begi-bakar. Baño bai, geienetan Torton papera ein diat.

**-Jantziak herorrek lortu eta prestatu al dituk?**

Danetio izan dek or. Baño Tortona eitten asi nintzenen, aurreneko urtetan gogon diat Graziñaberriko Txema Urrestarazun andren aman etxeko alfonbra batzukiñ ein gendula netzako jantzie. Etzekiat ze animaliñ narrukiñ eindako alfonbrak ittuan ta ak jantzi nizkian. Geo baittuan Santi Etxeberriak ematen zizkian "peluka" batzuk ta ala.



Geo beiz, udaletzek eosi zizkian narruk ta ak, geok josi ta ola ibiltzeaittuk.

### **-Aurpegiko mozorroa aldatu duk pixka bat ezta?**

Asieran ez genduan mozorroik eo karetaik. Geo Santik moldau zian gomazko kareta ta 2003ko berote garaien erabat deseinda geatuon, gue etxeko ganbaran gordeta neukela. Zalapartan ibilli giñuztean urte artan. Eunen bertan kontuatu nittuan ta kareta ortako beige nola-ala salbau genduan, emakume galtzerdiatzuk burutio beera sartu, ikatza-kiñ pixkat belztu eta ala ein nian 2003ko antzerkie. Ibillarok...Geo, 2004ako kareta berrie ein genduan, ia itxurazkoa eta puskabateako izangoana.

### **-Makila erabiltzen duk eskuan Tomas. Horrek ere izango dik bere historia.**

Bai. Beti makillea ibiltzeiat. Bi makilla izan dizkiat. Oaiñgoa saatsa-kiñ eindakoa dek baño berezie. Sasiñ eondakoa dek ta baatik, sasiñ beti untze eo zeozer izatek ta untze bueltan-bueltan korapillon zeukek makilla orrek. Kuriosoa dek.

Beste urteatzutan beiz, gañen burue edo kakoa dauken makillea ibilli izan diat. Oaindio an tzeok gue etxen, ondo leortuta zeok ta.

### **-Beste ezer ez al duk erabiltzen soinean?**

Bai. Katana eo ezpata motz bat ibiltzeiat eta urten baten adarra e ibilli izan diat baño ez beti. Eraztunere ibilli izan diat...Danak etxen zeuzkeat.

### **-Urduritasunik izaten al duk antzerki aurretik?**

Leenbizi esan behar diat, papera ondo ikasten saiatzen naizela eta alde ortatio lasai juten neok. Desfilene esan bearrekoa repasatzen juten neok ta alde ortatio eztiat desfilea bear bezela gozatzen.

Oi bai, nerbiok izangoittuk. Gauzat eitteiat urte geienetan: Frontoia sartu aurretio pixegurea ta maskurie ustu bear. Nerbiona izangoek oi ala? Baño bein tranpaldoa io ta leenbiziko esaldie esan ezkeo, aurea... Gañea mozorroa eamaten diau aurpegiñ ta argik dielata eztek jendea ikusire eitten ta alde ortatio lasai.

### **-Zein izan duk urte guztiotan hiretzat, gustokoen eszena edo?**

Gustona Muskiko Basajaunen istorie ein gendunen geittu nittuan. Leenbiziko paper fuertea nian. Jexux Munduatek eintzian umena ta toma-daka luze xamarra genduan. Jexuxek burruntzie sartu beartzian kopetan, komerik izan giñuztean baño azkenen moldau giñuztean ta ondo, gustoa. Ne burukiñ gustoa.

Geo Ameskabiko Martiñekin ein genduanare oso ondo ataon ne iruipeneako. Bukaerako apustue izanon ta ongo ikasita gendukean biok gioia ta ondo ataon. Beste urteatzuk izan dittuk zaillagok.

Gauzak ondo atatzeko inportantea dek ensaiotan lan asko eittea.

### **-Tomas, herritik kanpora komentariarik egiten al dik inork Jentilen Etorreraz?**

Bai. Lantegian batez ere. Aurreneko komentarioa zea izatek: otza pasau duela. Ie kulpaz katarro earra arrapatu diat eta olako kontuk. Geo beste batzuk, ba ea dana erriko jendek eitten deun... Arrittuta geatzeittuk. Nik usteiat erriko jendea oittu ein dala Jentillen Etorrerea



ikustea eta kanpokok beiz arri ta zur geatzeittuk ta balio geio ematez-  
ziek... Danoi gertatzezaiuk erritio kanpokoa geio balitz bezela estima-  
tzea...

**-Etorkizuna nola dator? Beti jende beretsua ari zarete eta atzetik ba al dator jende gazterik, zuei erreleboa hartzeko?**

Atzetik jende gaztea bear dala begi bistakoa dek. Baño oi eztaiu urteaten eo bitan eingo. Nik usteiat aldamenen jende berrie izatea inportantea dala baño eztek errexa. Ardurak banatu bearko dizkiau baño ortako jendea bear dik. Etzekiat asmauko deun. Saiaukoaittuk ezta? Zer geio ingoiau!

Nik ondo pasatzeiat ta oixe esango niekek gaztei: animatzeko.

## SAMARTINTXIKI



Samartintxiki ere, derrigorrezko pertsonaia bihurtu zaigu Jentilen Etorreran. Gurekin izan da hasiera-hasieratik, ez du hutsik egin eta nortasun handia eman dio ikuskizunari.

Beti Etxeberri Handiko Joxe Arrondok egin izan du Samartintxiki-ren papera. Meritu handiz aritu da. Samartintxiki mitoari pare-parean datozkion ezaugarriak eman dizkio Joxek, bere gorpuzkera trinkoarekin, pausaje arin eta kaskazuri eta bizar zuriz. Beti erne, adi, bizkor, batetik bestera, zer ikusi eta zer entzungo. Horrelaxe dabil beti, kristauen eta jentilen arteko zubilana eginez. Eta hori primeran egin du Joxek. 25. urtera iritsi garenean, esan liteke, ataundarron eta Jentilen Etorrera ikusi dutenen “imajinarioan” Joxe Arrondoren itxura beretsukoa agertzen dela beti Samartintxiki. Eta ez da gutxi!

Gehienetan sekretuak eskuratzen edo beste inork ez dakien zerbait jakin nahian jarri izan dugu “lehen espioi euskalduna”. Ia beti, Alkatearen aginduak betetzea egokitu zaio baina inoiz Apaizak agindu diona bete beharra ere izan du, gogoz-kontra bederik. Beste behin Torto laguntzen jarri genuen eta ez zuen lan makala egin. Kasuren batean

gainean, inork ezer eskatu edota agindu gabe, bere kabuz aritu da zer-bait ikertzen, gero herritarrentzat mesedeko izango delakoan.

Egoera beltzean ere jarri izan dugu Samartintxiki: Ubeiko leizean erori eta bere arrastorik gabe gelditu ginen urte batean. Hurrengoan ordea, han agertu zen beti bezain bizi, leizean erori eta Aiaiturriettan uretan murgilduta agertu zela esanez. Beraz sekretuak, lur gainekoak eta azpikoak denak ezagutzen ditu Samartintxikik.

Beraz era batera edo bestera, erabat maitagarria eta sinesgarria egin zaigu urte guztiotan Joxe Arrondok arnasa eman dion Samartintxiki.

### Samartintxiki deitura

Esan dezagun Samartintxiki deitura dela-eta, zalantza batzuk izan genituela hasieran. Ataunen bertan, Martin Txiki deitura oso zabaldua dago eta Martiniko edo San Martin deitura erabiltzen zuenik ere baten.

Gai honetan ere Joxemiel Barandiaranen eskutik ibili izan gara. Bere esanetan, deitura zabalduagoa da Samartintxiki eta Ataunen, Muskiko kobako esaundan, jentilei garia lapurtzen dienean, Samartin Txiki izena dago jasota.

Argi dirudi, kristautasunaren eraginak aldatuko zuela lehenagoko Martintxiki deitura Samartintxiki.

Edozein moduz ere, geure artean, Samartintxiki erabiltzea erabaki genuen.

### Samartintxiki mitoaz bi hitz

Ez zen amutsa!, esango du norbaitek.

Eta ez da gezurra hala jainkoa! Esaundek horixe diote: bera izan zela gizakien artean garia ereiteko hazia lortu zuen lehen nekazaria.

Eta garia bakarrik ez! Mitologian, sekretu asko dira Samartintxikik lortzen dituenak. Garia, artoa, harbia, zerra, igitaia, errotarrirako altza-egurrez egindako ardatza, burdinezko bi zati nola lotu eta sua.

Ia beti jentilei edo Basajaunei lapurtzen die sekretua baina esaunda batzuetan, baita Inpernuko etsaiari eta deabruari ere.

## JOXE ARRONDO. (Samartin txiki)

Joxe Arrondo Barandiaran. Etxeberri-Haundi baserrian jaio eta Altzanipe etxean bizi da.

Hizki handiz idatzita dago Etxeberriko Joxeren izena Jentilen Etorrerako historian.

Larratzeko Ramonak ez zuen begi txarra izan, Joxeri Samartintxiki-rena egiteko eskatu zionean. Ikusi zion zerbait berezia Ramonak eta baita asmatu ere.

Joxek primeran ulertu zuen Samartintxiki mitoaren azpian zegoena. Txiki, bizkor, azti eta argi ibili behar izan du, kristauen mundutik jentilen mundura saltoka. Eta lan hori bikain bete du.

Neurrian aritu izan da: inoz ez harro, inoiz ez gezurti, inoiz ez maltzur. Jentilen sekretuak lapurtu behar izan dituenetan, jentilei alferrikako minik eragin gabe aritu da eta beti helburu nagusi batekin: jentilak baino okerrago zeudenei laguntzea.

Joxe Arrondok beraz, bat egin du Samartintxiki pertsonaiarekin eta norbait maitagarri, harrigarri eta hurbileko bihurtu digu txiki bizkorra.

Eskerrik asko.

### **-Joxe, hasieratik hago Jentilen Etorreran. Gogoan al duk nola hasi hintzen?**

Larratzeko Ramona juntzitzaian, ea Samartintxikiña eingo al non galdezka. Nik esango nitek Ramonak moittu zola dana gue ingurun beintzet. Ze ein bear non galdetu nioan nik eta lasai eoteko, arropak beak prepauko zizkiala. Esantzian, zaku txikiat e eingo zilla galalek eamateko. Geo, bukaeran garie bota bear nola, oiutzuk eiñez. Plazan eintzan guztittan bukaeran bueltatzuk ematen nizkian garie botaz.

### **-Gogoan al daukak zer jende zineten?**

Desfilen jende pillek artzentzian parte baño pertsonaje nausik, Mikelats jentille, Alkatea eta Apaizea ituan. Ni neonire bai tarten, Samartintxikiña eitten.



Geo jende geiore bai. Pregoneroa Doroteo, ondoan Xabier Barandiaran izatentzian, alguazil bezela Miraballesko Guillermo ta Tallerreko Pellomari aurrenekotan. Erriko jauntxo bezela azaltzen zienak beiz, Errotako Antonio, Patxi Kooperatibakoa eta bestatzuk.

### **-Hasieratik egin duk Samartintxikiren papera. Ba al huen aurrez, pertsonai horren aditzerarik?**

Egie esateko, gauza gutxi. Zeozer bai baño askoik ez. Ramonak esantzian, mitolojiñ barrun kristauen arten jun bear nola, gizon ttiki eta bizkorra zala Samartintxiki ta aren itxurea ein bear nola. Arropak Ramonak ekarri zizkian: txaketat luze-luzea eta geo gari-alentzako zakuat. Aparte noski abarka aundi-aundik. Orik danak Ramonak juntu zizkian. Geo esantzian, alkondara raiatu urdinxkat eamateko, prakak maonezkoak garai batekok altzala eta beti praka urdiñek maonezkoak eaman dizkiat.

### **-Jentilen ipuinik kontatzen al zien zuen etxean?**

Aundik ta indartsuk ziela, oi bai, oi esatentzian gue aittezanak. Bealdiko gizaki ta basajaunek ziela. Gero ba esaldik: etxei iru buelta eman ezkeru Sugaarra azaltze zala. Oi aittajauntzanak esaten ziu. Majiñat saio eitten giñuztean, baño irugarren buelta emateako geatu eitten



giñuztean bazpare. Ja, ja, ja... Kezkea izaten genduan. Bi terdi eman-dakon bazpare geldittu.

**-Zer esan zien etxean eta zer esan izan dik jendeak?**

Etxen nik usteiat, gustoa artu zuela. Jendek ondo erantzun zian ta oi ikusita etxekoke gustoa.

Jendek beiz, bai errikok baita kanpokok e, beti animoa ematen. Oso politte eitten deula, eusteko orri eta olako kontuk.

**-Ez al dik inork esaten, gari-soroak aspaldi amaitu zirela Ataunen?**

Ez, oi etziak iñork esan baño urteaten politte gertau zitzaian.

Futbol-zelaien ein genduan ta beti bezela galalek bota nizkian. Gau artan ebie eintzian eta ala esantzian batek: ik atzo botatako garik eztik egoaldi txarra. Erne ingoek!

**-Jentilen Etorreran parte hartu aurretik, antzerkian arituta al hengoen Joxe?**

Ezta bate! Geo bai, Jentillen Etorreran asi ta geo, parte artu nian Kalustraundiñ eintzan Pagoa Markes antzerkian. Baño gauza aundik ez!



### **-Jendearen aurrean agertzeak urduri jartzen al hau?**

Tripajaten eneok eoten baño letxugea baño preskogore ez. Eama-teiat nik e barrutio ne kezkea. Oi bai, bazpare abitzeako beti artu izan diat gioia, azken beidatuat emateko.

Normalen lasai juten neok baño bestelako urteke izan dittuk. Asko izatek, zenbat ensaio ein dien eta ondo ein dien. Ensaion parte artu bear duen guztik azalduko ezkeo, etzeok kuidauik baño bear bezela preparau ezpada, bide okerren sartzeko arrisku geio izatek.

### **-Zer hobetuko hukek?**

Bazekiau nola eitten deun eta dauzkeun bitartekokiñ eztek obetzen errexa. Kalea indartu zeikek geixau. Etzekiat, geio apaindu, kanpaiak jo eta olako zerbait.

### **-Hemendik aurrera zer? Etorkizuna nola ikusten duk Joxe?**

Etzekiat. Kezka oixe zebilkiau. Baakik, gure ez gaittuk betikok. Atzetio dozenat gazte gogokiñ ez baatoz, zaille izangoek oaingo marxai eustea. Santi batek eta ik gioiak idazten, lan aundik artzeittuzue eta ikusi ein bearcoiau.

## ALKATEA

Oinarrizko pertsonaia izan da Alkatea Jentilen Etorreran. Alkatea da, jentilak ez diren beste herritar guztien buruzagia. Herritar gehienak kristauak diren arren, Alkateak argi eta garbi bereiztu ditu beti Elizaren agintea eta Herriarena.

Jentilekiko hartu-emanetan ere, jakin izan du Jentilei ataundartasuna aitortzen. Ez dio inoiz Mikelats jentilari ataundarra denik ukatuko. Hala ere, egoera larrietan, gosegaraian garia urri zenean esate baterako, Jentilekin haserre agertuko da.

Alkatearen eginkizun nagusia izan da beraz, herritarrek zituzten arazoak konpontzea eta ahal zuen neurrian, menditik behera zetozen jentilei elkartasuna adieraztea. Ez da beti langintza eta bide erraza izan.

Hiru alkate izan ditugu Jentilen Etorreran modu berezian: Klaudio Barandiaran, Baintitxikiko edo Ameskabiko Martin Barandiaran eta Bidebietako Iñaki Rezola. Tartean Dornaiñeko Juan Bautista Etxeberriak ere alkate-lana egin zuen urte batean.



## **K**LAUDIO BARANDIARAN (Lehen Alkatea)

Zoritxarrez, Klaudio ez dugu gure artean.

Pozik hartu zuen parte lehendabiziko Jentilen Etorreretan. Gizon berezia, Ataunen maitale sutsua, benetako sentimenduz egin zuen beti Alkatearen lana. Klaudio bera ere pertsonaia zen eta bere izaerak ikaragarriko indarra eman zion Alkate-pertsonaiari.

Horrez gain, antzerki-gintzan aritua zen eta ondo asko erakutsi zigun ofizio hori.

Alkate-makila eskuan, Iztatorretik behera, Mikelats jentilaren eta Apaizaren ondoan abiatzen zenean, kale guztia betetzen zuen bere presentziak.

Maila handia eman zion bere lanari eta ez zaizkigu inoiz ahaztuko Jentilen Etorreran udal-etxeko balkoitik egin zituen hitzaldiak.



Ezinezkoa zaigu berari elkarrizketarik egitea orain urte batzuk utzi bai gintuen baina hala ere badugu, Donostiako Herri Irratian 1982 an egin zioten elkarrizketa bat, Jentilen Etorrera zela eta.

Orduan esandakoak jaso ditugu hemen, Klaudio gogoan dugula.

***Galdera:*** *Gabon Klaudio...*

***Klaudio:*** *Gabon...*

***Galdera:*** *Beno... Klaudio Barandiaran... ordu batzuz besterik ez baldin bada ere herriko Alkate egin zaituzte eta zer da zuretzako alkatetza lana ? Zer lan izango duzu gaur gauean?*

***Klaudio:*** *Lehendabizikoa elkartasuna adieraztea. Jentilen eta kristau-zibilizazioaren artean izan ditugun borroka horiek, behin eta betiko bukatzea. Ongi-etorri honen esanabi nagusia hori da...*

***Galdera:*** *Horiek izango dira beraz zure zereginak. Zer esango diezu zuk jentilei, iristen direnean? Hitz-bereziren batzuk egin behar dituzu edo zerbait prestaturik baduzu iristen direnerako?*

***Klaudio:*** *Hitzaldi bat egingo det... Aurrena ongi-etorri bezela eta gero azken-agurra.*

***Galdera:*** *Horiek izando dira beraz zure lanak gaur Klaudio... Pozik al zaude Alkate egin zaituztelako?*

***Klaudio:*** *Bai, beti izaten da horrelako poz pixka bat... Herriko nagusi izateak asko balio du..."*

*(1982 ko ekainean Donostiako Herri Irratian).*

## **M**ARTIN BARANDIARAN. (Bigarren Alkatea)



Martin Barandiaran. Amundarain edo Suki-zeharreko Barandiaran-txiki baserrian jaioa. Jaiotetxetik bertan, Ameskabi etxean bizi da.

Martinek bost bat urtez egin zuen Alkate lana Jentilen Etorreran. Alkate “dotore” eta “zorrotz” baten itxura eman zion bere pertsonaiari, garai bateko “jauntxoen” antzera. Bereziki, “bibote fin eta luzeak” eman zion nortasun aparta. Jendaurrean hitz egiten ohitua, primeran bete zuen bere eginkizuna.

Martinek gainera, Alkate pertsonaiaz aparte, aktore-lan gehiago ere egin behar izan du Jentilen Etorrerako antzerkian.

Aktuazio historikoa izan zuen 2002. urtean Aker pertsonaia antzez-tu zuenean. Gogoangarria izan zen Aker (Martin) eta Torto (Tomas Erauskin) aurrez aurrez nor baino nor aritu zirenekoa. Akerrek ziria sartu eta Torto sabela zulatu eta odol-hustuta hil zen.

**-Martin, zer oroitzapen dituzu Jentilen Etorreraren hasieraz?**

Pertsonajek zeuzkeat gogon. Mikelatsena eitten Joxe Bikuña, Alkate lanetan Klaudio Barandiaran zana, Ramona Auzmendi Mikelatsen andre eta olako gauzatzuk. Sorgiñeke bai. Aurrena Justina, menditio jetsitako sorgiñe ematezian, egitazkoa. Geo sorgiñ geiore bai, dantzak eta eitten. Ilusio aundikiñ numero polittek eitteittuan.

**-Etxean ba al zenuen jentil eta sorgin kontuen berririk?**

Sorgiñei buruz beti entzuten genduan zerbaitt. Gogon diat gu mutiko giñela kontatzen zuena. Gue etxe paren, Agauntza errekan presea eo arranpea zeoan, Urkuelan (Urkiola) argi-etxea izantzalako. Ta or gau baten, gue aittejaune zanan aittona, gauez zaku-gariat artuta errota zijola nola entzun zon: Ji, ji, ji, ja, ja, ja,... Eta sorgiñek: Badijoa, badijoa, baño ez guk ikusigabe. Sorgiñek lixubea jotzen aimeittuan arranpan.

**-Zeinek kontatzen zizkizuen kontu horiek Martin?**

Beno. Gue gurasok oso gazte ill ittuan eta etxen ez baño zearren entzuten giñuztean kontu orik, bateze gari-jotzea elkartzen giñenen. Gue zearren bi pertsonaje ittuan kontu zarrak kontatzen aitzen zienak: Baindiberriko Joxe Antonio Arratibel eta Saltxeberriko Joxe Prantzisko Barandiaran. Gari-jotzea auzo-lanen eitteon ordun, non falta eitten zon an, eta kontu-kontari jartzen giñenen, olako istorik kontatzen zizkien.

**-Gari-jotzen aritutakoa al zara?**

Bai. Garie eskuz jotzeoan ganbaran. Soron metatan eukitzeoan eta egoaldi bero-beroa zanen, eaman bizkarren etxea, atarin zabaldu eta andik lastabalak eamaten giñuztean ganbara. Eta arriñ jotzeon. Burun zaku-zorroa sartzen zien gizonezko eta emakumezko. Eta gero ue pasatzeoan makinan eta an garbitzeon garie. Eta geo lastoa ezon txikitzen eta lastabal orrek balio zian gero, neska-launtzea jundakon sue eman eta bidea argitzeko.

**-Nolatan hasi zinen zu Jentilen Etorreran parte hartzen?**

Usteiat Joxe Bikuñak esanda asi nintzela. Klaudiok utzi eintzian Alkate-eittea eta Joxek nei esantzian ea eingo non. Ta baietz esan noan. Bost bat urte ein nizkian: Aurreneko urtetan Marian Aierbe Kamiñokoa izan nian andre eta geo beiz Beamako Nekane Imaz.



### **-Erraz egin al zitzaizun parte hartzea?**

Bai. Ez abildade aundik deulako baño jendaurren jartzeko eztiat beñe eragozpenik izan. Gu Baserri Gaztediñ ibillitakok gaittuk eta Oiñatin, Arantzazun amar milla launen aurren itzeitteare tokau zitzaian. Gauez eitteon Arantzazuko igoerea. Larraitzene itzein bear izan nian oso gaxte nintzela. Elizen inguruko mugimendu aundie izanon Baserri Gaztedi izenekoa. Elburue zea oan: elizen babesen baserriko bizie indartu eta modernizau pixkat, diru aldetio solbentziatekin ta beti kristau ikuspegi batetio.

### **-Antzerki esperientziarik ba al zenuen Martin?**

Gauza aundik ez. Gogoatzen neok Gernikako Arbola antzerkie einzala Kalustraundiñ, Don Frantzisko apaizek gidauta ta ni eratzen ibilli. Kontxi nee andrea, Sebastian Auzmendi eta orik ittuan pertsonajek ta geo Idiazabalene eman zuela usteiat.

### **-Antzerki-giro handia zen garai hortan Ataunen ala?**

Bai, aundie. Jende artistea baon ordun, teatrogile formalak: Martin Aramendi, Joxe Antonio Goikoetxea Barberoa, Boni Aiestaran okiñe,



Hilario Munduate Aranberrikoa, honen anaie Julian, mundiala, Boni Barriola, Jexux Barriolare bai, Silbestre Dorronsoro Txatañenekoa... Orik dantzari-txiki ibillitakok... Markos Bidegorreitare bai... Pertsonaje lejendariok... Penea dek garai artako argazkiik ez izatea.

**-Gero, antzerkiren batean parte hartu zenuen zuk ez?**

Bai. 1984en Pagoa Markes antzerkiñ artu nian parte. Kalustraundiñ. Poliki pasau genduan.

**-Jentilen Etorreran erabili zenuen “alkate-trajea” nondik eskuratu zenuen?**

Trajea alkilau eitten nian, Donostiñ Gros auzon. Sonbreroa eta bas-toia eosi ein netuan. Pomo txuri bat zian eta oaindio gue etxen izango-ek. Azkeneako Aiuntamentuko alkaten benetako makillea ibiltzen nian. Zapatak beiz bodakok.

**-Eta bibotea Martin?**

Biboteare alkilau ein nian.



**-Alkatez aparte, beste pertsonaia batzuk ere egin behar izan dituzu Jentilen Etorreran. Sabelean labana sartu behar izan zenueneko, berezia izan zen ezta?**

Bai. Ta neonire naiko larri ibilli netuan. Antzerkie ein gendun eunen, labana ezin nian sartu. Entsaiotan ta pruebatan beste alkandora bat ibilli nian eta eunen bertan beiz alkandora fuertegoa jantzi nian nunbait eta ezin labana sartu. Torton aurren jarri nintzenen kosta ein zitzaian zulatzea. Geo dana ondo ataon, jendek simulakroa zala uste izantzian eta bitarten ni, benetan ai netuan eziñen.

**-Zure ustez Martin, hemendik aurrera zer bide hartu behar luke Jentilen Etorrerak?**

Nik balio aundie ematen zoat Jentillen Etorrerai. Au auzolan bat bezela izan dek, jendek utsen truke artu dik parte eta aleiñe ein dik errin bertan gauza polit bat eitteko eta baita, Ataun eta ataundarrak kanpoa azaltzekore.

Nik usteiat, olako gauzan bearra daukela errik eta aurrea eitteko, gaztegoi ardurak ematea, lekue uztea, ondo eongo ukek.

## IÑAKI REZOLA (Azken urteotako Alkatea)

Iñaki Rezola Eskisabel. Elbarrrenako Bidebieta etxean jaioa, Andoainen bizi da.

Iñakiren esku izan da azken 14 urteotan, Jentilen Etorrerako Alkate lana. Asmatu du Alkateari, gehiegizko protagonismorik ez ematen. Nahiago izan du Iñakik, Alkatea pixka bat aparte uztea, era horretan, jentilek, Apaiz eta Samartintxiki leku nabarmenagotan gera daitezen.

Bere gorpuzkera eta buru zuriak, agintea adierazten laguntzen diote, eskuan eraman ohi duen alkate-makila dantzatu beharrik gabe.



Jendaurrean hitz egiten ohituta dago, garai bateko tabernari lanak eta azkenaldiko irakasle-lanak, erraztu egin baitiote jendearekiko tratua.

Antzerkigintzan eskarmentu apur bat ere badu. Ataunen 1984 eta 1987 an egin ziren Pagoa markes eta Habla cristiano antzezlanetan parte hartu zuen.

Iñakik argi dauka, herriarentzat aberatsa dela oso Jentilen Etorreran eta pozik hartzen du parte.

### **-Iñaki, noiz hasi hintzen Jentilen Etorreran parte hartzen?**

Usteiat bigarren urten asi nintzela. Aurrenekon, kanpon nittuan lanen ta jakin nian nola einbeartzan eta nola eintzan baiño ezin izan nian parte artu. Banaukean ikusteko gogoia, ze ikusmiñ aundie zean asiera artan, ze montaje ote zan eta abar. Bazekiat jende askok artu zola parte, bateze adineko jendek.

Geo bai, geo asi nittuan zuzenen parte artzen. Asierako urteetan, jentilltar modua ata nittuan. Gogon diat, otson irudie margotuta don pankar-tea eamaten zuenetakoa nintzela ni.

### **-Eta Alkate bezela?**

Usteiat, antzerki luzea eitten asi giñenen artu nola nik, Alkatena eitteko eginkizune. 1992e izangoon. Santi Etxeberriak eo Jon Aizpuruak zeñnek esantziñ etzekiat baño ola asi nittuan, aurrez alkatena eitten zonak utzi ein beartzola ta.

### **-Zuen etxean ba al zenuten jentil eta horrelako kontu zaharren aditzerarik?**

Bai, bai. Txiki-txikitatik entzun izan dizkiau jentill eta sorgiñ kontuk, esaundak eta olakok, bateze aman aldetio, Okaizti aldetio. Esteban eta Maria aittejaunek eta amandrek kontatzen zizkuan olako istorik eta izeba Inixik e bai. Kontalari onak ituan.

Gañoa, Jentillbatzan urrezko eraztune azaldu zanen, Esteban gue aittejaune tartenon eta olako kontuk aikatzeittuan gue etxen.

### **-“Traje eleantea” eramaten duk Jentilen Etorreran. Nondik lortutakoa duk?**

Badik bee istorie. Aiitte ezkondu zaneko trajea dek. Txamarrea, galzak eta zapatak, aittek jantzi zittunak dittuk. Badittuk 52 urte ezkondu ziela



eta beraz trajek e urteatzuk badizkik. Usteiat aitte arro eoteala, ni be tra-  
jea jantzita ikusten naunen. Amak astebete lenau, ondo asko preparauta  
jartzeik.

### **-Iñaki, Alkate-makila eraman ohi duk eskuan. Beti eraman al duk eta nondik norakoa duk makila hori?**

Bai, beti eaman diat. Makilla oi, udaletxeen daun alkate-makilla ofi-  
ziala dek. Esan bear diat alare, makillea beti eaman deala baño urtea-  
ten enian alkate-makillea artu. Urte artan, gioian beste zerbaitt ein bea-  
rra izan nian eta urritz-makillat erabilli nian urdun.

### **-Pozik al hago, Alkateak Jentilen Etorreran duen lekuarekin?**

Bai. Iruitzezaiak erlijio kontuk diela bateze Jentillen Etorrerako  
mitoloji kontun oiñarrin darenak eta erokigoa dek jentillek eta apaizea  
geio nabarmentzea. Ondo iruitzen zaiak eitten dan modue. Alkatek  
bitartekari lana ein bear dik eta oi eitten saiatzen geala usteiat.

### **-Jendaurrean hitz egitea zaila egiten al zaik?**

Ez bereziki. Zaillena leenbiziko itzek esatea egiten zaiak. Gañea,  
aurrena kalen, udaletxe aurren itz ein bear izateiat eta oi, frontoi barru-  
koa baño artifizialagoa eittezaiak. Asi artekoa izatek eta beiñ asitakon  
lasai eoten neok.

### **-Zailtasun bereziren bat izan al duk urte guztiotan?**

Zailtasun aundiña, eztarrie itxi zitzaian urten izan nian. Samartingo  
festatan beste eginkizun batzuke izateizkiau eta urtero, Jentillen Eto-  
rrerako eun beren goizen-goiz dultzainerokiñ ibiltzegaittuk kalez-kale  
jendea esnatzen. Urte ortan zerbait otza eanda eo, eztarrie itxi zitzaian  
eta larri ibilli nittuan, geo atsalden tranpaldon gañen garbi itzeitteko.  
Ainbesten moldau giñuztean.

### **-Iñaki, zer hobetuko hukek Jentilen Etorrean?**

Obetu obetu, beti ein zeizkek gauzak hobeto. Alare bazekiau zein  
dien gue mugak: ez gaittuk antzezle profesionalak, bitartekoke ezti-  
ttuk aundik.. Oi jakinda, usteiat naikoa eitten deula. Beti zeok zer obe-  
tue baño urtez-urte obetzen ai geala usteiat.



**-Azken 8 urteotan Kiroldegan, frontoian egiten diagu Jentillen Etorrera. Zer iritzi daukak?**

Nik neonek, kalea naiago diat. Baño denok zekiau kalen eittek ze arazo dauzken, bateze egoaldi aldetio. Frontoian eittek, aldeko gauzak bazeuzkek ta kontrakoke bai. Barrun, gabezi guztik argigo ikusteittuk.

Kaleko giroa obetzen saiau bearco diau.

**-Belaunaldi aldaketaz zer iritzi daukak Iñaki?**

Ia gauza guztitan bezela, ontan e zaille dek jende berrie sartzen jutea eo jende gaztegoa inguratzea. Alare, zenbait gauza eztizkiat ulertzen. Gure izan gaittuk gaztek. Ta beti eon gaittuk, ataundar izatez arro. Jentille gaiñea ataundarron ezaugarrietako bat izan dek eta oaindio ala dala usteiat. Arrittu eitten neok, gu baño gaztegorik nolatan ezten oi ola bizi.

Konponbidea emateko, jendekiñ itzein bearcoik, lasai lasai. Usteiat, Jentillen Etorrerea eutsi bearrekoa dala eta penea izango ukek alperrik galtzen uztea.

## A PAIZA

Apaiza ere, Mikelats eta Alkatea bezalaxe, presente egon da hasiera-hasieratik Jentilen Etorreran.

Leku seinalatua izan du. Bera izan da, jentilen zibilizazioaren aurrean, kristautasun zibilizazioaren defentsa egin duena.

Ia beti, erasokor eta zorrotz aritu da jentilen aurka. Ezjakin, atzerakoi, kulturagabe eta animalia basatitzat jo izan ditu jentilak eta horren ondorioz, liskar giroan mintzatu da Mikelats jentilburuaren kontra.

Urtero-urtero sesio eta borrokaren bat izan da Apaizaren eta Jentilen artean: gehienetan Mikelats jentilarekin baina inoiz ere bai Tortorekin.

Horrez gain, hartu-eman zailak izan ditu baita ere herriko agintemakila duen Alkatearekin. Egiazko agintea nork duen, nor baino nor aritu dira urte guztiotan Apaiza eta Alkatea.

Jentilen Etorreran agertu den apaiza, ez da noski inoren eta ezeren eredu eta are gutxiago ezeren edo inoren kontrako kritika. Ukaezina da, Jentilen Etorrera gehienetan, balio eta balore izpiritualari baino gehiago begiratu izan diela “gure” Apaizak, balio materialei. Azpimarratzekoa da, Putterriko Urrea lortzeko, urtez-urte egin dituen ahaleginak.

### **Bi apaiz nagusi: Joxan Munduate eta Joxerramun Munduate**

Urte guztiotan bi apaiz nagusi izan dira Jentilen Etorreran. Tartean, urte batez, Errotakaleko Martin Arruabarrenak ere bete zuen eginkizun hori, Joxan Munduatek utzi eta ondorengo urtean.

Hasieran eta lehendabiziko urteetan Joxan Munduatek izan zuen apaiz-lanaren ardura.

Itxura eta nortasun berezia eman zion Joxanek Apaiz paperari. Benetan gogoangarriak dira, ibilbidean zehar eta udaletxetik egiten zuen prediku sermoian, Joxanek egiten zituen keinuak eta hitzez zabaltzen zituen zeharreko mezuak. Ez zuten bere hitzaldiek gatz eta piper faltarik izaten!

Estanpa zoragarri eta ahanztezin franko utzi zuen Joxanen garaiko apaizak. 1981etik 1989ra bitartean aritu zen Joxan.

Oso goian utzi zuen Joxanek “listoia” eta berak utzi zuenean, Martin Arruabarrenak bete zuen hutsunea urte batez.

## Martin Arruabarrena

Martinek urte bakarrez egin zuen apaiz-lana Jentilen Etorreran. Urte garrantzisua izan zen ordea 1990a. Joxan Munduatek utzi zuen hutsunea bete beharra zegoen, haria erabat etengo ez bazen. Gogoan izan, Jentilen Etorrerako gurdia irauli-ez irauli zebilela urte horretan.

Martini eskaini zitzaion aukera eta berehala eman zuen baiezkoa. Primeran aritu zen Martin, “apaiz-planta” kalean zehar erakutsiz. Martinek ez zuen sermoi eta hitzaldirik egin beharrik izan baina apaiz-erretorearen figurak leku seinalatua eta “itzal” luzea izan zituen urte hartan ere.

Eskerrik asko Martin!

Hurrengo urtean, 1991an ez zen Jentilen Etorrerarik egin eta gero etorri zen, 1992an, Joxerramun Munduateren txanda.

Garai berri batean geunden. Ordurarte hiru pertsonaiaren bueltan osatua zen Jentilen Etorrerak beste neurri bat hartu zuen. Antzerkia osatuagoa eta luzeagoa zen. Gidoia landuagoa zen, pertsonaia gehiago zeuden eta tranpaldoaren gainean antzeztu beharra zegoen.

Hemen azaldu zen, indar handiz, Joxerramun Munduate.

Erabat harrigarria izan da Apaiz pertsonaiari eman dion “tornua” eta maila.

Antzerkirako dohain handien jabe da Joxerramun eta paregabe eman ohi die hitzei eta keinuei, une bakoitzean behar duten neurria. Eszena berak bakarrik betetzeko adina indar erakutsi du urtea joan eta urtea etorri. Benetan ahanztezinak zaizkigu, Alkatearekin, Mikelatsekin eta batez ere Tortorekin, urteotan izan dituen eztabaida eta liskarrak.

## JOXAN MUNDUATE. (1981-1989)

Joxan Munduate Arruabarrena. Iztator-ko Urbieta edo Pellone etxean jaio, Elbarrenako Altzanipen bizi da.

Bera izan zen, hasierako urte guztietan, apaiz-lana modu paregabe egin zuena. Tajua eta itxura berezia eman zion: tripondo ederra, bibote luze eta sendoa eta umorea. Bete-beteen asmatu zuen antzerki-parodia giroko apaizaren papera egiten. Bere eginkizun nagusia, itxura eta hitzak erabiliz, festa-giroa sortzea zen eta ezin egokiago egin zuen lan hori. Joxan kalean ikusi orduko, algara eta farrea izan ohi zen ikusleen artean. Amaierako hitzaldietan berriz, sermoi serioak alde batera utzi eta ziri-tonua erabili ohi zuen, ateraldiz eta bromaz betetako hitzaldia eginez.

Hamaika urtez egin zuen lan hori eta oso goian utzi zuen Apaiz pertsonaia.



### **-Joxan, Jentilen Etorrera hasi zenean, han zinen zu. Zer oroitzapen dituzu?**

Gogon diat, garai artan Samartingo festatan zerbait berezie ein nai izan gendula. Akordatzen neok Antzuolan Moroan ikuskizuna eitten zala. Ue ikusi eta arean antzeko zerbait Ataunen zeatio ez gendun eitten komentau genduan.. Okaiztiko Joxe Bikuñak eta, ein zeikela eta zeozer preparatzen asi ituan. Asierako karga geiena Joxek eaman ziala usteiat eta arropa kontutan Larratzeko Ramona Auzmendik.

### **-Antzerki kontuetan ohiturarik ba al zenuen?**

Antzerki kontutan ez baiño festa-giroa beti gogoko izan diat eta beti, sorpresa edo disfrazen bat preparatzen, beti ortan ibilli izan nauk. Garai baten geio eta ordun, Jentillen Etorrerea eittea erabaki zanen, ni prest neoan zerbaitetan launtzeko.

### **-Jentil kontuen aditzerarik ba al zenuen aurrez?**

Apenas. Oi bai, Joxemiel Barandiaranen kontu batzuk entzunda garean eta Ataunen jentillek izan tziela eta olako gauzak entzunda neoan. Geroztio bai. Geroztio Joxemiel Barandiaranekin beakiñe itzein genduan jentil-kontuei buruz. Beste apaiza batek beiz zea galdeut zian beiñ. Ea ba ote nekien jentillek zein zien...garai baten emen bizi zan jendea zala erantzun noan eta beak auxe esan tzian: baita zeare: jentilek, jende illek ziela.

### **-Jentilen Etorrerako lehen Apaiza izan zinen. Nolatan?**

Ba uste diat, neonek aukerau nola, iñork ezer esanbe. Neonei sortu zitzaian apaiz lana eitteko gogo. Alegie, festea jarri beartzala eta nik apaizana eittea erabaki nian. Udaletxeko balkoitik itzaldie eitten genduan eta itzaldi ortan, elizako kontuk eta momentu ortan albiste eo notizia zien gauzak naasten nizkian. Olaxe asi nittuan. Okaiztiko Joxek pasatzen zian diskurtsoa eta ue oiñarri artuta, ne itzaldie botatzen nian.

### **-Sotanak eta, nondik eskuratu zenituen?**

Asieran, Beasainen apaiz zegoen eta Ataungo seme zen Segundo Dorronsorok utzi zian sotanea. Sakristauen jantziere beak utzi zian. Gero beiz, izeba Iñaxik utzi zizkian bere seme Joxe apaizan sotanea, bonetea eta misala. Usteiat, oaindiore orduko misala erabiltzen dola, oaiñ jentilletan apaiz-lana eitten don Joxerramun Munduatek. Dana latiñez on misala.

Esan bear diat, jantzik eta, parte artzen zuenak bakoitzak berea mol-datzen zola. Jendeak bee borondatez egiten zizkian gauzak. Zenbat ordu eta zenbat diru utzi ote genduan. Gero, agintarin jantzik eta, Donostiko Gros auzon zeoan denda baten alkilatzen asi ginuztean.

**-Joxan, antolatzen ere ibili zinen. Ikuskizunean parte hartuko zuen jendearen bila, mendietako suak piztuarazten eta abar.**

Gogon diat asieran sorgin lana ein zon Justina Zeberioana nola jun ginen Joxe Okaiztikoa eta biok.

Suk pizteko kontun beiz merittu aundie izantzien batzuk. Nik kubieta zarrak lortzen nizkian Olaberriko “Vulcanizados Martinez”en eta gero ak banatzen nizkian, leku jakin batzutan sue eitteko. Merittu aundie izantzien bateze, Jentilbatzako puntan , gauez sue piztu izan zuen bi koiñatuk: Iztatorko Joxe Urrestarazuk eta Erremedioko Joxemari Aizpuruak. Io ein bear dik Jentilbatzako maillon gora gauez, sue piztu eta ikuskizune bukautakon beize itzaldtu eta beera. Arrisku aundiko ibillaroa. Esker berezie meezi die.

**-Leku gehiagotan ere pizten ziren suak ezta?**

Bai. Agerre barrenen. Bittor Eskisabelek piztu izan zian iñoiz. Gero Agerreko Isidoro aittu izan dek. Guutzan beiz, nee garaien Anjel Munduatek. Mendiolan eo Kanpusantu gañen, Okaiztiko Jexux Bikuñak pizten zian asierako urteetan. Kalakasene alden, Joakin Aizpuruari ematen nizkioan kubiartak sue eitteko.

Borondate onenez launtzen zien eta eskertzekoa dek.

**-25. urtera iritsi da Jentilen Etorrera. Gauzak asko aldatu al dira urte guztiotan?**

Oaiñ antzerki luzegoa eitten dezue. Garai baten , desfilea, hitzaldi txiki batzuk eta gero dantzea eitten genduan eta gauza politte izateon. Oaiñ antzerkie, leku itxin, beste era batea eitten dezue. Ordun, bakoi-tzak bere esfortzukiñ eitten zian, naturaltasun osoz eta ikuskizune sor-tzen genduan. Aldaketa aundiña alde ortatio izan dek.

**-Esperientzia ona izan al da zuretzat?**

Oso ona. Oso rekuerdo ona zeukeat. Usteiat bai ordun eta bai oaiñ, olako gauzak ein bear diela. Ordun uste genduan Ataunek bear zola olako gauzat eta usteiat oaiñe baietz. Beste erri batzutan beste oitura batzuk dittuen bezela, guke eutsi beartzoau gureei.



**-Ta etorkizuna Joxan? Gazte-jendea beharko da Jentilen Etorrerak aurrera segi dezan. Zer iruditzen zaizu?**

Jenerazio-aldaketa aundie gertau dek. Leen danok batugo gendela usteiat. Oaiñ, bakoitze bee aldetio zebillek eta bestek eindakoa jatea oittu gaittuk, norbeak parte artube. Iruitzezaiak oi gauza geiotane ai dala gertatzen. Nee ustez, Jentillen Etorrerek aurea ein bear bao, naitaezkoa dek jendek parte artzeko gogoa izatea.

**-Berriro parte hartzeko gogorik ba alduzu?**

Bai. Bein baño geiotan pentsau izan diat, ondo leokela apaiza gaztea eta apaiz zarra aurrez-aurre jartzea. Nik usteiat politte izango litzakela.

## JOXERRAMUN MUNDUATE - (1992 - 2005)



Joxerramun Munduate Arruabarrena. Elbarrenako Ubarri edo Talle-  
rre etxean jaioa. Lizardi etxean bizi da.

Joxerramun izan da azken 14 urteotan Jentilen Etorrerako “apaiz”,  
“erretore” edo “bikario”.

Primeran bete du bere lana. Antzematen zaio antzerkia maite duela  
eta pozik eta sentimenduz aritzen dela.

Eskarmentua ere badu antzerkigintzan. Lazkaon prailetan eta Atau-  
nen bertan, Habla Cristiano eta Pagoa Markes antzerkietan parte har-  
tua da.

Esaera zaharrak dio, gogo gaiztoz dabilen zakurrak ehize onik ez  
duela egiten baina kasu honetan alderantziz da: gogoz aritu da Joxe-  
rramun urtero eta urte batean bai eta hurrengoan ere bai, beti jarri digu  
zerbait gozoa plateran denon dasta dezagun.

Beti goi-mailan aritu zaigu bere lanean. Batzutan serio eta zorrotz, haserre ere bai zenbaitetan, beste batzuetan ziri-tonuan, hurrengoan hipaka eta zotina gorde-ezinik. Inoiz edo behin irakiten ari den ura bezain nahasi ikusi dugu, egoerari aurre nola egin ez dakiela eta baita, isatsa galdu duen kattagorria bezala etsita ere...

Baina beti, neurrian erantzun izan du.

Honenbestez esan liteke, Jentilen Etorrerako apaizari pisu eta nortasun handia eman diela Joxerramunek.

### **-Joxerramun, noiz hasi hintzen hi Jentilen Etorreran parte hartzen?**

Gogon deanez, festak Ekainetio Azaroa, Samartineta pasa zienen hasi nintzela usteiat. 1992e izangoon. Nik usteiat urdun asi giñela baita, urduartekoi beste itxurat ematen.

### **-Beti Apaiz lanetan aritu haiz ezta?**

Bai. "Sanbenito" oi eantsi ziazuen ta ortan seittu diat. Aurrez leikena dek antolatzen eo zeozertan aittu izatea baño eztiat gogon. Oi bai, Oargitio festatako afarie antolatzen gendula eta afari ondorenen jentillek jextentziela ta Lazkaotxiki ta Juan Inazio Begiristain bertsotan nola aittu zien gogon diat. Jentillen lizar-makilla otsak aikau zizkian Lazkaotxikik.

### **-Zuen etxean ba al zenuten, Jentil, sorgin eta horrelako kontuak aipatzeko ohiturarik?**

Bai. Beti zeozer. Urdun ezon oaiñgo telebisio eta olakoik. Gañea guk gurasok eta aitton-amonake etxe ingurun genizkian ta bazien oiturea, jentillen kontuak eta kontatzeko. Ba jentillek aitton aundik ziela, Samartingo Elizea eitteko arrik nola ekarri zittuen ta olako pasarteatzuk. Agerre baserriere aurrez-aurre genduan ta umetatio izan diau bez, jentillen entzutea baño inportantzi geio emanbe.

### **-Erraza egin al zitzaian parte-hartzea?**

Etzekiat ze esan. Norbait etorri zitzaian parte artzeko eskauz, aurrez apaizena eintzuenak, Joxan Munduatek ta usteiat Martin Arruabarre-

nak ere eintzola urte baten, orik utzi eittentzuela ta ea nik eingonon. Norbaittek eldu bearko ziola ... Ola eldu nioan, zertan sartzen giñen asko pentsaube. Errezelo oi zeukeat.

**-Apaiz jantzia eta trasteak, herorrek eskuratutakoak al dituk?**

Bai. Senide bat badiau apaize eta sotana kontuk albo batea utzi zittuenen, ba gue etxen pillau ituan atzea geatutako trastek. Nik orik ibiltzeizkiat beti, bai leen ta bai oaiñ: sotanea, bonetea eta abar. Misal zaar bat e ibiltzen diat. Beno otoitz liburu zaar bat dek. Geo eskuarten gurutzeat ibiltzeiatt, ola bi makillazarrakiñ eindakoa.

**-Batzutan testu luzeak ikasi behar izan dituk. Zaila egiten al zaik?**

Beno. Urtek aurrea zijoztek eta burue eztek argitzen juten. Orrek be zailtasunek izateizkik. Zenbait gauza zeatz-meatz esateko, esaldi borobilek bear bezela esateko, kosta eittek eta batzutan kontuatzen neok ez dittuala danak zuzen esaten. Alare bentajaxoat badiat: beti paper berdiñen aitzek, badik alako ildo nausiat jakin xamarra eta oi lagungarri gertatzek.

**-Eszena askotan parte hartu behar izan duk urte guztiotan. Ba al daukat goxan, bereziki, historia edo konturen bat.**

Bat jartzekotan zea esango nitek: Lamiñosingo istorie. Sorgiñek ituan tarten, Sasteiko etxekoandrekiñ, aga baten puntan gurutze o jarri-ta ibilli giñenekoa. Arrekin gustoa geldittu nittuan. Itxuroso geldittu-an... Akordatzen neok nekiñ batean lana eintzuenak, Beamako Bidatz ta orike gogoz aittuziela eta txukun ata zala usteiat.

Bestatzuk e izan dittuk. Putterriko urrekiñ ein gendunare ikusgarrie izanon. Leran ekarri genduan, geo Elizea dotoretzeko asmoz...Politte izanon uere.

**-Jentilen Etorrera egin eta gero, urtean zehar inork esaten al dik zerbait egin duzun lanagatik?**

Bai. Bateze ein berritan. Batzuk adarra jotzeko bestatzuk seriogo, beti zeok norbait zerbait esateona. Edade pixkateko jendea izatek bateze. Eta oi bai, oaiñ difuntue dek baiño Amilletako Joxek elkar ikusten giñen guztitan, aikatzen zian Putterriko urrea. Ondo gordeta

al daukek Putterriko urrea? Zenbat aldiz esan ote zian Joxe zanak. Geo atzetio zea esango zian: Mikelatsekiñ eon neok eta urre billa biar dijola esantziak.

### **-Herriz kanpoko jendeak esan al die zerbait?**

Bai. Jende asko izatek, lantokiñ eo, zerbait esateona. Alare ni geiena arrittu nauna zea izan dek urteotan: saioa bukau ta beelaxe, frontoian bertan, nola inguratzen dan ik ezautzen eztean jendea, bat eta beste esatea. Ikusi ein bear dik nola bizi izateon jendek: batek esangoik urtero etortzeala, bestatek olako gauza polittik sekula ez uzteko...Larogei urtetio gorako jendea izatek askotan ta ikusi ein bear dik ze gustoa bizi duen guk eitten deun ikuskizune.

### **-Zer balio ematen diok hik Jentilen Etorrerari Joxerramun?**

Apal apal esanda baño nik usteiat balio andie daukela. Erriko istoriri puska politte easten ai geala iruitzezaiak. Eta usteiat ariik jarraipena izango bao, oaiñ eindakoa or geatukoala. Batzuk geio balorauko die bestatzuk baiño, adiñ baten eztek balorauko baño geo igual bai...



**-Zertan hobetuko hukek?**

Mugaik eztauken galderea dek oi. Nik usteiat asierako gauza xume eta umill ue aunditzen jun dala eta ikuskizun-espektakulo aundi biurtu zaiula. Ta aunditzen dijon eran, orrek etzeukek mugaik ta beti obetu zeikek. Argi zeok, leiendak eta kontu zarrak gordetzeko eta gaztetxo ta umeana allatzeko aleiñe eiñ deula. Ala erabaki genduan bee garaien eta orrek, egie dek, asierako Etorrerek zon txikitasun eta bapatekotasun ue galduazi eiñ dik.

**-Kalea galdu ote dugu?**

Argi zeok alde batetio irazi deuna bestetio galdu deula. Kalek galdu eiñ dik eta barruk, frontoiko ikuskizunek iraaazi eiñ dik. Baño geok eiñ genduan apustue. Aleiñe ein bearkoiau kalekoa beize indartzen. Etzekiat nola. Bearba kalen tarteka-tarteka zerbait berezie eta berrie ein bearkoik. Baño erreza eztek, lana bikoiztea eskatzen baidik. Nola eiñ? Oi dek burun dabilkiun galderea baño erantzun argik etzeukeat.

**-Zer ez hukek sekula aldatuko?**

Leengoa esangoiat beize: usteiat kalekoi eutsi ein beartzaiola. Geo ba, jentillek eta sorgiñek beti eon bear duela.

**-Ta Joxerramun, etorkizunaz zer iritzi daukak?**

Aleiñe ein bearkoiau belaunaldi berrik sartu dittezen. Kezka pixkat emate ziak orrek: etzekiat akatsa zeñena izan dan baño eztaiu asmau jende gaztegoi onen balioa aiazten eo bestela gaztek igual etziek ematen guk ematen zoaun balioik. Nik usteiat or asmau bear gendukela danok katea eten eztein. Oaiñdio eztek beandu. Akaso ogeitabosgarren urteurrena momentu egokie dek, patxadaz lasai itzein eta onek jarraipena nola izan bear don erabakitzekeo.



## SAKRISTAUA: AMILLETAKO JOXE BARANDIARAN

Oso gure artekoa genuen Amilletako Joxe. Hasiera-hasieratik, gauza izan zen arte, urtero hartu zuen parte Jentilen Etorreran. Lehendabiziko urtetik bertatik, ilusioz eta urduritasun handiz bizi izaten zuen Jentilen Etorreran parte-hartzea.



Jentilen Etorrerako “sakristau ofiziala” izan da nolabait esateko. Ilusio handia egiten zion sakristau-paperean, sotana, hisopo-untzi eta gainerakoak hartuta herriko kalean zehar ibiltzeak.

Ez zuen ahaztuta izaten, aurrena ekainean eta gero azaroan egiten genuen jentil-festa. Festa-egunak hurbildu ahala, berehala hasiko zen Joxe, Etorrera zein egunetan zen, zenbatgarren urtea ote zen edota beste zer-bait galdetzen.

Estimazioz hartzen zituen ondo-esanak baina ederki sofritzen zuen, norbait zirika, adar-joz hasten zitzaionean.

Hutsune handia utzi zigun. Denok ezagutzen genuen Joxe.



2003 ko Jentilen Etorrera izan zen, Joxek parte hartu zuen azkene-koa. Orduan ohartu ginen gaiso zebilela.

Omenalditxo bat eskaini genion, jentiltarrok urtero egin ohi dugun afarian. Plaka bat eman genion opari eta pozik jarri zen.

Plaka horretan, Jentilen Etorreran pregoilariak jo ohi duen bandoa-  
ren antzeko bat jarri genion idatzita.

Hauxe da plakan ageri zen testua:

*“Bando, bando, bando,  
Alkateak esan do,  
Amilletako Joxek  
merittu aundie dola,  
asi giñenen gukiñ zeola,  
ta eskertu eiñ bear diogula  
bere laguntza mardula.  
Ta ez degula aaztuko sekula”.*

*“Joxe Barandiarani bihotzez eskerrak, Jentil Etorreratarrok”.*



Joxe, 2004 ko urriaren 12an hil zen. Urriaren 13an egin zen hileta, Samartín auzoko Eliza jendez gainezka zela.

Han zeuden azken agurrean, Mikelats, Etsai, Samartin Txiki, Erretore Jauna, Joseba Troskategi eta beste hainbat jentiltar lagun.

Handik hilabetera egin genuen Jentilen Etorreran gogoan izan genuen Amilletako Joxe, Iñaki Rezolak alkate-paperean egin zituen hitzen bitartez:

*“Aurten gukiñ eztaun pertsona bat gogoatu nai nuke... Amilletako Joxe... Edozein lekutan dalare, zigarroa piztuta guri begira dagoela seguru...”*

Begi-ertzetara salto egin zuten malkoek eta jendearen txaloek, erakutsi ziguten ondo, zenbateraino zen Joxe, gure parte.

Azken urteetan, Jentilen Etorreran beti Joxeren ondoan izan ohi zen Joxeraman Munduatek hone-laxe gogoratu digu Amilletako Joxe:.

## JOXERRAMUN MUNDUATEREN IRITZIA JOXE BARANDIARANI BURUZ

“Nire iritziko, Joxe Amilletakoa pertsonaia esanguratsua edo figura enblematikoa bihurtu zen Jentilen Etorrera ikuskizunean.

Edozein lekutan, herrian zein kanpoan, norbait ikuskizunari buruz komentarioren bat egitera inguratzen zitzaigunean, beti aipatuko zizuten guztiek Joxek egiten zuen sakristau-pertsonaia.

Esango nuke, urte guztian egoten zela Joxe Jentilen Etorrera ikuskizunaren zai. Elkartzen ginen guztietan, beti esan ohi zidan: *“Putterriko urre-puskea zainduta al daukek?”* Behin uda pasa ezkerro, hutsik egin gabe hasiko zen galdezka ea aurtengoa presatzen hasita geunden.

Joxeren beste alderdi bat ere aipatu nahi nuke: asko eta askoren txaloen ondoan, inguruko batzuen zirrikada eta txantxak ere jasotzen zituen baina ez zuten batera kikiltzen. Hala ta guztiz ere, beti zegoen berak, beste askorekin batera egin zezakeen aportazio xume hori, herriaren eta guztien onerako jartzeko prest.

2003ko emanaldian antz eman genion zerbait bazetorkiola eta halaxe gertatu zen. Hura izan zuen azken agerraldia. Hilabetera edo, talde osoak egin genion omenalditxoak poz eta asebeste bikaina eman zion. Ikusi egin behar zen, oparia jasotzerakoan Joxek jarri zuen aurpegia!

Gero, 2004ko emanaldian, Joxerik gabe egin genuen lehendabizikoan, bere aipamena egin zen eta seguru nago dagoen tokian dagoela ere, txulotxo batetik begira egongo zela eta bere aurpegi adierazgarria,-bi begiak zabal-zabalik eta irrifarra- ikustekoa izango zela.

Honela gogoratzen dut nik Joxe Amilletakoa, hainbat urtetan lankide leial eta fina izan dudana”.

Ataunen, 2005eko irailaren 17an.

**Joxerramun Munduate**

## **M**ARIMUNDUKO eta SORGINAK



Marimunduko oinarrizko pertsonaia bihurtu zaigu Jentilen Etorre-  
ran. Ataunen Mari, zenbaitetan sorginen buru agertu izan denari dei-  
tzeko bi modu erabili izan dira: Marimunduko eta Muruko Dama.

Lehendabiziko urteetan, Justina Zeberio izan genuen bereziki,  
“Marimunduko eta sorgin ofizial”. Garai hartan ez zen erraza inor sor-  
gin lanetan jartzea eta are gutxiago adineko emakume izanda. Jendea-  
ren esamesek sofriarazi zioten Justinari baina festak eta antzerkiak  
duten esanahia ondo asko ulertu zuen eta lan bikaina egin zuen sor-  
gin-lanean aritu zenean.

Joxe Bikuñak konbentzitu zuen Justina. Joxek inoiz komentatu izan  
digunez, hiru bat orduz kontu-kontari aritu omen ziren Justinaren  
etxean, baiezkoa eman zuen arte. Larratzeko Ramonak ere ahalegina  
egin zuen Justinak parte har zezan.

Justinak bakar-bakarrik egin behar izan zuen lana eta primeran aritu zen. Gero, ondorengo urteetan, Espillako Pili Eskisabel, Andreseneko Beatriz Aierbe eta beste batzuk aritu ziren sorgin-lana aurrera ateratzen. Tartean ziren, beste gehiagoren artean, Ixiar Eskisabel, Jaione Munduate, Ana Eskisabel, Edurne Goikoetxea eta Agurtzane Bikuña.

1992an berriz, neska-talde batek hartu zuen propio sorginen eginkizuna. Denen buru Maitane Aizpurua.

Orduantxe hasi ginen gidoi luzeak eta testu landuagoak idazten eta Marimundukori ere leku seinalatua eman genion.

Esan dezagun Marimundukoren inguruan, herriko neska-talde bat aritu dela urte guztiotan.

Azkeneko urteotan, ondorengo hauek aritu izan dira:

Maitane Aizpurua.

Eneider Sukia.

Naiara Munduate.

Amaia Etxeberria.

Agurtzane Auzmendi.

Elixabet Galparsoro.

Jone Galparsoro.

Rebeka Kaiero.

Maria Tato.

Ane Auzmendi.

Larraitz Sukia.

Maitane Dorronsoro.

Maidar Urdangarin.

Pili Imaz.

Aitziber Barandiaran.

Izaskun Eguren.

Arantxi Barandiaran.

Hirune Gorostizu.

Aintzane Aizpurua.

Aitziber Jauregi.

Aitziber Aizpurua.

Garazi Aierbe.

Garazi Etxeberria.

Maialen Sukia.

Bidatz Badiola.

Olatz Barandiaran.

Eztitxu Etxeberria.

Itxaro Barandiaran.

Aloña Erauskin.

Itxaso Barandiaran.

Eneritz Arrondo.

Alaitz Etxeberria.

Izarne Imaz.

Iratí Munduate.

Maidar Arruabarrena.

Garazi Aierbe.

June Aizpurua.

Monika Arratibel.

Eneritz Aizpurua.

Maidar Gandarias.

Leire Aizpurua.

Maidar Barandiaran.

Irantzu Aizpurua.



Inoiz gizonezkoak ere agertu izan dira sorgin-itxuran. Urteren bate-na ibiliak dira sorgin eginkizunetan, esate baterako, Txema Rodriguez eta Harri Munduate.

Urte batean, Euskal herriko beste sorgin batzuk ere ekarri genituen. Zehatzago esanda, Ataungo neskak jarri genituen kanpokoan itxuran.

Euskal Herriko sorgin hauek aipatu eta erakutsi genituen, bakoitza bere jantzimentu bereziz apainduta:

Marimur, Leitzakoa.

Mariarroka, Olaztikoa.

Aralarko Damea edo Txindokiko Mari, Amezketakoa.

Arrobibeltzeko Andra, Azkainekoa.

Bideko Emazte Xuria, Santa Engrazikoa.

Anbotoko Sordina, Durangokoa

Aketegiko Damea, Zegamakoa.

## GURE SORGINAK



Gauzak horrela, Jentilen Etorreran ez dugu sorgin faltarik izan, zorionez. Hasiera-hasieratik, nola ez ba, beti izan dira gure artean sorginak eta sorginkeriak.

Lehen Mikelats Jentila aipatzerakoan esan dugu, Jentil emakumezkoiei ez diegula apenas lekurik egin Jentilen Etorreran. Ba, sorginen taldean alderantzizkoa gertatu zaigu: alegia, sorginak bai, ugari izan dira urte guztiotan baina azti-gizonezkorik ez. Beraz, hemendik aurrera Jentil-emakumezkoiei eta Aztiei leku gehiago egiten saiatuko gara.

Eta hemen beste gogoeta bat ere egin nahi genuke: sorginetan lamiak edo laminak falta zaizkigu. Urteren batean, propio historiak hala eskatzen zuelako, lamiak agertu dira baina hori salbuespen izan

da, gainerantzeko urte gehienetan ez baitugu Lamirik izan eta mereziko lukete leku berezia, Ataunen lamien historia ugari delako. Gogoan izan Lamiñosin. Eta behin lamiak gonbidatuz gero, leku egin beharko genieke baita Maideei ere, lami gizonezkoei.

Ba da gainera sorginak aipatzerakoan, azpimarratu beharreko ekintza bat: sorgin-dantza. Indar handia hartu du urteen joanean sorginek urtero egin ohi duten dantzak. Giro berezia, Jentilen Etorrerari oso ondo dator-kiona sortzen dute sorginek euren dantza, irrintzi eta oihuekin.

Bitarteko gutxiz, lan-handia egiten dute dantza-ikuskizuna prestatzen eta eskertzekoa da bihotzez.

Hori esan eta gero, aipa ditzagun Jentilen Etorrerako sorginak.





## JUSTINA ZEBERIO, LEHEN SORGINA

*“Listoia goien utzi zian”.*

Hori esaten zidan orain asko ez dela adiskide batek Justina Zeberioek egin zuenagatik.

Benetan ikusgarria izan zen Justinak, bere jantzimentu eta keinuz Jentilen Etorrerari eman zion bultzada. Mikelats, Alkate eta Apaizaren ondoan, kolore eta izaera berezia eman zion Jentilen Etorrerari eta ahalegin berezia egin zuen jantzimentuan eta keinukeran sorginen izaera agertzen.

Justina, Aiako Olatzatziki baserrian jaioa, Parisen ia bizitza guztia egona eta gero berriro Ataunen, Arrondoko Aranburuenea etxean bizi izana.



Nortasun handiko emakumea da. Jentilen Etorrera egiten hasi ginenean, beragana jo genuen erreparo pixka batez baina berak ez zuen pauso bakar bat atzera egin, aurrera baizik. Ordurako, adineko emakumea zen. Parisen egona zen urte luzez eta erretiroa hartu ondoren, jaioterrira etorri zen. Liburuan bertan aipatu dugunez, Okaiztiko Joxe Bikuña eta Larratzeko Ramona Auzmendi saiatu ziren modu berezian Justinak Jentilen Etorreran parte har zezan.

Kanpoan, non eta Parisen, ibilia izateak, atrebentzia puntu bat ematen zion Justinari eta horri esker, benetan ikusgarri eta txalogarri egiten zuen sorgin-papera. Une eder askoak eta ahaztuko ez ditugun estanpak utzi zizkigun Justinak..

## PILI ESKISABEL (SORGINA)

Justinak utzi ondorengo urteetan Espillako Pili Eskisabel arduratu zen sorgin-taldea osatzeaz.

Berrikuntza bat ekarri zuten. Dantza eta “akelarre” giroa sartu zuten Jentilen Etorreran. Ordurarte, Justina Zeberioek bakarrik betetzen zuen sorgin eginkizuna eta urteotan berriz, sorgin taldea dantza eta erritual-zeremoniak egiten hasi zen.

Orduko irudiak dira, Ane Aseginolaza sorgin-buruzagi itxuran eta Beatriz Aierbe zuriz jantzita “akerra” ondoan zuela.

Pertzak eta katiluak salda eta edabe “bereziz” bete eta hura edanez aritzen ziren suaren inguruan dantzan, Mikel Laboaren “Baga, biga, higa,...” kantatuz.

Tartean, esaldiak: “Laino guztien azpitik, sasi guztien gainetik...”

Pili Eskisabelek ahalegin berezia egin zuen, batean eta bestean ikusi eta entzundakoa jaso, Joxemiel Barandiaranekin egon, eta sorginen itxura ahalik eta egokien ematen saiatu zen.

Piliren inguruan aritu zen sorgin-taldean, neska asko elkartu zen, besteak beste, Maitane Aizpurua, Ainhara Munduate, Eneider Sukia, Ane Auzmendi, Amaia Etxeberría eta hauen eskutik iritsi zen sorgin-taldearen hurrengo garaia.



**BEATRIZ AIERBE (SORGIN ZURIA)**

Beatriz Aierbe. Astigarraga auzoko Andresenea baserrian jaioa. Jaiotetxean bertan izan da.

Beatrizek ere, lan bikaina egin zuen urte batzuz Jentilen Etorreran.

Ikuspegi berezia eman zion sorgin-giroari. Sorgin guztiak beltz eta kolore ilunez jantzita agertzen ziren bitartean, Beatrizek kolore zuri-zuria erabili zuen, sorgin-talde barruko kontraesanak agertzeko eta sorginei buruzko beste ikuspegi bat erakusteko.

Beatrizek, Pili Eskisabelekin batera, Justina Zeberioek utzi zuen hutsunea bete zuen. Ondo burutu zuen.

Bere ezaugarri nagusia, kolore zuria izan zen.

Zer jantzi erabiltzen zuen Beatrizek?

Hauxe zen bere jantzimentua: *“Alkondara txurie, gizonezkona, luze-luzea janzten nuen belaunez beeraño. Gero abarkak. Buruan berriz, paiñelue”*.

Aurpegiak ere garrantzi berezia zuen. Esate baterako, ahalik eta itsusien agertzen saiatzen ziren sorginak. *“Hortzak eta beltzez pinta-tzen giñuzten, itsusi itxurea emateko”*.

Beste ezaugarri bat ere ba zuen Beatrizen sorgin-lanak. Akerraren ordezkoa egiten zuen ahuntza izaten zuen beti bere ondoan. *“Abuntza Troskaetakoei edo eskatuta lortzen genuen. Asko apaintzen zuen ikuskizune...”*

Beatrizek lan handia egin zuen. Bere oroitzapenetan ageri dira futbol-zelaian eta Kalostraundian egin zituzten Jentilen Etorrerak. *“Gogon det bein futbol-zelaien ein gendula. Erdi-baztertuta bezela aritu giñen. Ordun auntze ibiltzen gendun. Ipurdiñ musu eman, gonak altxau eta olako gauzak. Triste xamarra atera zan urte artakoa. Beste bein berriz, Kalustraundiñ ein gendun. Gogon det Ane Aseginolaza aritu zala sorgin-buru bezela”*.

## MARIMUNDUKO (Maitane Aizpurua)

Maitane Aizpurua Urrestarazu. Elbarrenako Iztator etxean jaio zen eta handik oso gertu, Agauntza errekaaren gaineko zubia igaro eta Ubarri etxean bizi da.

Oso neskato zela, 9 urterekin, hasi zen Jentilen Etorreran parte hartzen eta 12rekin jantzi zen lehenengoz sorgin. Orduz geroztik urte asko pasa da eta sorginen buru bihurtu zaigu.

Maitanek dio, bera umea zela, Justina Zeberio iruditzen zitzaiola benetako sorgina. Orain berriz bera dago Justinaren lekuan eta berak sortzen du lilura harrigarrikoa aho-zabalik begira dauden haurrengan.



Maitaneren lanak indar handia eman dio Jentilen Etorrerako sorgin taldeari. 1992az geroztik bera arduratu da taldea osatzeaz eta baita azken urteotan sorginek egin dituzten dantza bereziak prestatzeaz ere. Gainera sorgin-eskola moduko bat osatu da eta Maitanek leku seinalatu hartu du Jentilen Etorrerako antzezpenean. Pertsonaia desberdin asko antzeztu behar izan ditu urteotan. Kantatu, dantzatu eta antzeztu aritu izan da. Gehienetan pertsonaia haserreko eta mihi zorrotzekoak egin behar izan ditu baina tarteka izan dira, gozo eta leunak ere eta errejistro guztietan aritu da primeran.

Urte askotarako !



**-Maitane, zein da Jentilen Etorreraz duzun lehen oroitzapena?**

Neetzat majikoa izaten zan Jentillen Etorrerea. Gue etxe ondoa jexten zien eta teillatu moduko batea iota eoten giñen leengusu-taldea Arrateta aldetio noiz azalduko. Majikoa izaten zan. Gaueko ordu aitan, gauerdin izaten zan, oia junbe, etxen ue ikusten uztea,... Gañea, osaba (Joxe Urrestarazu) eta aitte (Joxemari Aizpurua) sue piztea jutentzien Jentillbatza ta antxe eoten giñen. Geo irrintzik eta oiuk aitzen giñuzten, bazetozela, bazetozela, eta emozio aundie sentitzenon.

**-Orduko pertsonaiak gogoan al dituzu?**

Nik gogon det Justina Zeberio sorgin bezela ata zala. Bee ille zuri luzekin. Ue inpaktoa izan zan neetzako. Eztakit nola esan! Ue zan benetako sorgiñe neetzako.

**-Maitane, zu noiztik ari zara Jentilen Etorreran parte hartzen?**

Nik 9 urtekin artu non parte lenengoz jentillkume bezela. Eskolan gela bakoitzetio bi eo iru ume artzen zittuen sortez eta nei tokau zitzaten. Ustet Begoña Alberdi monjea arduratzen zala ortaz. Nik enon nai, lotsa aundie pasau non. Gaizki.



### **-Eta sorgin bezala, noiz hasi zinen?**

12 urtekiñ. Ustet Espillako Pili Eskisabelen bidez asi nintzela. Pili aitzen zan urdun sorgiñek billau ta taldea osatzen. Ustet Pilik ainduta eo, Doroteoneko Edurne Barandiaran etorri zitzaizula esatea. Eskolan galdetu zon ea zeñek nai gendun eta alaxe asi giñen.

### **-Bakarrik al zinen gelatik?**

Ez. Nekiñ batea zien Naiara Munduate eta Eneider Sukia eta oaindiore ortxe seitzen deu iruok.

### **-Gogoan al duzu nor gehiago zen sorgin taldean?**

Nik ustet Ixiar Eskixabel, Andreseneko Beatriz Aierbe, beti zuriz jantzita akerra artuta jutentzan Beatriz, Ana Eskisabel, Agurtzane Bikuña, Artzuloko Edurne Goikoetxea eta beste batzuk iruipena dauket antziela.

### **-Etxean ba al zenuen Jentil eta sorgin kontuen aditzerarik?**

Osabak, (Joxe Urrestarazu) kontatzen zizkiun olako gauzak, amonan (Silveria Munduate) sukalden. Sei leengusu giñen, beti sukalden sartuta eoten giñen eta denbora pasa, kontu kontari asten zitzaian osaba.

**-Zer istori kontatzen zizkizuen?**

Agerrekoa beintzet bat. Geo geiore bazien baño gauza sueltok dittut gogon: Etsaien istorik, pentsamendue baiño azkarragoa zan Zaldiaten kontuk, Tartalo Begi-Bakarranak, morroianak eta olakok... Geo Joxe Arratibelen liburutan ikusi izan dittut kontu oritako batzuk... Gue osabak kontatzen zizkiunak beak bee aittei (Bixente Urrestarazu) aittutakok zien.

**-Erraza egiten al zaizu jendaurrean agertu eta antzerkia egitea?**

Asieran lotsa earra pasa gendun. Urtek pasa aala oittu ein naiz baño asieran, oso estu bizi izatenon... Gogon det beiñ futbol-zelaiien eintzala eta jende asko zeon beida. Guk sorgiñek, bi gauza ein bear giñuzten: akerrai eo auntzei ipurdin musu eman (bruñ, bruñ, bakoitzak bere aldean akerrari muñ) eta dantza eittekon gonak altxau. Ainbeste jende zeon beida, ez gendula buruik altxaure ein. Pili (Pili Eskisabel) zan buru eta botere majikok zittula iruitzen zitzaian...

**-Pili Eskisabelek eman zizun zuri txanda ezta?**

Bai, ala izan zan. Ustet 1990 ingurue izango zala... Gañea gauza batzuk eman zizkin... Txintxarri txiki bat, luma bat, ustet oillona dala, soka batekin lotuta... Nik beti ibilli izan dittut eo lepotio zintzilik eo eskumuturren lotuta. Geo, Bedamako Bidatz Badiolari utzi nizkion, eszenario gañen leendabiziko aldiz aittu bear izantzonen... Geroztio ikusi izan dizkiot dantzak ein izan dittunen... Bidatz eta, oso gazte asi zien eta oaiñ a ze neskak ein dien... Oso ondo eitten due lana...

**-Pertsonaia asko antzeztu behar izan dituzu. Ba al duzu bereziki gogoan duzun pertsonaiaren bat?**

Gaizto papera ein deanen disfratau izan det. Bidatz (Bidatz Badiola Beamakoa) uso biurtu nunekoa gogon dauket. Batzutan biurrie, bestatzutan iñozo izan naiz baño benetan gaizto papera ein deanen, pasau izan det obena.

Bestat aukeratzekotan, sorgiñ gaizton pertsonajea eiñ nunekoa aukerauko nuke. Bukaeran erre eiñ niñuen. Uere politte izan zan. Asko gustau zitzen.

Baño esangoizut gauzat: entsaiotan esate bateako geio disfratau det baserritar papera ein izan deanen. Ferminekin (Fermin Aramendi),



Mundukiñ (Jexux Munduate) eta orikiñ oso ondo pasau izan det. Artistak die.

**-Maitane, zertan hobetuko zenuke Jentilen Etorre-ra?**

Enuke asko aldauko. Nik sorgiñ talden sorgiñ zaar bat artuko nuke gustoa. Mutill batzuke artuko giñuzteke sorgiñ-talden barrun. Ea norbait inguratzen dan.

Emendio aurrea beiz, al deun ondona eitten saiauko gea eta ea eusten diun gauza politt oni. Nik beintzet oso ondo pasau izan det beti eta urten zear bestela elkarrekiñ gutxitan eoten geanak elkarzeko balio izateo.



## **S**ORGINEI BURUZ KONTU BATZUK

### MARI

Sorginei buruz zera esan behar da lehendabizi: normalean Mari edo Ataungo kasuan Marimundukoren esanetara ageri diren jeinuak direla.

Batzuetan kobazuloetan bizi dira eta pizti itxura hartzen dute. Inoiz gainera gorputzeko atalen bat falta dute eta katu itxura ere har dezakete.

Marimundukori buruz Ataunen uste zabaldua izan da urte askotan, suzko igitai baten itxura hartzen zuela, batetik bestera aidean zihoanean.

Ataunen hiru koba omen ditu Marik, denbora batez egoteko. Lehe-na, Gutzeberri esaten zaiona, Artzate pasalekuko haitz gainean dagoena, bigarrena Sugaarzulo, Arrateta gainean Jentilbaratzako mailoan dagoena eta hirugarrena, Agamunda, Ergoiena gainean Mendiurkullu baserritik bertan.

Bere senarra Maju izango luke eta semeak, Atarrabi eta Mikelats dira. Bata ona eta bigarrena gaiztoa.

Badira gainera Mariren aurrean bete-beharreko arauak: Hika hitz egin behar zaio, bere kobara sartu bezala irten behar da, hau da aurrez sartu dena atzeraka aterako da eta koba barruan, Mari aurrean denean behintzat ez da eseri behar.

### Sorginak

Sorginei buruz berriz, uste zabaldua da baita ere, gauez agertzen direla eta ia beti Akelarretan elkartzen direla. Akerra omen dute gainera buru edo errege. Ataunen uste izanda aker beltzak, gainerako abereak babesten dituela eta ohitura izan da baserri askotan ikuiluan aker beltza izatekoa.

Sorginak gauerditik oilarrak jo arte ibili ohi dira. Oilarra isiltzeko modua bada ordea: gatza sutara botatzea.

Esan ohi dute eliza baten edo arbola baten inguruan hiru itzuli emanez gero, sorgin bihurtu litekeela. Hori bai, eskuan erramu-adarra izan ezkerro, orduan bai eman litezke nahi adina itzul-inguru. Sorgin izan liteke baita ere, Etsairi musu emateagatik edota “Gurutze Santuaren” seinalea, oin batekin egiteagatik.

Jaiotzetiko seinalerik ez dutela uste izan da, Orinik ez dutela.

Sineskerien arabera, eskuko hatz lodiz esku bereko eskumuturra ukitzen duena sorgin da.

Sorginei aurre egiteko moduak ere aipatu dira. Esate baterako, Jesus hitza esatea, oilarrak jotzea, sutara gatza botatzea, egurrezko gurutzea erakustea. Hori bai, sorginaren errainua jo behar da baina ez sorgina bera zuzenean.

Beste esames bat ere bada: jarraian zazpi alaba izanez gero, zazpi-garrena sorgina izango da.

### Ataunen sorginleku eta kontuak

Kontu zahar bat baino gehiago dira Ataunen sorginei buruz. Hauek nagusiak:

- Sorgin batzuk inurri edo txingurri itxura hartzen zuten eta Urkuola baserriko emakume batek asto itxura hartu zuen.
- Bernoako Dantzaleku izenekoan sorginak elkartzen ziren gauerditik aurrera.
- Ergoienako Mandabittako zubipean elkartzen ziren sorginak.
- Aitzarteko Ertzilegi inguruko Katalinzubi. Ba da esaera bat:  
 “Kattalin, Kattalin,  
 Kattalin, bai (edo ai) Kattalin!  
 Kattalin Gauekook (edo Deabruk) eraman diñ!”
- Gutzeberri, Sugaarzulo eta Agamunda kobak.
- Mari mitoari lotuta ageri dira baita ere, Ustatso, Iturriotz, Aspildi eta Ubei, koba eta leizeak.

- Sastei baserriaren paretsuan, Agauntza errekan dagoen Lamiñosin izeneko lekua. Lamiei orrazia kendu zienekoa da, horko historia. Lapurrari hala deitzen omen zioten lamiek:

“Andra Geazi, ekatzu nere orrazi!  
Bestela galdukoittut,  
zure ondoko azkazi”.

Ataunen bertan badira sorginei loturik gorde izan diren esaundak ta kontu zaharrak. Sorgiñen izena gehienetan Maripetraliñ da. Horren lekuko, Jentilen Etorreran urtero jasotzen dugun esaldia:

“Ez geala baño bagaittun, Maripetraliñ ez beste guztik emen gaittun”. Beste bat ere bada: “Ez geala, ba geala, amalau mila emen geala”.

Kontuan izan behar da sorginei eta beste sineskeria batzuei buruz Ataunen esan izan dena: “Izena don guztie omen da”.

Eta noski, lehen ere aipatu duguna: “Direnik ez da sinistu behar; ez direnik ez da esan behar”.

Gainera, leku batetik bestera doazenean hegan egiten dute. Horretarako esaldi hau esan ohi dute: “Sasi guztiñ gañetio eta odei guztiñ azpitio”.

Jakina denez, XVI. eta XVII. mendeetan sorginen aurkako eraso handiak izan ziren. Asko atxilotu eta erre zituzten. Dakigula Ataun aldean ez zen horrelako kasurik izan.

Eta azken datu bat: zein da sorgin eta zein lami edo lamin? Bien arteko bereizketa era honetara egin izan da: sorginak bataiatuak edo bestela bataioa gaizki eginak omen dira eta lamiak berriz, nonbait, bataiatu gabeak.

## **E** TSAI

Etsai ere, ia etxeko dugu Jentilen Etorreran. Berez, gaiztoenetan gaiztoena izan behar luke baina apur bat “zintzotuta” agertu izan dugu. Bera ez dago ez Jentilekin eta ez kristauekin. Inorekin konpontzekotan, sorginekin konpondu izan da baina erabateko hartu-emanik lortu gabe. Ezin esango dugu sorginen lagun izan denik baina adiskide edo nahi bada, “aixkire” izatera heldu da urteren batean.

Etsai ez da urtero urtero agertu den pertsonaia izan baina agertu denetan ederki aztoratu ditu bazterrak.

Pasarterik aipagarriena, zalantzarik gabe, bere eskolara doazen ikasleen pasadizoa antzeztu genueneko da.

### **Etsairen ezaugarriak**

Euskal Mitologian ezaugarri eta itxura desberdin ugari izan du Etsaik. Egia esan, inoiz ez da ageri, dotore eta lerdan.

Gure Jentilen Etorreran ez dugu itxurarik beldurgarrienean jarri. Ez diogu asto edo arratoi buztanik jarri eta letagin zorrotzik ere ez.

Ardi-narru gorriztak eta larru-kolore belztuak eman dio Etsai- itxura gure deabruari.

Eraman zitzakeen saguzar hegoak edo belarri handi eta luzeak baina ez daramatza.

Izan zitekeen dragoi baina gizaki arrunt izan da gurean.

Inoiz sardea jarri diogu eskuetan eta beldurtu egin gaitu.

## **F**ERMIN-ARAMENDI. (Etsai)

Fermin Aramendi Arana. Elbarrenako Txominone etxekoa. Bertan jaio eta bertan bizi da.

Berak egin du beti, Etsairen papera. Bere lanbidea dela eta, Euskal Telebistako aurkezle-esataria denez, eskarmentu handia du Ferminek jendaurrean eta hori antzematen da. Gainera, badu etxetik antzerkiko joera eta zaletasuna. Bere aita zena, Martin Aramendi, herriko antzerki-taldean aritu zen Frantzisko Erkurdia San Martingo parrokoaren esanetara. Eta antzerkiren bat idatzi ere egin zuen. Zoritxarrez ordea, Martinek idatzi zuen testua galdua da betirako, beste norbaiti utzi eta orduz geroztik bere arrastorik ez baitugu. Ederra litzateke agertuko baliz!

Beraz, odolean badu berezko antzerki-jolas hori Ferminek. Horrez gain, Ataunen 1984 an eta 1987 an hurrenez hurren jokatu ziren Habla cristiano eta Pagoa Markes antzerkietan parte hartu zuen.

Honenbestez esan liteke, hogeitahamaika eskutik duela aritu izan dela Fermin, Jentilen Etorreran.

### **-Jentilen Etorrera hasi zen garaiko zer oroitzapen dauzek?**

Nik daukean oroitzapena dek, txistukiñ atutzen nintzela. Txistue jotzen. Talde andi xamarra gañea: gogon zetuak, Ermentariko Jon Goikoetxea, Lazkauteiko Aitor eta Amaia Auzmendi, Irubideko Garbiñe eta Nekane Eskisabel, Altzanipeko Idoia Rezola, Zaindiko Josune Barandiaran, Artzuloko Karlox Goikoetxea zena, Altzanipeko Joseba Goikoetxea eta Errotaberriko Iñaki Eskisabel. Bakarren bat aaztuko nian akaso...

### **-Zer jotzen zenduen?**

Biribilketak. Kalejiran juten ginuztean, desfilen aurretik jarrita. Gero Plazan bukaeran beste joaldiat.



### **Jentil-kontuen aditzerarik ba al huen?**

Apenas. Etxen iñoiz eo bein aikatzen zien, jentillek baziela, aundi demoniok ziela, au ta beste, baño sakontasun aundipe. Geo, zuei bai, Jon Aizpuruai eta beste batzui aittuta, zeozer geio.

### **Urte guztiotan hartu al dek parte?**

Nik gogoan deala, bein bakarrik utsein diat. 1995en, kanpon nintzelako, Mejikon. Gañeatiko guztittan tarten izan naizela usteiat, asieran txistukiñ eta geo beiz antzerkin zerbait eiñez.

### **Erreza egiten al zaik parte hartzea?**

Etzaiak zaille eitten. Zaille ez ta errezare ez. Ze esangoiat? Batzutan konpromisoa izatek, gogoia baño geio konpromisoa. Gero lagunartearre ortzeok eta orreke bultzatzeau.

### **Hasieran egin ziren bilerak gogon al dauzkek?**

Batez. Arrastoiike ez. Bazekiat garai artan billerak eunero izaten ziela. Oargi elkarten beintzet eunero: kirol komisiao dela, ekonomi komisiao, kulturakoa,...



**Zer pertsonaia egin, herorrek aukeratu izan al duk?**

Sekula ez.

**Urte guztiotan pertsonaia asko egin behar izan dituk. Gogon al dauzkek?**

Danak ez. Daukean iruipena dek, beti gaizto papera eittea tokau zaiala. Pertsonaje beltz xamarrek beti.

**Eta pertsonaje guzti horietatik, zein izan duk gustokoena?**

Gogon daukeana Patxi Ermentariña dek... Errenka ibilli nintzenekoa. Botika aurreko plazan ein genduan. Geiore baittuk. Ameskabiko Martiñekin eiñona, biok kantun. Otsoko nittuan urdun. Agerreko seme-paperene aittuta neok baita. Jentillek ekarri zuen sobrekamea oiari josten aittu netuan.

**Jantzimentua herorrek osatzen al duk?**

Baita zeare! Zuek emandakoa jazteiat. Geienetan narru zarra izatek eta etzeok apainduritako aukera aundik. Ue gañetio jarri ta aurea. Saioa bukatzen danen, beize udaletxeko ganbaran gorde eta kitto.



### **Zerk ematen dik buruhausterik handiena?**

Zaillena zea iruitzen zaiak: eszenarion mobimentuk ondo eittea, egoki ibiltzea batea eta bestea. Or kontuatzan neok, enaula preparautta. Paperen dauna gutxigorabera esatea, oi eitten diau baiño geo kontue dek, eszenarion eskuk sobra, dana sobra, eskukiñ zer eiñ eztakiala...Oi dek neetzako zailena.

### **Bereziki momentu zailik izan al duk?**

Urteaten ridikulo earra ein nian. Kantun asi eta letrea aztu. Mikelats ta biok giñuztean kantun. Koplak kantau bear genizkian ta bigarren estrofea aztu zitzaian seko eta itzek burua ezin ekarri. Ez ankaik ta ez buruik etzuen itzek esan netuan, itxurea eitteko. Erne zeoana kontuauko on.

### **Gidoia hobetzeko proposamenik egiten al duk?**

Bai. Testue obetzeko ez baiño Ataungo euskerea egokigo ibiltzeko bai. Erdi serio erdi-zirika beti aikatzeiat zerbaitt. Istori guzti ontan netzat garrantzi aundiña, Ataungo euskerea ondo ibiltzek zeukek.

### **Herrian, Jentilen Etorrera egin eta gero, inork identifikatzen al hau Jentilen Etorreran egin duan pertsonaiarekin?**

Bateze umek. Ein berritan izatek oi. Gogon diat, Patxi Ermentarin papera einonen, eskolumek gogoan izantzuela denboatan...Nik usteiat politte izantzala Patxi Ermentariñ istori ue.

### **Herritik kanpoko jendeak komentatu al dik inoiz Jentilen Etorrerari buruz?**

Bai, beiñ baño geiotan. Nik usteiat kanpokoei harrigarrie, ikusgarrie eitten zaiela, bertakooi baño geio. Jenden komentariok tipo ontakok izateittuk: izan giñuztean, oso politte, merittue daukezue, a ze lanak eiñ dittuzuen, etzeate amutsek...

### **Etxean, parterik ez hartzeko esan al die noiz?**

Ez, ez. Alderantziz. Neonek igoal esan aurtengoa izangoala azkenea-koa ta belaxe esate ziatek: ola aittukoaiz i... Juxtu kontrakoa, alegie, seitzeko.

Aurten gañea zea nai nikek, kostalik kosta: gue illoba tarten izatea. Gue etxeko irugarren belaunaldie or ikustea gauza earra izangoke: aitte ibillion, nire bai ta oaiñ illoba. Aurten eaman bear diat, Patxi Ermentariñ zakun sartuta eaman bear baete.

### **Zertan hobetuko huke Jentilen Etorrera?**

Nik usteiat, obetu bearreko gauza asko dauzkeula. Baño usteiat, onek aurrea eiñ bear bao, bospasei laun jarri beharra daula ardurakiñ. Zuzendari nausie jarri bear dik eta geo beak koordinau gañeatiko guztik.

Ta desfileare obetuko nitek... Kale-giroa geio zaindu eta ibilbidea beare beste era batea eiñ... Eztek erreza baño oaiñ, tarte batzutan, Iztatortio Frontoia bitarteko tartea esate bateako, tristea geatzek...

### **Zer ez hukek sekula aldatuko?**

Etzekiat. Iruitzen zaiak berez kalen, plazan eiñ bearreko zerbait dala. Ni ez nituan frontoira juten aldekoa baño egoaldiere ortzeok ta era batea eo bestea konpondu bearra zeoan.



Bestetik usteiat, antzerkiri eutsi bear zaiola gauza guztiñ gañetio. Eztiat uste, desfilea bakarrik eiñez, oain dauken indarrrik izango lukenik.

Eta badek beste gauzat sekula aldauko enukeena: pertsonaje nau-sik. Usteiat eliekela sekula aldau bear, aintzarek pertsonajen barrun: Torto, Samartin Txiki, Apaizea, Mikelats, Alkatea, Marimunduko... Pertsonaje nausi guztik primeran tzarek.

## ALGUAZILAK ETA MIKELETAK

Asko izan dira urteen joanean Jentilen Etorreran mikelete edo alguazil lanetan agertu izan direnak. Lehendabiziko urteetan, pertsonaia garrantzitsu bihurtu ziren Guillermo Galparsoro eta Pellomari Munduate.

Hogeitaboste urteko bidean aldaketak izan dira. Herritar askok hartu du parte eginkizun honetan eta azken urteotan, modu berezian Juanjo Arratibel izan da hutsik egin gabe Mikelete itxura betean aritu izan zaiguna.

Ondoko zerrenda honetan ageri dira jentilen Etorreran inoiz Alguazil-Mikelete pertsonaia aritu direnak-

Eskerrik asko bihotzez!

- Guillermo Galparsoro.
- Pellomari Munduate.
- Anjel Elias.
- Juanjo Arratibel.
- Joxemari Goikoetxea.
- Kepa Arizmendi.
- Joxe Bixente Goena.
- Bittor Martin.
- Jon Etxeberria.
- Guillermo Galparsoro semea.
- Mikel Noguera.
- ...





## A KOLITOAK

Apaiza eta sakristauaren ondoan, akolitoak ere agertu izan dira azken urteotako Jentilen Etorreretan.

Inoiz gainera, lanean jarri izan ditugu antzerkian aktore lana egin dezaten eta ondo moldatu dira.

Besteak beste, neska-mutiko hauek aritu izan dira akolito edo monagillo lanetan.

- Aitor Arruabarrena.
- Xabi Etxeberria.
- Iban Sukia.
- Eloy Tato.
- Jon Knight.
- Iraitz Goikoetxea.
- Monika Arratibel.
- Iñigo Dorronsoro.
- Xabi Erauskin.
- Ioritz Arrondo.
- Enara Almeida.
- Jon Arratibel.
- Unai Munduate.
- Mikel Etxeberria.
- ...





## **H**ERRIKO BANDERA ERAMALEAK

Jentilen Etorreran, leku seinalatua izan du Ataungo bandera ofizialak. Urtero, Alkatea eta herritarrak jentilei ongi-etorria egitera doazenean, denen aurretik doa beti Ataungo bandera gorria.

Bandera hori Udaletxean egon ohi da urtean zehar eta egun seinalatuetan balkoian jarri ohi du Udalak.

Bandera eraman duten herritarrak asko dira baita ere. Eta denek aitortu izan dute, “zerbait berezia eta ohore handia” dela herriko ikurra eramatea.

Zerrenda honetan jaso ditugu bandera-eramale izan direnak.

- Joxemari “Ttari” Bikuña.
- Joxemari Arrondo.
- Jon Urteaga.
- Jokin Goikoetxea.
- Maider Arruabarrena.
- Monika Arratibel.
- Ane Dorronsoro.
- Oneka Auzmendi.
- Mikel Dorronsoro.
- Iñaki Dorronsoro.
- ...
- Bejondeizuela.





## **A**NTZEZLE SEINALATUAK

### JEXUX MUNDUATE MUJIKA

Elbarrenako Urbitarte edo Tabla etxean jaioa. Ordizian bizi da.

Hasierako sorrera-erne-muinean Jon Aizpuruaren inguruan izan zen eta geroztik urte askotan hartu du parte Jentilen Etorreran.

Pertsonaia desberdin asko egin behar izan du. Beti ondo eta maila handia erakutsiz. Partaide izan zen Pagoa Markes eta Habla cristiano antzerkietan.

Aktore-lanaz gain, Eate Abesbatzan ere aritu da kantari, Jentilen Etorreran.





## **T**XEMA RODRIGUEZ ARRATIBEL

Elbarrenako Donjuanehandian jaio zen eta Ordizian bizi da gaur egun.

Eginkizun desberdin askotan hartu behar izan du parte. Pertsonaiaren barne-muineraino sartuta aritu izan da, zoragarri eta zirrara sortzeko moduan.

Aktore lanetan aritu zen Pagoa Markes eta Habla cristiano antzerkietan. Gogoan dute oraindik ere herritar askok, Txemak Lazkaoko Markesaren paperean egin zuen lan harrigarria.





## **N**IKOLAS GOIKOETXEA

Arrondoko Ermentari baserrian jaioa. Elbarrenako Altzanipen bizi da.

Nikolasek pertsonaia desberdinak egin behar izan ditu urte guztio-tan. Antzerkirako ahots garbi eta onekoa, primeran aritu da. Modu berezian azpimarratu behar da, Agerre baserriko nagusi Juanen pape-rean eginiko lana.

2004an, Joxe Barandiaranek utzi zuen hutsunea betetz, sakristau pertsonaia antzestu zuen Nikolasek.

Nikolas Goikoetxea Eate Abesbatzako partaide da eta kantari aritu izan da Jentilen Etorreran.





## **A**NDRES ARRONDO KARMELE BEGIRISTAIN

### Senar-emazteak

Karmele Begiristain. Astigarragako Dornarienea etxean jaio eta Elbarrenako Ubarrietan bizi da. Hasiera-hasieratik izan da Jentilen Etorrerako partaide eta laguntzaile. Eginkizun desberdin ugari izan du eta era guztietako itxuraz agertu izan da ikuskizunean eta antzerkian.

Andres Arrondo. Amundarain edo Suki-zeharreko Etxeberri Haundi baserrian jaioa, Elbarrenako Ubarrietan etxean bizi da. Urte askotan aritu da Jentilen Etorreran, batzutan desfilean eta beste batzutan aktore lanetan.

Biak ala biak, oso ondo aritu dira.





## JOXE RAMON AGIRRE “MARRON”

Aia auzoko Arbilleta baserrian jaioa, San Gregorio auzoko Sangregoriotxiki etxean bizi da.

Mendizale modura, Ataun izena munduan zehar zabaldu duen ataundarra da “*Marron*”. Tartean ordea, izan du denborarik eta borondaterik Jentilen Etorreran parte hartzeko.

Jentil modura aritu izan da baina batez ere, askok gogoan izango dute, “*Mateo Txistu*”ren paperean ere. Benetako apaiz-ehiztariaren itxura lortu zuen Marronek.

Mendiak denbora utzi dion guztietan, beti parte hartzeko prest agertu izan da.





## MUSIKA ETA KANTUAK JENTILEN ETORRERAN

Musikak eta kantuek, leku garrantzitsua izan dute Jentilen Etorreran.

Hasiera-hasieran, txalaparta, adarra, txistulariak, atabalariak, soinu-joleak, Elizako kanpaiak eta txaranga izan genituen lagun.



Urte guztiotan, beti saiatu gara, herrian bertako musikariak Jentilen Etorrerako partaide egiten. Ia urtero, Ataungo txistulariak, dantzariak, soinu-joleak eta txalapartariak izan ditugu. Izan dira hala ere, tartean, besterik ezean herriz kanpoko jendeagana jo behar izan dugun urteak ere. Horrela, batzuetan, gurekin izan dira kanpoko dantzari eta txistulariak.

Gehienetan ordea, ataundarrak izan ditugu.

Hasierako urteetan, Fermin Aramendiren esanetara aritzen zen txistulari-taldeak hartu zuen parte eta soinu-joleei dagokienez, Piedad Barandiaranek zuzentzen zuen taldeak apaindu zuen Jentilen Etorrerako ibilialdi edo desfilea. Geroztik, tartean urte batzutan krisialdia izan zuen herriko txistularien presentziak baina azken urteotan berriro, hasierako talde hartako partaide batzuk, gurekin izaten dira urtero.

Dantzarien artean, asko izan dira urte guztiotan parte hartu dutenak. Modu berezian aipatu behar da, urte batzuz, Nike Knighth herritar-tuak dantzari modura izan zuen parte hartzea.

Urte batzuetan, kanpotik ekarri behar izan genuen dantzaria baina gehienetan herriko dantzariak aritu zaizkigu.

Soinu-joleei dagokienez, aipatu dugu, hasierako urteetan Piedad Barandiaran inguruan aritzen zen taldeak hartu zuela parte.

Azken urteotan, Aitziber Urdangarin, Ainhoa Urdangarin eta Pello Urdangarin aritu izan dira.



## **T**XALAPARTA

Txalaparta presente egon da beti Jentilen Etorreran. Lehendabiziko urteetan, mendian jo eta kalean entzuten genuen txalaparta-soinua. Eginkizun horretan aritu ziren Mitxel Auzmendi eta beste batzuk.

Gero berriz, eta urte gehienetan, Jentilen Etorreran leku seinalatua hartu duen bikotea aritu zaigu: Dornaiñe etxekoak biak: Manu Goikoetxea eta Niko Begiristain. Urte askoz aritu dira eta bihotzez esker mila lerro hauetatik.

Azkenaldian berriz, Musika-eskolan ikasle diren Mikel Eguren, Maixa Goikoetxea, Saioa Arza eta beste batzuk hartu diete txanda.





## EATE ABESBATZA

Ataungo Eate Abesbatzak derrigorrezko presentzia izan du azken urteotan.

1995ean hartu zuen parte aurrenekoz. Loa, loa, kantua eta Jentilen Etorrerako ereserki bihurtu den “Aio, aio,…” abestu zituzten.

Garai hartan indartsu zen Eate Abesbatza. Ia 25 kide izatera iritsi zen eta 7 urtez gure bide-lagun izan da.

Urtero, gidoiaren arabera prestatu beharreko kantuak abestu ditu, beti Maximo Aierbe Zuzendariak egoki moldatu eta prestatuta.

Eate Abesbatzak bere motelaldia bizi izan zuen 2004 an eta urte horretan kantuak presente izan genituen, Abesbatzako hiru kideren eskutik.

2005 ean berriro, Eate abesbatzaren presentzia berreskuratu da Jentilen Etorreran.





## **M**AXIMO AIERBE-EATE abesbatzaren zuzendaria

Maximo Aierbe. Lauztierrekako Lauztiturrieta base-  
rrian jaioa. Elbarrenako Izta-  
torberri etxean bizi da.

Bera izan da Eate Abesba-  
tzaren arima eta sustatzaile  
nagusia. Bere eskutik aritu da  
Abesbatza urte guztiotan Jen-  
tilen Etorreran.

Maximok badu eskarmen-  
turik musika munduan. 13  
urterekin hasi zen solfeo ikas-  
ketak egiten, orduan San Gre-  
gorioko parroko zen Manuel  
Etxeberría zaldibitarrekin.  
Etxean, bere anaia Inaxito  
zenari ekarritako gitarra bat  
ere bazuten eta gitarrarako  
metodo bat erabiliz ikasi zuen  
“modu autodidaktan”.



Gero arreba Karmele eta biak, kantari ere ibili ziren batean eta bes-  
tean.

Donostiako Musika-Kontserbatorioan gitarra klasikoa ikasten aritu  
zen, Inazio Ubiria irakasle eta txelo-jole ezagunarekin.

Espetxe garaian berriz, Xabier Saldias kantariak bidali zizkion har-  
moniako liburuak erabili zituen ikasten segitzeko. Gitarra bakarrik  
zuen eskura, teklaturik sartzen uzten ez zutelako. Teklatuaren faltan,  
kantuzaleak ziren preso batzuen laguntza izan zuen harmonia mun-  
duan sakontzeko.

Eate Abesbatzaren zuzendaritza eramateaz gain, beste eginkizun  
batzuk ere izan ditu.

Jentilen Etorrerako kontalari izan da 1998tik gaur arte. Bera ardura-tzen da ikuskizuna osatzen duten historien artean, lotura egiten. Ahots sakonez eta hizkera pausatuz, modu harrigarrian murgiltzen gaitu, urtero, garai bateko munduan. Ikuslea adi-adi jarri ohi du. Badaki nola sortu jakin-mina, nola adierazi beldurra, nola josi kontakizuna, haria neurrian erabiliz.

**-Maximo, 1981ean hasi huen Jentilen Etorrera. Hi ez hintzen bertan. Non hintzen?**

Ni, garai hartan Soriako kartzelan nengoan. 1983 ko San Juan bez-peran atera nittuan. Bost urte terdi ein nizkian kartzelan eta Iparralden beste bi terdi. Etorri nintzen garaien ikusi nian Jentillen Etorrerea eta inpresio pixkat eintzian. Joxemiel Barandiaren kontuk-eta ezautzen giñuztean eta orik jendaurren ikustek, beti sortzen zian zerbait bere-zie. Joxemielekin tratue ere bagenduan ta naizta gu Eliz zalek ez izan ondo konpontzen giñuztean. Gogon diat nola esantziuan bein: ni beti erlijiosoa izan naiz eta Txinan jaio banintz budista izango nintzen. Olaxe bota zian.

**-Hi Lauztierrekakoa haiz. Etxean ere entzungo zenituzten jentil kontuak ezta?**

Bai. Bateze gue osaba Joxemarik kontatzen zizkiuan olako istorik. Geioke bai baiño batipat osaba Joxemarik ebaltzen zittuan kontu zarrak.

Esate bateako Samartintxikik nola jakintzon zerrea nola ein. Geo, Jentillen Etorreran ein dittun istorik ikusita, kontuatzeaiz, aiba! osabak tare ola mutxoko kontuk esaten zittuela.

**-Sugaar konturik entzun al huen hire mutiko garaian?**

Bai. Azkeneako siñistu eta ikusi eitten dek gaiñea. Batzuk esatei suge arra otean. Gutzako, sue eta garra on.

Geo istori geiore bai. Palankalekuko kontuk eta.

**-Noiz hasi hintzen Jentilen Etorreran parte hartzen?**

Eate abesbatzakiñ batea asi nittuan ni parte artzen. 1995 ingurun izantzala usteiat. Botikazar aurreko plazan kantau genduan. Geo beiz,

kontalari bezela asi nittuan, usteiat urrungo urten izantzala. Gogon diat, oker ezpanaiz beintzet, kontalari-lana eitten asi nintzen urten kantau giñuztela “Millaka urtez mendi gaiñean...” koplak Dionisio Etxeberriak eta biok. Santa Ageda zarran doiñun kantau genduan.

### **-Norbait etorri al zitzaian kontalari lana egiteko eskatuz?**

Usteiat, Dionisio Etxeberria etorri zitzaiala zerbait esatea eta geo Santi Etxeberria eo Jon Aizpurua, norbait etorri zitzaian, istoriñ arteko loturak eiñ eta arie eamateko norbait beartzuela esanez. Usteiat Abesbatzan bueltan etorri ziela nereana. Baiezkoa eman nian eta olaxe asi giñuztean.

### **-Hik nortasun berezia eman diok kontalari lanari. Nolatan erabaki huen, lan hori nola egin?**

Nik usteiat, musika munduk izan dola ortan eragiñe. Leenbizi jendea ireana ekarriazi. Zenbat eta apalago aittu, iruitzezaiak errezago lortzen dala jendea zutik eo entzuten jartzea. Oi ein bear dek aurrena. Esate bateako nik neonek aots grabea eitteko etzeukeat arazoik eta kontalari-lana eitten deanen oaindiore grabego jartzeiat ezta. Noski, segun ze istori kontau bear dan, ari dagokion tonue erabilli bear dek. Musikan e inportantea dek espresioa ta kontatzekon e berdin. Tonue io, jetxi, oi dana artu bear dek kontun. Nik musikan ibiltzeittuan espresio-ikurrek ibiltzeizkiat baita kontalarin testun. Etenak noiz ein, musikan bezela, kontun artu bear dek.

### **-Kontalari lan horretan, ustekabekorik izan al duk inoiz?**

Urrutiago junbe, 2004en eskema guztik autsi zitzaian. Otzak pasautan jun nittuan Kiroldegia. Ezon izan otz aundiñeko urtea baño aizea kristona zeoan, alamuz jantzita jutegaittuk, aizek ebaita utzi nittuan eta geo, kiroldegi barrun etzeok rekuperatzeik, bertane urte garai ortan otz eitteolako. Bate tenpleik enukean eta olakotan alperrik dek apuntek eta gauzak eamatea...

### **-Erraza egiten al zaik, Abesbatza Jentilen Etorreran txertatzea?**

Zailtasun aundiña denborea izatek. Abesbatza iru eo lau aotseta kantatzea eaman bear dek eta orrek denborea eskatzeik. Jentillen Etorrerako gioiak lotu nai izateiau eta gioia erabat jakiñ arte ezin izaten

diau ezer prestau. Alde ortatio denbora juxtukiñ ibiltze gaittuk, bateze kantu berriat ein bear badek.

Or galderea eo zalantzea zea dek: ea abesbatzak gidoiai lotutako zerbaitt izan bear don eo besteipe betelana eingo don. Nik usteiat, gidoiai lotubere, naiko aberatsa izango litzakela Abesbatzan parteartzea.

Edoziñ muze, abesbatza ondo txertau dala usteiat eta atsegiñe gertatzeala.

**-Zer kantu egin dituzue, propio Jentilen Etorrerarako?**

Esate bateako “Mikelats” eta “Mikelats eta Etsai” izenekok. Geo jentilletako ereserki biurtu zaiuna: “Aio, aio...” izenekoa. Musikea Joxerra Gartzia eintzoan, letrak Jon Aizpuruak eta nik lau aotsetako armonizau nian.

Aparte, Deograzias doiñue, Santageda doiñue eta Atso zarran doiñue ibili dizkiau zenbait koplak kantatzeko. Beste bat, “Sei milla demonio”, Azkuen liburutio jasotakoa: bi doiñuz osutako kanta bat dek. Oso egoki etorrion sorgiñen kanta biurtzeko.

“Jende perrua...” izenekoa lau aotseta ein nian. Raroa dek, berri-tzaillea. Letreare alakoxea dek...

**-Maximo, herriko seme zen Joxe Kerejeta zenaren, sekula eman gabeko kantaren bat ere berreskuratu duzue ezta?**

Bai. Izenburue “Miserere” dik baiño amabi kantu txikiz osauta zeok. Guk “Miserere” bea eta “Amplius” kantau genizkian. 2004en izanon oi. Nik usteiat iñoiz kantaubekoa izangoala. Bazekiat Joxek bee koru txi-



kiat bazola eta korutxo orrek kantau ezpazon beintzet, sekula eman-bekoa izangoek. Iru aotseta einda zeukean.

### **-2004an huts egin zian Abesbatzak. Zaila duk eustea ezta?**

Bai. Or gauza asko zarek baño baittuk kontun artu bearreko bi: batetio Ataun bezelako erri txikiatek zenbateaiño eutsi dezaioeken. Ataunek zailtasun aundik zeuzkek: gutxi gaittuk eta zaille dek oso kultur aldetio orri eustea. Ezin izan dek aurrea eaman.

Bestetio beiz Abesbatzak krisin darella. Ez inguruotan bakarrik, mundu zear e bai. Nolaz profesionalak ezpadie behintzet. Koru amateurrek kolokan zeuke etorkizune.

### **-Eta aurrera begira zer? Abesbatzarik izango al diagu Jentilen Etorreran?**

2005ekoa eingo diau. Bazirudik Abesbatzako jende guztie prest daula. Baiezkoa eman die. Nik bakarrik izan dizkiat zalantzak. Orrek beak igual ekarrikoik berpizteat koru-zaletasun ortan baño etzekiat.

Aurrea beida, nik usteiat zeozer eingo dala. Formulak izan zeikek, ortakoxe juntatzea koru oi.

### **-Jentilen Etorrera berari buruz, zer iritzi daukak?**

Nik egie esanda, aleiñe ein nian ikuskizune frontoia ez eamateko. Nik kale-antzerki gisa ikusi nai nian eta kalen eittea nai nian. Baño betiko prolema izan genduan: egoaldie. Ta egoaldikiñ arazok zeuzkeau. Montaje aundie dek: sonidoa dala ta beste istori batzuk. Ebik arrapau ezkeo kaltea zeok. Oi dana artu bear dik kontutan.

Geo beiñ frontoia jun geanetio, lasaitasune ekarri ziuk orrek. Egoaldiri beida eon bearrik etzeukeau eta jendek ikuskizune bear bezela ikustekore, oaiñ leen baiño egokigo zeok. Alde txarrare ekarri dik frontoia eamatek: kalea ustu ein dala. Gu berta juteako frontoia beteta eotek.

Ta geo beste gauzat ebai: Abesbatzak irazi ein dik frontoian. Kanpon ezon apreziatzen eta barrun bai. Oaiñ, entzuteko etzeok leen kalen zeoan arazoik.

### **-Belaunaldi berririk ba al zetorrek, Maximo?**

Egie dek jende gaztea oso gutxi ai dala sartzen istori ontan. Esate bateako, iruitzezaiak garai bateko desfileen askoze jende geiok artzen zola parte, bai jentilltar jantzita ta baita erritar modua. Jentill gutxi ikus-tek eta zorionez, sorgiñek oaindio, ba asko.

Oi dana beidau bearco litzakela usteiat baño betire jenerazio berrik inguratzea lortzen badiau.

Espero dezaun datozen belaunaldi berrik kultura-zaletasun geio izango duela.



## **J**ENTILEN ETORRERAKO KANTUAK

### KOPLAK

**1-** Milaka urtez mendi gainean,  
jaun ta jabe, gau ta egun,  
Jentilak orain haserre daude  
ta Mikelats kopetilun.

**3-** Denen zainetan odol berbera,  
arima ere antzeko,  
baina bakoitzak bere fedea  
ez du alferrik galtzeko.

**2-** Bide txarretik okerragora  
ibili dira mendeetan,  
jentila jentil, kristaua kristau  
etsai al dira benetan ?

**4-** Lehena lehen, oraina orain,  
eta gerokoak gero.  
Etorkizuna denontzat ona,  
elkar lagundu ezkeru.

**Musika-prestaketa Maximo Aierbek. Hitzak, Jon Aizpuruak.**  
(Santa Ageda zaharraren doinuz, makilarekin kas-kas joz.)

## MILAKA URTEZ Koplak

Hitzak: Jon Aizpurua  
Ataungo "Santa(i)Ageda" doinuz  
4 a. n. harmonizatua: M. Aierbe



Mi - la - ka ur - tez men - di gai - ne - an jaun da ja - be gau ta e - gun Jen - ti - lak  
Bi - de txa - rre - tik o - ke - rra - go - ra i - bi - li di - ra mendee - tan Jen - ti - la  
De - nen zai - ne - tan o - dol ber - be - ra a - ri - ma e - re an - tze - ko - Bai - na ba -  
Le - he - na le - hen o - rai - na o - rain e - ta ge - ro - ko - ak ge - ro E - tor - ki -



o - rain ha - se - rre dau - de ta Mi - ke - lats ko - pe - ti - lun  
jen - til kris - tau - a kris - tau e - tsai al di - ra be - ne - tan?  
koi - tzak be - re fe - de - a ez du al - fe - rrik gal - tze - ko  
zu - na de - non - tzat o - na el - kar la - gun - du ez - ke - ro

## JENTILAK ETA KRISTAUAK

Kantu hau 1992an eman genuen estrainekoz. Kantuaren helburua zera da: ikuskizunaren amaieran, partaideek eta ikusleek elkarrekin kanta dezatela.

Joxerra Gartzia idazle, irakasle eta bertso-adituak egin zion musika. Letra berriz, Jon Aizpuruak egin zuen.

**Jentilak:** Aio, aio, (Aio, aio)  
Aio Jentil, Basajaun, Mari.  
Aio, aio, Dama, Sugar,  
Iraunsuge, Ilargi.  
Agur Akelarre, agur Sorgin,  
Ostri, Lur, Su eta Ur,  
Agur Lami, agur Gaueko,  
Agur Aide, agur Adur.

**Kristauak:** Kaixo, kaixo, (Kaixo, Kaixo)  
Kaixo jentil ta Basajaunak.  
Utzi narru, esne-errekak,  
eta harpe ilunak.  
Ekarri indarra eta garia  
dakizuen dena,  
bat eginik senda'zagun  
sorgin zaharren, zauri zahar hau...

**Denek:** Batera, batera, denak batera,  
Kixmi eta Akerra,  
zuzena ta okerra,  
batera, batera,  
denok bat gera.

# JENTILEN ETORRERA

Hitzak: Jon Aizpurua  
 Doinua: Joxerra Garcia  
 4 a. n. harmonizatua: M. Aierbe

Adagio

Ai - o - ai-o ai - o ai-o ai - o ai - o Jen-til Ba - sa - jaun Ma -  
 Kai - xo kaixo kai - xo kaixo kai - xo Jen-til ta - Ba - sa - jau -

6  
 ri ai - o ai - o Da - ma Su-gar l - raun - su-ge | - lar -  
 nak u - tzi na-rru es - ne/e - rre-kak e - ta har-pe | - lu -

11  
 gi a - gur A - ke - la - rre a - gur Sor - gin os - tri lur su ta -  
 nak e - ka - rri in - da - rra ta ga - ri - a da - ki - zuen de -

16  
 ur a - gur La-mi a - gur Gau-e - ko A-gur ai - de - gur a -  
 na bat - e - gi-nik sen - da de - za - gun Sorgin za - rren - zauri za -

21  
 Moderato  
 dur Ba - te - ra ba - te - ra de - nok ba - te -  
 rra

26  
 ra Kix - mi e - ta A - ke - rra

31  
 zu - ze - na ta o - ke - rra ba - te - ra

36  
 rit. dim. D.C.  
 ba - - - te - ra de - nok bat ge - ra

## MIKELATS ETA ETSAI

**Etsai:** Sendo hintzen sendo,  
pago bat bezela,  
gaur berriz dirudik  
udazken orbela.

**Mikelats:** Sugedorri petral,  
Etsai beltz ustela,  
ospa nere aurretik  
hilko haut bestela.

**Etsai:** Ai Mikelats, lasai,  
ez jarri horrela,  
ondotxo baitakik  
negua datorkiala.

**Mikelats:** Zizta nahi diak egin,  
«mizto-zar» horrekin,  
baino ez nauk bildur  
hire pozoinakin.

**Etsai:** Agur Jentil Zarra,  
bihotzez adio,  
ate joka daukak  
aurrean Herio.

**Mikelats:** Etsai ta Herio,  
Herio ta Etsai,  
Jentil Zar honekin  
oraingoz dezue jai.

**Musika:** Lauztiturritako Maximo Aierbe.

**Letra:** Jon Aizpurua ta Maximo Aierbe.



## MIKELATS ETA ETSAI (beste bertsioa)

**Etsai:** Zuzen intzana oker,  
aiden dijon ostu,  
pago lerdin intzana  
igartu dan lasto.

**Mikelats:** Sugedorrie aiz i,  
etsai beltz ustela,  
ospa ne aurretio  
ilko aut bestela.

**Etsai:** Lasai Mikelats, lasai,  
ez urtu ezurrek,  
urik e, ezтик artzen  
lepoko zintzurrek.

**Mikelats:** Zizta egin nai diak,  
mizto zikiñekin,  
baño enauk beldurtzen  
oi nai baek jakiñ.

**Etsai:** Utzi ie lekue,  
Tartalo anaiari,  
ne pozoi-salda dana  
ez baek ean nai.

**Mikelats:** Ie salda itzako  
sugedorri zikiñe,  
sokaz lotuko diat  
Etsaien mingaiñe”.

## **AVE VERUM**

Ave, ave verum corpus natum de Maria Virgine  
Vere passum inmolatum in cruce pro homine.  
Cujus latus perforatum um da fluxit cum sanguine.  
Esto nobis prae gustatum in mortis ex anime.

Ataun, 2000- 09- 30

## KOPLAK (berrituak)

- Jentilak Jentil, den-denak dira  
Ortziren seme-alaba.  
Dena da ona, dena da eder,  
Ama Lurrarena bada.
  
- Jentila zein da? Ama Lurraren  
barrutik datorren hura:  
iturri zaharrak ematen duen  
urak dakarren freskura.
  
- Batzutan ibai, bestetan izar,  
berdin pago, berdin lizar.  
Haritz zaharrak, hosto berriak  
sortuko dizkigu bihar.
  
- Samartin Txiki, ziri-miriki,  
sekretu denak dakizki.  
Baina sorginen sagar gozoak  
sabela jarri dio gaizki.
  
- Milaka urtez, mendi gainean,  
jaun ta jabe, gau eta egun.  
Haria eten baino lehenago,  
lotura egin dezagun.

(2004)

# JENTILAK JENTIL

## Koplak

Hitzak: Jon Aizpurua  
 Ataungo "Dion graziaz" doinuz  
 5 a. n. harmonizatua: M. Aierbe



Jen - ti - lak jen - til den de - nak di - ra Or - tzi - ren se - me - a - la -  
 Jen - ti - la zein da? A - ma Lu - rra - ren ba - rru - tik da - to - rren hu -  
 Ba - tzu - tan i - bai bes - te - tan i - zar ber - din pa - go ber - din li -  
 Sa - mar - tin Txi - ki zi - ri mi - ri - ki se - kre - tu de - nak da - kiz -  
 Mi - la - ka ur - tez men - di gai - ne - an jaun ta ja - be gau - ta e -



ba De - na da o - na de - na da e - der A - ma Lu - rra - re - na ba - da  
 ra I - tu - rri zaha - rrak e - ma - ten du - en u - rak da - ka - rren fres - ku - ra  
 zar Ha - ritz za - ha - rrak hos - to be - rri - ak sor - tu - ko diz - ki - gu bi - har  
 ki Bai - na sor - gi - nen sa - gar go - zo - ak sa - be - la ja - rri - dio gaiz - ki  
 gun Ha - ri - a e - ten bai - no lehe - na - go lo - tu - ra e - gin - de - za - gun

## KOPLAK MATEO TXISTU

- Txistu ta txistu, haizeak hotsa,  
berdin ipar, berdin hego.  
Batetik hotza, bestetik bero,  
Mateo Txistu gauero.
- Gau isilean, egiten dugu,  
lo epelean ametsa,  
baina orduan isiltasunak  
badu soinua ta hotsa.
- Goroldioak ezin hitzegin,  
harriak ez du bihotzik...  
Akelarreko sorgin gazteak  
ez du inguruan hotzik...
- Akerrak ditu, adar okerrak,  
okerragoak izterrak.  
Hala ta guztiz, festa ederrak  
badira berari eskerrak.
- Denen zainetan odol berbera,  
arima ere antzeko.  
Baina bakoitzak bere fedea  
ez du alferrik galtzeko.
- Ezin itzaldu izar argia,  
ezin itzaldu gar-sua,  
ezin uztartu bizi zaharra  
ta gaur egungo mundua.

(2004)

**Musikaratzea:** Maximo Aierbek.

**Hitzak:** Jon Aizpuruak.

# TXISTU TA TXISTU

## Koplak

Hitzak: Jon Aizpurua  
 ("Atso zarra..." doinuz)  
 3 a. n. harmonizatua: M. Aierbe

Allegro



Txis-tu ta txis-tu hai-ze-ak ho-tsa ber-din i-par ber-din he-  
 Gau i-xi-le-an e-gi-ten du-gu lo-e-pe-le-an a-me-  
 Go-rol-di-o-ak e-zin hi-tze-gin ha-rri-ak ez du bi-ho-  
 A-ke-rrak di-tu a-dar o-ke-rrak o-ke-rra-go-ak iz-te-  
 De-nen zai-ne-tan o-dol ber-be-ra a-ri-ma-e-re-an-tze-  
 E-zin i-tzal-du i-zar ar-gi-a e-zin i-tzal-du gar-su-



ro Ba-te-tik ho-tza bes-te-tik-be-ro Ma-te-o Txis-tu gau-e-  
 tsa Bai-na or-du-an i-sil-ta-su-nak ba-du soi-nu-a ta ho-tsa  
 tzik A-ke-la-rre-ko sor-gin gaz-te-ak ez du in-gu-ru-an ho-  
 rrak Ha-la ta guz-tiz fes-ta e-de-rrak ba-di-ra be-ra-ri/es-ke-  
 ko Bai-na ba-koi-tzak be-re fe-de-a ez du al-fe-rrik gal-tze-  
 a E-zin uz-tar-tu bi-zi za-ha-rra ta gaur e-gun-go mun-du-



ro Ba-te-tik ho-tza bes-te-tik-be-ro Ma-te-o Txis-tu gau-e-ro  
 tsa Bai-na or-du-an i-sil-ta-su-nak ba-du soi-nu-a ta ho-tsa  
 tzik A-ke-la-rre-ko sor-gin gaz-te-ak ez du in-gu-ru-an ho-tzik  
 rrak Ha-la ta guz-tiz fes-ta e-de-rrak ba-di-ra be-ra-ri/es-ke-rrak  
 ko Bai-na ba-koi-tzak be-re fe-de-a ez du al-fe-rrik gal-tze-ko  
 a E-zin uz-tar-tu bi-zi za-ha-rra ta gaur e-gun-go mun-du-a

## LETZION DE EPISTOLEA

*Letzion de Epistolea,*

*tipolea apostolea,*

*letzion de koskolo.*

*Ezagutzen zenduen Amuñaingo Martolo,*

*gaztai puska batekin amar talo jateko,*

*alako mutillik ez dago...*

*Ezagutzen zenduen Amuñaingo Martina?*

*Oillaskoak kapatzen zekiña...*

*Juan nintzan Dorraua ta eosi nuan beia,*

*ua ere argala, neoni bezela.*

*Ezagutzen zenduen*

*Dorrauko perratzailea,*

*artzeko guztien kobratzailea,*

*zor guztien ukatzailea,*

*kristun Dominun Nostrum,..*

## EPISTOLEA

Hitzak: Felipe Arratibel  
4 a. n. armonizatua: M. Aierbe

Letzion de epistolea tipolea apostolea, le-tzion de kos - ko - lo

Ezagutzen zenduen Amuñaingo Martolo, gaztai puska batekin hamar talo jateko ha-la-ko mo-ti-lik ez da-go

Ezagutzen zenduen Amuñaingo Martiña, oilaskoa ka - pa tzen ze - ki - na

Joan nitzen Dorraua ta eosi nuen behia, hu-a ere ar-ga-la ne-o-ni be-ze la

Ezagutzen zenduen Dorrauko perratzailea, hartzeko guztien kobratzailea zor guztien u-

katzailea cris - tum do - mi-num nos - trum A - men

(Kanta hau Joxe Arratibelen “Kontu zaharrak” liburutik jaso da).

## AMPLIUS

Egilea: Joxe Querejeta  
3 a. n. harmonizatua

The musical score is written on two staves in G major (one sharp) and 4/4 time. The first staff begins with a dynamic marking of *f* (forte). The melody consists of quarter and eighth notes, with some rests. The lyrics are: "Am - pli - us la - va - me ab i - ni - qui - ta - te me -". The second staff starts with a measure rest marked with a '9' above it, followed by a melodic line with slurs and a final double bar line. The lyrics for the second staff are: "an ct a pec - ca - to - me - o mun - - - da - me".

*f*

Am - pli - us la - va - me ab i - ni - qui - ta - te me -

9

an ct a pec - ca - to - me - o mun - - - da - me

# ATSO ZAHARRAREN ATORRA ZAHARRA

Herrikoia

4 a. n. harmonizatua: M. Aierbe

**Allegro**  
*mf*

A-tso za-rra-ren a-to-rra za-rra be-re-a ba-lu e-zer ez A-tso  
 za-rra-ren a-to-rra za-rra be-re-a ba-lu e-zer ez ke-da-rra bai-no bel-tza-  
 go-a du gar-bi-tu-tze-ko al-pe-rrez ke-da-rra bai-no bel-tza-go-a du gar-bi-  
 tu-tze-ko al-pe-rrez Txi-ru-rin brin-ku-lin brin-ku-lin brin-ku-lin txi-ru-rin brin-ku-lin a-tso-  
 a txi-ru-rin brin-ku-lin a-tso-a su baz-te-rre-an da-go-e-ne-an ez dau-ka  
 moz-ko-rra gaiz-to-a su baz-te-rre-an da-go-e-ne-an ez dau-ka moz-ko-rra gaiz-to-  
 a Fine *mf*  
 A-tso za-rra be-len-drin hi-re az-  
 Gu-re/a-tso-ak gau ta/e-gun ez dik-bes-  
 ke-nak e-gin din a-tso za-rra be-len-drin hi-re az-ke-nak e-gin  
 te-rik zer e-gin gu-re/a-tso-ak gau ta/e-gun ez du bes-te-rik zer e-  
 din Hor-tzak e-re jo-an zaiz-kin e-ta de-a-bru za-rra di-ru-din hor-tzak  
 gin ar-ka-ku-so-ak ha-rra-pa-tu-ta i-pur-di-a-ri hatz e-gin ar-ka-  
 ra bi aldiz eta  
 Fine  
 e-re jo-an zaiz-kin e-ta de-a-bru za-rra di-ru-din - Txi-ru-rin  
 ku-so-ak ha-rra-pa-tu-ta i-pur-di-a-ri hatz e-gin

## JENDE PERRUA

Egilea: M. Aierbe  
 Hitzak: Mitologiakoak  
 4 a. n. harmonizatua: M. Aierbe

Sor-tu da \_\_\_\_\_ jen-de txi-ki pe-rru-a a-ka-ba-tu - ta jen-de/u-ma-nu-

5  
 a a - kau - ta - - - jen-de/u-ma-nu - a hel-du da jen-de pe-rru-

10  
 1 2  
 a a pe-rru-a u-ma-nu-a u - ma-nu-a pe-rru-a a-ka-ba-tu sor-tu da

15  
 a - kau - ta hel-du da a - ka - ba - tu sor-tu da a - kau - ta hel-du da hel - du da

Sortu da jende txiki perrua,  
 akabatu da jende humanua.

# LOA LOA

Herrikoia

5 a. n. harmonizatua: M. Aierbe



Lo - a lo - a ttun - ttu-rrun ber - de lo - a lo - a ma - xux - ta - Ai -  
 ta gu - re - a Gas - te - i - zen da a - ma man do - an har - tu - ta Ai -



ta gu - re - a Gas - te - i - zen - da a - ma man do - an har - tu - a lo -  
 ta gu - re - ak di - ru as - ko - du a - ma bi - de - an sal - du - ta



a lo - a Ai - a

## MIKELATS

Hitzak: Jon Aizpurua  
Musika: M. Aierbe  
5 a. n. harmonizatua

12 7 1 2

22 *mf*  
Lei za din sor tu a jen ti len ku me

26  
Ba lan ka le kun naiz ha zi a tre be

30 *mff*  
Jen til ba ra tza ko ha rri haitz lei ze ta har pe

34  
han txe bi zi naiz ni men de rik men de

38  
Mi ke lats jen ti la Ma ri ren Ma ri ren se me

42  
tru moi e ta txi mist e kai tzen jen de

46 *rit.*  
Mi ke lats jen ti la naiz

Leizadin sortua jentilen kume,  
Balankalekun naiz hazia trebe,  
Jentilbaratzako harri, haitz, leize ta harpe,  
hantxe bizi naiz ni menderik mende.  
Mikelats jentila Mariren seme,  
trumoi eta tximist ekaitzen jende  
Mikelats jentila naiz...

# MISERERE

Egilea: Joxe Querejeta  
3 a. n. harmonizatua

*mf*

Mi - se - re - re mi - se - re - re me - i

7 *f*

De - - - - - us se - cun - dum ma -

14

gnam mi - mi - se - ri - cor - di - am - tu - - - am

## SEI MILA DEMONIO

Herrikoia (hitzak egokituta)  
4 a. n. harmonizatua: M.Aierbe

Allegro

Sei mi-la de - mo-ni - ok e - raman di nes - ka go - na go - rri

4 ho - ri ho - ri - xe dun bai ho - ri Sei mi-la de - mo-ni - ok

8 e-raman di nes - ka go - na go - rri - a Bai ha - la jain-ko - a

12 nes - ka - txa gai - xo - a Nes-ka nor den ba al da - kin? Ar - bel - di - koKa - tta-

16 lin Non di - ra ba-da non di - ra? he-men a - ge-ri ez

20 di - ra Txa - la - par-ta ho-tsa en - tzun e - ta Mus - ki al-de - ra

24 jo - an di-ra - Txi-bi - ri - bi-ri Nork kan - ta-tzen du soi-nu-txo ho-ri?

28 Txori txi - ki ba - tek ar-bo-la - ren pun - tan Txibi-ri - bi - ri - bi - ri

2

Adagio

32

Sa - ga - rra - ren a - da - rra - ren pun - ta - ren

36

pun - tan Txo - ri - ño - a ze - go - en kan - ta -

40

ri Ai! txi - ru - bi - ru - bi

44

Ai! txi - ru - bi - ru - bi non bi - la -

48

tu - ko du - gu soi - nu ho - ri? Sa ri?

52

Al - de - ra/e - zak zan - go - ño ho - ri

56

*D.C. al Coda*

Ma - ri Txa - la - par - ta ho - tsa - en - tzun du -

60

*rit.*

te - ne - an Mus - ki al - de - ra jo - an di - ra



## SANTI ETXEBERRIA “ZUBIONDO”



Santi Etxeberria Goikoetxea. Arinberriaga auzoko Zubiondo etxean jaioa. Elbarrenako Ubarrieta etxean bizi da.

Aurreneko urteetan Okaiztiko Joxe Bikuña arduratu zen bezala, azkeneko urteetan Santi izan da taldea eratzeaz eta partaideak lanean jartzeaz arduratu dena.

Hasiera-hasieratik dabil Santi, Jentilen Etorreraren inguruan. Hasieran festa-batzordeko kide modura eta teknika arloko laguntzaile-lanean. 1992az geroztik berriz, bere bizkarraren gainean izan du antolaketa, prestaketa, koordinazioa, finantziazioa eta produkzio-lana.

Bere esku izan da bileren eta entsaioen antolaketa, bilera-deiak egitea, abisuak ematea, trasteak eta jantziak lortzea, arlo teknikoa bideratzea, eszenarioa apaindu eta atontzea eta baita ikuskizun osoaren zuzenketa-lanak egitea ere.

Esan liteke beraz, Jentilen Etorreraren derrigorrezko motor bihurtu dela Zubiondoko Santi Etxeberria. Motor horren baitan egon da azken urteotan Jentilen ibilgailua. Ia urtero, aldapan gora egin behar izan du eta neurri handi batean Santiren ekimenak bultz eginda igo dugu aldapan gora, noizbait aldapan behera, erraz eta samur hasiko garen esperantzan.

### **-Gogoan al duk 1981eko hasiera?**

Irudi batzuk zeuzkeat gogon: udaletxe zarra, balkoia, Lazkao Txiki bertsotan balkoitio, beeran jendea, astok, ta bukaeran dantzea izaten zala, soiñu aundie joz. Daukean rekuerdo oixe dek.

### **-Hi herorri, tartean al hintzen?**

Eztiat uste asiera artan antolaketan aittu nintzenik. Egie esan, etzekiat zertan aittuko nintzen baño zerbaitetan bai, kaseten grabauta bai-zeuzkeat asierako kontuk, balkoitio bota zuen txarlea. Beraz, an neoan baño etzekiat eo besteipe grabatzen aittu nintzen, norbaiti launtzen eo zertan. Don Juaneneandiko Axintxio ibillion megafonikiñ, Doroteonekoa.

Ni ordun festak antolatzen ibilliko nittuan, festa-batzorden eo Oargitio. Ni Leendakari nittuan urte ortan Oargiñ. Ordun, billera asko beintzet, Oargiñ eitteittuan.

### **-Jentil-kontuen aditzerarik ba al huen etxean? Garai bateko kontu zaharrak kontatzeko ohiturarik ba al zenuten?**

Gauzat esangoiat: aittejaunek, txikitan, eunero eunero oia jun baño lenau, ipuin bat kontatzen zian nei. Eunero kontatzen zian kontu zar bat. Sekula enittuan oia juten aittejaunek ipui bat kontaube. Eta oaiñ pena aundie zeukeat kontu ak grabau eniotzalako. Geo kontuatzen aiz, beak kontatzen zittun kontuk ia eztiela aitzen. Kontu orik galdu ein dizkiat eta pena oi zeukeat.

**-Santi, nor huen hire aitajaun hori?**

Aritzaunditako Joxerramun Goikoetxea. Oiturea bezela artu genduan, gauero ni oia juteako kontuzar bat kontatzen zian.

**-Hik Santi, antzerkian ez duk sekula parte hartu ala?**

Ez. Norbeak jakin bear dik zertako balio don. Nik beti ne burue launtzeko eta lana eitteko ikusi izan diat. Norbean izaeran eongoek oi akaso. Antolatzea, gauzak preparatzea, oi gustau eitten zaiak baño antzeztea ez. Alare bazeok gauza kurioa: ez iri eta ez nei, iñork etziuk galdetu aktore bezela parte hartu nai deun ala ez. Beti atzen eon bear izaten diau ta gu gaittuk, jenden billa ibiltzen geanak. Usteiat normala dala...Ala ikusteiat nik beintzet.

**-Lan handia izan al da Jentilen Etorrera antolatu eta aurrera ateratzea?**

Kristona. Lana aundie izaten dek eta gañea, ire lanakiñ, familikiñ eta beste eginkizun batzuekin batea eaman bear dek ta orrek aunditu eitten dik lana. Gaiñea, jende askok artzen dik parte eta danak antzeko ibiltzeittuk. Azkeneako neketsue eitten dek, ze ezin diok jendei ezer esijittu, danak borondatez dailltzelako eta aaleiñe eitten ai dielako. Oi ondo neurtu bear dek iñor asarrau eo zapuztu ezteiñ.

Ta bazeok beste zailltasun bat. Gauzat dek jendea billatzea etabar baiño geo aparte, montaje guztie ein bear dik . Montajek gañea fantasi asko zeukek tarten eta guk daukeun presupostukiñ oso zaille dek gauzak nai bezela eittea.

**-Inguruan, laguntzailerik izan al duk?**

Egie esan, jende gutxikiñ aittu gaittuk. Kasi eune bea aillau arte, au dek Jentillen Etorrerea ein bear deun eune iritsi arte, neoni bakarrik aittu izan nauk. Ta gero, laguntzailek bai: Koldo Aldabe bat, Jexux Etxeberría anaie eta montaje lanetan libre xamar darenai eskuat botatzeko eskau izan zeau, geienak antzerkin parte artzen duenak izateittuk...Azkeneko urteotan Josu Olano. Eoziñ muze, jende gutxi eta kontatue. Alare esan bear diat, Udaletxe aldetik launtza ona izaten deula, bai korporazio aldetio eta baita langilleen aldetiore, eszenarioa montatzeko garaien bezela. Beste guztie geok eitten diau.

Eszenarioa bezperan jartzen diau. Eta kontun izan bear dik, festa-  
eunek diela, orrek esanai don guztikiñ. Azkenen, festak lanen pasa-  
tzeittuk, eta oi goorra izatek. Festatako orduik inportantenak lanen  
pasatzeizkiat ta orren ondorioz, familiñ eztittuk festak normal bizitzen.  
Alare umek ta, ikusten die ein bearreko gauzak diela eta norbaittek ein  
bear dittula eta oi eskertu eitten diat.

**-Montaje handi xamarra egiten duzue. Urtetik urtera handia-  
goa ezta?**

Bai. Egie dek, polliki-polliki montajea, eszenarioa, aunditzen ai gai-  
ttuk. Asieran Plazaberiñ izaten zan eszenariok, atzen, fondon, asko jota  
metro terdiko alturea izango zian ta kasi tetxue joz ibilli bear izaten zian  
jendek.

Alare usteiat, ikuskizune ikustea etortzen dan jende pillea ikusita,  
proporzion montajea exkaxa dala. Sortzen don ikusmiñe sortuta, usteiat  
montaje ohea bearreko lukeela. Orrek diru geio eskatzen dik ta ekis arra-  
zoi tarteko, diru oi ezin izan diau lortu. Espero diat, aurten lortuko deula.

**-Santi, lehen kalean egiten huen eta azken urteotan Kirold-  
gian. Zer aldaketa ekarri dik horrek, muntaiari dagokionez?**

Argi dauna dek, leku itxin esijentzi geio daula. Kalen eitten zanen,  
ikuslea jabetu eitte uen zer baldintzatan eta zer pretentsiokiñ eitten  
zan. Barrun beiz, ire inkonszientek beste esijentzi mailla bat zeukek.  
Zerbait landue eta ondo preparatue espero dik. Puntu ontan usteiat,  
kualitatiboki saltoat ein deula baño ez naikoa.

**-Inork esaten al dik zerbait Jentilen Etorrera ikuskizunari  
buruz?**

Bai, beti izatek norbait, au ta beste esaten diana. Alare ni neoni  
geio fiatzen neok, neonek, eoten naizen lekun eonda, izaten dittuan  
sentsaziotaz. Bateze, umen iritzie iruitzen zaiak inportantea, larri bate-  
na baño geio.

**-Umeak, haurrak aipatu dituk. Etorrizuna nola ikusten duk?**

Nei iruitzen zaiak, Jentillen Etorrerea bateze, umeei zuzendutako  
ekintzea izan bear dola. Bazekiat elduk ikuspuntu batetik ikusten

duela baño umek beiz erabat iñozo ikusten die, ikusten ari diena benetan gertatuko balitz bezela.

Alde ortatik, oso inportantea dek jakittea, guk lortu nai izan dittun sentsaziok, bildurre, misterioa, zer gertauko ote dan eta abar, orik danak umeei aillau zaien ala ez. Lortu badeu, ondo jun dan seiñale.

### **-Zertan hobetuko hukek Jentilen Etorrera?**

Bateze “ puesta en escena” esaten dana obetuko nikek.

Nee ustez, ikuskizunek eboluzioa izan dik urte guztiotan ta bide ortan, gauzatzutan iraaazi ein diau eta beste batzutan galdu. Alare, gaur eunen badiau segurantziat: alegie, ekintza au, guk nai deun eunen eta ordun, eingo deula. Kanpon eitten gendunen, ez genduan segurantzi oi. Tonterie emateik baño Jentillen Etorrerea eitten deun fetxatan, oinarizkoa dek segurantzi oi izatea. Ta orrekin batea, usteiat antzerkie eo ikuskizune bea obetzen saiau bear deula. Mailla on batea allau gaittuk antzerkie eitten baño itxurea obetu bear diau oaiñdio geio.

### **-Zer galdu diagu?**

Galdu diau, menditio jexten dien jentillei, aurreneko urtetan eitten zitzaien ongi-etorrie. Ordun jendea zai eoteon jentillek noiz azalduko. Jendez gañezka eoteon Iztator zaarreko bidegurutzeta. Oaiñ beiz, udalaxe aurren eitten diau ongi-etorrie baño jende geiena kiroldegin eoten dek antzerkin zai ta ongi-etorrie itzalduta geldittuek. Etzekiat nola, baño ongi-etorrie obetu bearren garek.

### **-Zer jarraipen izango dik Jentilen Etorrerak?**

Bazeuzkeau erantzun bearreko galdera batzuk. Alde batetio errelebo bearra. Noiz arte segi bear deu guk Jentillen Etorreran ardurea izaten? Jende gaztea bear diau.

Beste galderat: urtez urte eiñ ordezt, bi urtez beiñ eiñ ote leiken. Aztertu bearreko puntue dek.

Fetxa aldaketea ere or zeok. Azaron eiñ ordezt ekaiñen eiñ. Egoaldi obea izango gendukek. Gañea udan eittea erabakiko balitz, beize kanpon eittea meeziko likek akaso.

Galdera ok danak erantzun bearren garek, beandu baño leen.

## PARTAIDEAK

Zaila da Jentilen Etorrerak bere 25 urteetan izan dituen partaide guztiak, hutsik egin gabe, hemen zuzen jartzea.

Urte guztiotan ataundar askok hartu du parte ikuskizunean: batzuk antzezle, beste batzuk laguntzen, prestatzen, jantziak egiten...

Saiatu gara ahalik eta zerrendarik osatuena egiten baina beldur gara, bat baino gehiago utziko genuela aipatu gabe. Barkamena eskatzen diegu hemendik.

Jaiotetxe eta bizilekuak ere aldatuta egon litezke kasuren batean.

- Joxe Bikuña. Bikuñaenea.
- Ramona Auzmendi. Larratze.
- Martin Barandiaran. Ameskabi.
- Klaudio Barandiaran. Altzanipe.
- Joxan Munduate. Altzanipe.
- Joxe Rezola. Altzanipe.
- Iñaki Eskisabel. Espilla.
- Maixa Goikoetxea. Aiako errota.
- Karmele Begiristain. Ubarrieta.
- Martin Aramendi. Txomiñoenea.
- Fermin Aramendi. Txomiñoenea.
- Santi Etxeberria. Ubarrieta.
- Jon Aizpurua. Ubarrieta.
- Joxe Arrondo. Altzanipe.
- Joxe Begiristain. Ubarrieta.
- Koldo Aldabe. Arzuloa.
- Imanol Sampedro. Lizardi.
- Joxemari Goikoetxea. Altzanipe.
- Marian Aierbe. Santiagoenea.
- Felix Eskisabel. Espilla.
- Antonio Altolagirre. Errotazar.
- Anttoni Lasa. Ubarrieta.
- Patxi Agirre. Kerexeta lantegia.
- Rakel Alkorta. Antonionegarakoa.
- Justina Zeberio. Aranburuenea.
- Pello Munduate. Altzanipe.
- Gillermo Galparsoro. Miraballes.
- Doroteo Barandiaran.  
Donjuaneaurdi.
- Joxe Barandiaran. Altzanipe.
- Pello Kerejeta. Kerexeta lantegia.
- Angel Elias. Lizardi.
- Tomas Erauskin. Ajarresta.
- Juan Urteaga "Uzkudun".  
Intxaurreondo.

- Eulogio Aldasoro. Upategi.
- Nikolas Munduate. Urbitarte-Tabla.
- Inazio Garmendia.  
Dorronsoroea.
- Ane Aseginolaza. Atalluzar.
- Jabier Bikuña. Bordaberri.
- Joxe Goena. Sukia.
- Ines Arruabarrena. Altzanipe.
- Jema Arruabarrena. Altzanipe.
- Piedad Barandiaran.  
Donjuanehaundi.
- Aitor Auzmendi. Larratze.
- Imanole Barandiaran. Upategitxiki.
- Ramon Goikoetxea. Altzanipe.
- Jose Inazio Irastortza "Zitro".  
Bidegain.
- Jexux Bikuña. Mendiolape.
- Beñat Munduate. Altzanipe.
- Luzio Goikoetxea. Arzulo.
- Jexux Goikoetxea. Bidebieta.
- Txema Urrestarazu. Grazieneberri.
- Ina Arratibel. Aranburuenea.
- Oskar Rodríguez. Irubide.
- Koldo Imaz. Arandietxetxiki.
- Jexux Barandiaran.  
Arrondosaletxea.
- Niko Kaiero. Antonionegarakoa.
- Arantxi Barandiaran.  
Donjuaneauendi.
- Fernando Martin. Dupale.
- Joakin Aldabe. Arzuloa.
- Iñaki Goikoetxea. Altzanipe.
- Bizente Lopez. Altzanipe.
- Garbiñe Eskisabel. Gutzape.
- Pili Arrondo. Ubarrieta.
- Joseinazio Barandiaran.  
Donjuaneauendi.
- Juanjo Arratibel. Altzanipe.
- Jexux Eskisabel. Espilla.
- Jexux Etxeberria. Gutzape.
- Andres Arrondo. Ubarrieta.
- Pello Arrondo. Intxaustiberri.
- Xabier Bikuña. Bordaberri.
- Jaione Munduate. Urbitarte-Tabla.
- Maria Jose Munduate. Urbitarte-Tabla.
- Niko Aizpurua. Kalakasenea.
- Lander Imaz. Arandietxetxiki.
- Joxerramun Agirre. Arbilleta.
- Julian Munduate. Tokieder.
- Juan Bautista Etxeberria.  
Dornarienea.
- Nekane Eskisabel. Intxaurrondo.
- Aitor Arruabarrena. Ubarrieta.
- Xabier Munduate. Zubiaurre.
- Amaia del Val. Zubiaurre.
- Iñaki Rezola. Altzanipe.
- Nekane Imaz. Bedama.
- Txema Rodríguez. Irubide.
- Manu Goikoetxea. Dornarienea.
- Nike Knight. Intxaustiberri.
- Jazinto Begiristain. Intxaurrondo.

- Juan Etxeberria. Dornarienea.
- Jon Etxeberria. Barberoetxea.
- Agurtzane Goikoetxea. Altzanipe.
- Eloy Tato. Urbitarte-Tabla.
- Iban Sukia. Zelaieta.
- Maitane Aizpurua. Ubarri.
- Rebeka Kaiero.  
Antonionegarakoa.
- Junkal Galparsoro. Altzanipe.
- Agurtzane Auzmendi. Etxeberri.
- Maitane Dorronsoro. Kalakasenea.
- Amaia Etxeberria. Altzanipe.
- Jon Galparsoro. Altzanipe.
- Santi Osoro. Altzanipe.
- Dionisio Etxeberria. Lizardi.
- Maximo Goikoetxea. Iztatorberri.
- Iñigo Bikuña. Bikuñaenea.
- Jon Goikoetxea. Ubarrieta.
- Josune Barandiaran. Ubarrieta.
- Iñaki Munduate. Altzanipe.
- Joseba Goikoetxea. Altzanipe.
- Idoia Rezola. Altzanipe.
- Niko Begiristain. Intxaurre.
- Esther Dorronsoro. Olalde.
- Joxemari Arrondo. Lizardi.
- Joseba Andoni Barandiaran.  
Barandiaran txiki.
- Joxemari Aizpurua. Iztatorberri.
- Ainhoa Urdangarin. Altzanipe.
- Pello Urdangarin. Aldarretazpikoa.
- Izaskun Eguren. Urdangarinberri-  
Kotxera.
- Naiara Munduate. Bikoitz.
- Maria Jesus Agirre. Ubarrieta.
- Maider Urdangarin. Altzanipe.
- Pili Imaz. Kortaberri.
- Ainara Aizpurua. Ubarri.
- Garazi Aierbe. Iztatorzar.
- Bidatz Badiola. Bedama.
- Izarne Imaz. Ubarrieta.
- Ane Auzmendi. Lizardi.
- Xabi Etxeberria. Lizardi.
- Jexux Artzallus. Amilleta.
- Eneritz Aizpurua. Ubarrieta.
- Monika Arratibel. Altzanipe.
- Juan Goikoetxea. Arzulo.
- Joxepa Munduate. Arzulo.
- Josune Arruabarrena. Ubarrieta.
- Juan Agirre. Lizardi.
- Jabier Auzmendi. Lizardi.
- Xabier Barandiaran. Ubarri.
- Pili Eskisabel. Espilla.
- Marianjeles Irure. Arandietxea.
- Ima Aramendi. Altzanipe.
- Marixol Agirre. Arbilleta.
- Josu Munduate. Artzateberri.
- Mikel Etxeberria. Ubarrieta.
- Ziortza Barandiaran.  
Zaindegiberri.
- Mikel Dorronsoro. Txatañenea.

- Garazi Etxeberria. Urbitarte-Tabla.
- Tere Dorronsoro. Altzanipe.
- Rosa Goñi. Altzanipe.
- Izarra Asurabarrena. Ubarrieta.
- Jone Galparsoro. Zelaieta.
- Maria Tato. Urbitarte-Tabla.
- Ainhoa Esnaola. Gurutzeagaberri.
- Aritz Urrestarazu. Zelaieta.
- June Aizpurua. Ubarrieta.
- Josu Olano. Tokieder.
- Mikel Noguera. Gutzape.
- Jose Luis Gorostizu. Altzanipe.
- Guillermo Galparsoro. Dostollo.
- Oneka Auzmendi. Santiagoenea.
- Ane Dorronsoro. Gure Izarra.
- Andoni Aizpurua. Ubarrieta.
- Jon Urteaga. Intxaurrondo.
- Ekain Sukia. Altzanipe.
- Jokin Goikoetxea.  
Goikoetxeaenea.
- Harri Argedas. Eskisabel.
- Itxaro Barandiaran. Ubarrieta.
- Itsaso Barandiaran. Saletxeberri.
- Elisabeth Galparsoro. Altzanipe.
- Iban Urdangarin. Aldarretazpikoa.
- Ainhoa Urdangarin. Aldarretazpikoa.
- Martxial Barandiaran. Arrondosaletxea.
- Xabier Segurola. Intxaurrondo.
- Juan Arrondo. Lizardi.
- Joxe Bixente Goena. Zelaieta.
- Jon Gonzalez. Altzanipe.
- Eloy Tato. Urbitarte-Tabla.
- Santos Aldasoro. Dojuaneandi.
- Juan Migel Imaz.  
Antonione garakoa.
- Kepa Arizmendi. Laskainzelai.
- Pedro Barriola. Altzanipe.
- Zeles Etxeberria. Urbitarte-Tabla.
- Doltza Barandiaran. Ubarrieta.
- Aloña Arratibel. Olalde.
- Patxi Imaz. Ubarrieta.
- Leire Aizpurua. Ordizia.
- Joxemanuel Tato. Urbitarte-Tabla.
- Ioritz Arrondo. Ubarrieta.
- Unai Munduate. Zubiaurre.
- Arrate Auzmendi. Olalde.
- Irati Barandiaran. Urretaberri.
- Maialen Sukia. Zelaieta.
- Xabier Erauskin. Etxealai.
- Izaro Imaz. Iturritza.
- Iñaki Barandiaran. Urretaberri.
- Xabier Barandiaran.  
Dorronsoroenea.
- Aitor Aldasoro. Upategi.
- Aitziber Irastortza. Bidegain.
- Unai Almeida. Aiako Errota.
- Ekhi Sukia. Begiristainberri.
- Egoitz Goikoetxea. Altzanipe.
- Iñaki Dorronsoro. Txatañenea.
- Bittor Martin. Antonioneazpikoa.

- Harriet Zaldua. Intxaurrondo.
- Antton Etxeberria. Urbitarte-Tabla.
- Jon Arratibel. Erroiondo.
- Jose Luis Kerejeta. Kerejetaenea.
- Anjel Munduate. Etxeberri.
- Juan Goikoetxea. Donjuanetxiki.
- Martzelino Sukia. Altzanipe.
- Bittor Eskisabel. Irubide.
- Isidro Bikuña. Agerre Haundi.
- Juan Eskisabel. Errotaberri.
- Pili Barandiaran. Gure Izarra.
- Nekane Imaz. Bedama.
- Jon Etxeberria. Barbetxe.
- Juan Bautista Etxeberria. Dornarienea.
- Elisabet Barriola. Altzanipe.
- Gaizka Aizpurua. Iztatorberri.
- Jon Zurutuza. Arratiña.
- Josu Munduate. Artzateberri.
- Mitxel Auzmendi. Santiagonea.
- Juan Agirre. Arbilleta.
- Ana Auzmendi. Santiagonea.
- Malen Auzmendi. Santiagonea.
- Matxus Auzmendi. Santiagonea.
- Jexux Arratibel. Aranburuenea.
- Pello Arratibel. Aranburuenea.
- Xabi Urdangarin. Lopetxea.
- Iñigo Erauskin. Gure Izarra.
- Sebastian Auzmendi. Etxeberri.
- Xabier Barandiaran. Dorronsoro-enea
- Antonio Aizpurua. Intxaurrondo.
- Juanito Auzmendi. Urretaberri.
- Pedro Joxe Galparsoro. Gure Izarra.
- Marikarmen Sukia. Goikoetxea-enea.
- Joakin Aizpurua. Kalakasenea.
- Joxe Luis Kerejeta. Kerejetaenea.
- Domingo Barandiaran. Upategitxiki.
- Joxe Urrestarazu. Iztatorberri.
- Marikarmen Zeberio. Altzanipe.
- Igokunde Asurabarrena. Auzmendienea.
- Juan Auzmendi. Auzmendienea.
- Maria Jesus Imaz.  
Urdangarinberri-Kotxera.
- Joxan Goikoetxea. Bidebieta.
- Ixiar Eskisabel. Errotaberri.
- Andres Seguroola. Intxaurrondo.
- Eneider Sukia. Leku eder.
- Irati Pinilla. Arandietxe.
- Axintxio Barandiaran.  
Donjuaneauendi.
- Sabino Bikuña. Altzanipe.
- Sabina Aierbe. Altzanipe.
- Oihana Mendizabal. Ubarrieta.
- Aitziber Jauregi.
- Elixabet Galparsoro. Altzanipe.
- Naiara Munduate. Bikoitz.
- Aitziber Barandiaran. Lizardi.
- Izaskun Eguren. Urdangarinberri.
- Hirune Gorostizu. Altzanipe.
- Aintzane Aizpurua. Ubarri.
- Olatz Barandiaran. Altzanipe.

- Eztitxu Etxeberria. Urbitarte-Tabla.
  - Itxaro Barandiaran. Ubarrieta.
  - Uxue Ibaiondo. Lizardi.
  - Aitziber Urdangarin. Otelarre.
  - Eneritz Arrondo. Altzanipe.
  - Alaitz Etxeberria. Intxaurrondo.
  - Irati Munduate. Zubiaurre.
  - Mainer Barandiaran. Amilleta.
  - Beatriz Aierbe. Andresene.
  - Ana Eskisabel. Arandietxe.
  - Edurne Goikoetxea. Artzulo.
  - Agurtzane Bikuña. Mendiolape.
  - Leire Etxeberria. Ubarrieta.
  - Ainara Imaz. Iturritza.
  - Iraitz Goikoetxea. Iturtxo.
  - Jon Knight. Intsusti-berri.
  - Axier Gonzalez. Olasagasti.
  - Marian Arratibel. Sarriartegarakoa.
  - Xabi Altuna. Otadizalei.
  - Unai Arizmendi. Laskainzelai.
  - Harri Herguedas. Eskitsal.
  - Eli Agirre. Arbilleta.
  - Mikel Knight. Intsustiberri.
  - Iker Ibaiondo. Lizardi.
  - Mikel Barandiaran. Altzanipe.
  - Iñaki Begiristain. Botika.
  - Julen Herguedas. Eskitsal.
  - Iñaki Agirre. Olalde.
  - Iñaki Altuna. Otadizelai.
  - Haitz Aierbe. Olalde.
  - Asier Erauskin. Etxealai.
  - Ainhoa Etxeberria. Ubarrieta.
  - Eli Menendez. Dorronsoro-enea.
  - Mikel Maiza. Andraleizeta.
  - Aitzol Barandiaran. Ubarrieta.
  - Aiora Urdangarin. Aiarre.
  - Aizaga Zeberio. Olalde.
  - Ioritz Zurutuza. Xokoa.
  - Oier Zurutuza. Xokoa.
- ... eta gehiago...

## ARGAZKILARIAK

Milaka argazki egin izan dira Jentilen Etorreraren 25 urteko bidean. Argazkilari batzuk herrikoak bertakoak izan dira baina beste asko kanpotarrak.

Argazkiak altxor handia direnez, Jentilen Etorrerako antolakuntzak argazkiak “sin falta egin eta jasotzeko” konprometzua hartu zuen.

Honenbestez, argazkilari ofiziala izan dugu azken urteotan. Aitzarteko Erremedion jaio eta Elbarrenako Ubarrieta etxean bizi den Andoni Aizpurua izan da azken urteotan argazkiak egiteaz eta album-bildumak prestatzeaz arduratu dena.

Hala ere, argazkilari gehiago izan da urte guztiotan eta eskerrak guztiei.

Dena den, ederra litza-teke argazkien altxorra ahalik eta osatuena izatea. Biziki eskertuko genuke, etxean Jentilen Etorrerako argazki propio eta partikularrak dituenak, Jentilen Etorreraren arduradunengana joko balu. Zain gauzka !!!



## **E**LKARRIZKETA-GALDERAK

Ondorengo galdekizun hau erabili dugu Jentilen Etorrerako pertsonaia eta arduradun nagusiei elkarrizketak egiteko.

- Zuretzat zer da mitoa ?
- Zer dira leienda eta kontu-zaharrak?
- Jentilen Etorreran hasi aurretik ba al zenuen kontu horien berririk?
- Noiz hasi zinen Jentilen Etorreran parte hartzen?
- Erraza egin al zitzaizun parte-hartzea?
- Zergatik hasi zinen parte-hartzen?
- Bakarrik hartu al zenuen erabakia ala beste norbaiten babesean hasi zinen?
- Lagun edo adiskideren bat ba al zenuen inguruan?
- Lehendik ba al zenuen antzezle esperientziarik?
- Zerorrek aukeratu al zenuen, zer pertsonaia egin ?
- Zer oroitzapen dituzu hasierako urte haietaz?
- Zenbat urte daramatzazu parte hartzen?
- Zer pertsonaia egiten dituzu?
- Zure jantzimendua zerorrek prestatu al duzu?
- Zerorrek erosi-egin edo lortutako trasterik eramaten al duzu?
- Zer traste edo gauza?
- Gordetzen al duzu etxean urte guztietako gidoi eta trasterik?
- Kutun edo amuletorik ibiltzen al duzu?
- Zure lana egiteak buruhauste handia ematen al dizu?

- Zaila egiten al zaizu testua ikastea?
- Testua hobetzeko ideiarik ematen al diozu gidoilariari?
- Tranpaldora igo aurretik zerbait berezirik egiten al duzu?
- Zein urtetan gelditu zinen gustoen egin zenuen lanarekin?
- Ze oroitzapen dituzu urte guzti hauetaz?
- Pasadizo eta anekdotarik ba al duzu gogoan?
- Urtean zehar, Jentilen Etorreran ikusi edo esandako zerbait etortzen al zaizu burura?
- Jendeak identifikatzen al zaitu Jentilen Etorreran antzeztu duzun pertsonaiarekin...?
- Herritik kanpoko jendeak komentariarik egin al dizu Jentilen Etorreraz edo egin duzun lanaz?
- Zer esaten dizue etxean?
- Uzteko eskatu al dizue?
- Zer erantzun diozu, parte ez hartzeko esan dizunari?
- Parte hartzea baino nahiago izaten al duzu ez parte-hartzea?
- Zentzurik ikusten al diozu ikuskizunari?
- Zertan hobetuko zenuke ikuskizuna?
- Zer ez zenuke sekula aldatuko?
- Soka ez eteteko zer egin behar da?
- Falta al da, derrigorrez agertu beharko zukeen pertsonaiarik?

## GIDOIAK-GIDOIAK-GIDOIAK-GIDOIAK- GIDOIAK-GIDOIAK-GIDOIAK



Liburuaren beste pasarte batean adierazi dugu, zer-nola idazten dituen gidoiak Jon Aizpuruak.

Liburuaren atal honetan, Jentilen Etorrerako pasarte batzuk jaso ditugu. Ezinezkoa da urtez-urte antzeztu diren gidoi guztiak hitzez-hitz jasotzea eta testu esanguratsu batzuk aukeratu ditugu, Jentilen Etorrerak duen antzerki-izaera hori hobeto ulertu ezazuen.

Hori bai, urte batekoa, 2004ko Jentilen Etorrerako historia, oso-osorik jaso dugu, hasi eta bukatu, idatzi eta antzeztu zen modu berean.

Aipatu dugu, gidioia idazterakoan, oinarrian garai bateko kontu zaharrak daudela baina Jonek egokitu egiten ditu, historia berriak asmatzen ditu eta pertsonaia berriak sortu eta sartzen ditu.

Bi adibide jarri ditugu: bata, Azkeneko Jentilaren kontua eta bestea, Muskiko Tortoaren edo Torto begibakarraren historia. Lehendabizi, leienda berez nola den agertuko dugu eta ondoren, esaunda horren inguruan, Jonek Jentilen Etorrera ikuskizunerako idatzitakoa.

## A ZKENEKO JENTILA



Jentilen Etorreran behin baino gehiagotan antzestu dugun historia da Azkeneko Jentilarena.

Geure buruari sarritan egin izan diogu galdera hori: nolatan desagertu ote ziren Jentilak? Bertsio bat baino gehiago jaso zuen Joxemiel Barandiaranek baina guk Ataungo Leizadi mendian kokatzen den leienda antzestu izan dugu.

Bada beste bertsio bitxi bat: leienda horren arabera, Jentilen amaiera aurreneko elurtea egin zuenean gertatu omen zen, beti, hori bai, kristautasunaren eraginez. Elurra mara-mara bota omen zuen. Aspaldiko kontua da edozein moduz ere.

Gure inguruan hiru bertsio ditu jasoak Joxemielek: bata, Aralarko Argaintxabaletan bizi ziren Jentilei gertatua da. Hodei misteriotsua

ikusi omen zuten Ipar aldetik eta ikaratu egin omen ziren. Ihesean hasi eta Jentillarri esaten zaion trikuharriaren azpian sartu ziren. Han omen daude hilobiraturik betirako.

Bigarren bertsioa, Balankaleku mendian kokatua, Ataun, Idiazabal eta Altsasun arteko mugan. Bertsio honetan ere, laino bat agertu omen zen eta harrituta, 400 bat urte zituen agure bati galdetu omen zioten zer ote zen. Itsututa omen zegoen erabat eta palanka batzuen laguntzaz ireki omen zizkioten begiak.

Guk antzeztu izan dugun leienda Leizadi mendian kokatua dago, Ataunen bertan.

Joxemiel Barandiaranek honelaxe jaso zuen Joxe Mari Auzmendi-  
ren ahotik 1917an:

*“Jentillek Leizako kobaten bizi ziela, sekulako izar eder bat odaietan agertu ementzan. Alako izarra ikusi zoenen, jentill orik erabat ikatuta, mundun ze gertatu bear ote zon ezin asmauik ementzeiltzen.*

*Alakoetan, koba barrun erdi itxututa zeon jentil zar bat ataka aurrea ata, ta zaldu endaeikiñ betazalak, ta odaie-ta beida jarri ementzoen, ark izar ari zertzan antz eman-go ziola ta.*

*Baitta ikusi orduko deadar eiñ ementzon, ze: A ne umek! Kixmie jayo dek, galduk gaittuk oaintxe. Bota nazazuya ni emendi gain bera.”*

Jentillek Jesuskristori **Kixmie** deitze ementzioen, Kixmik berriz tximue esan nai emendo.

Beak esan bezela, mallok bera amilka bota ementzoen, t’ala jentill zarra ill ementzan.

Geo kristiandadea mundun zaltzen asi zanen, jentill danak sakabanau ta bela galdu ementzien.”

Hau da Joxemiel Barandiaranek , “El mundo en la mente popular vasca” izeneko bildumaren lehen zenbakian jaso zuen bertsioa.

Guk, urte batean baino gehiagotan antzestu izan dugu leienda hau eta gidoi horietako bat aukeratu dugu. Ondorengo hau duzue 2005ean antzestua.



---

## KIXMI

### JENTILLEN AKABEREA (2005)

#### TXALAPARTA.

#### MUSIKA.

**KONTALARIA:** *“Sorginak eta Maruak lagun egin ziren baina bartu-emanak okertzen ari ziren kristauen eta Jentilen artean. Maruak ikaragarritzkoak egiten ari ziren mendietan eta sorginak berriz, hor zebiltzen gauero, oilarrak jo arteko libertadean.*

*Baño bazen zalantza bat: beteko al zen Apaizak Jentilei bota zien zorigaitzezko madarikazioa ??? Erabat eta betirako desagertuko al ziren jentilak?*

#### MUSIKA.

**KONTALARIA:** *“Jentilek dantza egiteko obitura zuten. Ilargi beteko gauak nahi izaten zituzten horretarako eta orduan, norberak bere errainuarekin, itzalarekin egiten zuen dantza gau osoan, dantza eta dantza eguna argitu arte.*

*Gau baten, oso gau zoragarri baten, dantzak eta bestelako gauzak ere gertatu ziren....”*

## **MUSIKA.**

**KOBA BATEN AURREAN GAUDE. TRIKUHARRIA ONDOAN. JENTIL GIZON EMAKUMEAK DANTZAN EDO FESTA GIROAN...**

**AMAITUTAKOAN ISILTASUNA. GAU BETE-BETEA. KIRKILHOTSA. JUXTUAN IKUSTEN DIRA KOBA-ONDOAN DABILTZAN PERTSONA-ERRAINUAK. JENTILAK DIRA. KOBA-ONDOAN DAUDEN LAU ZUZI EDO LASTARGI PIZTEN DITUZTE.**

**MIKELATS, AMAIA EMAZTEA, ATARRABI eta TORTO.**

**TORTO:** *“Au dek gau-giroa au...Odei bakar bate etzeok...Inun dien izar guztik ortxe zarek zerutio zintzilik...Ortzi jainkoa eztek asarre izingo...”*

**MIKELATS:** *Ortzi jainkoa beti pozik zeok Torto, oskarbi izan ala ez...*

**TORTO:** *Gaue gauezkontzat eta eune eunezkontzat esaten diare Mikelats baño, ni bitakoa izango neok...Eunez pozik ta gaueze bai...Oaintxe naiko nitek eune argittuko ezpalo !!!*

**MIKELATS:** *“Ao ixillik Torto...Entzun ondo ! Ez al aiz jabetzen, Euzkik ezpaek, Ilargiike eztala?”*

**TORTO:** *“Egie...Oixe txarra...Ilargik ezpaek noiz eta nola ein bear diau dantza?”*

**MIKELATS:** *“Dantza? Dantzako gogoik eztiat nik...”*

**ATARRABI:** *“Zer dek ba Mikelats? Ez alau ondo?”*

**(AMAIA hurreratu laguntzera).**

**MIKELATS:** *“Etzekiat ze aidan gertatzen baño txantxangorrik eztiat aspaldi ikusi, artzike ez, ezti-errekak agortuittuk... Ai, Euzki ta Illargi Jainkoke asarre zarek guukiñ ta ni indarripe ai neok geatzen...”*

**(Erdi-balantzaka harri gain batean eseri).**

**TORTO:** *“Lasai Mikelats. Lareoko osiñeko ure ekarriko diat...Arek indartuko au...*

**MIKELATS:** *“Eonai isillik Ortzin izenen...Ez Lareoko urek, ez Intsutikok, ez Erremediokok etzeuke bear aiñeko indarrik. Ixo, ixo !!! Ez al dek entzuten? Zerue garbi-garbi zeok eta trumoika ai dik... Ez al dek entzuten? Trumoika eta tximistaka !!!*

**MEGAFONIA-ARGIAK: Trumoiak eta tximistak.**

**TORTO: (Harrituta).** *Egie dek...Apaizan madarikazioa izango dek !!!...Baño elurre, elurre eingo zola esantzian !*

**MASUST agertzen da zalapartan, erabat ikaratuta).**

**MASUST:** *Aitte, ama, Torto, Atarrabi, izarrak, izarrak zerutio erortzen ai die...Zuri-zuri...*

**DENEK:** *Eeeeeeeeeeee !!!*

**MIKELATS:** *Mutillek, neskak, auxe dek elurre ! Auxe dek ainbestetan entzun eta guk ezautu deun leen elurre !!!*

**TORTO:** *Otxomazue koba barrura ! Otxomazue !!!*

**MIKELATS:** *Ez...Euzkie etorrikoek eta euzki-printzek mendeauko die elurre...*

**ELURRA MARA-MARA MATAZA MARDULEZ.**

**MEGAFONIA: Apaizaren hitzak:** *“Ai gizajok eta gaixok !! Buru, belarri eta adar murgilduko zeate zulo beltzen eternidade osoako...Elurre zuri-zuri eingo dik, bai, zuri-zuri, baño zuek erabat belztuko zeate inpernuko ikatzetan !!!”*

**MEGAFONIA: Haize-hotsa.**

**(ALARABI AGERTZEN DA ZALAPARTAN).**

**ALARABI:** *“Ikusi al dezue, ikuste altzue?”*

**TORTO:** *“Ze ikusi? Ze arraio?”*

**ATARRABI:** *“Ik ze ikusikoek begi bakarrakiñ?”*

**ALARABI:** *“Argi oi !!! Ikustealtzue ze indar dauken?”*

**TORTO:** *“Nundio sortuek oi? Gureana datorrela emateik... Mikelats, zer dek argi oi?”*

**MIKELATS:** *“Etzekiat... Eztiat sekula olako izar earrrik ikusi.... Eztaiu gauzonik!!!”*

**TORTO:** *“Ze esatek gizona !!! Zoragarrie dek !!!”*

**MIKELATS:** *“Zoragarrie baño beldurgarrie... Illargik deseingo al dik beintzet argi oi...? Bea dek Gaue eindona...”*

**ATARRABI:** *“Baño nun da Illargie? Etzeok arrastoik...”*

**MIKELATS:** *“Norbaittek jakittekotan Jentil Zaarrak jakingo dik... Ekarrri zazue ununtza!!!”*

**TORTO:** *“Ni ez baño, ue bai daula itsututa... Lareun urte zeuzkek ta eun urte baittuk begik zaaldu eztittula...”*

**MIKELATS:** *“Ekarrizazue ununtza!!!”*

**(HIRU JENTILAK JENTIL ZAHARRAREN BILA KOBABARRURA. MIKELATS BERE ANDREAREKIN).**

**MIKELATS:** *“Sugaarran lana izangoen argi oi!!! Bai earra dala baño era beren bai beldurgarrie!!! Jentil Zarrak ikusiko al din beintzet...!!!”*

**(JENTIL-ZAHARRA DAKARTE HIRU JENTILEK BESOTAN HARTUTA. KOBAN AURRERA SARTU ETA ATZERAKA IRTEN).**

**TORTO:** *“Au lo zeok Mikelats arri kozkorra bezala...!!!”*

**MIKELATS:** *“Esnauzazue !!!”*

**TORTO:** *“Jentil zarraaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaa!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!”*

**(SALTO EGITEN DU JENTIL-ZAHARRAK).**

**JENTIL ZAHARRA:** *“Eee...Ze ots izan da oi??”*

**TORTO:** *“Turmoia izan da , lasai gizona...”*

**MIKELATS:** *“Jartzazue emen !!! (Harri-gainean jarri Jentil Zaharra.) Jentill Zahar, zerun gauez , Illargi-amandrea eztan argi aundiik ikusi al dezu sekula?”*

**JENTIL ZAHARRA:** *“Argi aundie???”*

**MIKELATS:** *“Argi aundie bai !!! Illargie baño aundigoa!!!”*

**(Beste jentilei aginduz).**

*Artu balankak eta iriki  
begiik Jentill zaarrai !!!*

**(BEGIAK IREKI BALANKA BIDEZ).**

**MIKELATS:** *“Oaiñ ikuste altzu? Ikusi altzu inoiz olakoik???”*

**JENTIL ZAHARRA:** *“Aaaaa, nee umek!!! Kixmie jaio dek!!!  
Galduuk gaittuk oaintxe !!!”*

**TORTO:** *“Kixmi? Ze Kixmi ta ze Kixmiondo??”*

**JENTIL ZAHARRA:** *“Kixmi bai. Gue arrazea erabat galduko dona.  
Galduuk gaittuk. Bota nazazuia mendiñ gaiñ beera...!!!!”*

**MIKELATS:** *“Baño baño... Zein da KIXMI oi???”*

**JENTIL ZAHARRA:** *“Gue galtzaillea !!! Gu galduko gaittuna!”*

**TORTO:** *“Akabo ikatz koloreko ne zaldi beltza eta esne koloreko ne  
zaldi zurie..Eztiat illargi-erraiñuik geio ikusiko...”*

**JENTIL ZAHARRA:** *“Bota nazazue mendiin beera!!!”*

**HIRU JENTILAK:** *“Botazaun !!!!.Botazaun mendiin beera!!!”*

(OIHU ARTEAN, HAN BOTATZEN DUTE JENTIL-ZAHARRA.  
GAINERAKO JENTILAK NORAEZEAN).

MEGAFONIA BIDEZ: Oihu-garraisi lazkarri hezurretarainokoa.

(APAIZA, ALKATEA ETA SAMARTIN TXIKI AGERTZEN DIRA).

**APAIZA:** *“Aaa.... Ze esatenizuen? Madarikazioa, erremate gaiztoa izango zenduela...Hor dauzkezue oaiñ, zeruk ta inpernuk...”*

**TORTO:** *“Bizi gaittuk oaindio eta biziko gaittuk gerore... Argi oi itzaltzen danen itzeingo diau ik eta nik eta millaka arrubiok eingo die kozk lepa-zintzurren...!!!”*

(JENTILAK AZTORATUTA BELDURREZ IHES EGIN NAHIAN.)

**APAIZA:** *“Alperrik aiaiz... Bukau dek zuen mundualdie... Zeruun erabakita daunai etzeok aurre eitteik!!!”*

**MIKELATS:** *“Eune argittukoik apaize jaune!!! Eune argittukoik!!”*

**TORTO:** *“Bai, ta urdun iri, sotanea bezain beltz jarriko zaik kopetea!!!”*

**APAIZA:** *“Ez Torto, ez Mikelats! Eunik eztik geio argittuko zuentzat...Ez oixe!!! Alde, alde, arri azpitan izkutatzea...”*

**MIKELATS:** *“Gue arbason odolak zuen zañetan seittukoik...Aaaaaa!!!!”*

KOBA BARRUAN SARTZEN DIRA JENTIL DENAK,

HARRI HANDI BATEZ SARRERA ITXIZ...

DANBATAKO HANDIA.

DENA LAINOZ ESTALTZEN.

**ABESBATZAK** *“Aio, aio, aio...”*

AMAIERA.

## Muskiko TORTOAREN historia



Historia ezaguna da ataundarron artean. Hemen jaso dugun bertsoia, Joxemigel Barandiaranek berak kontatua da. Behin galdetu genion, ea zein zuen esaunda edo leindarik gogokoena. Erantzuna bere ahotsean jasota gordetzen dugu. Honelaxe kontatu zigun Ataun San Gregorioko Muski mendian bizi zen Tortoaren leienda:

*“Muskiko harpean bizi omen zen. Garai batean handiagoa omen zen harpea baina tximistak jo eta gaineko mailoak bota zituen eta ordutik txikiagoa da zulo-babesa. Han bizi zen Tortoa. (Tartalo). (Zegaman ba da Tartalo-etxea). Iratxo edo irelu bat omen zen Muskiko harpean bizi zena. Ardiak zituen. Giza-itxurakoa omen zen baina begi bat bakarra zuen bekoki gainean. Halako batean erauntsi handia hasi omen zuen eta Ataungo gazte bat hantxe gorde, aterbe*

*bila. Gizarajoa!!! Barruan sartu omen zen eta Tortok harri handi batekin itxi zuen sarrera. Orduan hala esan omen zion mutil horri: biharko janari hi izango haiz!!!*

*Burruntzian haragi-puska bat hartu eta hura jan ondoren, lo jarri omen zen Tortoa. Bularra gora eta behera, berehalaxe hasi zen zurrunka aboz-gora, begia gora itxita.*

*Mutil gizarajoa, beldurrez akabatzen zegoen: ai, bihar jango natxok ba ni horrek ! Orain jan duen haragi puska hori bezalaxe jango natxiak ni ere.*

*Orduan mutilak hartu du burruntzia, sutan guritu du eta zer egingo? Sartu dio begitik behera Tortori. Zirt-zart begia!!! Jaiki da Torto baina ezer ikusten ez!!! Eta han hasten da, burruntzia begiaren barruan duela, garrasika, mutilaren bila. Ardi artean izkutatu omen zen mutila eta inondik ere ezin zuen bilatu. Hurrengo egunean harrapatuko zuela! Horrela iritsi da eguna eta kendu du Tortok sarrerako harri handia eta bertan bankak zabaldua jarri da, ardiak bankapetik pasa zitezten berak antzemateko moduan. Ardi bakoitzari bere izenez deitu eta banan-banan joaten omen zitzaizkion. Mutilak, han zegoen ardi-larru bat jantzi omen zuen eta Tortok ardi baten izena esan zuenean, ras!, pasa omen Tortoren bankapetik hura konturatu gabe. Ondoren pasa omen zen ardia eta orduan obartu Torto: Jontxo, hemen pasa dena mutila izango buen! Usanka hasi eta mutila iheska mendian goitik behera, goitik behera, Tortoa atzetik zuela. Ia heldu omen zion baina erreka bertan egon, Uerkain (Uarkain) izena duen tokian, erreka handia gainera. Sartu da mutil hori eta pasa igerika beste aldera. Tortoa ere bai baina Tortoak ez omen zekien igeri eta bertan itto. Horrekin joan zen dena. Oi ala bazan, sartu deilla kalabazan! Ja, ja, ja,...*”

---

## 1998ko Jentilen Etorreran

### TORTOren historia

#### **TXALAPARTA.**

**(KOBAN HANDI BAT, BERE ZULO ETA GUZTI. TORTO ETA ARDIAK BARRUAN. TORTO ZIZAILUAN ESERITA OKELA JAN ETA JAN.LAPIKO HANDIAK DITU).**

**MEGAFONIAZ** (Hortxe dago Torto, Torto begi-bakarra, Jentillen buru izan nahi du baina badu besteek ez duten bizimodu izkutua. Mendiko kobazulo batean izkutaturik, kobara hurbiltzen diren gizakiak jaten ditu.

**MUSIKAZ LAGUNDURIK, JOXEMIEL BARANDIARANEN AHOTSEAN TORTOREN HISTORIAREN HASIERA...**

**GERO LAGUNDU BESTE AHOTS BATEK HISTORIA KOKATZEN.**

Ataungo Muskiko koban gaude. Trumoi eta tximist ari du kanpoan. Mendian dabilen mutil gazte bat sartu da kobazuloan, aterbe eta babes bila. Torto bizi da bertan. Norbait datorrela ohartu da Torto eta erdi-izkutuan jarri da koba barrura nor sartuko zain. Mutila sartu da eta berehala, kobaren sarrera itxi du Tortok harri handi batez).

**TORTO:** “JA,JA,JA,... MUSKIKO KOBAZULON SARTU AIZ!!! BIARKO JANARI AIZ,...GAZTEA EMATEK ETA ASKO ERREBE JANGO AUT... NUNGOA AIZ GIZAJO ORRI??? EZ AL DAKIK MUSKIKO KOBAN BIZI DALA TORTO ,LEENBIZIKO ARTZAIE ETA BETI GOSE DAUNA? JA,JA,JA,... NUNGOA AIZ GIZAJO ORRI?”

**MUTILA:** “ATXURRENEKOA... ATXURRENEKOA... AITTE TA AMA ZARRAK DITTUT OSO ETA NEONI NAU ETXEAKO... UTZIAZU ETXEA JUTEN TORTO...”

**TORTO:** “EZ, EZ, EZ,.. BEIÑ KOBAZULO ONTA SARTZEANAK BAZEKIK ZER DAUKEN... ETXEA JUTEN UZTE BAIAT,IZUGARRI EZ BAÑO PARREGARRI IZANGO NAUK EMENDIO AURREA... JA, JA, JA,... EZ... BIAR JANGO AUT BURRUNTZIÑ SARTU TA ONDO ERRETA...”

**MUTILA:** “EZ EIÑ OLAKOIK TORTO... ETXEN DAUZKEUN ARDI GUZTIK ZUTZAT IZANGO DIE...”

**TORTO:** “EZ, EZ,... ZENBAT ARDI DAUZKEZUE BA?”

**MUTILA:** “ESANGOIZUT... BAT EMATEN BADIAZU ZUK DAUZKEZUNAK AIÑE IZANGO DITTU GUK TA NIK ZURI BAT EMANDA BEIZ,GUK BAÑO BI ALDIZ GEIAU IZANGO DITUZU?”

**TORTO:** “E? MUTILL AZKARRA EMATEK... BAÑO NIRE AZKARRA NEOK... BOST ARDI DAUZKEK URDUN...???”

**MUTILA:** “BAI, BAI... BA BOSTAK ZUTZAT IZANGO DIE TORTO, ETXEA JUTEN UZTEN BADIAZU...”

**TORTO:** ETXEA JUTEN UTZI... EZ, EZ,... I AIZ NE BIARKO JANARIE ETA GEO ARDI GEIO BEAR BAZTIAT JUNGO NAUK ZUEN ETXE ONDOA... JA, JA, JA,...OAIÑ LO EIN BEAR DIAT, BIARRE EUNE ZAALDUKOIK TA... GAÑEA BAZPARE EAZTUNE JARRIKOLIAT ESKUKO BEAZTEN ALDEITTEA BURUATZEN BAZAK E...

(TORTOK ERAZTUN IKARAGARRI HANDIA JARTZEN DIO MUTILARI. “HEMEN NAGO, HEMEN NAGO” ESATEN DUENA.

ONDOREN LO JARTZEN DA TORTO. MUTILA URDURI ZER EGIN EZ DAKIELA).

**MEGAFONIAZ:** “Zer egingo du mutil gizarajoak?Ezin du kobazulotik ihes egin... Ezin du kobazulo sarreran dagoen harrizarra kendu.. Burruntzian sartuta jango du bihar Tortok... Zer egin? Zer egin? Zer egin bizirik jarraitzeko?”.

(MUTILA ALDE BATERA ETA BESTERA DABIL. BURRUNTZIA HARTZEN DU ESKUETAN. TORTO LO DAGO LUZE ETZANDA).

**MUTILA** (Burruntzia eskuan Tortorengana hurbiltzen da). “*BIZI EIÑ NAI DIAT... ENAUK IE JANARI IZANGO... AAAAAAAA!!!!!!!*”

(Burruntzia sartzen dio Tortori begi-bakarraren erdian).

**TORTO** (Garraisika ta itsu): “*AAAAAAA!!!!!!! ZE EIÑ DIAK? AAAAAAAA!!!!!!! EZTIAT IKUSTEN!!!! AAAAAA!!!!!!! ARRAPATUKO AUT... EZTIAT IKUSTEN BAÑO EZTEK ALDEINGO... BAZEKIAT OR AULA... JA TA BERTAN TXIKITUKO AUT.. NUN AU? NUN AU? ARRAPAUKO AUT TA BIZI-BIZIIK JANGO AUT...!!!*”

(MUTILA ISIL-ISILIK ARDIEN ONDOAN.

ERAZTUNAREN “HEMEN-HEMEN NAGO” GUTXIAGO ENTZUTEN DA, ARDI-NARRU TARTEAN. TORTO HURBILDU ARDI-ONDORA BAINA MUTILA HARRAPATZEN EZ).

**TORTO:** “*OAIÑ IKUSIKOEK!!! I TA NI BAKARRIK GEITTUKO GAITTUK KOBARRUN TA GAUR EZPA BIHAR NE ATZAPARREKIÑ ITTOKO AUT LOTSABAE ZIKIÑE!!!*”

(TORTOK KOBASARRERAKO HARRIA KENDU ETA HAN-KAK ZABAL-ZABALIK DITUELA ARDIEI BANAN-BANAN DEITZEN HASTEN DA KOBATIK KANPORA ATERA DAITEZEN. ZAZPI ARDI DIRA GUZTIRA).

**TORTO:** “*TXURI ETOI, ETOI, ... TXIMISTEK ETA TRUMOIAK PASA DITTUN...TXURI ETOI... (Txuri izeneko ardia hanka-tartetik kanpora Tortok eskuekin ukitzen duelarik).*”

**TORTO:** “*KUTTUN ETOI IRE...*”

(Horrela zazpi ardiak: Egoi, Sorgiñ, Beltx, Azti, eta azkena Balbe. Mutilak ardi-narrua jantzi du gainetik eta Tortok Balberi deitzen dionean bera doa ardi-itxuran).

**TORTO:** “*BALBE ETOI, ETOI, JAN GOXOA DAUKEN KANPON DA...*”

(Mutila ardi-narruz estalita Tortoren hanka-tartetik pasa da ziztu-bizian, “Hemen nago-hemen nago” juxtu-juxtuan entzuten dela... Geroxeago Balbe ardia. Orduan ohartzen da Torto ardi bat gehiago pasa dela. Eratzun-hotsaren atzetik hasten da mutila ia harrapatuan).

**TORTO:** “*BAÑO, BAÑO... LEEN BURRUNTZIE ETA OAIÑ ZIRIE SARTU DIAK... AAAAAA!!!!!!!!!! EZTEK ALDEIÑGO..... NUN AIZ??? ARRA-PAUKO AUT...*”

(ORDUAN BEHATZA MOZTEA ERABAKITZEN DU MUTILAK ETA HAN INGURUKO MEKOLALDE IZENENKO OSIN-PUTZU BATERA BOTATZEA).

**MUTILA:** “*ONDO ZEOK TORTO, ONDO ZEOK, ... IREA NAUK BEIZE... NAI DEANA EIÑ... JAN NAZAK AL DAN AZKARREN...*”

(ERAZTUNA PUTZURA. TORTO BERE ATZETIK GOITIK BEHERA).

**TORTO:** “*ARRAPAU AUT!!! EZTEK ALDEINGO... (Putzura erori). AAA!!! NUN NEOK??? AAA!!! ETZEKIAT IGERI!!! AAAAAA!!!!*”

**MUTILA:** “*BESTEIK EZON MEEZI... EZTEK GEIO IÑOR JANGO!!! TORTO HIL DA!!! TORTO HIL DA!!! TORTO HIL DA!!!*”

(ARGIAK ITZALI. MUSIKA GORA)





---

## 2004ko JENTILEN ETORRERA OSORIK

### UDALETXE-AURREKO ONGI-ETORRIA

**18:00. UDALETXE BARRUAN.** Herritarrak Jentilak hartzeko zain daude. Herriko ordezkari gorenen artean daude, **ALKATEA, IDAZKARIA, MEDIKUA, APAIZA, SAKRISTAU, MATEO TXISTU, AKOLI-TOAK** eta herriko beste agintari batzuk... Leku nabarmena du herritarren artean **SAMARTIN TXIKI** jakintsuak... Tartean da baita ere, herriko agindu eta erabakien berri eman ohi duen **PREGOILARIA**. Hauez gain, **HERRIKO TXISTULARIAK, TRIKITILARIAK** eta **DANTZARIAK DAUDE...**

Zaintzaile-lanetan **MIKELETE-ALGUAZILAK** ageri dira.

\* \* \* \* \*

### **KANPORA IRTEN.**

**MEGAFONIA: (Musikaz lagunduta)** *“Ataundarrok eta kanpotarrok... Arratsaldeon eta ongi-etorri Euskal Herriaren bihotzean, Aralar mendiaren magalean dagoen mundu bonetara...*

*Iritsi da eguna!!! Urte bat gehiagoz, mendiak utzi eta hemen datoz gure artera, MIKELATS jentila eta bere senide eta adiskideak... Hemen dira BASAJAUN, TORTO, ALARABI, ATARRABI eta bereziki ataundar odola duten ZIRPI-ZARBA, MAIZI eta UBEI jentilak...*

*Milaka urtetako usadio, obitura eta sinismenak hartuta datoz gugana...Naturaren maitale dira, lagunen lagun eta eguzkia ta ilar-gia dituzte zaintzaile...*

*Inguruan dituzte, bi munduren erdian bizi diren sorginak... MARIMUNDUKO da sorgin guztien buru... Gaua eta sua maite dituzte gauza guztien gainetik.*

*Hemen dira...! Hemen datoz...!*

*Eta hementxe dituzte zai, ALKATE jauna, APAIZ-ERRETORE jauna eta bauekin batera herri-ordezkarriak eta herritarrak.*

*Herritarrok !!!*

*JENTILEN ETORRERA, HASTERA DOA !!*

## **JENTILAK AGERTU.**

**PREGOILARIA:** (Atabalariak atabala lehenbizi. Gero pregoilariak tuturu jo.)

*“BANDO, BANDO, BANDO,  
ALKATEK ESANDO:  
EMEN DIELA JENTILLEK,  
BALDARRAK ETA ABILLEK,  
IZTUNEK ETA ISILLEK,  
TENTE JARRITA ILLEK...”*

**(Tuturu jo)**

*“BANDO, BANDO, BANDO,  
ALKATEK ESANDO:  
ENTZUTEKO ONDO:  
EZTOLA BEIZ ESANGO:  
LAPURREK DAILLTZELA ERRIÑ  
KALEN BEZELA MENDIÑ  
TA EZTAKILLA ZER EIÑ!!!*

**(Tuturu jo).**

**ALKATEA:** *“Erritarrok! Entzun dezue Bandoa... Egie da... Lapurrek dailltze eta aspaldiñ ezteu lo lasai eitten... Baño eon lasai... Oaiñ aurreagoko lanak bauzkeu... Jentillek emen die aurtene.. Emen datorre Mikelats eta orrek poza besteik eztiu ematen... Mikelats ongi etorri!!! Zemuz zeate?*

**MIKELATS:** *Ondo, ondo, ORTZIri eskerrak!!! Zueke ondo izango zeate ezta?*

**ALKATEA:** *Bai , bai, ondo gea Mikelats, lapur batzuk gorabera...!!! Emaiazu besarkadat Mikelats!!!*

**(BESARKADA ELKARRI ALKATEAK ETA MIKELATSEK).**

**ALKATEA:** *Ea dantzarie, ein dantza Mikelatsen omenez...*

**(AURRESKUA)**

**ALKATEA:** *Ondo dau... Mikelats erri guztie zue zai dau... Otxomazu...*

**MIKELATS:** *Otxomak...!!!*

\* \* \* \* \*

**SAMARTIN TXIKIK GALALEAK BOTA...**

**TXISTULARI ETA SOINUJOLE GIROAN ABIATU HERRIKO KALE NAGUSIAN GORA...**

## KIROLDEGIKO AURKEZPENA

**MEGAFONIAN MUSIKA, ikusleen entretenigarri...**

**JENTILEN SARRERA, txistulari eta soinu-jole giroan...**

## ARGIAK ITZALI.

### HASIERA. DANTZA EGIN BEHAR DUTEN UMEAK TRANPALDOAN.

**MEGAFONIA:** *“Bazen behin munduan, jentilak bizi ziren herri bat. Aralar mendiaren babesean, alai eta zoriontsu igarotzen zituzten egunak. Eguzkia eta Ilargia zituzten Jainko. Lurra maite zuten gauza guztien gainetik eta ekaitzei, trumoiei eta tximistei begiratu zuten ikasi zuten sua menderatzen. Lurraren barrua zuten bizileku eta esnezko eta eztizko errekek zituzten lur-azpiko mundu isilean. Otsoak eta ardiak elkarren lagun ziren garai hartan eta jentilak ere elkarren lagun ziren, bizitzaren gogorrari aurre egiteko. Milaka urtez iraun zuen mundu hark, belaunaldiz-belaunaldi, zaharragoek gazteagoei bidea erakutsiz, iturri zabarretik ur berria edanez...”*

## UMEEN DANTZA.

**ESZENARIOAN:** (Udaletxe ta Eliz-aurrean ageri dira.) MIKELATS, TORTO eta jentiltarrak. Ondoan ALKATEA, APAIZA, eta gainerako herritarrak. MIKELETE-ALGUAZILAK alboetara...)

**PREGOILARIA:** (Atabalariak atabala lehenbizi. Gero pregoilariak tuturua jo).

*“BANDO, BANDO, BANDO,  
ALKATEK ESANDO:  
EMEN DIELA JENTILLEK,  
BALDARRAK ETA ABILLEK,  
IZTUNEK ETA ISILLEK  
TENTE JARRITA ILLEK...”*  
(Tuturua jo)

“BANDO, BANDO, BANDO,  
 ALKATEK ESANDO:  
 ENTZUTEKO ONDO:  
 EZTOLA BEIZ ESANGO:  
 LAPURREK DAILLTZELA ERRIÑ  
 KALEN BEZELA MENDIÑ  
 TA EZTAKILLA ZER EGIÑ!!!  
 (Tuturua jo)

**ALKATEA:** *“Erritarrok Ongi-etorri danok: bide luzen etorri zeatenoi eskerrikasko biotzez... Bide motzagon, bertatio berta etorri zeatenoi beste oinbeste... Baakizue bideik motzena bide earrena dala...*

**APAIZA:** *Oso ondo esana Alkate Jaune, oso ondo esana... Bideik motzena bideik earrena...*

**ALKATEA:** *Oixe nai deu ba... Erria jexteko bidea, jentillentzate earra eta motza izatea... Ala izango altzan...!!!*

*Urteat geioz emen die Jentillek eta pozik gare gue arten dielako... Emen da danen buru Mikelats... Emaiazu besarkadat Mikelats...*

### (BESARKADA ALKATEAK eta MIKELATSek).

**MIKELATS:** *Zemuz Alkate Jaune? Ondo altzeate beeko zulo inguruotan...?*

**ALKATEA:** *Ondo gea bai, ondo gea... Baño oaiñe badeu ba...*

**APAIZA:** *Jainkoi eskerrak Alkate jaune, Jainkoi eskerrak...!!!*

**ALKATEA:** *Jainkoi eskerrak?*

**MIKELATS:** *Urtziri eskerrak alkate jaune Gure ondo gea bai, Urtziri eskerrak... Alare gauzat esan nai det oaiñ eta emen... Jentillok ezteu iñoiz gue arten lapurrik izan baño oaiñ lapurrek gue koba ingurutan dailtze...*

**TORTO:** *Ta asarre gare... Asarre! Odola irakitten ta gorputzeko illek tente...*

**APAIZA:** *Lasai Torto lasai... Amorruek etzekarrek gauza onik... Baa-kik, odolberok, txorakerik eitten zetuk.....*

**ALKATEA:** *Mikelats, lapurrek zuen ingurun...? Zerbait banekiñ, Samartin Txikik esanda... Entzun dezue bandoare.... Lapurrek daill-tze, kalen bezela mendiñ, eta eztakiu zer eiñ... Oi dala-ta, ezteu lo lasai eitten aspaldiñ... Begi bat ixteako zaaltzen deu bestea...*

**APAIZA:** *Begi-bakarrak zer ein bear do Torto?*

**TORTO:** *(Apaizarengana hurbildu eta mehatxuka.) Ze esan dezu? Egaka einai al dezu???*

**APAIZA:** *Lasai gizona lasai... Barrue lasai donak azkar ixteizkik begik ta arri kozkorra bezela eitten dik lo...*

**TORTO:** *Ta beste gauzat apaize jaune... Lapurrek bakarrik ez... Zue antza don bestat, bee sotana ta guzti or ikusi deu gue koba zulo ingurun, onuntza ta auntza...*

**APAIZA:** *Ai ene, ai ene... Aitaren, semearen eta Ispiritu Santuaren izenen amen... Baño, baño,... Mateo, Mateo...*

**TORTO:** *Ze Mateo ta ze Mateondoko... Emateo, emateo... Belatxinga bustie emateo...!!! Besteik ez...*

**APAIZA:** *..Ezautukozue, ezautukozue eunen baten...Enekiñ ain urrutia juten zanik...*

**(Zalaparta batean SAMARTIN TXIKI agertzen da.)**

**SAMARTIN TXIKI:** *Alkate jaune, alkate jaune...*

**ALKATEA:** *Baño baño, zer dek Samartin Txiki?? Zer arraio dek gizona???*

**SAMARTIN TXIKI:** *Ezteu gauzonik... Nee denboran amaika ikusitakoa naiz baño olakoik santa sekulan ez...!!!*

**APAIZA:** *Ze ikusiek ba... Gaueko ispirituk ikusi al dittuk...?*

**SAMARTIN TXIKI:** *Ez, ez... Sorgiñek...!!!*

**APAIZA:** Arritzekoa! Sorgiñek... Gauetz ibiltzeaiz Samartin Txiki eta gauetz ibiltzek beakin dik sorgiñe, aztie eta anima galtzea...!!!

**SAMARTIN TXIKI:** Ez, ez... Oaiñgoa arrigarrie izan da... Sorgiñ pillea batea eta bestea, dantzan ta garrasika, aker zuri-zuriat erdiñ zuela...

**APAIZA:** Aker zurie??? Bistereare jaitsi zaik earki... Aker beltza izango-on motell...

**SAMARTIN TXIKI:** Zurie, zurie apaize jaune. Sotana beltza daukezu baño zu bezain zurie... Baño oi bakarrik ez...

**ALKATEA:** Zer geio ikusiek Samartin Txiki...?

**SAMARTIN TXIKI:** Erbik, erbik txingurrik bezela... Erbik salto eta salto erotu bearren... Ta...

**TORTO:** Esazak beingoz eo bestela isilduai betiako...!!! Esazak , mingañea lotzea nai ezpaek....

**SAMARTIN TXIKI:** Eztala seiñale ona Torto... Zerbait aundie gertaukoala... Oixe esatea etorri naiz...

**APAIZA:** Gu bildurtzea etorri alaiz? Madarikazioa sartu zaik barruraino gizaño orri..

**ALKATEA:** Ixo apaiz jaune... Ixo... Zeen zai gare ...? Sorgiñek, erbik, apaizen laun oi erbin atzetio,... Goazen, goazen... Jakinai det gue errin ze aidan gertatzen!!!

**ARGIAK ITZALDU.**

**MUSIKA.**

**KOPLAK**

## ■ MATEO TXISTU ■

**KONTALARIA:** *“Zer ari da gertatzen? Zer ikusi du Samartin Txikik? Beldurtzekoa ote da? Sorgiñak ez al dira beti gaueko orduetan ibilli? Eta akerra zuria izateak zerbait esan nahi al du? Galdera asko daude erantzunik gabe...Galdera asko. Zergatik hainbeste erbi? Ta zertan dabil Mateo izeneko apaiza batera eta bestera gelditu gabe...??? Laster jakingo ditugu erantzun batzuk...”*

**MEGAFONIA:** *(HAIZE-HOTSA eta ABISTUAK,...)*

**ZALAPARTAN AGERTZEN DIRA APAIZA eta MATEO TXISTU.**

**MATEO TXISTU** bere zakur eta eskopeta ta guzti... Zelatan alde guztietara begira erbiren bat non ikusiko. **BI TIRO SARTU ORDUKO!!!**

**MATEO TXISTU:** *Ementxe ikusittut...Nun dau aker zurie...?*

**APAIZA:** *Zare geldik eta zare ixillik Jainkon izenen... Zare ixillik Mateo... Ez esan gezurrik...!*

**MATEO TXISTU:** *Eztala gezurre... Neonen begiz ikusiet aker zuri-zurie, elurre bañore zurigoa... Ta aker zurie dailen lekun baaki beorrek, erbiere ingurumarin izatea...*

**APAIZA:** *Mateo, Mateo,... Gezurrek anka motzak dittu ta alare, erbie baño bizkorrago ibiltzen da batea eta bestea... Kontuz geo...*

**MATEO TXISTU:** *Egie da ordea... Egie... Ementxe nunbait bear due... (BI TIRO).*

**APAIZA:** *Gizona, etzazu buruik galdu,... Esiaizu Mateo: ur beinkatue bakarrik eaten altzu...?*

**MATEO:** *Besteik ez... Eunen bi-iru pitxarkada...*

**APAIZA:** *Eztakit ba, eztakit... Zu etzailtze ur-beinkatue bakarrik eanda... Astindu burue pentsamendu txarrak uxatzeko, utzizazu eskopeta oi ta goazen mezea ematea...*

**MATEO TXISTU:** *Itxoin pixkat, itxoin... (Beste TIRO bat) Beelaxe noa... (Ehizerako asmoa agertzen du...)*

**APAIZA:** *Ezetz ba... Apaize zea Mateo, apaize... Ez aztu: zerbitzari batek ezin do izan bi nagusiñ morroi... ...Txapelatekiñ eztau bi buru estaltzeik Mateo... Jainkoa ala eize...*

**MATEO TXISTU:** *Jainkoa ala eize? Jainkoa ikustet eizen ... Ai, goorra da orratio nei gertatzen zaiana: eza eta eziñe; ta oi goorra da: arrie baiño goorragoa...!!!*

**APAIZA:** *Goazen Mateo, goazen... Erbik izango die gerore...*

**MATEO TXISTU:** *Diooossss! Aldein dit!!!*

#### MUSIKA. (MEZA girokoa...) (MISERERE kantua).

**KONTALARIA:** *Mateo Txistu, Mateo Txistu zebilen Ataungo mendietan... Apaiza zen baino ehiza ere ikaragarri maite zuen... Apez bezala bazituen eginbeharrak, betebharrak, baina denbora-pasa ibiltzea ere gogoko zuen eta meza emateko goata, gogo handirik ez zuen izaten. Halako baten hala ere, beti bere ondoan izaten zuen zakurra elizako sarreran utzi eta Meza ematen hasi zen...*

(MEZA GIROKO MUSIKA. SAKRISTAUAK KANDELAK PIZTU ALDAREAN. APAIZA ta MATEO TXISTU MEZA EMATEN. LAUZPABOST HERRITAR. ZAKURRA ZAUNKA.... GERO ETA ZAUNKA GEHIAGO....

MEZA-ERDIAN, ARDOA ETA OGIA AURKEZTEAN, TXILINA JO SAKRISTAUAK)

**APAIZA:** *Bedeinkatua Zu Jauna, zeru-lurren egilea...*

**MATEO TXISTU:** *(Alde guztietara begira...) Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti!!!*

MATEO TXISTUK ezin du gehiago. Zakurraren zaunka gero eta ozenagoa da...Eliza inguruan ibil daitezkeen erbiak ditu gogan...)

**APAIZA:** (SAGARATZE-KONTSAGRAZIOari ekiten diote...)

*Senideok, egin dezagun otoitz  
guztiok batera,  
Eliza osoaren oparia Jainkoari eskaintzerakoan...*

**HERRITARRAK:** Jainkoa goresteko eta gizona salbatzeko.

(ZAKURRAK ZAUNKA et ZAUNKA...)

**MATEO TXISTU:** Jainko nerea...!!! Barkauko al diazu? Ezin det geio, ezin det geio ! Banoa...

(MATEO TXISTUK OSPA ZALAPARTAN MEZA UTZI ETA ESKOPE-TA HARTUTA. APAIZA bere atzetik harrituta...)

**APAIZA:** Ai gizajo orri!!! Mateo Txistu, Mateo Txistu, ... Eternitate guztiñ ibilli bearkoek auntza ta ununtza, gora ta beera, atsedeniye zakurre ondon deala... Mundue mundue dan arten erbiñ atzetio ibilli bearkoek gizajo orrek... Ai, Mateo Txistu, Mateo Txistu...

**ARGIA ITZALDU.**

**KONTALARIA:** Horrelaxe hasi zen Mateo Txisturen historia...Ebizearekin liluratuta, itsututa, ...Harrezkero, jendeak behin baino gehiagotan ikusi omen du bere errainua, bere itzala, ilargi beteko gauetan ilargiaren argitan...Eta bere zakurra ondoan izaten omen du beti...Haize baundia dagoen gauetan berriz, (HAIZE HOTSA...) askotan entzuten omen da bere abistu edo txistu-botsa...

**MEGAFONIA:** (HAIZE-HOTSA ETA ABISTUAK..)

**ARGIAK ITZALDU.**

## SORGIN LAPURRAREN IPUINA ■

### MUSIKA.

**KONTALARIA:** *“Munduan beste asko bezala, Ataungo mendietan bizi omen zen Jentil bat bere hiru semerekin... Sagasti haundi bat omen zeukaten kobaren inguruan... Nabikoa sagar izaten omen zuten. Sagar-ale borobil-borobilak eta ederrak... Halase hazi omen ziren hiru semeak, zein baino zein ederrago eta bikainago... Dena ez zen ordea zoriona! Ez zuten nabigabea oso urruti... Gauero-gauero, norbaitek, sagarrak lapurtzen zizkien, familiak jateko behar zuena kenduz...*

*Hala ezin zutela jarraitu eta gauez sagastia zaintzea erabaki zuten...”*

### MUSIKA.

**ARGIAK PIZTU.** (KOB-AURREA eta ondoan SAGASTIA, arboletan SAGAR-ALE EDERRAK. Ondoan PARETA-HORMA).

**KOB-AURREAN KONTU-KONTARI JENTIL-AITA eta HIRU SEMEAK: ZIRPI-ZARBA, UBEI eta MAIZI.**

\* \* \* \* \*

**JENTIL-AITTE:** *Semek, aittu nee esana! Sagarrrik onenak eamaten zetue gauero ta baakizue: kozk eta kozk, gaztaiare bukau eitten dek ta gue sagarrake bukatzen ai dittuk... Beaz, aittu ondo, Zirpi-Zarba! Iriki belarrik Ubei! Entzun serio-demonio Maiz! Etzekiat zein barribas eo kristau narrats daillen guri sagarrak lapurtzen baño eozin dalare, arrapau ein bear diau...!*

**ZIRPI-ZARBA:** *Eon lasai aitte... Gue etxeko saskin eskue sartzen lanik ezto geio izango... Nik arrapatze baet lepaezurre autsikoiot...*

**JENTIL-AITTE:** *Ai Zirpi-Zarba, Zirpi-Zarba... Buruz, buruz jokau bear diau... Saskiaiño etorrikoala uste al dek? Ai gizajoa... Bee zai eon bear diau, bee zai noiz etorriko...*

**UBEI:** *Nik baakit noiz etortzen dien eo etortzean... Gauetz etortzea, gu lo garenen...*

**JENTIL-AITTE:** *Gauetz koanto! Noiz etortzea naidek ba, e Ubei...? Gauetz bizi dana gauetz ibiltzek auntza ta ununtza... Ta eztiat uste Mateo Txistu izango danik...*

**MAIZI:** *Zeiñ da urdun aitte...?*

**JENTIL-AITTE:** *Ai semek, semek! Nik esandakoa eztezue gogon artzen! Zenbat aldiz esan oteizuet: gaueko oillarran orroa, ingurun izangoa sorgiñ arroa...!!!*

**ZIRPI-ZARBA:** *Egie... Askotan esan izan dezu oi... Sorgiñek die urdun lapurretan daiiltzenak...?*

**UBEI:** *Tximistek erreko al dittu!*

**MAIZI:** *Tripako minez leertuko al die!*

**JENTIL-AITTE:** *Etzekiat sorgiñek dien, saille dien, pillan daiiltzen eo bakarra dan, baño auxe ein bear diau... Zuetakoat eon bear dik gauetz saastie zaintzen... Itaie artu eta begiik itxibe eon beartzue... Ta gaur gauetio asi bear deu... Sagarrale earrak zerek ta ezтик etsiko etorribe... Zein geatuko zeate?*

**ZIRPI-ZARBA:** *Neoni aitte.. .Zaarrena naizen aldetio, neoni geittuko naiz saastiri kuntu artzen...*

**MAIZI:** *Ik lo artzek Zirpi-Zarba... Beti lo au, eun guztiñ lo... Zutike lo artzen dek...*

**ZIRPI-ZARBA:** *Ik ze oteakik Maizi.. .Lo ondo eitten dona aberatsa dala esateik aitte ta ike ikasi...*

**JENTIL-AITTE:** *Otxok itaie... Zaindu ondo e!!! Ta gu otxomazue lota...!!!*

**UBEI:** *Goazen bai, goazen...*

**MAIZI:** *Eon azti Zirpi-Zarba!!! Baakik: gaueko amabittan oillarran kukurrukue, orduntxe aker-saldatan sorgiñen eskue... Ja,ja,ja,....*

**ZIRPI-ZARBA** bakarrik gelditzen da sagastia zaintzen.

**KONTALARIA:** *“Hantxe gelditu zen Zirpi-Zarba jentila, anaietan Zabarra, sagastia zaintzen, sagastiari kontu hartzen... (Eserita jentila). Gaua luzea izan ordea eta goizaldera loak hartu zuen.. (Lo hartu). Lo sakona, lo lasaia,... Eta besteetan bezalaxe, lapurra etorri eta sagarrak ostu zituen jentilen sagastitik...”*

**(MUSIKAZ lagunduta: KAPUSAI BELTZEZ ESTALITA AGERTZEN DA SORGIN LAPURRA SAGASTI ONDOKO HORMAREN GAINETIK. SAGAR BATZUK HARTU ETA BADOA. ZIRPI-ZARBA ORDUANTXE ESNATZEN DA eta SAGARRAK FALTA DIRELA OHARTU ONDOREN BURUAN HAZKA EGINEZ ETXEAN SARTZEN DA).**

*Hurrengo gauean, anaia bigarrena, Ataungo leku berezi baten izena zuen UBEI, gelditu omen zen sagasti-zain... (UBEI semea ageri da sagastia zaintzera BELDURRAK JANDA).; Beldurra lagun, gau-berritan oso erne, begiak zabal-zabal eta belarririk adi-adi egon omen zen... Goizaldera ordea ...*

**(MUSIKAZ lagunduta: KAPUSAI BELTZEZ ESTALITA BERRIRO SORGIN LAPURRA).**

*UBEI beldurtu egin zen... Azkenean ezin izan zuen ezer egin sorgin lapurraren aurka.... Eta anaia zabarrenari bezalaxe, bari ere sagarrak ostu zizkion lapurrak...*

**(UBEIK ERE BUKAERAN IZUTUTA ALDE EGITEN DU ETA ETXERA SARTZEN DA).**

*Hirugarren gauean, anaia gazteena, Ataungo leku berezi baten izena zuen MAIZI semea gelditu zen sagastia zaintzen. Beste anaiek ez omen zuten MAIZI zaintzen jarri nabi, hortarako ez zela gai eta,... Berak ordea, baietz, uzteko, hark zainduko zuela ondo eta hari ez ziola inork sagarririk ostuko... Halaxe ba, ban geratu zen anaia gazteena sagastizain, eskuan igitaia zuela sagarrondo baten atzean izkutatuta...*

**(MUSIKAZ lagunduta: BERRIRO KAPUSAI BELTZEZ ESTALITA SORGIN LAPURRA HORMAREN GAINETIK...)**

*MAIZI jentil gazteak berebalaxe ikusi zuen lapurra eta igitaia hartu ta eginabal guztian jo zuen harriz bestaldetik agertu zen “buelo” beltz haundia... Lapurrak berebaldiko lasterrean egin zuen ibes...*

### **ARGIA ITZALDU.**

#### **MUSIKA**

### **ARGIA PIZTU.**

*Hurrengo eguna zabaldu edo argitu zuenean, Jentil-aitte eta hiru seme-ak sagastira joan omen ziren, ezeren arrastorik ba ote zegoen ikustera....*

**(JENTIL-AITA ETA HIRU ANAIK SAGASTIRA. BAZTERRAK MIATUZ.)**

**MAIZI:** *(Igitaia eskuan.) Ementxe, ementxe jonon... Ta ortio aurrea aldeintzon...*

**JENTIL-AITTE:** *Zeintzanik ezalioan itxuraik artu?*

**MAIZI:** *Esate eztizuet ba, kapusai beltz batekin erabat estalita zeon....Buelo andie artzentzon...*

**ZIRPI-ZARBA:** *Ara zer daun emen arri-baztarren!*

**(ZIRPI-ZARBAK ESKU BELTZ HAUNDI BAT aurkitzen du ta hura hartu eta erakutsi egiten die aita eta anaiei).**

**ZIRPI-ZARBA:** *Baño baño zer da au??? Zeiñen eskue da au?*

**MAIZI:** *Ikustealtzue? Ikustealtzue ze atzapar puskea...???*

**JENTIL-AITTE:** *Lasai semek... Beelaxe jakingo deu... Odol-tantok ikusteittuzue ezta??? Arrastoa seittuz galbideik ezteu... Ea noa gaamatzan arrastok...*

**UBEI:** *Otsomazue ba...!!!*

**(JENTIL-AITA ETA HIRU ANAIK ODOL ARRASTOAREN BIDEAN DOAZ...)**

### **(MUSIKA JARRI).**

**KONTALARIA:** *Eta horrela, odol-arrastoaren atzetik abiatu ziren joan eta joan, joan eta joan, eta halako batean harri-zabal haundi*

*baten ondoan odol-arrastorik gabe gelditu ziren. Harri haretxen azpian egongo zela lapurraren bizilekua eta harria altxatu egin behar zutela erabaki zuten...*

## **MUSIKA.**

**JENTIL-AITTE:** *Lasai semek... Eon lasai.. Amundako leizea dek au... Kontuz geo... Leize aundie, bukaeraik eztona... Eta aittu nee esana: gordelekue preso-leku gertau zeikek... Emen gorde dek eoziñ dalare baño ortxe geldittu dek baitare preso... Ta beste gauzat, arri au ezin diau guk altxau...*

**ZIRPI-ZARBA:** *Autse aizen kontra aitzea bezela da au...*

**UBEI:** *Baño lapurre emen sartu baldin bada, arrie altxauta sartuko zan ba... Harek altxau bao, guke altxauko deu...*

**JENTIL-AITTE:** *Zarete geldi... Launek beartzetuau ta bitakoat eo Samartin Txikik jakingoik nundik sartu eo bestela, Muskiko TORTOk bakarrik altxau zeikek arri hau...*

**UBEI:** *Samartin txiki ordea, Mateo Txistun billa daille... Tortoi esango diu...*

**MAIZI:** *Ni jungo naiz Muskia, TORTOana...*

**JENTIL-AITTE:** *Ondo esana Maizi... Artu zaldiik onena eta oa azkar Tortoana...*

**MAIZI:** *Oaintxe nijoa aitte... (MAIZI badoa, zaldia hartzera...)*

**JENTIL-AITTE:** *Ta zuek biok, eon emen... Ezteilla Amundako leizen inor sartu eta leizetio inor ata... Ondo eiñ esana...*

**ZIRPI-ZARBA eta UBEI:** *Zoatza lasai aitte... Ezta mundun izingo au beziñ ondo zaindutako zuloik...!!!*

**(JENTIL-AITTE badoa... ZIRPI-ZARBA eta UBEI gelditzen dira Amundako leizearen zaintzaile).**

**MEGAFONIA:** (Musika. Eta ondoren zaldi-irrintziak eta zaldi-oin-azkalen hotsa...MAIZI , Muskiko TORTOren bila doa...)

## **ARGIA ITZALDU.**

## **MUSIKA.**

## LEIZE ETA LUR-AZPIKO BIDEAK ■

**KONTALARIA:** *“Horrelaxe gauzak AGAMUNDA leizearen inguruan... Zer egingo dute azkenean? Torto begi-bakarrak lagunduko al die barria altxatzen? Sagarrak lapurtzen dituen barrapatuko al dute? Ba al dakite AMUNDako leize luze eta beltzaren barruan zer dagoen? Eta Samartin Txikik egin al dezake ezer?”*

**MEGAFONIA:** trumoi eta tximistak.

**ESZENARIOA. ELIZ AURREAN. APAIZA eta SAMARTIN TXIKI. GAUA.**

**APAIZA:** *Ai Samartin Txiki, Samartin Txiki... Ezai jun Jainkon ize-  
nen... Amundako leizea eztek parte onekoa... Aittu ondo e...?....*

(Eskuan daraman gurutzearekin Gurutze Santuaren seinalea egin).

*Ik jakin bearruke oi Samartin Txiki...*

**SAMARTIN TXIKI:** (Kandela bat piztuta eskuan). *Dana dakiñik ezta  
izaten erretore jaune...*

**APAIZA:** *Egie... Ondo diok, ondo diok...Baño i jakintsue aiz... Erri guz-  
tik esateik... Jentillek ondo ezkutun gordeta zeuzkien zazpi sekreturen  
jabe eiñaz, azkenekoa itaie... Iri eskerrak jakin diau itaien berri...*

**SAMARTIN TXIKI:** (Igitaiia eskuan duelarik...) *Ezta zaille izan...  
Garie ebaitzekon eskuk zartatzen zitzaizkian ta jentillek ze eitte ote  
zuen beida eon nintzen... Illberan daun illargiri beida eotezien eta  
illberan antza izateo itaiek...*

**APAIZA:** *Arrapazak isatsetio...!!! Oie badiau... Ilbeerai beida  
urdun...? To, Samartin txiki..Bizkorra aiz orratio... Oi eztek auntzen  
gauerdiko eztule...*

**SAMARTIN TXIKI:** *Eize eskua etorri ezkeo eziñ utziko diou ies eitten  
ala?...Baakizu ibilliz ibilliz eitten dala bidea...*

**APAIZA:** *Ankaz gora ibilliai nai baek baño aittu, Jainko Soberanoa... Amundako leizea inparnuko zuloa dek... Aaztu ein altzak ne ondon, eliz-giron ibillitakoa aizela? E, aaztu ein al tzaik Samartin Txiki?*

**SAMARTIN TXIKI:** *Zuke azkar aaztu zendun sakristau denborea... Nik e, gogokok bakarrik dittut gogon...*

**APAIZA:** *...Ba artzak au gogon.. Gauez garrasi aundik entzuteittuk Amundako Leizen. Ni i bezela, enituzkek bazpare jungo...*

**SAMARTIN TXIKI:** *Belatxingak gordetzen die an... Belatxingak karranka ta karranka aitzen die an...*

**APAIZA:** *Belatxingak...? Ue gizona, iñun dien inparnuko etsai eta deabruz beteta zeok... Jakingoek ba, Aizkorritio Alarra geittube daill-tzela inpernuko etsaiek gau ta eun, lur azpin daun biden ala? Ta bide oi ortxetio zijok, Amundako leizetio...*

**SAMARTIN TXIKI:** *Inpernuko etsaiek, inpernuko etsaiek... Inpernuko etsaiei bi kandelakiñ argi, erretore jaune... (Igitai utzi eta bigarren kandela piztu, beste kandelarekin...).*

**APAIZA:** *Daneako erantzune daukek ik... Ai gizajoa... Baño kontuz ibilli bi kandelak itzaldube... Seizak ola ta laster aiz lumautako oillarra bezela...*

**MEGAFONIA: TRUMOI eta TXIMIST soinua.**

**APAIZA:** *Eztiau gauzonik...!!!*

**MEGAFONIA: OILARRA kukurrukuka....**

**APAIZA:** *Gauerdie eta oilarra kantun... seiñale txarrak dittuk ok Samartin Txiki, seiñale txarrak... Zaaldu begik.... Ez al dek ikusten??? Nai deana eintzak...*

**SAMARTIN TXIKI:** *Ein lo lasai gizona... Eune argittuko do ta...*

**(APAIZAK MARTXA... SAMARTIN TXIKI bazterrak ikusmiratzen... TRUMOI eta TXIMIST SOINUA.... Tarteka MATEO TXISTUren ABISTUA...)**

(SORGINAK AGERTZEN DIRA BAPATEAN, MARIMUNDUKO BURU DUTELARIK. GARRASI ETA DANTZA, SAMARTIN TXIKI INGURATZEN DUTE. ESKUETAN SAGARRAK DITUZTE).

**SORGINAK:** “Sasi guztiñ gañetio, odei guztiñ azpitio...”

*“Ez geala baño bagaittun, Maripetraliñ ez beste guztik emen gaittun...”*

*“Ez geala , ba geala, amalau milla emen geala...”*

*“Por la se, zalpate, funte fa, funte fi, txiri-biri, ekatsu, ekatsu, amen...”*

(SAMARTIN TXIKI erabat ikaratuta...)

**MARIMUNDUKO:** *Ara, ara, zein daun emen...!!! Dana dakiña... Samartin Txiki... Dana dakiña... (Haserre oso). Jakingo zu urdun, nun daun gue sorgiñ laune... Sagar billa jun eta geio azaldu ezta-na...??? Jakingo zu ezta???*

**SAMARTIN TXIKI:** *Egie esan bear baizuet, eztakit Marimunduko... Enekiñ erriñ inor falta zanik... Launduko nizueke pozik asko baño ezin det...*

**MARIMUNDUKO:** *Goseik ba al daukezu Samartin Txiki..?*

**MARISORGIN:** *Sagar goxo-goxok dauzkeu...*

**MARIMUNDUKO:** *Eiñ kozk, ein kozk Samartin Txiki...*

**SAMARTIN TXIKI:** (Beldurrari aurre egin nahian). *Eztauket goseik Marimunduko...Oaintxe jan det gaztanbera intxaur eta eztiz...Earra zeon benetan...!!!*

**MARIMUNDUKO:** *Jantzazu pixkat gizona... Zu beti sekretu billa ibiltzen zea ta sagar oni kozk eitten badiozu, ezta zutzat geio sekretuik izango...*

**MARISORGIN:** *Ez kutuko sekretu guztiñ jabe izango zea...*

**MARIMUNDUKO:** (Zorrotz). *Jantzazu...!!!*

**SAMARTIN TXIKI:** *Eztet nai...!!!*

**MARISORGIN:** *Jan bearako zu ba...!!!*

**MARIMUNDUKO:** *Kendu kandelak, kendu kandelak...*

(SORGIN GUZTIEK INGURATU eta **buila batean, SAGARRA JAN-ERAZI EGITEN DIOTE SAMARTIN TXIKIRI**).

**SAMARTIN TXIKI:** (Lur jota). *Sugetzarrak zeate... Sugetzarrak... Gezurretan ai zeate...*

**MARIMUNDUKO:** *Gezurre ezta zaartzen Samartin Txiki eta gu ere ez...Ja, ja, ja,...*

**SORGIÑAK:** *Ai Samartin Txiki, ai Samartin Txiki  
beti aille ziriki-miriki,*

**MARIMUNDUKO:** *Baño obe oke, guk aiñe baeki...  
Ja, ja, ja,...erbi, erbi biurtuko aiz aurki...  
Ja, ja, ja,..*

(KE ARTEAN DESEGITEN DA SAMARTIN TXIKI eta SEI ERBI AGERTZEN DIRA BERE LEKUAN).

**MARIMUNDUKO:** (Eskuetan erbia hartuta). *Ara Samartin Txiki... Ezon sagarra janai baño oaiñ erbi politte biurtu aiz...*

**SORGINAK:** (Txandatur.)  
*Jaiotzetio gea sorgiñek,  
era guztita bikainek.  
Earrak dauzkeu ezpainenek,  
earragok anka-zaiñek.  
Aker-saldea eanda,  
juten die gue miñek...*

**IRRINTZIAK.**

**MUSIKA. SORGIN DANTZA-SORGIN DANTZA**

**ARGIA ITZALDU.**

**KOPLAK.**

## AMUNDAKO LEIZEAREN BARRUA ■

### MUSIKA.

**KONTALARIA:** *“Gauza asko ari dira gertatzen, gauza ilun asko Ataungo mendietan... Sagarrak lapurtzen ari dira beraz eta sagar horiek jan ezkeru, batzuk erbi biburtzen dira eta beste batzuk berriz, lehen baino ere sorginago...”*

*Bitartean, jentilak, Mikelats, Torto, Alarabi, Atarrabi eta gainerako jentilak mendi-goietan dabilta beheko zuloetara jaitsi gabe...”*

### ARGIA PIZTU.

**MUSIKA:** (KOBÁ-ZULO AURREAN, TRIKUHARRI BAT EGITEN, HARRIAK BEHAR BEZALA JARTZEN ARI DIRA JENTILAK. Tartean dira MIKELATS, TORTO, ALARABI, ATARRABI eta ume-gaztetxoak ere bai, jolasean. Lanak bukatutakoan, Jentil gaztetxoetako bati, harriak nola jaurti erakusten ari zaio TORTO...)

**JENTIL UMEA:** *Torto, Torto, beida zer daukean...!!!*

**TORTO:** *Ea eakutsi... Zaaldu eskue...!!!*

**JENTIL UMEA:** *Baño aldein̄ eingoit...*

**TORTO:** *Eon lasai,... Ea... (Jentil umearen eskua irekiz...) Amona mantalgorrie da au... Eon lasai, ezto aldeingo.. Beida... Jarri beatzan punttan eta gora ta beera ibillikoa...*

**JENTIL UMEA:** *Gora ta beera? Aldein̄ eingoit... Eta ez tet nai...!!!*

**TORTO:** *Lasai, lasai Eate... Aldeitte bao ezta seiñale txarra...*

**JENTIL UMEA:** *Zer ba Torto?*

**TORTO:** *Beida, ikusi ondo... Amona mantalgorrik aldeitten bao, egoaldi ona izango deu...*

**JENTIL UMEA:** *Eta aldeittien ezpao, ta ne eskun geitzen ba...?*

**TORTO:** *Urdun egoaldi txarra eingoo... Ea jaso beatza!!!*

**JENTIL-UMEA:** Ezto aldeñ...!!! Zure laune al da Torto?

**TORTO:** Bai, laun aundie... Ta zureare bai...

**JENTIL UMEA:** Baño zer gertau zaio... Ttiantto beltzak dauzke... Gai-soik al dau?

**TORTO:** Bai zea! Bee jantzie do oi... Garai baten gorri-gorrie zan baño erbiri marrubie zala iruittu ta marrubie zalakon jan eittezon ta orreatio dauzke oaiñ tanto beltz orik...

**JENTIL UMEA:** Ta oaiñ ezto erbik jaten...

**TORTO:** Ezta bate... Ta erbik geoz ta geio dare...

**JENTIL UMEA:** Torto, zuk Samartin Txiki baño geio dakizu...

**TORTO:** Ez, ez... Arek gauzaatzuk dazki eta nik bestatzuk... Beida, amona mantalgorriri itzeitten baiozu, pozik jartzea...

**JENTIL UMEA:** Ta zer esan bear diot...?

**TORTO:** (Amona mantalgorria behatz erakuslearen puntan jarrita).  
Mari gorri, gona gorri,  
biar euzki ala ebi?

(APAIZA agertzen da derrepentean).

**APAIZA:** Beste era bateare esatea oi...  
Amona mantal gorri  
zerun zer berri?  
zerun berri onak  
oaiñ ta beti...

**TORTO:** Baita beste era bateare...  
-Illargi amandrea  
ortziñ zer berri,  
ortziñ berri onak  
oaiñ eta beti...

**JENTIL-UMEA:** Danak ikasikoittut Torto... Eskerrik asko...!!!

**TORTO:** *Zaindu ondo amona mantalgorrie Eate...*

**JENTIL-UMEA:** *Beste au zutzako Torto...*

**TORTO:** *Kolkon ibillikoet... Oaiñ jun jolasea Eate...*

**(JENTIL-UMEA eta beste HAURRAK ERRETIRATU).**

**APAIZA:** *Aspaldi etorribe neon inguruota... A ze isiltasune daun emen Mikelats...!!!*

**MIKELATS:** *Isiltasune? Etzazu olakoik esan... Esazu eztakizula entzuten...*

**APAIZA:** *Eztakiala entzuten ...? Suge baten abistue entzun al det zure itzen azpitio Mikelats?*

**MIKELATS:** *Eztezu belarri txarra nai dezuneako... Zerta etorri zea gue inguruota..*

**APAIZA:** *Zuek etzeatela beeko zulota jexten ta zemuz ziñeten jakitea etorri naiz...*

**MIKELATS:** *Ba ez tie eun gozok gutzako... Laun aundie ill tzaiu....*

**TORTO:** *Trikubarri jentill zarra... Trikuarri illtzaiu... Txingurrik, azkonarrak, sugandillak eta muxarrak laun zittuna... Makilla auxe deu be ondasun bakarra...*

**MIKELATS:** *Azkarrak izan die baño ue bezelakoik... Ue gogon izateko jarrittu arriok...*

**APAIZA:** *Arri zarrok? Alper-alperrik Mikelats!!!*

**TORTO:** *Mingañe lotukoizut, ixilik ezpazare!!!*

**MIKELATS:** *Utziok, utziok Torto... Itzein dezala...*

**TORTO:** *Itzein dezala???*

**APAIZA:** *Mikelats zue launtza billa etorri naiz... Mateo txistu beize nee ondoa ekarri nai det... Zuek jakingo zue zer eiñ... Zatoz neekiñ beera Mikelats...*

**TORTO:** *Alperrik aizea erretore jaune... Zaldie eamangozu erreka baiño nai ezpao eztiozu urik eanazingo.... Mikelatseke ezto beera junai ta ezta jungo..*

**APAIZA:** *Torto, Mikelats eztek zaldie...*

**TORTO:** *Oi zuk esatezu...!!!*

**(ZALDI-HOTSA. IRRINTZIAK. MAIZI jentila agertzen da zalapartan...)**

**TORTO:** *Zeiñ arraio dator emen...?*

**MAIZI:** *Gabon danoi... Gabon Mikelats, Gabon Torto... Baita zurire apaiz jaune...*

**MIKELATS:** *Zer diau MAIZI... Zer dala ta ainbesteko zalapartea...!!!*

**MAIZI:** *Zuen bearren gare... TORTO, zue billa etorri naiz... Amundako leizea ezautzezu ezta?*

**TORTO:** *Neonen etxea bezelaxe... Muskiko kobazuloa bezelaxe...*

**MAIZI:** *Ba, gue koba aurretio sagarrak arrapau dittuna antxe barrun dau, Amundako leizen barrun....*

**TORTO:** *Antxe barrun daula?*

**MAIZI:** *Bai, bee arrastoa auntza dijo zuzenen... Bi anaiek, Zirpi-Zarba ta Ubei geldittu die zaintzen...*

**TORTO:** *Zeatio etzeate sartu barrua..?*

**MAIZI:** *Arrie ezin deu moittu... Eiñalak ein dittu baño alperrik...!!!*

**TORTO:** *Ekarri Trikuarriñ makillea...Goazen...!!!! Goazen danok... Artu zaldik ta goazen Mikelats...!!!*

**APAIZA:** *Urdun zuek baldin bazoazte nire bai... Alkatei eta gañeakoei esangoiet Amundako leizea juteko...*

**JENTIL-UMEA:** *TORTO, amona mantal-gorrie zaindu e??*

**TORTO:** *Eon lasai Eate... Eon lasai... Etorri nai al dek gukiñ?*

**JENTIL-UMEA:** *Bai...*

**TORTO:** *Etorri onea !!! (Bizkarrera jasotzen du).*

## ARGIAK ITZALDU.

### ZALDI-HOTS eta IRRINTZIAK....

#### MUSIKA.

\* \* \* \* \*

**KONTALARIA:** *“MAIZI jentilaren zaldi zuriak eta TORTO, MIKELATS eta gañerakoen kaballeriek azkar egin zituzten bideak, LEIZADI menditik AGAMUNDAko leizera... Bidean beste jentil batzuk ere inguratu zitzaizkien... APAIZA ere ban zuten nahi baino hurbilago eta ALKATE jauna ere bai, makila eskuan baina aginterik gabe... Nahi bakarra zuten: AMUNDAko leize barruan zegoena edo zeudenak harrapatzea...MATEO TXISTUren arazoak beste batean konpondu beharko zituen apaizak.*

*Azkenean , ban iritsi ziren AGAMUNDAko leizera...”*

\* \* \* \* \*

## ARGIAK PIZTU.

(AGAMUNDAko LEIZEAren aurrea... Sarrerako HARRI HANDIAREN ondoan ageri dira ZIRPI-ZARBA eta UBEI).

(IRRINTZI eta ZALDI-HOTSAK).

(TORTO, MAIZI, JENTIL-UMEA, APAIZA, ALKATEA eta abar, agertzen dira...)

**ZIRPI-ZARBA:** *Torto, Torto... Eskerrak etorri zeatena... Emen barrun dau gue sagarran lapurre...*

**TORTO:** *Eon lasai beelaxe jakingo deu zein dan... Ea kendu... (Makila albo batera utzi (JENTIL-UMEAK hartzen dio) eta HARRIA mugitu nahian hasten da. Ezin du).*

**ZIRPI-ZARBA:** *Eiñalak ein dittu guke baño ezin deu moittu... Ezta-kiu nola arraio sartu dan lapurre koba barrua...*

**TORTO:** Txingurri biurtukon emen sartu dana. Eo bestela erbi... Sorgi-  
ñek bazekie oi eitten... Ea, danon arten saiau bear diau arri au moi-  
tzen... Eldu danok...

(Saiatzen dira baina alperrik).

**ALKATEA:** Nik moittukoiat oi... Ea kendu... **(Saiatu baina ezin).**

**TORTO:** Ai Alkate jaune... Makillea baukezu baño aginpideik ez...  
Arrike eztizue kasoik eitten... Alare eon bear do beste moduat... Lur  
azpitio bide asko die onuntza baiño danak itxita dare....

**JENTIL-UMEA:** Torto, Torto, saiau zaiz Trikuarri jentillen makillekin...

**TORTO:** Arrazoi dek Eate... Ea ekarri... Jarri zuek danok emen ingurun...

(JENTIL GUZTIAK ERASORAKO PREST AIZKORA ETA MAKILAZ...)

(TORTO GARRASIKA. MAKILA PALANKA modura ERABILTZEN  
DU eta halako batean HARRIA KENTZEN DU...)

(MEGAFONIAN: ZARATA, MARRUAK adierazi... KOBARRUTIK  
KEA ateratzen da... KE artetik BEHI-GORRIAK, ERBIAK, SAGA-  
RRAK, SORGIN PILA BAT... SAMARTIN TXIKI ere bai...

ZALAPARTA AMAITZEAN...

**TORTO:** Samartin Txiki iere or alitzen...? ...Egurre bukauta akabo  
betiako sue... Emen dare erri ontako gaitz guztiñ errudunek...

**APAIZA:** (Aztoratuta). MATEO, MATEO falta da..

**TORTO:** Kobazulon eongoa... Ja, ja, ja, ...

(APAIZA koba barrura hurbiltzen da).

**APAIZA:** Ea nun daun gue Mateo... Mateooooo !!!!

(Zalapartan agertzen da MATEO TXISTU bere txakurrare-  
kin... Erbiak aurretik... TIROAK BOTAZ)

**APAIZA:** (Mateo Txisturen atzetik jendearen ingurura...) *MATEO, MATEO, gizajo orri... Etorri ai Jainkon izenen... Eternitate guztiñ ibilli bear koek auntza ta ununtza, gora eta beera, atsedeniye zakurre ondon deala..*

(Eszenarioaren erdian belaunikatuz).

**JENTIL-AITTE:** *Gue sagarran lapurre falta da emen... Besoiye daun norbait eon bear do or barrun...*

**MAIZI:** *Izkutun eongoa, barruko zulomaten izkutauta...*

**TORTO:** *Eon lasai... Ni sartuko nauk... Lepa-zintzurretio elduta atakoiat...*

**MARIMUNDUKO:** *Etzak olakoik eiñ Torto... Or etzeok iñor, eonai geldi...!!!*

**TORTO:** *Kendu, kendu ne aurretio... Oaintxe jakingo deu iñor badaun edo eztaun...!!!*

(TORTO leize barrura sartzen da...)

**MUSIKA.**

(Berehala ateratzen da **SORGIN LAPUR BESOBAKARRA** lepotik hartuta, **GARRASI** batean...)

**TORTO:** *Iñor etzeola...? Ara emen sorgiñ lapurre...!!!! Ezto iñork geio jentillen sagarrik arrapauko...!!! Aaaaaaaa !!!!! Akabo lapurrek betiako... Akabo lapurrek betiako...!!!*

**AKABERA.**





---

## 2003ko JENTILEN ETORRERA

### KIROLDEGIKO AURKEZPENA

**Aurkezpena kantuz egin zuten AKER eta ETSAI pertsonaiek.** Martin Barandiaran eta Fermin Aramendi aritu ziren eginkizun horretan, elkar zirikatuz.

**AKER:** *Ara Jentill kontuak  
Torto ta Mikelats,  
jende orren ondoan  
zenbat aize-belats.  
Batzuk aundiak dira,  
besteak beiz sakats,  
indarra sobre dute  
talentua exkax.*

**ETSAI:** *Aurten inpernu-sue  
izan deu lurrean,  
udan ibilli giñen  
erre bearrean.  
Eskerrak ne isatsak  
bere kaxkarrean,  
seitzen dula oaiñdik  
naiko indarrean...*

**AKER:** *Isats eta adarrez  
bioke antzeko,  
Akerra ta Etsaia  
ez gaude galtzeko.  
Gaur emen zer datorren  
ondo azaltzeko:  
sorgiñ usai geiegi  
suturrak zaltzeko.*

**ETSAI:** *Zer esatek gizona,  
burutik al ago?  
Sorgiñak bear dittuk  
ibiltzeko ondo.  
Bestela artuko dek  
konturatzeko lo,  
eta zer gertatu den  
ez galdetu gero.*

**AKER:** *Sorgiñak ta Jentillak  
a ze naaspilla !!!  
Samartin Txiki azti  
ibilli dadilla.  
Azkarra izango dek  
gaiñera abilla,  
baiña txiki xamarra  
neretzat mutilla.*

**ETSAI:** *Txiki eta aundian  
ez dago neurria,  
aundi makala ez al da  
txit parregarria?  
Txikia oso bixi  
dabilen erbia,  
gu beiz erdi-parekok  
au dek au arria !!!*

#### **AKER ETA ETSAI**

**txandatur:** *Tira isil gaitezen  
Etsai biotzeko,*

*Aker badek garaia  
pixkat berotzeko.*

*Alkatea zai zeok  
bandoa jotzeko,*

*ta prestatu guztiok  
ONDO PASATZEKO!!!*



---

## 2003-LAMIÑOSIÑE-SASTEIKO HISTORIA

### LAMIÑOSIÑE-SASTEI

#### MUSIKA.

**SASTEI BASERRIA:** Ataria, txaga luzeak etxe-paretaren kontra. Sukaldea ageri da, mahai, sugain, lapiko eta guzti. Bi kandela mahai inguruan piztuta... GEAXI etxeoandrea, INESA, GRAZIÑE eta BESOTAKO UMEA sukaldean. Inguruan soroa eta errekan, *“LAMIÑOSIÑE” putzua.*

**SASTEIKO MIEL** soroan lanean, **“zezen-gorri-idiak aurretik dituela arrear”**.

#### MUSIKA.

**KONTALARIA:** *“Mundun beste asko bezela, bein bateen Sasteiko gizona ementzeillen idikiñ arran be soron...”*

*Alakoaten idi oriik aldeiten omen dioia errekan zeon “Lamiñosiñe” izeneko putzua, ben arrea atzetio doela. Urdun izantzien an komeriik ...*

**MIEL:** *Sooooo !!! Geldi zuri, geldi gorri... Noa zoazte? Noa zoazte? Geldi esan diat...!!!*

**KONTALARIA:** *Ala, ibilliñ ibilliñ, idik lamiñosiñen sartu zien ta osiñ ortatio, sorgiñ bat ata zon, buruko illetatio arra-ortzetan katrapilauta....*

(SORGIÑA agertu ile luzeak arrear trabatuta, orrazi dotore bat eskuan).

**MIEL:** *Baño baño zer da au? Nundio azalduaiz neska??*

**GERRI-EDER:** *Emen bizi naiz ni.... Ur gutxi daama errekek ta putzue agortu eiñda...*

**MIEL:** *Ea etorri... Laundukoiñat ille orik askatzen...*

**GERRI-EDER:** *Eskerrik asko...*

**MIEL:** *Ze izen den, atrebentzi aundie ezpa...???*

**GERRI-EDER:** *Gerrieder esaten diarea...*

**MIEL:** *Gerrieder, mantenu emangoiñat ta nee etxea eamangoaut... Ortxe bizi naun....*

**KONTALARIA:** *“Ala, sorgiñ oi jun ementzan Sasteia gizonak esan bezela... Baño bate ez omentzon itzeitten: iñolakookati ez ementzioen itzik atazitten...*

**MIEL, bere emazte GEAXI , INESA, GRAZIÑE eta BESOTAKO UMEA. GERRI-EDER beti BESOTAKO UMEAgana hurbilduz).**

**MIEL:** *Gerrieder nungoa aiz? Jakin bear ko diñau ba... Ie etxekok zai eongoittun ta eamatea naibaen esan bear koian nungoa aizenan... Ze eiñ diñat nik eabat ixillik eoteko???* Oixen den esker gutxi neska !!!

(GERRI-EDER isilik. Erabat mutu, ilea orraztu eta orraztu).

**GEAXI:** *Olakokiñ ze ein bear dek Miel... Jasoon lekun uztea deu onena...*

**MIEL:** *Lasai, lasai Geaxi... Itzeingoiñ noizpaitten... urdun jakingoiñau nungoa dan Geaxi...*

**KONTALARIA:** *Alako illuntze aten, esnea jarri sutan eosten da baka-rrik utzi sorgiñe sukalden eta ikullua juntzien... Andio pixkaatea esnea gañezka eitten asi zanen...*

**GERRI-EDER:** *Txurie gora, txurie gora, txurie gora...!!!*

**KONTALARIA:** *Sorgiñek deadarka, tximiñitio goora aldeñtzon bee orrazie Sasteiko sukalden utzita...*

(MIEL, GEAXI, INESA, GRAZIÑE, BESOTAKO UMEA)

**GEAXI:** *Aldeiñdik Miel... Orrazie emen utzi dik... Nai baik etorriko-ek... (GEAXIk orrazia gorde)*

**KONTALARIA:** *Andio urrungo eun baten atzea etoi (GERRI-EDER azaldu) ta otseñ omentzion Sasteiko etxeoandreri:*

**GERRI-EDER:** (Bi aldiz) *Andra Geaxi,  
ekatzu nere orrazi;  
bestela galduko ittut  
zure ondorengo azkazi...*

(GERRI-EDER ihes berriro).

**KONTALARIA:** *Urdun GEAXI Sasteiko etxeoandrek konpesorea eka-riazizon etxea, zer eiñ beartzon jakittek...*

(KONPESOREA azaldu. Gurutzea eskuan...)

**GEAXI:** *Ave Maria purisima... Beorri etorri da zintzo asko...*

**KONPESOREA:** *Gabon Geaxi, gabon... Baakizu ne eittekoa dala zuen animen osasune zaintzea... Etortzeko esan diazu ta etorri naiz... Oso ondo: bi kandelak piztuta... Baakizu inpernuko etsaiei bi kandelakiñ eiñ beartzaiola argi...*

**GEAXI:** *Baakit bai Don Ramon... Baño ustet etsaie etxen daukeala...*

**KONPESOREA:** *Ez esan olakoik Geaxi... Otsoa aikau ta bertan agertu leike... Zutzat deabrue dana baleike aingerue izatea... Esaiazu...Ze sator ai zazu barrue jaten?*

**GEAXI:** *Bildurrez aiden nau... Neskat euki deu etxen Mielek errekan billauta...*

**KONPESOREA:** *Errekan billauta? Lamie seguru...Beidau al diozue ankata?*

**GEAXI:** Eztakitt, eztakitt lamie izangoan eo ze... Ondo izkutun ibiltzeittu anakak... Baño ezto parte onekoa ematen...

**KONPESOREA:** Lasai Geaxi... (**Bere baitarako...**) Egie da urdun Otxokok esan dona... (**Berriro GEAXIri**) Jun dala esan dezu ezta?... Ba, gurutze santue jarri etxeko sarreran ta ezta geio ingurauko...

**GEAXI:** Baño maldizioa botata juntzan... Bee orrazie aztuta juntzan ta nik dauket... (**Orrazia erakutsi**) Deadarka aittuzat: Andra Geaxi, ekatzu ne orrazi; bestela galdukoittut zue ondorengo azkazi...!!! Ezurretaiño sartuzat billdurre... Ze ein deikeu Don Ramon, jainkon izenen, esaiazu...

**KONPESOREA:** Edozeiñek arrapatzeo ankatio !!! Arkakuso gaiztoa emateo... Gauzat ein beazu... Errezau, errezau gootio ta orrazi oi txaga-aten gañen jarri zazu ta urruna datorrenen artzeko esaiozu...

**EAXI:** Oixe eingoet erretore jaune... Avemariapurisima... (**Eskuan mun Geaxik apaizari...**) Eskerrik asko etortzeagatik... Zerbait artu nai do...

**KONPESOREA:** Ez Geaxi... Sorgiñek leku askotan dailltze, emen Sas-tein bakarrik ez eta enuke beste noabaitea beandu aillau nai...

**GEAXI:** Jainkok urte askon gorde zaitzala Don Ramon... Eskerrik asko...

**KONPESOREA:** Zu lasai... Nik esandakoa eiñ.. A, eta ez aaztu: bi kandelak piztuta euki beti... Aittu...

**GEAXI:** Beste bat arte, etorri naizunen...

(**KONPESOREA badoa...GEAXI gela barrura...**)

(**TORTO eta SAMARTIN TXIKI agertzen dira zalaparta batean...**)

**TORTO:** Miel, Geaxi, nuntzeate? Etorri aguro... etorri aguro...

**SAMARTIN TXIKI:** Miel, Geaxi,...!!! Ok ezaundie jentillek diela base-rrin bizi badiere...Olokiñ batea lo ...

**TORTO:** Lo esan dek??? Miel, Geaxi !!!!!!!!!!!!!!!!

(MIEL, GEAXI (beti orraziarekin), INESA, GRAZIÑE eta BESOETAKO UMEA agertu zalapartan).

**MIEL:** *Zer deu gizonak...? Baño baño, Torto eta Samartin Txiki??*

**TORTO:** *Gabon Miel... Aspaldi ezaut Muski alden ikusi...*

**MIEL:** *Baño baño, laun eiñ altzeate?*

**TORTO:** *Laun esatek... trumoiak tximistei nola, alaxe seitzentziak Samartin Txikik...*

**MIEL:** *Ta ze eittezue emen?*

**SAMARTIN TXIKI:** *Zei eitten deun? Arrisku biziin zarete. Lamie etoi zazue ezta?*

**GEAXI:** *Bai... Lamie eo sorgiñe eo dana dalakoa... Baño orrazie eman eta aldeinñgola esan dit apezek...*

**TORTO:** *Orrazie eman? Orrazie sutan guri-guri jarrizan eta eaman dezala nai badiñ... Otzak atako ziotzanau...*

**MIEL:** *Ekarri orrazi oi...Beela berotukoiat... (MIELEk orrazia kandelagarretan berotu eta guri-guri jarri...).*

**TORTO:** *Oi dek arrazoia Miel... Baakik idiñ lepoa uztarriz eta ualaz makurtzen dala... Ba sorgiñ gaiztok zigorrez eta tratu goorrez makurtzeittuk...*

**SAMARTIN:** *I lasai Geaxi. Txaga luzeaten puntan jartzeko esan diñ erretorek ezta? Oiantxe jarrikoiñau...*

**TORTO:** *Ekarri txagea Inesa!!!*

(INESAk txaga hurbildu...Eta TORTOk orrazia MIELi hartu eta txagaren puntan jarri eta txagea GEAXIri eman...)

**SAMARTIN TXIKI:** *Oaiñ otseiozue nai bazue...!!!*

**TORTO:** *Anka-soiñu earra eamangoik...!!!*

**SAMARTIN TXIKI:** *Gu ortxe izkutauko gea... Otxomak Torto !!!*

**TORTO:** *Otxomak, otxomak...Emen dala usteiat..*

(MIEL, GEAXI, INESA, GRAZIÑE eta BESOETAKO UMEA).

**MUSIKA....**

**KONTALARIA:** *Erretore edo konpesorek esandakoa eiñ omentzon zintzo asko Geaxik, Sasteiko etxekoandrek... Txagen puntan orrazie jarri eta Samartin Txikik eta Tortok esandakoare bai... Urdun deia-dar eintzion sorgiñ-lamiri...*

**GEAXI:** *Gerrieder... Gerrieder... Nunai zarelare... Emen daukezue orrazie... Etorri ta artu...*

*Gerrieder ... Nuntzea neska ...??? Emen daukezu orrazie, etorri ta artu...!!!*

**MUSIKA....**

(GERRI-EDER azaldu. Alde guztietara begiratu. TORTO eta SAMARTIN TXIKI zelatan...Orrazia hartzen hasten da...)

**GERRI-EDER:** (Barre algara faltsuz...)

*Ja, ja, ja, ...Geaxi, Geaxi, neetzat ne orrazi,  
neetzat ne orrazi,  
neetzat ne orrazi,  
ta zu ez azi ta ez akazi !!!*

*Ja,ja,ja,.....!!!!*

(Orraziari heltzen dio. Garrasika hasten da...)

*Aaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaa!!!! Ze eiñdiazue? Aaaaaaaaa!!!! Madarika-tuk... Putzu-zuloa jungo zeate... Aaaaaaaaa... Malko-errekak ixuri-koittuzue... Damutuko zeate... Damutuko zeate...*

(TORTO eta SAMARTIN TXIKI agertu derrepentean eta TORTOk txaga hartu eta GERRI-EDER jotzen hasten da...)

**TORTO:** *Alde emendio, alde emendio ezurrek mami eittea nai ezpazu.... Lotsagabea...Alde!!!*

**GERRI-EDER:** *Damutuko zeate... Aaaaaaa!!!! Damutuko zeate !!!!*

(GERRI-EDER ihesi garrasi bizian...TORTO atzetik eta inguruan dauden guztiak ere bai...)

**MUSIKA.**

**HAURRAK ALBO BATETIK:** *“Oi ala bazan,  
sartu deilla kalabazan  
ta azaldu deilla,  
Ataungo plazan....*

**MUSIKA....**

**ARGIAK ITZALDU.**

**JENDARTEAN SORGINAK, BUILA, OIHU, IRRINTZI ETA GARRASI.**

**SORGIÑAK:** *“Ez geala baño bagaittun, Maripetraliñ ez beste guztik emen gaittun...*

*Ez geala baño bagaittun, Maripetraliñ ez beste guztik emen gaittun...”*

*Ez geala, ba geala, amalau milla emen geala,...*

*Ez geala, ba geala, amalau milla emen geala...”*

*Sasi guztiñ gañetio, odei guztiñ azpitio...*

*Sasi guztiñ gañetio, odei guztiñ azpitio...”*

(GERRI-EDER agertzen da garrasika oinazez...)

**GERRI-EDER:** *Ai, ai,...Aiii... Damutuko zeate, amorraturuk izango zeate baño earke ordaindu bearke dezue...!!!!*

**MARISORGIÑ:** *“Baño baño... Gerri-eder zer gertau zain, zer gertau zain gaisoa...?”*

**GERRI-EDER:** *Ez al den ikusten?... (Beste sorgiñei). Ez al dezue ikusten? Zuen danon azkazalak bat einda baño luzegoko aga luzea-tekiñ jo naue ezurrek mami eiñarte...*

**MARISORGIÑ:** *Baño zeñek Gerri-eder, zeñek?*

**GERRI-EDER:** *Zeñek esaten... Sasteiko nausik, etxekoandrek, Tortok, Samartin Txikik,... Baño damutuko die, damututo dien ez...!!!*

**MARISORGIÑ:** *Torto eta Samartin Txiki...? Baño illda ez altzaren ba...?*

**GERRI-EDER:** *Ondo biziik ikusizkiñat nik...!!!*

**MARISORGIÑ:** *Eta Sasteiko Miel eta Geaxi, egurre artu ta i jotzen... Iñun dien jatorrenak dittun da...!!!*

**GERRI-EDER:** *Jatorrak? Sugagorrik kozk eiñda bezela zeren amorrauta...*

**MARISORGIÑ:** *Beida! Etzekiñat ze gertau dan baño lene esanda au, gu bezela sorgiñ izan bearbaen, beste iñor zirikatzen ez ibilli eta iñoren etxea jun bearrik ere eztaukenala...!!!*

**GERRI-EDER:** *Sorgiñek altzeate ba zuek? Gau-pasa eittezuela iñoiz eo bein ta sorgiñek zuek??? Billaukoizkiñat bai, zuek baño launobek...!!!*

**MARISORGIÑ:** *Aldean bat eintzan... Baño geo ez etoi gue launtza eske.*

**SORGIÑAK:** *Oihu eta garrasi berriro...*

**ABESBATZA.**

## JENTILEN ETORRERAN SORGIÑ GAIZTON IPUIE ■

**MUSIKA.**

**ARGIAK PIZTU.**

**LEHENGO BASERRIA BERRIRO. Arbola ta guzti.**

**GEAXI, BESOETAKO HAURRA berarekin ARBOLAPEAN, “Loa, loa, loa,...” ABESTUZ.**

**KONTALARIA:** *“Andio ez denboa askoa, Sasteiko senar-emaztek erabat aaztu mentzien sorgiñ-lamiaren bixita eta madarikazioekin...*

*Abeatsak tzien eta oso ondo bizi zien.*

*Eakin tzuen euzkie baño ederragoko semetxo' at e.*

*Beiñ, Geaxi andra gaztea be ume orrekin lizar baten itzalen zeola, atso zar bat aldeatu emenzitzaion...*

**(ATSO ZAHARRA azaldu, ibilkera baldresez. Ilea luze, oso luze... Orrazia eskuan. GEAXI gana hurbildu).**

**ATSO ZAHARRA:** *Nai al dezu illea orraztu?*

**GEAXI:** *Ez, ez dauket bearrik...Ondo dauket...*

**ATSO ZAHARRA:** *Illea oso nastuik daukezu eta zerbait zuzentzea obe izengozu. Neronek orraztukoizut...!!!*

**GEAXI:** *Ondo da, ondo da... Oinbesteaño diozun ezkeo orraztu iazu ba...*

**(ATSO ZAHARRA ilea orrazten hasi).**

**ATSO ZAHARRA:** *Seme zoragarrie daukezu oso...*

**GEAXI:** *Bai, ala esaten due... Aman begiik, baakizu... Ama atentzat bee semea ederrena ta polittena...*

**ATSO ZAHARRA:** *Masalla gorri-gorrik... Zoragarrie umea... Zue illea bezelaxe...*

**GEAXI:** *Bai? Ala ustezu? Zuke politte daukezu... Kolore berezi-berezi-koa gañea...*

*Begiike bai... Politek eo, berezik beintzet bai... (Gaizki pentsatzen hasita bezela... Jaikitzen hasten da ikaratuta...)*

*Etzea ba...*

(ATSO ZAHARRAK , orratz buru-beltz bat SARTU buruan GEAXIri).

*Ai, ai, ai...!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!*

(GEAXI USO BIHURTU eta HEGAKA JOAN. ATSO ZAHARRAK UMEA HARTU BESOTAN).

**KONTALARIA:** *“Atso zaar ue Sasteia juntzan sorgiñ-lamie ementzan eta Geaxi andra gazteri buruti orratz buru-beltz bat sartu ementzion.*

*Andra gazte ue instanteko uso biurtu eta egaka jun ementzan...*

*Urdun atso gaizto ue, umea malen artu-ta, itzalen patxara ederrren jarri ementzan...*

(JENDEA PASEOAN... BIKOTE BAT: PATXI eta MIKELA).

*An zijotzen batzuk ea zeintzan galdetu ementzioen...*

**PATXI:** *Gabon..Aizu, zeintzea zu?*

**ATSO ZAHARRA:** *Ni zein naizen? Ez alnazu ezautzen? Umetxo onen ama...*

**MIKELA:** *Ume onen ama? Baño baño ze esatezu... Onen ama ondo asko ezautzen deu guk...*

**PATXI:** *Emakume gazte eder askoa...*

**ATSO ZAHARRA:** *Bai ni naiz, ni naiz emakume gazte eder oi...Baño ikusi eziñaun sorgiñ batek zatartu eta zar-itxurea eman dit...*

**MIKELA:** *Ta zue senarrak ze esateo?? Zerbaitt eiñ al do?*

**PATXI:** *Zare ixillik Mikela... Utziozu... Esateizut nik sorgiñek badiela...*

**ATSO ZAHARRA:** *Dienik ezta sinistu bear baina eztielik ez da esan bear...*

(PATXI eta MIKELA badoaz, harrituta eta kezkatuta. ATSO ZAHARRA kantuan umea besotan...Loa, loa, loa...)

**KONTALARIA:** *Ala, atso zaar ue Sasteiko etxeoandra bizi izan omentzan puska aten...*

(USO TXURIA azaldu eta ETXEKO NAGUSIA-MIEL ere bai bere atzetik harrapatu ezinik. ATSO ZAHARRAK traba egiten dio.)

*Askotan etxeo batzan uso txuri politt bat agertze ementzan.. Nau-sie uso ue arrapatzeko asmotan ementzellen beti baño etxeoandra sorgiñek ez ementzon inñolare nai...*

**ATSO ZAHARRA:** *Baño gizona, utzizazu paken uso oi... Zetako zu uso sakats itsusi oi?*

**MIEL:** *Arrapau bear det ba... Kolore zuri zoragarrie dauke... Bate akatsipekoa... Zure garai bateko azala gogoarazten dit...*

**ATSO ZAHARRA:** *Aspaldiko kontuittuk orik gizona... Oaiñ oain-gok,... Ume earra azie deu beintzet...*

**MIEL:** *Bai baño usoteak eztiu kalteik eiñgo...*

**KONTALARIA:** *Alakoaten, noizpaitt orratio, nausi orrek arrapau omentzon usoa ta an ementzellen eskukiñ leundu eta leundu... Ala zeillela, burun zerbaitt zeukena igarri ein ementzion...*

**MIEL:** *Ze arraio dauke onek emen...*

**ATSO ZAHARRA (Kezkatuta):** *Zea eukiko... Urre-puskaren bat o... Bialduzazu uso oi emendio urrutia... (Senarrari eskuetatik kentzen saiatu bezala...)*

**MIEL:** *Utzi, utzi,... Ara zer dan.. .baño, baño, orratz buru-beltza...*



**APAIZA:** *Ai gaixoa, ai gaixoa... Jaiotzea beste kulpaik ezten... Etsaien eskutan eroi aiz... Begik erreko zaizkin nearrez, barrua irakitten jarriko zain, biotza eroiko... Ta sutan erreko aiz.... Beste sorgiñ guzti-ke ikasikoñe...*

**SAMARTIN TXIKI:** *Sorgiñ zintzoke badie Apaize jaune...*

**APAIZA:** *Sorgiñ zintzok??? Oker zuzenik eztek Samartin Txiki?*

**ALKATEA:** *Entzun, entzun danok... Erre dezaun... eta akabo betiako amets gaizto au....*

(SORGIÑAK azaldu alde guztietatik KANTU ETA BUILA...)

(JENDEAK IZUTUTA IHES. ALKATEAK, APAIZAK ETA TORTOK, batez ere TORTOK aurre egiten die baina alferrik...)

**MARI:** *Sorgiñek gea, sorgiñek eta ezteu utziko gutako bat iñork erre dezan... Dantzau eta salbau... Sue izan ezkeo dantza eitten deu... Dantza !!!*

(SORGIN-DANTZA EROA hasi, erdian SUA eta sutik hurbil GERRI-EDER ATSO ZAHARRA eskuak lotuta. ATSO ZAHARRA garrasika... DANTZAREN bidez SALBATU egiten dute).

DANTZA AMAITUTAKOAN, TORTO, APAIZA, ALKATEA ETA MIKELATS agertzen dira. TORTO BERE ONETIK ATERATA. HARRI HANDI BAT HARTUTA...)

**TORTO:** *Aaaaaaaaaa !!!!!!!!!!!!! Nik arrapatze baet ezto aldeñgo!!! Sor- giñek, zikiñek...!!!!*

*Aaaaaaaaaaaaaaaaaa!!!!!!!!!!!!... Arrapauko zaittuet !!!!!*

(TORTOK HARRIA JAURTI).

**MEGAFONIA:** *Otsoaren ulua...*

**ABESBATZA:** *Aio, aio, aio...*

**Akaberea.**



---

## 2002KO AURKEZPENA KIROLDEGIAN

### ARGIAK IT'ZALDUTA.

#### MUSIKA.

**JENTILAK ETA KRISTAUAK IRITSI.** Ilunpean, zuziak bertan itzaldu.  
Partaideak behar bezala kokatu ikusleen artean.

Abesbatza prestatu.

Eszenarioan egon behar dutenak antolatu.

\* \* \* \* \*

#### MEGAFONIA: IRRINTZIA.

#### MUSIKA.

*“Gabon guztioi. Gabon, bide luzean etorri zaretenoi eta gabon baita ere, lur honen seme-alaba zareten ataundarroi.*

*Jentilak, etorri dira aurten ere. Etorri dira eta gure artean daude.*

*Emandako hitza, zintzo bete dute: ez dute hitza jan !!!*

*Etorriko zirela esan zuten eta etorri dira.*

*Iaz haserre joan ziren baina bihotz ona dute. Mikelatsen bihotzak ez baitu goroldiorik biltzen...*

*Baina..., baina abaztu ote dute esaldi latz hura?*

*Gogoan al duzue???*

**(Oihartzunez)**

*SORTU DA JENDE TXIKI PERRUA!!!*

*AKABATU DA JENDE HUMANUA!!!*

*SORTU DA JENDE TXIKI PERRUA!!!*

*AKABATU DA JENDE HUMANUA!!!*

*Abaztu ote dute??? Ta abaztu ote dugu?*

*Badakizue bala ere: denok, Jentilak eta gu, gu eta Jentilak, labe bereko opilak gara, bai, labe bereko opilak...!!!*

*Hartu ditzagun merezi bezala.*

*JENTILEN ETORRERA hastera doa..."*

## **MUSIKA**

### **HERRITAR ETA JENTIL JENDEA**

**ALKATEA, MIKELATS, TORTO, APAIZA, SAKRISTAU, ARTIÑE-KO JABIER, AKER, eta gainerako HERRITAR ETA PARTAIDEAK.**

### **PREGOILARIA:ATABALA ETA TUTURUA.**

*"BANDO, BANDO, BANDO,  
ALKATEK ESAN DO,  
JENTILLEK EMEN DIELA  
TA ARTZEKO MEEZI BEZELA"*

**(Tuturua...)**

*"BANDO, BANDO, BANDO,  
ALKATEK ITZEIN BEAR DO.  
ASKOTAN ESAN DO LEENE,  
JARTZEKO BELARRIK ERNE,  
BESTELA IZANGO DIELA  
KOMERI LATZAK EMENE...!"*

**(Tuturua eta atabala...)**

**ALKATEA:** *Erritarrok!!! Kanpotarrok eta ataundarrok!!!*

*Emen gea urteat geioz... Eta ezta ez, denbora gutxi...Era askotako gauek eta eunek jun die, geio sekula etorriko eztiinak ... Baño gu emen gare eta ikiarri pozten naiz zuek danok emen ikusita...*

*Gaur gañea, ezteu nolanaiko poza... Alkaten lizar-makillek e, beste gozotasun bat izateo gaurko eunez... Biziik daula iruitzenzat eta ala eongoa gaiñea, aure mendikoa baita eta mendi-mendiko jendea ikusten baito emen...*

*Bai, pozik nau, pozik gare danok, aurtene Jentillek etorri dielako...*

*Bi mundu gare aurrez-aurre... Bi mundu alkarrekin bizi bearrekok ta or sortzen die komerik...!!!*

*Iaz gertau zana gertauta, bildur nintzen bi mundu orik ez ote zien betiako asarrauko, baño ez... Mikelatsek eztiu utsik eiñ... Asarre jun-tzan iaz baño emen da aurtene...*

*Bejondeiola !!!*

*Ongi-etorri Mikelats !!!*

### (Elkar-besarkatu Alkatea eta Mikelats)

**MIKELATS:** *Etorri gea bai ... Etorri gea...*

**ALKATEA:** *Zemuz Mikelats ...?*

**MIKELATS:** *Ondo, ondo, Urtziri esker... Eta egie esangoizut... Ezta urte motza izan...*

**ALKATEA:** *Zer izan dezue ba gizona...? Zeatio eintzazue ba aiñ luzea ...*

**MIKELATS:** *...Odola irakitten euki deu eune jun eta eune etorri...*

**ALKATEA:** *Odola irakitten???*

**MIKELATS:** *Bai...!!! Ne zaiñ zaarrotane bor-bor ibilli da gue aurrekon odola...*

*Otso sentitu gea eun askotan...Otso, zuei kozk eitteko gogoz...*

*Baño gue barrun daun ardier biziik dau eta azaldua atzenen...*

*Orreatio, irakitten zeon odola epeldua eta sue itzaldua...Ala emateo beintzet....*

**ALKATEA:** *Ondo itzein dezu Mikelats... Danok gea puskat otso eta puskat ardi... Gue barruko otsok ardie mendeatzen donen pizti biurtzen gea, pizti...*

*Eta ardik otsoa mendeatzen donen beiz ollo...!!!*

**APAIZA:** *Oi da arrazoia!!! Olo!!! Olo koanto!!! Eroki itzein dezu bein-goz Alkate Jaune... Eta ollok dien lekuun, baakizu, oillarra ezta urruti izaten...*

**ALKATEA:** *Ze esanaizu Erretore jaune?*

**APAIZA:** *Ba, Mikelats oillar daillela aspaldiñ, oillar... Oillar eta Zezen-gorri...*

**MIKELATS:** *Oi da gizonan aittuaroa...!!! Mingainetio galtzen da epe-rra Erretore jaune, aittuzu?*

**APAIZA:** *Baño, baño Alkate jaune... Aztu al dittuzu iazko Zezen-gorrik??? Ez altzea kontuatzen...??? Ze Alkate zea zu??? Zetako zu makillea...!!! Satorran begiik al dauzkezu???*

**ALKATEA:** *Ixo, ixo, ixo,...!!! Makillea astintzea nai ezpazu ixo... Zezen-gorriik eztue zeikusik jentillekiñ... Samartin Txikik argi ta garbi esan-tzon: ez Mikelatsek, ez Jentillek eztuela zeikusik zezen-gorrikiñ...*

**APAIZA:** *Ta Samartin txikiri sinisten diozu urdun... Gezurre-gezurre gañen... Orrek gizona, gezurre esaten die Jentillei: garie, artoa, zerrea, errotea, dana lapurtu die eta zurire gezurre esateizu... Jaki-nainuke oaiñe nun eta zertan dailen Samartin Txiki...*

**ALKATEA:** *Ixo, ixo... Be lanen ibillikoa... Danak Samartin Txiki beze-lakok balie eleoke zue eta zu bezelakon bearrik...*

**APAIZA:** *A ez, e???*

**ALKATEA:** *Ez...!!!*

**(Bapatean ARTIÑEKO JABIER albo batetik...)**

**ARTIÑEKO JABIER:** *Alkatek arrazoi do... Zue bearrik eztau... Ni izango naiz emen urrungo apaize...*

**APAIZA:** *Zeeee??? I apaize?? Aitaren ta Semearen eta Izpiritu Santua-ren izenean...!!!*

*Artiño Jabier apaiz? Ai, gizaixo orri, gizaixo orri??? Entenimendun arrastoik eztaukek eta, i apaize...Barkauko aldik gue jainkok...!!!*

**ARTIÑEKO JABIER:** *Bai, bai, ni izango naiz apaize... Zuk nai bazu, ezpazu... Sotanea zu baño geio betekoet...!!!*

**APAIZA:** *Alkate jaune... Alkate jaune!!! Zue makillek zerbaitetako balio bao, lotu ta eamantzazu au emendio...!!!*

**(MIKELETEa JABIER-engana hurbildu).**

**ALKATEA:** *Lasai... Apaize izan nai bao, beak jakingo... Zu aurtene, sasiri sue ematea etorri zea onea ta ia ia suk arrapau zaittu...Obe zenduke Mikelatsi eskue eman eta betiako laun izatea...*

**APAIZA:** *Eskue eman oni ...??? Oixe bear deu... Zizta eta zizta aidan suge-gorri oni eskue ematea...!!!*

**TORTO: (Apaizarengana hurbilduz zorrotz).** *Et, et, et... Suge-gorrie Mikelats??? Naiko nitek Artiño Jabier apaiz jarriko balitz...!!! Lepo mee oi oaindiore geio estutzea meezizu... Atzo goizeko oilandak geala uste al dezu? Zu zeintzean baakiu ondo asko... Putterriko urrea nun daun esango balizu Mikelatsek, eskue, besoa, sotanea eta sakristauere emango ziozuke...*

**APAIZA:** *Ara,ara, ara,... Torto gizajoa....!!! Jaiotzea beste kulpaik eztona... Ire Mikelatsen alde!!! Ezer izan ez eta zerbait uste ik e...!!!*

**TORTO:** *Muturre beotzea nai al dek??? Txirbill eiño aut...!!!*

**APAIZA:** *Ai, Torto, Torto,... Beti Mikelatsen ondon... Zer ikusi ue ikasi eta ik begi-bakarrakiñ, ze ikusi ta ze ikasikoek ba gizajo orrek...*

**MIKELATS:** *Eon lasai Torto, ez beotu... Baño erretore jaune. jakizu eztaukeala aaztuta iaz gertau zana: eskue luzau nizun ta zuk, bea-tza luzau ziazun... (Keinu egin Apaizari eskua lehenbizi eta gero behatza luzatuz).*

**APAIZA: (Berriro behatza luzatuz...)** *Lasai, lasai Mikelats,... Zure itze eta atariko aizea, bik bat die: batez...!!! Eskue zeni eman eta noiz eman, nik erabakikoet, aittu???*

**ALKATEA: (Makilaz lurra jo eta jo).** *Ba danoi gauzat esangoizuet... Bai zuentzat Mikelats, eta bai zutzat Erretore jaune garai txarrak datoz... Alkar-artzen ezpazue eztaukezue ze eiñik... Aittu Alkaten esana: Txarrak berez datortze, onak nekez...*

**MUSIKA.....**



---

## 2002- Samartintxiki Tortori laguntzen

### SAMARTINTXIKI MUSKIKO KOBAN.

#### MUSKIKO KOBAN.

#### TXORI-NATURA HOTSA...

3 jentilkume: **ARGI**, **HODEI** eta **ARITZ**. Eta 3 herritar: **MASUST**, **EZTIÑE** ta **ERLAIN**. Elkarrekin jolasean.

#### KOBA aurrean ikusmiran...

**EZTIÑE:** *Torto ez al dau koban...???*

**ARGI:** *Ez, ez, laxter etorrikoa... Basurde-arrastok ikusitu ta an atzetio jun da...!!!*

**MASUST:** *Gure jungo giñeke pozik basurden atzetio...!!!*

**ERLAIN:** *Baño, Tortoi ez al dio bildurrik ematen???*

**HODEI:** *Bildurre Tortoi...???? Oixe bear deu... Basurdeke bee launek die ta...*

**ARITZ:** *Ezkurre eskun jarri ta eskutio jatea etortze zaio basurdea...*

**MASUST:** *...Ta Samartin txiki???* Samartintxikire emen ingurun izangoa ba... *Gue aittek esateo, beti Jentillen ingurun ibiltzeala zer ikusiko ta zer aittuko...*

**ARGI:** *Samartin txiki !!!! Samartin Txiki !!!*

**DENAK:** *(Inguruan begiratu...)* *Samartin txiki!!!! Samartin Txiki!!!*

**(SAMARTIN TXIKI agertzen da).**

**SAMARTIN TXIKI:** *Emen nau, emen nau... Nola arraio antzeman diazue...???*

**ARGI:** *Guke zu bezelakok izan nai deu...*

**SAMARTIN TXIKI:** *A bai e...???* *Eztau gaizki eztau gaizki... Baño isillik eta izkutun ibiltzen jakin bear da ta zuek, eztaikit ba, illabetetan lo daren muxarrake esnauittuzue...!!!*

**MASUST:** *Barkau Samartin Txiki, barkau... Ixill-ixillik ibilliko gea...*

**EZTIÑE:** *Zuk esan ze ein bear deun ta guk zuk esandakoa eingo deu...*

**SAMARTIN TXIKI:** *Aittu ondo: begik erne eta belarrik adi ibilli bear die... Aittuzue???* *Eta beste gauzat: ankea nun jartzen dezuen kontuz geo: ontton bat zapaldu deikezue ta...*

**DENAK:** *Ja, ja, ja, ja, ...*

**SAMARTIN TXIKI:** *Baño aittu... batzutan ez da onttoa izaten... Zulo, leize aundi-aundie izan leike... Ataunen asko dare ta kontuz ibilli beazue zulo oritako maten eroibe... Ikustezue or???*

**(DENAK hurbildu...)**

**HODEI:** *A, ze zuloa...Bildurre emateo...*

**SAMARTIN TXIKI:** *Urdun laundukoiazue...?*

**DENAK:** *Bai, bai, ...*

**SAMARTIN TXIKI:** *(Alde guztietara begira...)* *Ixo, ixo, ... Ea belarri ta begi orik... Batenbat baator... Etorri nekiñ... Ortxe izkutauko gea... Ixillik e!*

**(DENAK IZKUTATZEN DIRA. AKER, MIEL, PELIPE ta PEDRO agertzen dira. AKER koba ingurura hurbildu TORTO ageri den ikustera).**

**AKER:** *Azkar-azkar... Auxe eakutsi nai nizuen... Ikustezue... Ze lekuk dauzken Tortok... Garie nai don guztie, pagari earrak, basurdek eta otsok laun...*

**MIEL:** *Arrazoi dek... eztek nolanaiko paradisun bizi...*

**AKER:** *Ba au dana: gutzako izangoek... Konforme???*

**BESTEER:** *Bai, bai,...*

**AKER:** *Apustue eiñ... Zirie sartuko zoau goitio beera ta dana gutzat... Oaiñ goazen, goazen, emen dala usteiat Torto...*

(Zalapartan izkutatzen dira. TORTO agertzen da, basurderen bat eskuan duela. Norbait ikustea iruditu balitzaio bezala bazterretara begiratur).

**TORTO:** *Zein daille emen... Inor ba al da emen???*  
*Argi???* *Odei???* *Aritz???* *Nuntzeate???*

(DENAK AGERTZEN DIRA. UMEAK BELDURREZ BEZALA. SAMARTIN TXIKI KEZKATUTA).

**ARGI:** *Aitte, Aitte... Emen gare...*

**TORTO:** *Ara, ara... Samartin txikire bai... Ze eakutsizue umek...???*

**HODEI:** *Begiik eta belarrik azti eukitzen...!!!*

**TORTO:** *A bai e...!!! Ortako jentille izin bear dik, jentille... Elorriri ezin zaio maatsik eskau...*

*Ta i Samartin txiki ez intzen ba, gari-pillan salto eittea etorriko ala?*

**SAMARTIN TXIKI:** *Ez Torto ez... Belatxingak zeiltzek ie koba ingurun ta an arraston etorri neok...*

**TORTO:** *Belatxingak? Belatxingak ezkie arrastoik uzten gizona... Ze esaten aiaiz...?*

**SAMARTIN TXIKI:** *Nik ikusittuanak arrastoa uzteie...*

**TORTO:** *Itzeintzak garbi... Zein ikusittuk?*

**SAMARTIN TXIKI:** Eztiat esango... Baiña aittu ondo Torto: kontuz ibiltzea komeni zak..

**TORTO:** Kontuz ibiltzea...??? Kontuz ibilliai ire, zirika etorri baldin baiz...

**HODEI:** Ez aitte, ez... Gizon batzuk ibilli die emen eta zuri lur guztioak kendu bear dizuela esaten aittu die...

**TORTO:** Eeeeeeeeeee????

**SAMARTIN TXIKI:** Esangoiat Torto... Aker, Miel eta zeilltzek ikiñ apustue ein naien... Ezai beotu...!!!

**TORTO:** Apustue nekiñ?? Txirbill einda utziko zetuat... Jun da esaiek... Nai duenen, eatako indartsuna aukeratzeko ta lumea bezela dantzauko deala...

Arrazoi dek Samartin Txiki: earrak belatxingak koanto...!!! Egaka iñgoie nik arrapatzen bazetuat...

**SAMARTIN TXIKI:** Lasai Torto, lasai... Buruz jokau...

**TORTO:** Txikitu eiñgo zetuat, txikitu... Kontuz ibilli asko die...Jun da esaiek... Ire eakiñ al au...? Alde emendio...!!! Alde emendio!!!

**SAMARTIN TXIKI:** Ondo zeok, ondo zeok... Baño buruz jokau zak Torto, buruz jokau zak...!

(SAMARTIN TXIKIk ospa. Umeak TORTOrekin).

**TORTO:** Ta zuek ze beidatzezue e??? Oi eakutsi al dizue Samartin Txikik??? Ontzak bezala begik zaalduta beida eoten ...??? Alde, alde zueke... basurdek kozk eittea nai ezpazue...!

(TORTOk basurdearekin jotzeko keinada egiten die eta umeak korrika ospa...)

**TORTO:** Nei lurrek kendu??? Nei, Muskiko basajaunei, lurrek kendu??? Beize jaiio bear koie !!!

**MUSIKA.**

---

## 2002-ARTIÑEKO JABIERREN HISTORIA

**KONTALARIA:** *“Entzun duzue... TORTOri lurrak kendu nabi dizkiote... Bere arbasoen lurrak: Ataungo lurrik onenak... Kenduko al dizkiote? Eta apaizari? Kenduko al diote apaiz-lekua???*  
*Buruko-miñ haundiak ditu orain: Jentillak izan ditu beti etsai !*  
*Orain berriz, kristauen artean ditu etsaiak: ez zuen uste, baina bai, kristauen artean ditu orain jentilak...*  
*Putterriko urrea izan du beti amets !!! Eta orain ez du lorik egiten: Artiñgo Jabier du ameskaizto...!!!*  
*Eta ARTIÑgo Jabierrek apaiz izan nahi du, apaiz, ...*  
*Eta Ataungo URRUTSUMENDIn dabil: gau-giroan, jai-giroan,...*

### MUSIKA....

**URRUTSUMENDI:** Neska-taldea ardatzean. (Ardatzak, hariak eta beste-lako tresnak ...)

Tiña haundi bat bazterrean eta lapiko bat, txikiagoa, erdi-erdian...  
Haria egiten eta josten ari dira... Elkarri lanak erakutsiz iji eta aja...

**MARISORGIÑ:** *Ea neskak, aittu, lanake bukau bearco zetunau... Gauerdie gañen zeukenau ta baakizue...*

**MARIZIKIN:** *Mikela, Mikela... Nik gaur azkar junaiñat etxea...*

**MARISORGIN:** *Zer den ba ...Ikau eitte alaiiz Joxepa...??? Sorgiñ izanai baen, gauez ibiltzene ikasi bearcoen gaixoa...!!!*

**MARIZIKIN:** *Bai baño... Etzekiñat... .Gauē gauekontzat dala esateiñ gue amak ta naiagoiñat eunez ibilli...*

**MARISORGIN:** *Baaa..... Ez kasoik eiñ neska... Gauē gauekontzat, gauē gauekontzat... Eta gu ez al gaittun gauekok... Eeee???*

**DENAK:** *Baiiiiiiii !!!!*

**MARISORGIÑ:** *Lasai eon Joxepa, lasai... I sorgiñetako jaioaiz ta gauēz ibiltzeko...*

**MARIZIKIÑ:** *Bai baño,... bakizue ze gertau zaion Lauzpeltzeko Prantxikai... Bee arrastoik eztau...*

**DENAK:** *Eeeeeeee!!!! Zer gertau zaio ba...*

**MARISORGIN:** *Esantzan, esantzan ze gertau zaion baño, Prantxika ondo ezautzeiñat nik ta or ibillikoen...*

**(Denak Marizikiñ-Joxeparen inguruan jartzen dira gertatu dena entzuteko).**

**(MEGAFONIA:** *Gu bezelaxe ardatzen aitzen ementzien Lauzpeltzeko atariñe... Ta eraneun gauen, baakizue illargi bete-betea zeola, ba Prantxikak apustue eintzien danai: baietz Iturriotz aldeko iturritio ure ekai... Ta beste guztik ezetz... Ala pitxarrea (errarea) artu ta abittu mentzan Prantxika....Bestek Lauzpeltzeko atarin geatu mentzien...*

*Aldiñ beiñ Nun aiz???? galdetzen mentzien Prantxikai. Ta onek irrintzie eiñ (**Irrintzia**) ta alako tokitan nau eantzuten mentzien... Beiz e geroxago Nun aiz??? ta Prantxikak irrintzie eiñ (**Irrintzia**) ta alako tokitan esate mentzien... Baño, Prantxikan otsa geozta gutxigo aitzen mentzan... (**Prantxikaren hotsa indar gutxiz: Iturriotz aldea inguratzan ai naiz...**)*

*Ta, andio aurrea ez ementzan an geio Prantxikan otsik aitzen...*

*Zai zaren neska guztik larri-larri mentzeren Prantxikai ze gertau ote zitzaion... Ta alakoaten, aize-bolaratek jo omentzon neskak zaren ingurun ta aiden baten-batek otsein ementzon ... (**Haize-hots handia eta ahotsa: GAUE GAUEKONTZAT ETA EUNE EUNEKONTZAT, GAUE GAUEKONTZAT ETA EUNE EUNEKONTZAT...**) eta geio ez mentzan Prantxikan arrastoik izan..."*

(Neska guztiak ikaratuta daude GAUE GAUEKONTZAT esaldie entzuten...

Ta ETSAI agertzen da jendartetik... Berehala ikusten dute neskek. Harro dator ETSAI).

**ETSAI:** *Gaue gauekontzat, gaue gauekontzat, koanto...! Bai jaune... Gauen azaltzen die benetako gizonak. Gaue gauekontzat ta eune gizon eztienantzat...*

**MARISORGIÑ:** *Neskak, neskak, azkar, azkar, ETSAI bazetorren da...*

(NESKAK, SORGIN giroan hasten dira uju eta aja, salto eta dantza, ETSAIri ongi-etorria emateko. Ahal balitz sorgin itxura hartu...)

*“Sasi guztiñ gañetio, odei guztiñ azpitio !!!”*

*“Ez geala baño bagaittun, Maripetraliñ ez beste guztik emen gaittun...”*

*“Ez geala, ba geala, hamalau mila emen geala...”*

*“Por la se, zalpate, funte fa, funte fi, txiri-biri, ekatsu, ekatsu, amen...”*

\* \* \* \* \*

### **Dantza amaitutakoan.**

**ETSAI:** *Oso ondo, oso ondo... Ikiarri aizeate ikasten... Laster zeate ni aiñe...*

**MARISORGIÑ:** *Zu aiñe Etsai...??? Zu aiñe...? Guk bai nai... Zuk izkurtuko gauza guztik dazkizu ta guk oaiñdio ez... Zuk eztakizunik eztau...!!!*

**ETSAI:** *Gauza guztik be garaien Marisorgiñ, bee garaien... Gaur pozik nau...*

*Pozik bai.. Pozik... Ni, Etsai... Bestatzuk Deabru esaten diarea... Bestatzuk beiz Gaizkiñ, Galtxagorri, Txerren esaten dianik e bada, Kin-kilimarrore bai, baita Iruadarrekore... Nun dittut nik adarrak e? Ja, ja, ja,...*

**MARISORGIN:** *Egie da, eztaukezu adarrrik...*

**ETSAI:** *Adarrak austen lanik ez Marisorgiñ...!!! Ikasiko zu, ikasiko zu, ... Ta zerbait ikasi nai donak edo zerbait nai donak nereana etoi bear do... Nabi bao eta ezpao !!!*

*Ba aittu ondo: pozik naulako, ne sekretu aundiña eakutsi beaizuet gaur...*

**SORGIÑAK: (DENAK BATERA)** *Eeeeeeee !!!!!*

**MARISORGIÑ:** *Ezta egie izango Etsai ...Munduko etsaiyik onena zea...*

**ETSAI:** *Munduko eta inpernuko onena Marisorgiñ... Bai, bai... Ikus-tezue au...? (Edalontzia ateratzen du bere sabel-barrenetik).*

**MARISORGIÑ:** *Bai, zure ontzie Etsai... Gustoa eango nuke ortio...*

**ETSAI:** *Bee garaien, bee garaien Marisorgiñ...*

*Oi baño lenau, aiñ politte dan beste kantuate bazue ba zuek... Sorgiñek eta, bikaiñek eta, ezpaiñek eta,...*

*Oixe entzungo nuke pozik asko...*

**MARISORGIÑ:** *Oaintxe, oaintxe Etsai... Ea neskak...*

**SORGIÑAK. (Denak batera).**

*Jaiotzetio gea sorgiñek,  
era guztitta bikaiñek.  
Earrak dauzkeu ezpaiñek,  
earragok anka-zaiñek.  
Aker-saldea eanda,  
juten die gue miñek...*

*Jaiotzetio gea sorgiñek,  
era guztitta bikaiñek.  
Earrak dauzkeu ezpaiñek,  
earragok anka-zaiñek.  
Aker-saldea eanda,  
juten die gue miñek...*

**ETSAI:** *Oso ondo, oso ondo... Geozta sorgiñago zeate ta meezizue, meezizue zerue...*

(ARTIÑEKO JABIER bere sotana ta guzti, agertzen da derrepente).

**ARTIÑEKO JABIER:** *Zerue emen dau, emen dau zerue...!!! Zuek zeate aingeruk...*

**SORGIÑ DENAK:** *Apaizea, apaizea,...*

**ETSAI:** *Apaizea...!!! Baño, baño, zein deu au.. Artiño Jabier.. Etze-billek astoa lokatzetan!!! Ze eittek emen motel apaiz jantzita, itxura orrekiñ...?*

**ARTIÑEKO JABIER:** *Ze eiñgoiat ba... Askotan aittuiat Urrutsumendiñ gau-giro earra eoteala... Neskak ardatzen, sasoi aurren ta atzen,... Ta apaizea bearako ote zenduen etoi nok...*

**ETSAI:** *Ondo eindek, ondo eindek...*

**ARTIÑEKO JABIER:** *Ta ik ze eittek? Eztaukek itxura earra.. Ezaiz ba, putre-saldea ean, da ezkurre jan da, ola ibilliko oaiñdio ala? (Erabat ETSAIren aurpegia igurtziz bezala...) Masaillek earke iartuta dauzkek...!*

**ETSAI:** *Alde ne ingurutio... Kontuz geo...!!! Sotanak eta gañeakok kentzea nai ez paek, azti ibilli...*

(Bien tartera sartzen da MARISORGIN pakeak egitera bezala...)

**MARISORGIN:** *Lasai eon gizonak... Gaue luzea dauta... Baño ik Jabier ze arraio eittek emen...*

**ARTIÑEKO JABIER:** *Ze eitten dean? Zuek aiñe ez al neon ni ala? Zuek eitteittuzuenak ta askoz aundigok eiñtzetiñat nik...*

**ETSAI:** *A bai e !!! Banekian arro xamarra intzela baño ainbestere motell...*

**ARTIÑEKO JABIER:** *Moztubeko katu-bixar orrekin zerbait aizela ustekoek baño itzalare galduak,... Ok, ankapen dauzkek Etsaie ez baiño Jainkoa aizelakon ta zerraiz ba...*

**ETSAI:** *Kakanarrue... Zirika al ator???*

**ARTIÑEKO JAVIER:** *Je sekretun berri badiat nik... Ontzie zeekin eindakoa dan esatea nai al dek?*

**ETSAI:** *Eeeeeeee???*

**MARISORGIN:** *Ez esan, ez esan... Guke bakiu...*

**ETSAI:** *Mundu guztik al daki eo ze arraio!!! Oaiñ ikusiko deu... Ea Marizikiñ...*

**ARTIÑEKO JAVIER:** *Marizikiñ??? Joxepa, Marizikiñ dek urdun... Earki zeok...*

**ETSAI:** *Ea Marizikiñ, zekiñ eiñda zeon ne ontzie...???*

**MARIZIKIÑ:** *Etsai, ustet, intxaur-azalez eindakoa dala...*

**ETSAI:** *Baita zeare... Intxaur-azala baiño goorragoa bear diñ au eitteko... Ea, zeiñek daki e? Asmatzeonak nai dona eitteko aukerea dauke...*

**MARISORGIÑ:** *Etsai, nik ustet bakiala...*

**ETSAI:** *Ea bota, bota Marisorgiñ...*

**ARTIÑEKO JABIER:** *Mikela, Marisorgiñ deu urdun... Ondo zeok jakittea...*

**ETSAI:** *Ixo, ixo, ... Ea Marisorgiñ... Zurrut eiñ naibaen eta nik dakian guztie jakin nai baen, esaian zekiñ einda daun...*

**MARISORGIÑ:** *Utziazu ikuitzen... Nik ustet, dauken usaiegatik ta iurtzi latza daukenez... Baakit... Putre-mokoz, Etsai, putre-mokoz ...*

**ETSAI:** *Putre-mokoz, ja, ja, ja, ... Putre-mokoz... Ai gaixoa, gaixoa, irire asko falta zain oaindio bear bezelako sorgiñe izateko... Bestaten bearkoen... Iñorrek ez dakizue urdun...???*

**ARTIÑEKO JABIER:** *Eztiat ba esan, nik baakiala...!!!*

**ETSAI:** *Ea, esazak, esazak, ...*

**ARTIÑEKO JABIER:** *Eta geo nik nai deana eitten utziko al diak?*

**ETSAI:** *Nai deana, nai deana gizona...*

**ARTIÑEKO JABIER:** *Apaize izatene utziko diak urdun...???*

**ETSAI:** *Baietz ba gizona... Ik esate baek, nai deana... baño azkar, etxeare jun bear diau ta...*

**ARTIÑEKO JAVIER:** **(Poltsikotik beste edalontzi igual-iguala ateratzen du).** *Au ikuste al dek?*

**ETSAI:** *Baño nundio ata dek oi...? Zeñi lapurtu diok...??*

**ARTIÑEKO JAVIER:** *Lasai, lasai,... I bakarrik ezaiz mundun ta beste geioke gauez ibilli nai diau...*

**ETSAI:** *Lotsagabea, neren berdiñ-berdiñe dek gaineare... Esazak, esazak,...*

**ARTIÑEKO JAVIER:** *Ja, ja, ja,... Ezon asko uste, baño nik e Etsai izanaidiat... Belazarran isatsa janda ibilli bearcoek emendio aurrea...*

**ETSAI:** *Esazak tximistek bi puska eittea nai ez baek...*

**ARTIÑEKO JABIER:** *Ja, ja, ja,... Nerea bezelaxe eindakoa baldin baek... ja, ja, ja,.. illargibeteko gauetan moztutako ankatako azkazalakiñ eiñdakoa Etsai...!!!*

**(SORGIN GUZTIAK HARRITUTA: Aaaa,.....aaaagggggg....)**

**ETSAI:** *Ondo zeok, nai deana eintzak ortio aurrea...*

**ARTIÑEKO JABIER:** *Ea ekarri tiña oi... Jaune eman beaizuet danoi...*

**(SORGIN GUZTIAK IKARATUTA: Eeee,...eeeeeeeeeeee...)**

**MARISORGIÑ:** *Jaune eman...? Baño, baño,... Javier, ez al da geitxo izango...?*

**ARTIÑEKO JAVIER:** *Ekai eta jarri emen tiñea... Zuek zertzeate sorgiñek eo txoliñek...*

**(SORGIÑEK TIÑA-ONTZIA JARTZEN DUTE ERDIAN).**



*kek bildurrez aiden... Bakarrik jun bear al dek...???*

**ARTIÑEKO JABIER:** *Ta zen bildurre izan bear diñat ba...? E???*

**MARISORGIÑ:** *Gaue gauekontzat esaten die ta etzekiat ba, etzekiat...*

**ARTIÑEKO JABIER:** *Alde, alde etxea... Zuek zeate sorgiñek zuek...!!!  
Alde Mikela, alde...*

(MEGAFONIA: TRUMOI HOTSA).  
(SORGIÑAK IZUTUTA ELKARREN ONDOAN).

**MARISORGIÑ:** *Otxomazue neskak, otxomazue... beak ikusikoiñ...*

**MARIZIKIÑ:** *Zainduai... Kontuz ibilli Javier...!!!*

\* \* \* \* \*

(NESKA SORGIÑAK DENAK IRTEN. ARTIÑEKO JABIER  
BAKARRIK).

(MEGAFONIA: trumoi-hotsa).

**ARTIÑEKO JABIER:** *Bildurre, zorioneko bildurre... Emendio Telletxea  
beelaxe sartuko nok...*

(MEGAFONIA: TRUMOI ETA HAIZE-HOTSA...)

(ELIZAKOAK AGERTZEN DIRA BERA DAGOEN INGURUAN).

(ABESBATZAK Eliz-giroko kantua, Kandelaz inguraturik...)

(ARTIÑEKO JABIER korrika beldurrez... batera eta bestera  
dabill larri... ELIZAKOAK izkutatu... TELLETXEN atea jo...  
Dan-dan-dan... Atea irekitzen diote).

**TELLETXEKOAK:** *Zer deu ...? Zer gertatzea???*

**ARTIÑEKO JABIER:** *Ezerrez... Eman zakur bat, eman zakur  
bat...Talo puskat e bai...*

(ZAKUR-ZAUNKA).

(Bitartean, ELIZAKOAK bere inguruan.... Zakur-zaunka  
TELLETXEKOAK zakurra eta taloa ematen dio).

**TELLETXEKOA:** *Artu, daukeun zakurrik onena.. Artu taloare... Bide luzea daukek oaindio etxeaiño...*

**ARTIÑEKO JABIER:** *Lasai, lasai, beelaxe naiz... Gabon...*

**TELLETXEKOA:** *Baita irire...*

(ABESBATZA KANTUAN ari da.

(TRUMOI-HOTSA...)

(ABESBATZA ISILDU).

**ARTIÑEKO JABIER:** *Lasai Javier... Lasai... Laioatio beera oa ia... Mateo-txistu atatzea besteik etzaiak falta...*

(ZEZEN-GORRIA agertzen zaio zalaparta batean...  
Hasieran beldurtu egiten da baina zakurrarekin aurre  
egiten dio... ZEZEN-GORRIAK OSPA...)

**ARTIÑEKO JABIER:** *Oaintxe eiñdiat earra... Taloa bukau... (Zakurrak ospa). Etorriai onea... Lauztiazpiako bidea emen nunbait dek ba...*

(TRUMOI-HOTSA).

(ELIZAKOAK BERRIRO).

(ABESBATZA KANTUAN BERRIZ ERE).

(ARTIÑEKO JAVIER zalapartan, korrikan, arnasestuka...)

**ARTIÑEKO JABIER:** *Ai, ai, ai, ai...*

(ARTIÑ Baserrian sartzen da. Atea ireki eta kolpe haundi batez ixten du).

(ABESBATZA ISILDU).

**(KONTALARIA edo MEGAFONIA:** *Gau hartan, ARTIÑgo behiek ez omen zuten onik izan. Ba omen zen makakorroia, adarrotsa eta gan-beilajotzea...)*

**MEGAFONIA: BEHI-MARRU HOTS HANDIAK...)**

**TXALAPARTA.**

**ABESBATZA. (Atso Zaharraren kanta).**

---

## 1992- BASAJAUN (Euskara batu aldera)

**Musika.**

**Argia.**

**Kobaurrea.**

**Hiru ikazkin lanean. Ikazkinetako bat Samartin Txiki da.** Aizkora eta egur-trunpilak inguruan dituzte. Hizketan ari dira elkarrekin.

\* \* \* \* \*

**IKAZKIN 1: (Lanari utziz).** *Aspertu nauk!!! Ikatz egin eta ikatz egin, beti zikin eta beti ezin!!!*

**(Beste bi ikazkinak algaraka).**

**SAMARTIN TXIKI:** *Egia dek. Lizarrustiko lekurik polittena dek hau, Askoa, baina ez lanerako...*

**IKAZKIN 3:** *Ez egin ametsik mutilak! Zikin eta ezin izango gaittuk bizi guztiñ!!!*

**IKAZKIN 1:** *Ez diat uste! Buruan daukadana ondo ateratzen bazaidak, ez diat eskurik asko zikinduko...*

**SAMARTIN TXIKI:** *Zer egin nahi dek? (Jakin-minez).*

**IKAZKIN 1:** *Laster etorriko dek Basajaun! Gure mende hartuko bage-  
nu eta herrira eramán, diruak egingo genizkikek , batean eta bestean  
erakutsiz!*

**SAMARTIN TXIKI:** *Basajaun menderatu? Hago isilik gizona!*

**IKAZKIN 3:** *Kontuz kukuak oker jo gabe !*

**IKAZKIN 1:** *Ekarri aizkora!!!*

(Ahal duen indar guztiz , egurrean sartzen du aizkora).

**IKAZKIN 1:** *Aditu ondo! Oraindik ez dek jaio, hori aterako duen kris-  
taurik!!!*

**SAMARTIN TXIKI:** *Ta?*

**IKAZKIN 1:** *Hago, hago!!!*

**IKAZKIN 3:** *Badakik, ikusi eta sinistu Santo Tomasena!*

(BASAJAUN agertzen da).

**IKAZKIN 1:** *Kaixo Basajaun! Zure beharrean gaude ba...*

**BASAJAUN:** *Nire beharrean? Zer behar duzue ba?*

**IKAZKIN 1:** *Ezin dugu aizkora atera. Zuk zure atzapar hoiekin,  
behatzak intzirrituan , pitzatuan sartuko bazenitu, beste aldean sar-  
tuko nuke nik gero aizkora...*

**BASAJAUN:** *Ea ba, ea ba... (Trunkoari eta aizkorari begira).*

**SAMARTIN TXIKI:** *Heldu, heldu beldurrik gabe Basajaun!!!*

**BASAJAUN:** (Behatzak sartzen ditu zirrituan. Ezinean). *Zaila  
zegok !!!*

**IKAZKIN 1:** *Oraintxe oraintxe... (Aizkora ateratzen du). Hau dek  
arrazoia!!!*

(Basajaun behatzak harrapatuta gelditzen da,  
enborretik atera ezin dituela).

**BASAJAUN:** *Ai, ai, ai...!!! Nire behatzak!!!*

**IKAZKIN 1:** *Heldu, heldu azkar...!!! Ekarri sokak !!! Lotu !!*

(Hiru ikazkinek menderatu eta lotu egiten dute Basajaun, behatzak enbor-zirriztuan dituelarik).

**IKAZKIN 1:** *Goazen, goazen azkar ...!!!*


**BASAJAUN:** (Garrasika, haserre). *Zer egin behar didazue? Damutuko zarete bizi guztirako!!! Damutuko zareteeeee!!!*

(Oihu handiak eginez).

(Denak izkutatzen dira, Basajaun lotuta eta bultzaka daramatelarik.)

**ARGIAK ITZALI.**

**TXALAPARTA.**



---

## 2000KO JENTILEN ETORRERA

### **AUZOETA KIROLDEGIKO ONGI-ETORRIA**

### **SOINUJOLE ETA TXISTULARI SOINUZ IRITSI.**

TRANPALDORA IGOTZERAKOAN, ARGIAK IT'ZALI, ESZENARIO-  
RA ARGI BAKARREN BAT, MUSIKA HANDIOSOA JARRI ETA  
LAINO ARTIFIZIAL ARTEAN, PERTSONAIA NAGUSIAK TRANPAL-  
DOAN:

MIKELATS ETA BERE EMAZTEA, TORTO SUGEAREKIN, ALKATEA  
eta BERE EMAZTEA, APAIZA eta SAKRISTAUA, AKOLITOAK kan-  
delak piztuta, SAMARTIN TXIKI (Aurreko urtean Apaizak galdu  
zituen sotana-liburuekin). MARIMUNDUKO, ETSAIA eta PRE-  
GOILARIA. Ondoan MIKELETEAK).

### **MUSIKA HANDIOSOA ISILDU.**

### **IRRINTZILARIA.**

**PREGOILARIA:** Turuta joz.

“BANDO, BANDO, BANDO,  
ALKATEK ITZEIÑ BEAR DO,  
BANDO, BANDO, BANDO,  
IXILLIK EOTEKO ESANDO!!!

**Turuta jo berriro.**

“BANDO,BANDO,BANDO,  
AURTEN APAIZEA EZTUE JANGO.  
BAÑO BANDO, BANDO,  
JENTILEK GAIZTO DIE IZANGO!!!

**Turuta jo berriro.**

**ALKATEA:** *“Erritarrok!!! Ezteu gauzonik!!! Pozik eoten gea eun au noiz elduko baño aurtene laztanak baño geio die ostikok ... Iaz, baakizue apezek Putterriko urrea ekarri zola... Ba arrezkeo asarre dare jentillek... Eztau mendiin gora juteik... Sugek artzaie jan, Arbeldiko neskea leizen eroi, Samartin Txikiri aizkorea bota... Arrotuta ibili die erabat jentillek ta eztakit ezer, baño kandelea baiño zuzenagoa izan dan Mikelats okertzen ai da ....*

**APAIZA:** *Jaungoiko soberanoa... Zuzena oi? Aker-gorriñ adarra baño okerrago izanda oi... Oker zuzenik ezta Alkate Jaune!!!*

**(MIKELETEAK APAIZARENGANA).**

**ALKATEA:** *“Ixo, ixo erretore jaune... Egie esan, Jentillek beste ezpal batekok ziela ustenuñ baño usteek ustel... Mingañe bai, badue, baño biotzik ezta baterel!!!....*

**TORTO:** *Biotzik ezteula guk... Alkate-makillekiñ neurtze al dek ik biotza? Biotza baeuke, ez uke jentilletaz ola itzeiñgo... Lotsaik eztaukek... Guk emanda edo gui kenduta daukezue daukezuen apurre...*

**(MIKELETEAK TORTOrengana).**

**APAIZA:** *“Lapurrek gu? Zeñek eta Tortok itzeiñ, piura orrekiñ... Alkate jaune, ok betekok die: azarik illea aldatzen do baño narrue ez!!!*

**ALKATEA:** *“Ixo erretore jaune, ixo... Alare, beste aukerat eman nai diet jentillei, danok ataundar gealako... Mikelats, ongi-etorri gue artea...*

**(BESARKADA MIKELATS TA ALKATEAREN ARTEAN).**

**MIKELATS:** *Alkate jaune, guk ezteu ez illeik ez narruik aldatzen ta gaiñeara, gustoa bizi gea gue narrun... Ta oaindiore zuek baño buru obea deu... Iaz ementxe ikusi gendun arrastaka apeztea, Samartin Txikik billau zittun mendiin be sotanak eta liburuk... Ta geo or etoi zan Putterriko urrekiñ eabat itsututa...*

**APAIZA:** *“Gezurrek anka motzak zetuk Mikelats... Mando earra itzen len ta oaiñ asto biurtu aiz Mikelats, asto...”*

**TORTO:** *“Putterriko leizen botako aut...!!!”*

**ALKATEA:** *Ixo, ixo, ixo mundu guztie... Itzeiñ dezala Mikelatsek...*

**MIKELATS:** *“Gu lengo beak gea... Eta guke badeu asarre eoteko arrazoirik.... Leizaiko Jentillei sutan jarri die ipurtaulkie, Putterriko urrea beti gurea izan dana Elizan jarrio apezek...”*

**APAIZA:** *“Jendea beldurrez daukezue... Ta ola bazaitzete madarikazioa etorriko zaizue zerutio... Zuek ikusikoazue...”*

**TORTO:** *“Madarikazioa guri??? Tximistek joko al au?”*

**APAIZA:** *“Nai dezuena esan baño zerua beidau besteik eztau erremate txarra izango zuela ikusteko...”*

**TORTO:** *“Guk eztaiu zerun beldurrik... Ta inpernunik gutxigo... Arrubioa baño faltsugoa zea zu eta zuek dauzkezue olako kezak, xaguxarrez beteta daukezue gorputze-ta....”*

**APAIZA:** *“Lotsagabea... (Izepuarekin ur-bedeinkatua Tortori.)”*

**ALKATEA:** *“Tia, izan gaittezen laun... Ea Mikelats, beize kandela bezain zuzena izate aizen!!!”*

**MIKELATS:** *“Saiauko nauk eta ea i, gue ezpal berekoa izate aizen ...!!!”*

**ALKATEA:** *“Gora Jentillek!!!”*

**DENEK ERANTZUN:** *Gora!!!*

**APAIZA:** *“Gora kristauek!!!”*

**DENEK ERANTZUN:** *Gora!!!*



---

## AZKEN JENTILAREN HISTORIA ZAHARRA

### **MUSIKA.**

**ESZENARIOA.** Leizadi mendiko kobazuloa eta bere ingurua. Gau bete-betea da baina argi-printzak ere badira, zuzi eta lastargi batzuk sutan baitira.

Musika isildu eta zuziak pizten ageri dira lau jentil. Bapatean, oso harrigarria egiten zaien izar bat ikusten dute.

**JENTIL 1: (Harrituta).** Hi, ikusi al duzue hori?

**JENTIL 2:** Baina, baina, zer dek hori?

**JENTIL 1:** Esaiok etortzeko MIKELATS-i!

(Jentil 3 eta 4, Mikelatsen bila doaz).

**JENTIL 2:** Baina ikusten al dek zer indar duen?

**JENTIL 1:** Nondik sortu duk hori?

**JENTIL 2 : (Ikaratuta erabat).** Gugana datorrela ematen dik...

(Mikelats eta Jentil 3 eta 4 azaltzen dira koba aurrera.  
Presaka bezala datoz...)

**JENTIL 1:** Mikelats, begira, begira!

**MIKELATS: (Izarrari begira).** Baina baina... Zer da hori? Ez diat inoiz hain izar ederrik ikusi! Ez diagu gauza onik!!!

**JENTIL 1:** Seinaleren bat izango dek...

**JENTIL 2:** Zer gertatu behar du Mikelats?

**MIKELATS :** Etzekiat, etzekiat... Etzioat itxura onik hartzen...

**JENTIL 1 :** Esaiguk zerbait mesedez!

**MIKELATS:** Zoragarria dek bai baina beldurgarria era berean... Ilargiak desegingo dik argi hori, bera dek-eta Gauaren egile !

**JENTIL 3:** Baina non da ilargia Mikelats?

**JENTIL 4:** Ez dek ageri!

**MIKELATS:** Deitu Jentil zaharrari! Ekartzazue hona!

**JENTIL 1:** Itsututa zegok Mikelats! Larehun urte zeuzkek!

**MIKELATS:** Ekartzazue! Inork jakitekotan hark jakingo dik zer den hori!

**(Jentil guztiak kobazulora sartzen dira Jentil Zaharraren bila. Mikelats bakarrik gelditzen da).**

**MIKELATS:** Sugarraren lana izango duk hori! Baina zein ederra den! Ikusiko ote dik Jentil zaharrak?

**(Jentilak agertzen dira kobazulotik, Jentil Zaharra erabat begiak itxita, besoetan dutela).**

Jartzazue hemen! **(Izarra ageri den lekura begira).**

**JENTIL ZAHARRA:** Zer dek Mikelats?

**MIKELATS:** Argi haundia! Argi haundiegia!!! **(Jentilei zuzenduz).** Hartu makilak eta irekizkiozue begiak.

**(Jentilek begiak irekitzen dizkiote).**

**MIKELATS:** Ikusten al du? Ikusi al du inoiz horrelakorik?

**JENTIL ZAHARRA:** "A ne umek! Kixmie jaio dek. Galduk gaittuk oaintxe. Galduk gaittuk oaintxe. Bota nazazuia ni emendio gain bera!!!

**MIKELATS:** Kixmi? Kixmi esan dezu?

**JENTIL ZAHARRA:** Bai, Kixmi, Kixmi...Galduk gaittuk, galduk gaittuk. Amil nazazue mendiz beera!

**MIKELATS:** Gureak egin dik!!!

**(Denak Jentil Zaharra amiltzera doaz garrasi batean).**

**DENEK:** Aaaaaaaaaaaaaa!!!!!!!!!!!!

**MUSIKA.**

---

## ETSAIAREN ESKOLA (1994)

### ARGIAK PIZTU.

**KOBA-AURREA.** Mahai handia. Gainean lurrezko edalontzi batzuk eta pitxarra. Inguruan apaingarriak.

(ETSAI agertzen da kobazulotik. Jentil itxura du baina larru gorritzak ditu estalki).

### ETSAI: (Harro mintzo da).

Etsai naiz ni, Etsai!  
Deabru deitzen naute baita ere. Beste batzuk Gaizkin, Galtxagorri,  
Txerren, Kinkilimarro.  
Iruadarreko esaten didanik ere bada.  
Non dittut nik adarrak e?  
Dena dakiena naiz ni. Zerbait ikasi nahi duenak nigana etorri  
behar du, nahi badu eta ez badu!!!

(Trasteak prestatzen ari da mahaiaren inguruan, norbaiten zain balego bezala).

(Gazte itxurako hiruzpalau ikasle agertzen dira bapatean).

**IKASLE 1:** Kaixo Etsai!

**BESTE IKASLEEK:** (Beldurrez). Zer moduz Etsai?

**ETSAI:** Ikasi al duzue zerbait? Badakizue zuetako bat nirekin geratu beharko dela betirako. Beste ezer ez dizuet eskatuko baina lan asko daukat eta laguntzaile bat behar dut...

**IKASLE 1:** Badakigu bai Etsai jauna. Neroni geratuko naiz zurekin betirako.

**ETSAI:** Ondo esana dago baina gaur aukera bat emango dizuet, nirekin geratu beharrik ez izateko.

**IKASLE 1:** Aukera bat?

**IKASLE 2:** Zer aukera?

**ETSAI: (Edalontzi bat hartuz).** Ikusten al duzue edalontzi hau? Begiratu ondo.

Zerekin eginda dagoen asmatzen baduzue, libre izango zarete!

Ja, ja, ja,... **(Algaraka).**

Begiratu ondo, begiratu ondo, ja, ja, ja,...

**(Ikasleak edalontziari begira daude zer esan ez dakitela).**

**ETSAI:** Nahikoa da, nahikoa da!

Zoazte, zoazte eta etorri gero, bisita espero dut orain eta... Ja, ja, ja...

**IKASLEAK:** Gero arte Etsai jauna, gero arte.

**(Ikasleek alde egiten dute).**

**(Berehala bi azti eta bi sorgin azaltzen dira).**

**SORGINA:** Prest al dugu akelarrea Etsai?

**ETSAI:** Bai, dena prest dago. **(Azti eta sorginei begira).** Bi azti eta bi sorgin.

Nahikoa eta gehiegi! Ja, ja, ja,...

**SORGINA:** Oso umore oneko ikusten zaitut Etsai... Zeintzuk ziren gu etorri aurretik joan diren gazte hoiek?

**ETSAI:** Nire ikasleak Mari, nire ikasleak... Baina oso gutxi dakitenak!

**SORGINA: (Jakinminez).** Zer ez dakite ba?

**ETSAI:** Ja, ja, ja,... Baso hau zerekin eginda dagoen galdetu diet... Ja, ja, ja,...

**(Kobaren inguruan, kurika, Ikasle 1 agertzen da, izkutuan zer entzungo).**

**SORGINA: (Basoa hartuz).** Ez dakit ba, ez dakit... Aker adarrez akaso?

**ETSAI:** Ez, ez,...

**AZTI 1:** Ezkur-azalez seguru!

**ETSAI:** Ez, ez, ez... Ikasleak bezain ezjakin zarete zuek ere!!! Ja, ja, ja...

**SORGINA:** Etsai...Tira, esaiguzu, zertaz eginda dagoen...

**ETSAI:** Ez, ez, ez...

**SORGINA:** Ez al duzu gugan konfidantzarik?

**ETSAI:** Ja, ja, ja...Esango dizuet ba...Ja, ja, ja,...

Entzun ondo. Ostiralez eta igandez moztutako azkazalez eginda dago edalontzi hau. Kostata egin nuen...Hogeita bost urte behar izan nituen...Ostiralero eta igandero azkazalak mozten. Ja, ja, ja...

**(Dena entzuten, izkutuan egon den Ikasle 1-ek ospa egiten du).**

**SORGINA:** Oso polita da. Bihar gaueko akelarrean hortik edango dut...

**ETSAI:** Nahi duzuna... Dena prest daukat... Bihar etorri...Ja, ja, ja,...

**(Aztiak eta sorginak joan egiten dira.  
Etsai bakarrik gelditzen da basoa eskuan hartuta.  
Ikasleak agertzen dira).**

**IKASLE 2:** Etsai, hemen gara berriro.

**ETSAI:** Ondo da, ondo da... Eta zer? Ba al dakizue edalontzia zerekin eginda dagoen? Ja, ja, ja,...

**IKASLE 2:** Nik ez dakit...Intxaur-azalez akaso?

**ETSAI:** Intxaur-burua haiz hi galanta!!! Ja, ja, ja...

**IKASLE 3 eta 4:** Etsai jauna, ez zenuen ba putre-mokoz egingo ala?

**ETSAI:** Putre-mokoz? Ja, ja, ja... Ez duzue asko ikasten... Ja, ja, ja... Eta zuk, zuk zer diozu? Ja, ja, ja,...

**IKASLE 1: (Basoa eskuan hartuz).** Ez da erraza... Baina azkazal itxura dute gaineko puska hauek...

**ETSAI: (Serioago).** Azkazal itxura?

**IKASLE 1:** Bai, zuk sarri-sarri mozten dituzun azkazalen itxura...

**ETSAI: (Ezin disimulatuz, barre behartua egiten du).** Ja, ja, ja...

**IKASLE 1:** Ez dira ba, ostiral eta igandez moztutako azkazalak izango ala?

**ETSAI: (Erabat harrituta).** Eeeee???? Nola arraio asmatu duzu?

**IKASLE 1:** Zuri ikasita Etsai jauna.

**ETSAI:** Ondo da, ondo da. Agindutakoa beteko dut. Nirekin geratu beharrik ez daukazue...

Segi, segi, badakizue nahikoa eta gehiegi!!!

**IKASLEAK:** Beste bat arte Etsai!

**ETSAI:** Ez esan ezer inori e?

**IKASLE 1:** Lasai, lasai Etsai Jauna... Beste 25 urte itxoin beharko dugu ezta?

**(Ikasleak guztiek alde egiten dute).**

**(Etsai bakarrik gelditzen da harrituta).**

**ETSAI:** Beste hogeita bost urte? E?

**(Basoari lehendabizi eta gero eskuetako hatzei begiratzen die).**

**ARGIAK ITZALDU.**

**MUSIKA. Trumoaia.**

---

## MIKELATS ETA ETSAI

**Bakarrrik geldittu die, aurrez aurre Mikelats eta Etsai. Zirikatzaile daille Etsai.**

**ETSAI:** Ara emen, Jentillen burue! Mendie aiñeko gizon puskea. Mikelats esaten diuena!!!

**MIKELATS:** Zer nai dek ik? Ire, eingo aizena einda au, lotsagabe oi!!!

**ETSAI:** Ja, ja, ja,... Upela aiñeko andreare artuon ta uere ezur da azal geittu zaik. Alabare ipurtaundi ta tripa-zaku earrekoaon, baño oaiñ batez. Bate eztek oain!!!

**MIKELATS:** Zirika al ator, kakanarru oi? Ao ixillik!!! I baño lenaukoa nauk ni emen, aitzealdeak? Leizeik e etzanen, emen nittuan ni... Lurren autse besteik ezon emen... Beaz, azti asi zirika!!!

**ETSAI:** Zirika? Mikelats, Mikelats... Azkarragoa intzela uste nian. Gizonak eztik lotsaik bear egie aitortzeko ta ia ez aiz gauza jentillen burungarri izateko...

**MIKELATS:** Ze oteakik ik? Jentillen buru nor izangoan, jentillok earabakiko diau.

**ETSAI:** Eztie erabagitzen lan aundik izango... I ikusi eo Torto ikusi, bazeok aldea. **(Mikelatsen aurpegia igurtziz)** Masaillek earki iartuta dauzkek Mikelats ! Azal utse aiz !!!

**MIKELATS:** Eta i? Ikatza lore zanen sortue izango aiz i, mutur-beltz oi!

**ETSAI:** Bai, bai,... Nik bazekiat ne burun berri: illargi-beteko gauetan ikusteiat ne burue Lareoko osiñeko uretan ta moztubeko katu-bixar au gogoko diat, ta, ja, ja, ja, beste zenbaitek ere bai...!

**MIKELATS:** Gizon-erdie aiz i! Alde emendio!

**ETSAI:** Mikelats, Mikelats! Nun dek garai bateko itzala, e? Beidau besteik etzeok: lepoa leortu zaik, ipurdie lasau, mamiere gutxi, kolore txarra ta gaiñeara suturre luzea!!!

**MIKELATS:** Bai, egie dek!!! Ezurrek larrui josita zeuzkeat... Ta ze? Odola biziik zeukeat oaiñdio zaiñetan, odol garbie gaiñea ta eztiat ankagañen ibiltzeko iñungo lotsaik...

**ETSAI:** Odol garbie? Ezkurre janda? Putreen saldea eanda?

**MIKELATS:** Bizitzeko naikoa ta gehiegi! Bela-zarran isatsa obea al dek ala?

### (Kantuan hasten dira elkarri)

**ETSAI:** Zuzen intzana oker,  
aiden dijon ostoa,  
pago lerdien intzana  
igartu dan lasto.

**MIKELATS:** Sugegorrie aiz i,  
Etsai beltz ustela,  
ospa ne aurretio  
ilko aut bestela.

**ETSAI:** Lasai Mikelats, lasai,  
ez urtu ezurrek,  
urik e, ezti artzen  
lepoko zintzurrek.

**MIKELATS:** Zizta egin nai diak,  
mizto zikiñekin,  
baño enauk bildurtzen  
oi nai baek jakiñ.

(HERIO azaltzen da inguruan beltzez jantzita).

**ETSAI:** Utzi ie lekue,  
Torto anaiai,  
ne pozoi-salda dana  
ez baek ean nai.

**MIKELATS:** Ie salda itzako,  
suegorri zikiñe,  
sokaz lotuko diat  
Etsaien mingañe.

(Mikelatsen ondo-ondora hurbiltzen da Herio eta hankaz  
gora botatzen du Mikelatsek).

**ETSAI:** Arro, arro gañeara... Ezurrek dar-dar dauzkek ikaraz ta alare  
eoskor?

**MIKELATS:** Gorputzeko illea tente ta arnasea dean bittarten, betiko  
eutsiko zeat ne itzei. Eta aspaldi esan nioan Mari amari: ama, ama  
nerea, ezurrek lokatz biurtu arte, Jentillen buru izango naiz...

**ETSAI:** Ai Mikelats, Mikelats... Aizek eamango zetuk ie itzek... Torto  
jarriko diau buru. Eorrek ikusi, baño belaunek okertuta eta lurren mar-  
kututa ikusteaut denboa asko baño len... Ja, ja, ja,...

**MIKELATS:** Alde, alde emendio! (**Etsairi eraso Mikelatsek**) Tximis-  
tek arrapauko al au, kakanarru orri! Narrutu eiño aut!!!

**ETSAI:** Narrutu? Ja, ja, ja,... Oskola gorra zeukeat, ja, ja, ja,...

**(Mikelatsi bultz egin eta ospa egiten du Etsaik. Mikelats bakarrik).**

**MIKELATS:** Mari ama! Lagundu, iriki ne begik, ze eiñ bear dean jakittekko. Baño auxe esateizut : azpi-sugeok eztue nai duenik eiño!!!  
Ez oixe !!!



## BERTSOAK



### Jentilen Etorrerako historia bertsoan

**1-** Jentilen Etorrera  
urteroko festa,  
pilotaleku dena  
topera beteta.  
Gure mito zaharrak  
daudenak gordeta,  
ateratzen ditugu  
merezi dute ta.

**2-** Aspaldi hasi ginen  
langintza honetan,  
aurreneko pausoak  
emanda brometan.  
Gauza bat aitortzen dut  
erabat benetan,  
lehenago ez hastea  
nagola penetan.

- 3- Orduan zer giro zen  
ondo ulertzeko,  
esan beharko dugu,  
“zuk” ez harritzeko.  
Galdera zen, zer egin?  
festa hobetzeko,  
lo zegoen jendea  
pixkat suspertzeko.
- 4- San Gregorio-Aian,  
giro mundiala,  
festa-sasoi aparta  
ta espeziala.  
Hemen berriz, ezer ez !!!,  
jai-giro maxkala,  
denbora luzez ezin  
segi zeiken hala.
- 5- Beraz zerbait egin nahi  
hemendik sortua,  
zerbait orijinala  
Atauni lotua.  
Herriko historian  
ondo errotua,  
giro hortan sortu zen  
jentilen kontua.
- 6- Oraindik buruan dut  
hasiera hura,  
ideia polita zen  
baina mila duda.  
Salto egin behar zen  
lehengo mundura,  
horrelaxe hasi zen  
gure abentura.
- 7- Ondo gogoan ditut,  
Munduren esanak,  
*“Zaindi artu zetuaui  
betiako lanak”*.  
Nahizta ez diren bete  
gure asmo danak,  
ez dira asko okertu  
guk geneuzkan planak.
- 8- Bilera antolatu  
ta lanari ekin,  
ezin gara ahaztu  
bildu zirenekin.  
*«Zer egiñ beartzen e,  
kasi ez genekiñ»*,  
baina ilusioa  
genuen gurekin.

**9-** Nolatan ahaztu ba,  
jende baten lana,  
esku bat botatzeko  
zeukaten afana.  
Ezer eskatu gabe,  
hutsaren truk dana,  
ai orduko giroa,  
baletor gugana !!!

**10-** Pentsatze hutsak ere  
zirrara sortzen dit,  
oilo-ipurdi latzak  
ateratzen dizkit.  
Zenbat lagundu zuen  
jendeak badakit,  
eskerrik asko denei  
zuen lanagatik.

**11-** Holaxe hasi ginen,  
laurotegita baten,  
Jentilak zetoze  
herrian esaten.  
Pixka bat kostatu zen  
fundamentuz hasten,  
erori gabe ez da,  
ez, oinez ikasten.

**12-** Kanean jartzen ziren  
bi-hiru letrero,  
ekaineko Garaipen  
Jaietan urtero.  
Hasieran gauzez zen  
afaldu ta gero,  
tripa ondo beteta,  
animoak bero.

**13-** Lasai afaldu eta  
gauerdi aldera,  
irteten ginen denok  
gustora kalera.  
Iztatorren zai jarri  
noiz hasiko ote da?  
han zetozen jentilak  
menditik behera.

**14-** Arrateta aldetik  
jentilen orruak,  
entzuten ziren garbi  
oihu ta marruak.  
Antortxak eskuetan  
gainetik larruak,  
bor-bor egiten zigun  
guztioi barruak.

**15-** Plazatik gora berriz,  
herriko kristauak,  
Alkate-mediku ta  
Apaiz-Sakristauak.  
Giro zoragarria  
sortzen zuen gauak,  
ezin errespetatu  
betiko arauak.

**16-** Kalea ilunpean  
ta mendian suak,  
txalaparta soinuez  
eman abixuak.  
Mendian akelarre,  
Sorgin-intxixuak,  
Samartin Txiki eta  
Jentil indartsuak.

**17-** Joxe, Ramona, Martin,  
Txatin ta Klaudio,  
Putterriko urrea  
zenuten balio.  
Hauxe esaten diet  
denei hemendio,  
gure bihotz barruan  
*“zeate oaindio”*.

**18-** Ondoren desfilean  
guztiok plazara,  
bazterrak apainduta  
lehengo erara.  
Gurdi, asto ta idi,  
zaldiak ikara,  
ta Agerreko Juanek  
urrezko izara.

**19-** Urte batean larri,  
izan zen apaiza,  
bere bizi-tza ezin  
inork garantiza.  
Zaldi gainean zuri,  
zirudien tiza,  
dardarka jarri zuen  
Ataungo Eliza.

**20-** Ta gogoan daukagu  
Agerreko Jauna,  
desfilea ohean  
behin egin ziguna.  
Begiak erdi-itxita  
kopeta iluna,  
harrigarri egon zen  
Nikolas laguna.

**21-** Pertsonaje handiak  
badira tartean,  
Torto urte batean  
ta Etsai bestean.  
Batzuk on papelean  
ta tonu fuertean,  
besteak berriz beti,  
langintza tristean.

**22-** Hemendik zenbat jende  
pasatu ote da?  
erantzuteko oso  
zaila den galdera.  
Esan beharko dugu  
gutxi gorabehera,  
zerbait egin dugunak,  
bostehun bat bagera.

**(Jon Aizpuruak Jentilen Etorreraz).**

## **S**abino Auzmendiren esker-bertsoak Mikelats pertsonaia antzeztu behar izan zuelako

2002 ko abenduaren 13 an, afaria egin genuen Jentil Etorreran parte hartu genuenok Aizkoate elkarte zaharrean.

Afaldu ta gero, bertso hauek kantatu zituen Sabinok.

- 1- Lagundu nahirik hain pauso zail bat  
nik eman det azkenean,  
estuasuak pasatzen dira  
talenturik ez denean.  
Maisu haundi baten lekua bete  
behar nuen zuzenean,  
zer egin dedan konturatuko naiz  
bihar esnatzen naizenean. (biz).
- 2- Joxe Bikuña gaixotutzeak  
ekarri zuen hau dana,  
horregatikan azken orduan  
etorri ziran nigana.  
Honelakotan nola ez eman  
bihotzez pozik daukana,  
aitortzeizuet horrexegatik  
dala nik egin dedana. (biz).



3- Talde bikain bat aritzen da hemen  
hau guztia antolatzen,  
batzuk gaiak preparatu ta  
besteak ikasi ta lantzen.  
Larrialdian nola saiatu  
haueri pixkat laguntzen,  
oso gogorra ez bada behintzat,  
gure bihotza biguntzen. (biz).

4- Jentil zarraren papela nuen  
oso ondo aukeratua,  
ni nola naizen haien antzera  
jakintz gabe geratua.  
Mendi aldean bizi naizena  
kaletikan baztertua,  
hala ere pozik estimatzen da  
noski holako tratua. (biz).

- 5- Inoiz kalera jexten geranen  
baditugu aurkariak,  
horretan majo saiatzen dira  
gure apaiz-hizlariak.  
Hauen ustetan gu gera hemen  
bakarrik pekatariak,  
orduan nola ditu herriak  
gaur dituen miseriak. (biz).
- 6- Zueri esker izan da noski,  
hankarik ez badet sartu,  
ta harritzen nago, ni honen gozo  
zergatik nauzuten hartu.  
Inoiz ez nuen nik pentsatuko  
hau nezakenik lortu,  
jendea pozik zala ikustean  
bihotza zitzaidan “lertu”. (biz).
- 7- Lehengoa ta azkenekoa  
neretzat izan liteke,  
nahizta saiatu hauek ikasten  
gau eta egun, jo ta ke.  
Gainera apaizak, gure aurkako  
badute hainbat atake,  
nahizta ikusi gure antzera  
dabiltzaka berauek e. (biz).

- 8- Nigatik egin dezuten dana,  
orain nahi dizuet eskertu,  
bihotzetikan diot hau eta  
etzazute gaizki hartu:  
talenturikan duen edo ez  
proatu gabe ezin neurtu,  
nik besterik zer emango dizuet  
nahiz hortarako egon gertu. (biz).
- 9- Zuen babesak gorde ninduen  
ni egon nintzan neurrian,  
bestela nola hartu patxada  
hainbeste jende aurrian.  
Ezer gehiago etzan aurkitzen  
nere talentu urrian,  
batek zailago ikusten ditu  
gauzak beti bere berrian. (biz).
- 10- Mikelats zarra badoa orain  
zuen mundutik aparte,  
lasaitasunez korritutzea  
mendi, baso ta sasarte.  
Eztet damurik ekintza hontan  
zuekin hartua parte,  
guztiagatik mila esker ta  
berriro etorri arte.(biz).



## Beste bost bertso kantatu zituen afarian, Xabier Leteren Habanera doinuan.

1- Azaroaren seiko eguerdian  
telefonoak txirriña jotzean,  
Santi Etxeberria zala zion  
nik nor zan galdetutzean.  
Zergatik deitutzen zidan  
berak neri azaltzean,  
ikusi nuen zeundetela  
zuek halakoxe trantzean,  
konponbidea zegoela  
nik bertan parte hartzean,  
pixka bat pentsa ondoren  
jarri nintzen baietzean.  
Galdetzean arratsaldean  
egongo al nintzan etxean,  
erantzun nion ezetz baino  
noski baietz iluntzean.

- 2 Iluntzean joan ziran,  
Joantxo ta Iñaki Rezola,  
neretzako hainbat papel  
eskuetan zituztela.  
Konturatuko ziran ni  
oso urduri nengoela,  
nahi arren disimulatu  
ezin bai nuen inola,  
oroitu nintzan Santiri  
baietza eman niola,  
ta hitza eman ezker  
bete beharra dagola,  
orduan bai zebilela  
bor-bor zainetan odola,  
ikusi nuen lanari  
ekin beharra zegola.
- 3- Hurrengo egunean goizetik  
nik ekin nion lanari,  
zeukan guztia eskatuz  
noski bere buruari.  
Lehen ere hainbat alditan  
nik egin izan det hori,  
baietz esan ta hutsegin  
ez nion egin nahi inori,  
harrokerizko haizetan ere  
nik ez nuen nahi erori,  
sari gertatzen zaio hau  
arin jokatzen duenari,  
hau ta gehiago zor nion  
zuek egin dezutenari.



4- Egun hauetako lanak  
hau du bere ondorena,  
nik berari eman nion  
neukanikan onena.  
Batek egiten duenean  
gau ta egun ahal duena,  
ez du zertarako senti  
nahigabe eta pena.  
Ona edo txarra izango da  
gero berez datorrena,  
hau izan zan ni gehiena  
kezkatzen ninduena,  
nere huts batek galtzea  
lagunek egin zutena.

5- Hau guztia bukatzean ni  
ederki nintzen lasaitu,  
baina pasatu nuena,  
luzaro nahi dut oroitu.  
Lehendik lagun gradenak  
gero gehiago anaitu,  
horrela zailtasun danak  
noski ditzagun garaitu.  
Gaurtik nik bidexka honi  
zuzen nahi diot segitu,  
puskatuta gabiltzanok  
lanaren bidez elkartu,  
honetan lana eginaz  
Jaunak laguntzen bagaitu.

**(2002 ko abenduak 13, ostiralez).**

## **B**IBLIOGRAFIA

- Jentilen Etorreran moldatu eta antzeztu ditugun ipuin gehienak Joxemiel Barandiaran handiak Ataunen bildu eta jasotakoak dira.
  - Pertsonaia, kontu eta historia berriak Jon Aizpuruak sortuak dira.
  - “El mundo en la mente popular vasca”. I, II, III eta IV zenbakiak. Joxemigel Barandiaran eta laguntzaileak. Eusko Ikaskuntza. Auñamendi argitaletxeak Auñamendi bilduma. 1960 eta 1966 artean.
  - “Mitologia Vasca”. Joxemiel Barandiaran. Txertoa argitaletxea. 1996.
  - “Diccionario de Mitologia Vasca”. Joxemiel Barandiaran. Txertoa argitaletxea. 1984.
  - “Magia y religión primitiva de los vascos”. Anastasio Arrinda. 1985. A.A.A.
  - “Mitoen bilakatzea. Akaberak eta iraupena”. Anuntxi Arana. Gatu-zain argitaletxea. 2004 abendua.
  - Jentilen Etorrerako antzerkietako gidoiak, bertsoak eta kantuen letrak Jon Aizpuruak sortuak eta prestatuak dira.
  - Aio, Aio, Aio izeneko kantuaren musika Joxerra Gartziak egina da.
  - Kantu tradizionalak berregokitzea eta kantu berrien musikaritzea Maximo Aierbek egin du.
  - Amplius eta Miserere kantuak, Ataungo Joxe Querejeta organo-jolea handiarenak dira.
  - Liburuan agertzen diren testuak eta apunteak Jon Aizpuruarenak dira.
  - Argazkiak, gehienak, antolakuntzaren esanetara aritu den Andoni Aizpuruak eginak dira.
- Liburuan agertzen diren beste argazkiak: Pepe Perez, Javier Areitio, Jexux Aizpuru, Martin Arruabarrena, Santi Etxeberría, Joxe Begiristain, Joxan Agirre eta Jon Aizpuruarenak dira.





## **A** GURRA

Joxe Antonio Artzek “Ortzia lorez, lurra izarrez” poema- liburuan dionak, ondo adierazten du nire ustez Jentilen Etorreraren historia eta bidea: *“Ihunbetatik irten bai, baina argitara iritsi ez...: hori da ametsa, eta hori, bizitza”*.



JENTILEN ETORRERA

Liburu hau  
2005eko urrian amaitu zuen  
ANTZA inprimategiak.



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Gipuzkoa**

Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentua  
Departamento de Cultura, Euskara, Juventud y Deportes



ATAUNgo UDALA